

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarreak argitaratu du obra hau, elkarreaken sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

BBV Fundazioa

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

IDAZKI HAUTATUAK

WILHELM von HUMBOLDT

Idazki hautatuak



Euskaratzailea: Pello Zabaleta
Berrikuslea: Joxe Azurmendi
Hitzaurregilea: Clemens Menze

Lehen argitalpena: 2001eko otsailean

© Itzulpenarena: Pello Zabaleta
© Klasikoak, 2001
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia

2001-III-8

ISBN: 84-88303-29-7
Lege gordailua: BI.-445-01

Fotokonposaketa: L&A Diseinua
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

Wilhelm von Humboldt
Bizitza, obra, eragina

Wilhelm von Humboldtekin erdiesten du Alemanian bere gailurra mugimendu humanistiko berriak, gizakiaren prestakuntzaren [«Bildung»] teoriaren oinarriekin. Bere gaia gizakiaren izatea eta xedea da. Lessing eta Herderren ideien mundua lotzen du Argien Aroko filosofia herritarrekin, Leibniz eta Kanten filosofiekin, eta zati psikologiko, antropologiko, estetiko, hizkuntz filologiako eta hizkuntza filosofiako pila bat bildu zuen; haietan, gizakiaren giza izatea hura jaio den kultur inguruarekin eta gizartearen hartzen duen egitekoarekin mendegabe planteaturik dago arazoa. Ez zuen lortu horiek bere obran, obra handi batean jasotzerik. Abiapuntu desberdinetatik behin eta berriz abiatutako ahaleginak, giza izatearen muineraino eta hizkuntzaraino eramanez ahaleginak, zatikaturik geratzen dira, bat-batean eteten dira edo egitasmo berritara daramate. Hogeita zortzi urte zituela, idazten dio Schillerri 1795eko irailaren 28an, zera: «Hasten dudan oro ikuspuntu batetik heltzen dut, eta sekula ez ditut uzten bildutako guztitik ikuspuntu horri dagozkion ondorioak atera gabe. Hori aurrebaldintza bezala ipinirik, ezin diot aurre egin, ahal den bestetan eta neurrian, hura ikusi, jakin, aztertze gogorari». Gizakia eta bere munduko egoera desberdinak aztertze irrikak ez du apenas adierazpenik aurkitzen bere obran. Schillerri karta egin eta hogeita hamar urte geroago Welcherri

1826ko urriaren 26an egindakoan zera dio: «Niri ezinezko gertatuko zait beti gauza asko argitaratzea. Argitaratzeko zalantza gehiegiz eta oso astiro idatzi ohi dut; eta egiten ditut, gainera, ez bakarrik idazten dudanerako aurretiko ikerketa izugarri handiak, baizik sarri aurreikerketak egiten ditut gauzatzen ez ditudan lanetarako edo agertzen ez direnetarako, inork jakin ere jakiten ez duelarik ezer aurrelan horiei buruz... Baina niri beharrezko iruditzen zait egiten ditudan ikerketetan, alboan dagoen asko iragaztea, besterik gabe ziur egoteko han ez dela egin litezkeen oharkearen kontrako ezer ezkututzen. Baina nigan autoretzari trabarik gehien egiten diona sakon aurkitzen da bizitzaren nire ikuspegian. Negozioetan ibili naizen artean, egiteari gehiago begiratu diot egintzei baino; eta literatur bizitzan garrantzia gehiago ematen diot ikasteari sortzeari baino. Behinola ideia jakin bat izan dut, alegia, bizitza hau utzi aurretik, ahal beste ezagutu eta norberarenganatu behar dela gizakiaren barne azalpenei buruz, haietarako bakarrik baitut nik gaitasun egiazkoa, gainerakoa azaletik bakarrik interesatzen baitzait». Pentsamolde honek honetara garamatza, alegia, bere gutunek (haietatik hama bi mila eta bostehun inguru gorde eta zati batean bakarrik argitaratu dira), garrantzia apartekoa dutela. Jakingarriak dira benetan bere obren sorreraren historia, haiek egiten ari zela gidatzen zuten konbentzimenduak, eta ez azkenik bere obra guztien artean bakoitza nola sailkatu jakiteko. Humboldték berak ez dauzka bere gutunak argitaratzeko bezain inportantetzat. Gehiago ziren esperimendu alor, non berak bere iritziak eman zitzakeen jendaurreko azoketan salgai jartzeko. Gaur, gure garai hauetan, ezinbestekoak dira. Inpresio bizia eskaintzen dute sentimendu eta pentsamenduzko mundu batean, eta behin baino gehiagotan bere bizitzaren eta bere obraren komentario lortua dira. Ez dira bakarrik oso zabalduriko «*Neska lagun bati gutunak*», hemeretzigarren mendeko bigarren erdian irakurle burgesaren sentimen mundua finkatzeko egindako edifikaziozko liburu oso zabaldu horietakoa; edo «*Argi izpiak*», gutun zati urriak, gustura erabiltzen den sententzia liburu baterako gaia ematen dutenak baizik kasik klasiko bihurturiko gutunak Schillerri, Goetheri, Koeneri, klasiko alemaniarren artean ezin alboratuko lekua eska dezaketenak.

I. Bizitza

Ez bakarrik bere obretan, baita bere bizibidean ere jartzen du Humboldték bere ideia nagusia, gizakiaren prestakuntza, lehen lekuan, alor guztiak zertu eta zeharkatzen dituen lekuan. Hemezortzi urte gazteago Goethe baino, zortzi urte gazteago Schiller baino, argien munduan jaioa, hezkuntza suspertzaile bezain instruitzaile batek markatua, hasieran Campe (honek Rousseau eta argien garaiko ideiak ezaugarazi zizkion) izango du gidari, gero Kunthe, azkenik eta unibertsitaterako prestakuntza zuzen bezala Engel eta E. F. Klein, berehala jasotzen du espirituko askatasun eta subiranotasun bat, ideal zorrotzetatik urruntzen eta bizitza forma dudakorrean beretzat aski eta bere hartan osaturiko heziketa irekitzen diona. Beste ezerk baino garrantzia handiagoa dauka Göttingeneko ikasketak: han ezagutu zuen Ch. G. Heyne filologoa, antzinate grekoa ireki ziona; George Fosterren adiskide egingo da; J. H. Jacobirekin harremanetan hasten da; bere kabuz estudiantuz Kanten filosofia kritikoaren oinarriak bereganatzen ditu, eta bere inguruko ugaritasunetik irabazi handia erdiesten du. 1789ko uztailean abiatzen da, Campe lagun duela, Parisera, Iraultzaren eraginak sakon aztertzen ditu, eta honek bera hunkitzen eta une berean higuintzen du; ondoren, Iraultzak sutzen duen Campe gabe, Hego Alemaniara eta Suitzara bidaia egiten du, eta 1790eko urtarrilean funtzionario sartzten da pasante gisan Berlingo auzitegian; 1791ko udaberrian, «Legazioko idazkari» gisan utziko du auzitegia, eta 1791ko ekainean, Caroline von Dacheröden esposatzen du. Urte berean argitaratuko da bere «*Estatuko Konstituzioari buruzko ideiak, Frantziako Konstituzio berriak aukera emanik*»; horretan erlazio zaharren bat-bateko iraultketaren kontra eta astiro gauzatzen doan eraberritze baten alde azaltzen da. Ideia hauek azalpen sistematiko zehatzagoa aurkitzen dute «*Estatuaren eraginkortasunaren mugak zehazteko ahalegin baterako ideiak*» lanean: garrantzia handiko idaztia da hau, 1791ko udaberrian dagoeneko egina baina bera hil ondoren 1851an argitaratua. Giza prestakuntzaren ideia azpian jarritako estatuak barrurako eta kanporako eginkizun bakar bezala dauka herritarraren segurtasuna zaintzea. Gizarte bizitzan beronek dituen xede anitzekin ezin nahas daiteke. Eskubide erakundea da, ez hezkuntza erakundea, eta horregatik legezko askatasunera mugatu behar du. Jokatzen duen subjektua

nazioa da, eta hau da horregatik herritarren erlijioaz, heziketaz, eskolaz, ohitura hobekuntzaz, jokamolde politikoaz arduratu behar duena, baina horrela sortzen diren galderei dagokienez norbanako bakoitzaren ordezt erabaki ezin dezakeelarik. Estatuaren xedea segurtasunaren bermean ahitzen baita, herritarrek beren arazoak askatasunean egingdako elkarteen bidez aho batez konpondu behar dituzte. Beraz bereenez inizatiba hartu eta beren xedeetara jo behar dute. Bizitzaren xede erabakigarria da norberaren garapena, aurrez erantzukizuna eskatzen eta askatasuna posible egiten duena. Helburu zehatz horri loturik dago bitzta guztian tinko iraungo duen antzinate grekoarekiko ardura. Pindaroren Odak itzuliz hasten da Humboldt; F. A. Wolf, Alemaniako filologo klasiko ospetsuenarekiko harremanak bilatzen ditu. Wolfek Humboldt familian eguberriak pasatzen dituen batean, 1793ko urtarrean, sortzen da «*Antzinatearen, eta bereziki grekoaren, ikerketari buruz*» lanaren zirriborro handiago bat, geroago Wolfek berak bere ikerketa propioetan erabiliko duena; bere osoan argitaratu gabe geratuko da eta 1896an azkenik kaleratuko da. Christ, Gessner, Ernesti, Heyneren tradizioan ez bezala justifikatuko du antzinatearen ikasketa, eta ikasketa honen azken xedea aurkituko du «*Gizadiaren ezagutza antzinatean*» lanean. Schillerrekin 1794an Jenan egindako ezagutza eguneroko harreman bihurtuko da; haren eraginaren ondorioz datoz bi lan: «*Sexuen desberdintasunari eta natura organikoaren gainean duen eraginari buruz*» eta «*Gizakume eta emakume formari buruz*»; baina ez zuten inolako oihartzun baikorrik izan. Bere lanen objektu nagusi da orain berak oinarrituriko «konbarazio bidezko antropologia», gizakiaren garapenaz arduratzen dena. Bi ikerketa handi, baina amaitu gabeak datoz: «*Hemezortzigarren mendea*» (1796/1797) eta «*Konbarazio bidezko antropologia baterako plangintza*» (1797), arrazoi sistematikoak direla-eta amaitu gabe geratuko direnak. 1797an, Italiarako prestaturik zeukan bidaiaren egoera politiko nahasiagatik Parisera eramango du, eta han beste guztien gainera nazional frantsesaren eta estetikaren ikerketan ahaleginduko da. 1799an azaltzen da bere obra nagusia «*Saiakera Estetikoak*», eta honen jarraian etorriko da 1800ean Goetheren propileoetan «*Gaurko antzerki tragiko frantziarrari buruz*». Paristik Espainiara eta euskal probintzietara (1799/1800 eta 1801) egin zituen bi bidaietan hizkuntzaren esanahia eta balioa aurkituko ditu Humboldttek, hori geroagoko bere lanetarako giltza bilakatuko delarik. 1801eko udaberrian berriro Alemaniara

itzulirik, «Legazioko idazkari sekretu eta ministro prusiar Aita Santuaren Aulkiaren aurrean» izendatuko dute 1802ko maiatzaren 25ean. 1802ko azaroaren hondarretan bost seme-alabez nahikoa handi bihurturiko bere familiarekin iristen da Erromara, eta ekimen alor zabal bezain zaila aurkitzen du bere aurrean. Erromako bere egonaldia argitzen duen ikuspegiak bere ekimenaren zati bat baino ez du hartzen. Bere lanerako ez dauka ezta idazkari bat ere. Etengabe aurkitzen du anarkia eta pobrezia, herriaren ezintasuna eta miseria, pobreen eta aberatsen arteko amildegia, potentzia handien joko nahasia Italiaren eta Erromaren inguruan, hiriko gizakiengan duten eragin zapaltzaile eta egituratzailearekin. Humboldt ez da bere heziketa bizikizunengatik Erromara etorri den bisitari bat, baizik, sentimendurik gabe eta errealistikoki lanbide bat hartu eta bere ekimena alde batera utzita, Erromako eta Italiako eguneko errealtatearen berri eman behar dio bere erregeari Berlingen enbaxadako informetan. Bere lanbideari dagozkionetan sartzen dira erresumako konkordatuaren eta lurralde alemaniar bakoitzaren konkordatuaren arazoak, nuntziaturen eraikuntzak —helburua da gisa horretako akordioak eta eraikuntzak eragozte—, gotzain eta gotzaingoen arazoak, eta ezer baino lehen arazo jakin pila handi bat eta «*auziak*», bereziki ezkontza auziak, hala adibidez baliogabetzeak eta senitartekoentzako dispentsak, katoliko eta protestanteen arteko ezkontzak, apez eta erlijiosoen sekulartze eta habilitazioak, indulgentzia brebeak eta konfirmazioak. Bidenabar kontuan hartu behar zituen Erroman eta Italian herritar prusiarren legezko arazoak —denbora kentzen ziotenak—, bisitariak hartu behar zituen, bere mailari zegokion bezala bizi, kostuak eragiten zituen gizarte bizitzan parte hartu —soldata oso zuhur neurtua bazuen ere—. Consalvi kardinal idazkariarekiko harreman adiskidetsuak izan zituen, Vienako kongresuan Vatikanoarentzat eragin positiboa izango zituztenak. Bere lan zientifikoek hizkuntz ikasketak eta antzinatearen ikerketa hartzen dute: «*Latium eta Hellas edo antzinate klasikoaren gaineko gogoetak*» (1807?) eta «*Greziako hiri librean gainbeheraren eta hondamendiaren historia*» (1807). 1808ko urrian, familiako arazo batzuk konpontzeko bere seme Theodorekin Alemaniara bidaiatzen duenean, deia datorkio estatu idazkari sekretu eta zuzendari bezala Kultura eta Herri Irakaskuntzako zuzendaritza hartu behar duela Prusiako Barne Ministerioan. 1810eko otsailaren 28an hartzen du azkenik bere kargua Berlingen, eta ondoren erregearekin Königsber-

gera doa eta Prusiako hezkuntza eraketa berrirako baldintzak sortzen ditu, eskailera gisako batasun gisan oinarrizko eskolatik gimnasioan zehar unibertsitateraino iristen delarik. Königsbergen atal garrantzizkoena oinarrizko eskolaren eraketa da; 1810ean, Berlinera itzuli ondoren, Berlingo Unibertsitatearen eraikuntza, luzaz lehen lekua hartuko duena unibertsitate alemaniarren artean. Estatuko kontseilua eratzeko 1808ko urriaren 24ko aginduaren arabera, ataletako buru ziren kontseiluko idazkari sekretuek ministroek zuten ahots bera izango zutela, erregeak baliorik gabe utzi zuenean, horrek aukera eman zion Humboldt dimisioa eskatzeko. Horregatik 1810eko ekainaren hondarretan kabinetearen agindu baten bidez izendatzen dute «Bidali berezi eta ministro ahaldun Vienan, estatuko ministro sekretu baten izarearekin». Horrela hasten da hamarkada mugitu bat: Humboldt bere gaitasun diplomatikoak erakutsi ahal izango ditu Prusiaren onerako, eta ez konbentzimendu aberkoirik gabe nazioaren eta estatuaren askatasunaren alde oldar zeharrez joka dezake. Egoera politikoa Tilsiteko 1807ko bakearen ondorioez zehazten da hasieran, gailentasun frantziarra Europar indartuz eta Prusiaren joko alorra neurri nahikoa handian gutxituz. Frantziak Mosku aurrean jasaten duen porrotaren ondoren azaltzen dira aldaketak, azkenik 1813ko martxoan Prusia eta Errusiaren arteko Bratislabako hitzarmenekoan eta 1813ko ekainaren 4an aliatu (Prusia, Errusia) eta Frantziaren arteko meniara eramango dutenak. Hardenbergekek Humboldt deitzen du kuartel nagusira eta Prusiako ahaldun gisan Pragako kongresuan Austria bultzatzen du Napoleonen Frantziaren kontrako gerran sartzera. Napoleon Leipzigekeko nazioen gatazkan porrokatua denean, Humboldt tropei jarraitzen zaie, eta 1814ko otsailaren hasieran Prusiako ahaldun bezala egongo da Châtillongo kongresuan, Pariseraino segitzen du, ondoren Prusiako erregearekin Londresera doa, eta Hardenbergekin Prusiako bigarren ahaldun bezala esku hartuko du Vienako kongresuan eta horrekin batera Parisen datozen bake negoziazioetan. Bere bakezko sentimenduetatik hasten zaio Hardenberg mesfidatzen, eta Prusiako ordezkari gisan bidaltzen du Frankfurtera, han egiten ari diren lurralde negoziatioetara. Argitaratu gabe dago garai horretan jakintzen heziketa esanahiarentzat garrantzia duen atal bat: «*Jakintzak eta arteak herri batean zabaltzeko baldintzei buruz. Gogoan hartuz bereziki Alemania eta gaurko garaia*». Bere ikerketak, eta bereziki antzinateko Greziari buruzkoak, aurrera daramatza, eta 1816an argita-

ratzen du, behin eta berriro ekin beharreko lanaren ondoren, Eskiloren «Agamenon» itzulpena, hari aurretik ipintzen diolarik sarrera programatiko bat. Berlinera itzulirik, 1816ko otsailetik antzina estatuko kontseiluko bilkuretan esku hartzen du, eta 1817ko udazkenean Prusiako bidaliaren egitekoak hartzen ditu bere gain Londresen. 1818. urte amaiera aldera Akisgraneko kongresuan dago, eta 1819ko urtarrilean arazo konstituzionaletarako ministro izendatua izango da. Handik berriro Frankfurtera doa lurralde batzordeko arazoak konpontzeko eta Prusiarako konstituzio bat idazteko bere iritzia Steinekin trukutzen ahalegintzen da. Azkenik 1819ko abuztuaren hasieran hel diezaieke Berlinen bere funtzioei. Hango egoera inoiz baino txarragoa da bereztat. Are gogorrago bihurtzen da egoera aurrera doan askatasun oldarrak mesfidantzaz jasotzen dituen erreakzioari esker; eta Humboldték hori gaitzetsi egiten du. Karlsbadeko 1819ko irailaren 20ko erabakien kontra mintzo da, eta horrek erregea bere aurka jartzen du. Humboldték aurkezten duen konstituzio zirriborroa ez da gehiago ahotan hartuko. Indartsuegia da dagoeneko Wittgenstein Prusiako poliziako ministroaren eta Metternichen eragina. Erregearen konfiantza galtzen du Humboldték, eta 1819ko abenduaren 31n estatuaren zerbitzutik kendua izango da.

Alde batetik minduta dago Humboldt, berak Prusiarako presatatu duen konstituzioa aurrera atera ez delako. Beste aldetik pozik dago, azkenik estatuko zereginetatik libre egoki, bere nortasun garapena bizi ahal duelako eta luzaz atzeratu behar izan zituen egitasmoak gauzatzeko asti librea lortu duelako. Tegeleko bere etxea eraberritzeko K. F. Schinkel konbentzitzen du, eta honek, Humboldtén iritziei jarraiki, jauregitxo klasizista bat eraikitzen du, bertan bildu dituen antzinateko gai eta eskultura zaharren igeltsuzko kopiak egokiro jarri daitezkeelarik. Su handiz segitzen ditu bere lan zientifikoa aurrera, eta Leibnizek sortu zuen Prusiako Jakintzen Akademiako ekintzetan —bazkide baitzen 1808az geroztik— biziro parte hartzen du ekarpen sorta luze batekin. 1820an hasten du «*Konbarazio bidezko hizkuntz ikerketari buruz, hizkuntz garapenaren aro desberdinak kontuan hartuz*», eta urte bat geroago «*Histori-idazlearen egitekoari buruz*» tratatu bat gaineratuko du, honek aukera ematen diolarik Droyseni Humboldt «*Historiako jakintzetako Bacon*» izenda dezan. Garaitsu berean argitaratzen du «*Hispaniako lehen biztanleen iker-*

keten azterketa euskararen bitartez», euskaldunei buruzko monografia handiago bateko egitasmoaren barruan dagoena. Urtez urte hamarkada oso batez datoz saiakera eta tratatu berriak, bereziki hizkuntzalaritzari buruzkoak, haietarik aipatzekoenak direlarik «*Hizkien idazkeraz eta hauek sintaxiarekin duten erlazioaz*» (1824), «*Bhagavad-Gita izenaren pean ezagutzen den Mahabharatako gertakariaz*» I eta II (1825 eta 1826), «*Txineraren eraikuntza gramatikari buruz*» (1826), «*Dualari buruz*» (1827), «*Ozeaniako uhartee-tako hizkuntzei buruz*» (1828). Hizkuntzalaritzarekiko eta hizkuntz filosofiarekiko duen jakin-minaren ondoan, artearen sustapenez eta garapenez interesatzen da. 1825ean programa bat eratzten du Prusiako Arte Elkartarako; bera izango da elkarteko lehen presidente hil arte, eta bitarte horretan elkarteari buruzko hamar txosten prestatzen ditu; hauetan elkartearen egintzak, bere asmo eta egitekoak, beste arte elkarteekiko harremanak, ez azkenik artearen izaerari eta egitekoari buruzko bere iritzi propioak kontatzen ditu. Elkartekideen kopurua 1826ko 250 ingurutik 2000. raino iristen da 1835ean. Schinkelek prest daukan Berlingo museorako eraketa batzordeko buru izendatzen du erregeak 1829an. Azken zehaztepenetarako iristen den bere informea arrakasta handia lortzen du. 1830ean argitaratzen du Schillerekin izandako gutun trukea eta sarrera gisan ipintzen du Schillerren erreseina kritikoa orokor bat «*Hitzaurrea Schillerri eta bere espiritu garapenaren ibilbideari buruz*» eta errezentsio bat «*Goethek Erroman 1787ko ekainetik 1788ko apirila bitartean egindako bigarren egonaldiaz*». Urte berean deituko dute berriro estatuko kontseilura. Caroline bere emaztea hiltzean (1829) jendartetik gero eta gehiago erretiratzen da. Bizitzako azken urteak hizkuntzalaritzako bere obra nagusia egitera ematen ditu, alegia «*Java uharteko Kawi hizkuntzari buruz, lagun duelarik sarrera bat giza sintaxiaren desberdintasunari eta honek gizakien espirituzko garapenaren gainean duen eraginari buruz*»; bera hil ondoren hiru liburukitan —1836, 1838 eta 1839an— argitaratu da. Amaitu gabe geratu zen. 1835eko apirilaren 8an hil zen Humboldt, eta Tegeleko parkeko Itxaropenaren estatuaren azpian hobiratua izan zen. Ospe iraunkorra erdietsi du aparte ere argitaratu izan den *Kawi* obraren sarreragatik, gaur arte hizkuntzalaritza eta hizkuntz filosofia etengabeko gogoeta berrietara sustatu duen idatzi bat.

II. Obra

Humboldten obra osoa bera hil ondorengo hamarkadetan zehar izan da astiro berriro aurkitua, eta, bere gutunak bezala, ez da erabat osotoro argitaratua izan. Bere argitalpenak eta zatikako lantzeak giza-kiaren nortasun prestakuntzak markaturik datoz, hori izan baitzen bizitza osoko egitasmoa eta itxuraz oso urrun daudenak elkarren artean lotu eta sendotzen dituenak. Obrak eta zati ugariak zenbatuz elkarren ondoan ipintzen ibili ordez, hobe da lan hauek guztiak antolatzen dituzten oinarriko pentsamenduak lantzea; berrogei urtetik gora egindako lan eta argitalpenek funtsean berdin segitzen baitute muinean, baina abiapuntu desberdinetatik garatuz eta argituz. Bere egiturak ehotzen ditu azterketa sakon guztiak, eta bere gogarteei oso zabal harturiko osotasun batean zentzuz beteriko leku bat izendatzen die. Baldin altxatzen diren lanetako azalpen desberdinenetan oinarrian dagoena oratzeari ekiten bazaio, hiru puntu nagusi, beren artean bana ezin daitezkeenak, marka daitezke lehen kolpe batean: «gizaki, nortasun prestakuntza, mundua» titula daitezkeenak. Hiru kontzeptu hauek markoa zuintzen dute eta Humboldten pentsamendua mugitzen den bideak ebakitzen dituzte. Horiek adierazten dutenak balio du beren erlazio hautsiezinezkoa argitzeko eta haiek elkartzen dituen teoria kalifikatzeko.

Karl Gustav von Brinkmanni 1803ko urriaren 23an egin zion gutun batean idazten du Humboldtek gizakiarengan indarra dela egiazko aprioria. Gizakiari buruzko bere oinarriko ikuspegirako ohar benetan jakingarri honek aitortzen du indarra gizakiarengan engaina ezinezko jatorrizko eta azkentzat. Gizaki oro da bere izatearen arabera indar, gauzatze aktibo, energeia; bizitasun, eta apriorik esan nahi du beste ezer ezin daitekeela kanporatu eraketa horrez gaindi, ezinbestean hori jarri behar dela gizakia bere izatean eta jardutean ulertu ahal izateko. Jakingarria da ohar hau oraindik, nortasun prestakuntzari buruzko Humboldten pentsamenduak oldar erabakigarriak zor dizkion kontzeptu filosofiko batera bidaltzen duelako, Leibnizen metafisikara, alegia; izan ere, Leibnizek badenaren esentzia energeia bezala zehazten du eta hori indar hitzaz itzultzen du. Indarra, ordea, eragin-kortasuna ere bada, eta horregatik eragiten duena da bakarrik badena, bizi dena. Indar oro, berriz, zerbaiten arabera zehaztu behar da, era-

ginkor izango bada, helburu jakin batera jo behar du. Humboldttek, beraz, Leibnizen metafisikako oinarrizko tesi oso zabal batzuk hartzen ditu abiapuntutzat; baina ez ditu hartzen besterik gabe: bere pentsamendu propioen kontzeptu euskarri bezala erabiltzen ditu. Horregatik, noski, aldaketetara eta marko metafisikoaz konturatu arren, metafisikarekiko eten batera jo behar du, beretzat ez baita bade-naren definizioa bere osoan bere ikerketetako gai bikainena, giza norizate bakarkakoa, indibidua baizik. Bera erakartzen duen arazoa da: zer den indibiduo hori bere bakartasunean, eta zer lortzeko gara dai-tekeen eta garatu behar duen. Horrek esan nahi du gaiari buruzko ezta-baiden lekuan gogoeta metodologikoak datozela.

Muineko auziak, nortasun prestakuntzaren teoriaren garapenean humanismo alemanean gero eta indartsuago bide egin zuen eta orain Humboldttek paregabeko erradikaltasunez eragiten duen auziak, alegia, beste guztien aurretik suposatzen du gizakia aurretiko erlazio-etatik —estatua, gizartea, ekonomia, lanbidea, erlijioa— aparte azertu behar dela eta neurri objektibo finkoen arabera ez dela neurtu behar. Ezin interpreta daiteke gizakia berak gauzatzen duen jazotzetik aparte osagai apetzako eta trukagarri bezala, eta ez estatuko agintaritzaren ezta gizarteko premien, ekonomiako konbenientzien, erlijiozko irakatsien mende ere jarri behar da. Aldiz, gizaki bezala bera zer den, gisa horretan hartua izan behar du; ez funtsean apetzako egitekoen eramaile bezala, bere gizatasunak gizaki denez balio duenaren arabera, eta hain zuzen ere ez aurretiko mekanismo eta kate begietara egokiturik zerbaitetarako finkatua izan denaren arabera. Ez da ezer bestelako bihurtu behar, baizik bere burua bihurtu behar du, zerbaitetarako, hau da bere nortasuna prestatu behar du; eta horrek esan nahi du bere burua bere gizatasunean aurkeztea. Horrek esan nahi du bere izaeraren arabera egile bezala azaltzen dela eta objektuen lantzearen baldintza den berezkotasun hura ere bere duela natura bertatik, horretan harmena bera berezkotasun horren modu bat baino ez delarik. Gizakia azken batean eragin korapilo bat bezala, bere ingurunearen funtzio bezala saltzen duen antropologia mota ororen gaitzespena dakarte konstatazio hauek beraiekin. Gizakia ez da fabrikagarria, eta horregatik ixten da bere izatea eraso ulertzailearen kontra, eta ulerpene ez da iristen gizakia eratu eta bere bizitza osatzen duen indarrak gaindi. Baldin, beraz, ulermen orok isolatua ez, baizik indarren elkarrekingo-

an eta elkarrekikoan bere lekua aurkitzen duen indar horren mugetaraino gidatzen badu, indar horren bilakaera prozesua zehatz azalduko da, eta indibidualitatea eratu eta finkatzen duen indar horren eskakizun hobereana ekar dezaketen baldintzak agertuko dira. Bere indibidualazioa ez da jatorrizko indarraren ezpaltzea baino, apartatuak halaber berez presioa daukalarik jatorrizko indar horretara itzul dadin.

Derrigor gogoeta hauetatik mundua eta gizakiaren definizioa sartzen dira jokoan. Mundua, hasteko, da indibidualitate hori ez den guztia. Ez-ni bezala bera da objektuen eta ideien muina, gizakiari indarraren jatorrizko ondorio bezala, haren objektibazio bezala aurkezten zaizkionak, arrotz zaizkionak; baina une berean, ordea, berak sortuak bezala beraren bereak dituenak. Indarrak bere jardunean sortzen du mundu hau: baina mundu horrek ihardukitzen du indar horren gainean, eta hura zehazten du. Munduak ez du besterik esan nahi horregatik, Humboldten ustez, gizakiak sortutako mundua baino, bitarteko maila derrigorrezko bat gizakia eratzen duten indarrak zehazteko, goratzeko, bikaintzeko. Horregatik giza bizitzaren zentzua ez da bakarrik munduan jardutea, objektibazioen betetasuna handitzea, indarra objektuen munduan isurtzeko, norberarengandik irten eta munduaren zerbitzuan hantxe galtzeko. Ukamen hau 1794/95ean dagoeneko alienazio deitzen du Humboldtak. Alienazioak esan nahi du beretzat, beraz, norberaren buruari uko egitea eta munduaren betetasuna ez gehiago norberarengana bildu ahal izatea; aldiz, haren aniztasun kaotikoan, errealitatearen forma amaibakoetan ezin salbatzeko moduan preso geratzea. Hain zuzen, horixe da bere gizatasunaren babesa nahi duen gizakiak baztertu behar duena; izan ere, autodeterminazioak, autoerrealizazioak, nortasun prestakuntzak ez dute esan nahi munduan hondoratzea, baizik munduak gizakiarekiko duen kontraerreferentzian munduaren gainean agintzea eta bere niaren eratzea.

Baina nola zilegi daiteke gisa honetako eskakizun bat bereberaren arabera definitzen den norberaren aurkezpenari jarraiki? Puntu honetan, hain zuzen ere, Humboldti presentean kritika zuzentzen zaio kasik gehiegizko eran, eta ez da baretzen ezta susmo txarren, irainen, are salaketa politikoen aurrean ere. Baina hauen oinarrian okerreko ulertzeak daude, eta sarri asko ez ulertzeak. Gizakia eratzen duen indarrak bere burua aurkeztu behar du. Bere buruaren aurrean ipintzen da eta horrela objektibatu egiten da. Espirituaren objektiba-

zioetan gertatzen da hori; baina ez dio bere buruari uko egin behar; Humboldtten ustetan, izan ere, indibidualitate bakoitza balio bat da berez, apartekoa da. Ez da inguruneko konstelazioen aldaketaren bidez halaberharrez sortutako produktua, baizik bere naturaren arabera gainerako guztiengandik berezia. Bera da, Humboldttek sarri formulatzen duen bezala, azalpenean errotzen den ideia, eta bere ahaleginean, bere irrikan pentsatzen dago ideia hori garatzean eta errealitatean aurkeztean. Indibidualitatearen helburuaren finkatze honek egiaz formalki guztientzat balio du; baina azaltzeko duten eran oso desberdinak dira beren artean beren itxura heterogeneoetan. Humboldtten ustetan, indarraren aurkezpena espirituaren objektibazioetan aurretiko, ezinbestekoa da: baina ez dago beste batez truka ezin daitekeen objektibaziorik. Filosofiaren eta bereziki artearen alorretan zailtasunak sortzen badira ere, indibidualitate produzitzaile orok produzi ditzake. Objektibazio bakar batek bakarrik ihes egiten du gisa horretako indibidualitate desberdinen baten eraso posibletik. Norberaren bizitza da hori, norbera propioaren sorrera, nortasun prestakuntza. Egintza hori ezin dezake indibidualitate batek beste baten ordeztu egin; aldiz, dagokion indibidualitateak berak egin behar du. Baina indibidualitate horrek mailarik gorenean bere propio bezala egin dezakeena edo egin behar duena, non errotzen den bere berezitasuna, beste indibidualitateen lanaren bidez ez egin ezta ordeztu ere ezin daitekeena, horixe da bere helburu propioa. Indibidualitatea bere posibilitateen arabera den norbere horretan mintzatzeak esan nahi du norbera indibidualitate idealera igotzea, posibilitateen arabera beti indibidualitate bakoitzari dagokion eta, beraz, naturaz propio duen ideia hura ordeztu egin. Idealtasunera igotzen ari den indibidualitatearen apartekotasuna eta ezin ordeztu izana da bere existentziaren zentzu propio eta ezin engaina daitekeena. Humboldt horregatik ondorioz mintzo da ez bakarrik indibidualitate idealari buruz, baizik une berean han azaltzen den ideia indibidualari buruz, horrela tradizio platonikoan datorren ideien tesi guztiekiko urruntasun gaindiezina adierazteko; izan ere, ez norbanako anitzaren aurretik eta azpian dagoen orokorra, baizik indibiduala da bere berezitasunean, bere apartekotasunean hurbilagotik ulertu eta adierazi beharra dagoena. Prestakuntza da, beraz, giza bizitzaren helburu gorena, baina prestakuntza hori ezin da eraiki besteek aldeztu aurretik idatziriko plan baten arabera; aldiz, prestakuntza da bakarrik norberaren prestakuntza den neurrian.

Humboldtten lana determinatzen duen oinarritzko pentsamenduaren kalkoa ezin eman daiteke asetzat bere baitan atseden aurkitzen, bere burua hezten duen indibidualitate idealaren egiaztapenaren bidez. Beharrezkoa da, aldiz, gizatasun soila era indibidualen erre-presentatzen duen ideia hau ahalegin indibidualaren azken helburu bezala gizatasunaren idealarekin duen elkartasuna erakustea. Indibidualitatearen autorrepresentazioan indibidualki hautsirik aurkezten den gizatasuna bera ideia baten adierazpen da, gizatasunaren idealaren forma bat. Gizatasunaren ideala, ordea, forma ideal indibidual horien guztitasuna da, baina ez indibidualitate bakoitza idealaren muga bat balitz bezala halako moduan, non ahalik transzendentala izaki bere mugatasuna arren idealarentzat ez den nahikoa zabal, baizik bere baitan gizatasunaren arrasto bat ekarriz, ideal hau berau zabalduz. Horregatik da gizakia «handia», «hezia» bere bizitzaren bidez gisa horretako oinarritzko ezaugarri aparteko bat agerian jartzea erdiesten duenean. Horrela erre-presentatzen du bai indibidualitateak alde batetik bere modu propioan gizatasunaren ideala bera —horregatik ez da halaberharrez gertatzen gisako indibidualitate handien erreskada jarraia— bestalde ordea bihurtuko da indibidualitate bizitu bezala ideal horren osagai konstitutibo gizatasunaren gisako forma idealen itxi ezinezko eta amaibakora jotzen duen guztitasun bezala.

Humboldtten ikuspegi honek ilustrazio alemaniarreko tolerantziari buruzko pentsamenduari aldaketa eta sakontze nabarmena ematen dio, batik bat gizakiaren azalpena bere izate indibidualen solipismo bezala inolaz zertu ezin daitekeen neurrian, aldiz gizatasunaren ideala indibidualitatearen prestakuntzaren mende dagoelarik. Horren ondorio da prestakuntzaren zapalkuntza gizatasunaren kontrako dela, gizaki bakoitzak norbera bere ideiaraino igo eta gizatasunaren idealaren oinarritzko ezaugarri konstitutibo bihurtzeko posibilitatea hartu behar duela. Prestakuntzaren eragozpen horregatik ez da norbanakoaren kontrako kulpazko kaltetzea bakarrik, da aldiz printzipioz berriro konpondu ezin daitekeen oker bat gizatasunaren beraren kontra. Gizakiak bere burua gizaki bihurtu behar du, prestatu egin behar du. Indibidualitate ideala gizatasunaren idealera jasotzeak esan nahi du indibidualitateak balio eta iraupena erdietsi dituela, halako moduan non ezin daitekeen ezabatu gizatasunaren oroipenetik, eta hartaz iragan ezinezko bihurtzen da. Ez da horregatik jainko bihurtu, baizik

bere amaikortasun iragan ezinezkoan gizatasunaren ideala gailurrera eramateko lagundu dio. Ez da, beraz, bizi oroimenean bakarrik, aldiz egintza bakoitzean presente dago. Ez da «hilda» geratu, baizik indar izaten segitzen du, beti etengabe ernaldiz arituko dena. Ulermolde honek, hain zuzen, garbi jartzen du zergatik ez zaion arreta handiegirik eskaintzen Humboldtten gogoeta antropolopogiko eta prestakuntzari buruzko teoriari dagozkionetan heriotza bezalako pentsamendu hain muinekoari. Bizitza bete baten mailarik garaiena da, Humboldtten ustetan, heriotza, «atsegin» hura —muineko kontzeptua Humboldttek prestakuntzari buruzko dotrinan— non giza betetasun guztiak sensualitate sotilenetik jendartetasun hezitzailearen forma burutsuenetara arte, era perfektuan gozatu diren. Egia da heriotzak gizakia aldatzen duela, baina aldaketa horretan bere izatearen neurri berri bat irekitzen dio, bere azken posibilitateak irekitzen baitizkio; baina ez du gizakia desegiten eta ez du bidaltzen ezerez oroipen gabea. Ez da ateratzen ulermolde honetatik hilezkortasun pertsonalaren dotrinarik batere; baina heriotza gizatiarra denez gero, ona ere bada, eta horrela Humboldtten azalpenean agertzen da azken autonomi eskakizun bortitz bat. Horregatik humanistentzat ez da heriotza «bizitzaren kontra», Friedrich Schlegelek 1798an ohartarazten duen bezala, «munda baizik». Horregatik Humboldtentzat unibertsoaren helburua indibidualitatearen prestakuntzan datza.

Ezin ukatzeko moduan aurkitzen da Humboldtten azterketa honen ostean askatasun pathos garbia. Indibidualitateak ez du izan behar estutzen eta zapaltzen duten indarren mendeko, autonomo baizik, libre. Berak beretzat sortu duena baino ez da, bere-beraren obra. Horregatik dago Humboldtten dotrina gizakia mugarik gabeko aurrerakuntza optimismo baten esku jartzearen kontra; izan ere, aurrerakuntza, adibidez jakintzetan, egiaz da gizatasunarentzat aurrerakuntza hura «gizatiar», hau da indibidualitatearen askatasun gero eta handiago baterako baliozko bihur daitekeenean. Horrela bada, Humboldttek bere irakatsiarekin argudiatzen du ez bakarrik gizakia bere giza izatean hertsu eta beretzat arrotz den lege baten, Jainkoaren legearen azpian jartzen duen erlijioaren kontra; ezta ere bakarrik norbanakoari baliozko zer den eta zer ez agintzen dion estatuaren ahalguztiduntasunaren kontra, baizik bueltatzen da gizartearen bere garaiko ulermoldearen kontra, non utiltasun nabarmena, zoriontasuna guztiarekiko zerbitzu

bezala jokutzen baita norberaren patuaren eta norberaren egiaztatzearen eskakizunaren kontra. Horregatik ez bakarrik gaitzesten du Humboldt看 gizarte industrialia, arimarik gabeko mekanismo batean gizakia gurrpiltxo bihur dezakeelako —Humboldt看 bere garaikide batzuk bezala gizakiaren funtzionaritza makinaren irudian laburbiltzen du— baizik gizarte estatuar burgesaren kontra ere altxatzen da, gizakiak han bere gizakitasuna jainkoak edo gizarteak alde zurrretik finkaturiko lanbideetara mugatua ikusten baitu. Bere ustetan, lanbidea egitea eta gizaki izatea ez dira gauza bera. Horrek ez du, ordea, esan nahi Humboldt看 lanbidea gutxiesten duenik; eta giza bizitza kezkarik gabeko eta orobat «garbia» eskatzen duenik; aldiz bai, prekauzioa gizakia ez ote den eginkizun jakin batzuetara laburtuko, halako moduan hartu nahi duen non berak bere lanbidea —hori bete behar baitu Humboldt看 ustearen arabera— gizaki bezala egin behar baitu; beraz, urruntasuna eduki behar du bere prestakuntza propiora zuzendutako egitekoetan, era horretan bigarren mailako helburuek helburua berez zapal ez dezaten eta gizakiari ez diezaioten eragotzi gizatasunaren idealaren ezaugarri konstitutibo bihurtzen. Humboldt看 dotrina ez da, halere, mugatzen indibidualitate idealaren oinarritzera eta deskribatzera. Tamaina berean da, bere ustez, garrantzizko gizatasun nabarmenaren azalpenera indibidualitatean daramaten bideen finkatzea. Hau da, gizakiak munduarekiko duen lotura, han eta haren bidez bere berezitasuna eratzen baitu, aztertu eta zehaztu behar dela. Gizakiak munduaren betetasunean galdu behar ez duenez, munduan zehar dabilela, bere baitara itzuli behar du. Munduaz jabetzea ez da ikusi behar bakarrik mundura ateratzeko modu bezala; baizik, areago, une berean da mundu horren itzulera berria gizakiarengana; horregatik esan nahi du giza izate beraren aldaketa, jasotzea, eta nobletzea. Espirituaren objektibazio bakoitzak du eragina gizakiarengan; baina era desberdinetan du eragina. Inportanteena da beti gizakiaren indarren heziketa harmoniko eta proportzioskoa osotasun batera besteek baino hobeto sustatzen duena. Prestatzaile, munduaren osotasuna da, noski; baina gizakiak, bere mugatasuna dela eta, munduaren osotasuna ezin duenez bere objektu bihurtu, azaltzen da galdera ea zein munduk munduaren amaibakotasunaren sinbolo bezala gizakia prestatzen duen erarik bikainenean. Zerbait egon behar du, beraz, gizakiari osotasun bezala hitz egiten diona, bere indar guztien jokoab abiarazten duena eta perfekzio harmoniko eta proportziosko batera daramana, gizakia, beraz,

dependentzia pisugarritik askatu eta askatasuna ematen diona. Humboldtten konbentzimendua da artea dela gisa horretako indar jokoia sustatzen duen objektibitatea, bera dela mundua inondik ere irudikatzen duen objektibazioa.

Artearen goratze hau, bere esanahi berezi eratzailleaz, pentsa ezinezkoa da *Kanten Arrazoimen Kritikarik* gabe: izan ere, Kantek bere hiru kritika handietarik azkenekoan lortu baitzuen artearen izaera propioa frogatzea, eta horren bidez bere obrak, 1790ean azaldu bezain laster, erdietsi zuen arreta, ez kritikarik gabea, artearen auziaz ziharduten filosofo eta artisten aldetik. Humboldt bera ere oso txokatu azaltzen da *Arrazoimen Kritikagatik*. Kanten oinarritzko pentsamenduak jatorriz arrotz zitzairen testuinguru batera aldatzen ditu eta gizakiaren nortasun prestakuntzara daramatza, alderdi transzendental filosofikotik zerturiko antropologia eta nortasun prestakuntza teoriarik diseinatu gabe. Humboldtentzat lotura puntu erabakigarri da Kantek ezagutza juzgamenaren eta gustu juzgamenaren artean egiten duen bereizkuntza. Hain zuzen, ere banaketa horrekin eta gustu juzgamenaren balio orokortasunaren frogarekin 18. mendeko gogoeta estetiko tradizionalak gainditzen ditu Kantek. Ordura arte, artearen erabilgarritasun pedagogikoa ilustrazioko objektu bezala irakaskuntzan, eraikuntzan, garbiketean, hobekuntzan, apaintetan ahitu zen. Bere eskakizunean haren azpian jarritako helburuetarako nahi bezala erabiltzekoa zen. Hartaz, ezin izan zitekeen aparteko baliokoa prestakuntzaren teoriarako. Baldintza politikoak, erlijiozkoak, moralak itxuraz argitzeko erabili zen. Bere izaera bereziaren Kanten erakutsiarekin posible izango da berari bakarrik dagokion esanahi hezitzailean azaltzea. Horretarako ez da inportantea arte objektua; bai, ordea, artea begiratzen duen subjektuaren egoera, horrek ekite uniformearen gizakiaren gaitasun osoa erakusten baitu eta era horretan gizakiaren prestakuntza sustatzen. Artelanak, beraz, giza ahalmenen joko harmoniko proportzioskoa eskatzen du, haiek helburu jakin batean finkatu gabe. Ederra produktiboki begiratzean arte ororen esentzia bezala, gizakiak bere burua osotoro bizitzen du, ez ikustearen eta pentsatzearen artean zatiturik. Dituen indar guztiek askatasunean dihardute. Edertasunaren bitartez sutuak izango dira, eta horrela haren beraren kariatz indartuak, goratuak, nobletuak; artelan ederrean, izan ere, azaltzen da munduan bere osotasunean. Bere amaikorra arren, amaibakoaren dirdairik gabe

penntsa ezinezko litzateke. Bere baitan hartzen du ez bakarrik prestakuntzarako ezinbesteko aniztasuna, baita egoeren guztitasuna ere, gizakiak alienazioan erori beharrik izan gabe. Artelanak era horretan gizakiaren indar guztiak eskatzen dituen prestakuntzaren xedea delarik indar horiek harmoniko proportziorako heziketa osotasun batean biltzea, gizatasunaren ideala berari dagokion modu propioan errepresentatzen baitu, gisa horretako prestakuntza da Humboldtentzat heziketa estetikoaren pareko. Hala, beraz, indibidualitatearen askatasuna ekarriko duen prestakuntza da prestakuntza estetiko, edo bestela izan ere ez da. Horregatik datorkio arteari Humboldtoren prestakuntzaren teorian aparteko esanahi hau, eta pentsamendu horiek hain ziren eraginkorrak non, era kamustu eta tribalizatu batean bada ere, Humboldt baino 100 urte geroago oraindik heziketa burgesa menderatzen baitzuten. Artea, beraz, bilakatuko da baliabide hura non bakarrik norberaren autodeterminazioarako posibilitatea emana den. Horrela bakarrik erdiets dezake indibidualitateak kualitatiboki gainerakoekin konbaratuz bestelako bizibide bihurtzen duten subiranotasuna eta askatasuna. Horregatik da jatorrizko prestakuntza humanistiko hau orobat goi mailako prestakuntza politiko ere, pentsamendu bat politikaren lekuan berez sartzen ez dena, bai ordea gizarteko eta politikako jokabide benetako baterako atarikoak eta baldintzak ezer baino lehen sortzen dituena. Eta hain zuzen ere gisa honetako jokamolde bat, ez jakitea eta mintzatzea, baizik izaera eta jardutea da Humboldt kezkatzen duena.

Azalpen hauekin loturik dago, halaber, Humboldtoren guztien gainetik antzinate grekoarekiko duen hobespena. Ez da egia hari egozte berak ikusteko modu apoliniko bat onartu duela, Winckelmannen gisara, benetako sufrikarioarekiko inolako ulermunik uzten ez ziona, zentzurik gabeko eta giza duintasunaren kontrako zapalkuntzarekiko biderik uzten ez ziona. Beretzat hain zentzunbako eta antzu da, ikuspegi moralizatzaileen bidez, bere gaitzespena iragan urrunean gertatuarekiko aldarrikatzea. Humboldtoren ez du interesik antzinatearen azterketa historiko soil batean. Antzinate klasikoaren bere ulerpiderako xederik gabeko da. Ez du onartu antzinatearen egiteko normagilea bere garairako. Gizaki bakoitzak, aldiz, bere gisara azaldu behar du bere baitan gizatasunaren ideia, ez du izan behar inolaz gisa honetako grekoen kopia. Gizakiaren autodeterminazioarako

ez dago Humboldtaren garaian inolako eredurik, noren arabera batek joka dezakeen. Aldiz, batek norbera izan behar du. Prestakuntzaren ikuspegiak zehazten du, beraz, antzinate grekoaren jabetzea eta uler- tzea ere. Jabetzearen prozedura horretan garatzen da gizakia bere modu eta era propioan bere berezitasunean. Antropologiari eta este- tikari dagokienean dira grekoak eta haien mundua bere prestakuntza- ren dotrinaren atal, eta horregatik haien ikasbidea ez da norberaren buruaz ahazturiko inolako helburu bat, ezta gaurko egunetako giza- kiaren definizioaren nahita egindako kopia ere.

Prestakuntzari buruzko teoriak, 90. urteetako ikerketan oina- rrian ipinirik, zuzen-zuzenean darama Humboldt hizkuntzara; mui- nean indibidualitatea daukan antropologia konbaratzailearekin duen arazoaren irtenbiderako posibilitatea ematen baitio hizkuntzak, eta gizakiaren prestakuntzari buruzko galderaren erantzuna eskuratzen eta 18. mendea 19.era igarotzen ari dela neurri gero eta handiago batean ikerketa nagusi bilakatuko da eta azkenik bere bizitzako azken hamarkada eta erdia kasik osorik betetzen du. Ez dago hizkuntza saihestuko duen biderik. Ez dago haren osterara daramanik. Hemendik irekitzen da gizatasuna mundura. Hura bihurtuko da egiteko amaiba- ko, bukaera orori ihes egiten diona. Hizkuntzari buruzko bere obra amaitu gabearen erdian hilko da Humboldt, «*Einleitung über die Verschiedenheit des menschlichen Sprachbaues und ihren Einfluß auf die geistige Entwicklung des Menschengeschlechts*» bere obra nugu- siari azken ukituak ematen ari dela. Ikerketa oinarrizko, gaur arte era- gina izan duena da bere «*Über Kawi-Sprache auf der Insel Java*» hiz- kuntzalaritzako obra nagusiaren sarrera filosofikoa, inprimatzeko lehen liburukia baino prestatuak utzi ez bazuen ere. Gainerako beste bi liburukiak oso zatika zeuden, eta Buschmannek landu eta argitara- tu zituen.

Hizkuntza bilakatuko da bere ikerketa antropologiko eta pres- takuntzarekiko teorikoen erreferentzia puntu erabakigarri, horregatik ez delarik aurkezten lehenagoko gogoeta objekturik gabea bilakatzen eta osotasuna erabat aldatzen duen alor bat bezala. Aldiz, Humboldték aitortzen du ordura arteko bere ikerketa guztien objek- tu izan diren arazoetan hizkuntzak jokatu duen paper erabakigarria. Hizkuntza ez da obra hila; aldiz energia bizia da, gizakiaren eta mun- duaren arteko bitarteko eta bere bitartekaritzaren gisaren arabera

gizakiaren mundu ikusmoldea zehazten du, halako moduan non prestakuntzari buruzko gogoetetan eta are gizakiaren gizaki izateko oinarriari dagokionetik bazter ezin daitekeelarik. Gizaki izatea paratzen duena da. Gizakia, bere izaeraren arabera, hizkuntz sorkaria da. Munduaren ikuspegi jakin baten adierazpen da bere hizkuntza; berak zertzen baititu gizakia azaltzen den munduaren perspektibak. Hizkuntza bakoitzari dagokion horizontean bakarrik azaltzen da mundua, ez ordea soilik mundu bezala, baizik amaibako munduaren ikuspegi bezala bakarrik. Gizakiaren patua izan baita munduaz jabetzea eta horrela norbera haztea, horrela norberaren prestakuntza aurreratzeko, derrigor dago hizkuntzaren mende jarria; hizkuntzak, izan ere, ez baitio bakarrik gizakiari mundua luzatzen, baizik luzatze egintza horretan sortzen du bereziki mundua gizakiari eskuragarri zaion mundu bezala. Haren bitartez bihurtuko zaio munduaren aniztasuna esperimentera eta ulergarri gizakiari. Gogoeta hauek hizkuntza beti munduaren ulermolde gisan ipintzen dutenez, hizkuntza mintzatzearen eta ulertzearen atariko eta oinarriaren ondoren dator gizakiaren eta munduaren bateratze gisan ikusi behar den hizkuntza soilaren formari buruzko auzia. Horregatik prestakuntza oro da Humboldtten ustetan hizkuntzaren arabera eta haren bidez zehazturiko prestakuntza. Hizkuntz prestakuntzak, dela ama hizkuntzaren bidez jasoriko munduaren ikuspegia sakontzea, dela hizkuntzak ikastea hizkuntza berriak menderatuz, esan nahi du horregatik munduaren ikuspegi zabal baten sorreran mundu aberatsago baten eraldaketa posibilitate bat, eta horrekin batera, bere gizaki izatearen ideia gero eta gehiago egiaztatzen duen indibidualitatearen igotze progresiboa. Horregatik azpimarratzen du noski Humboldttek, hizkuntz irakaskuntzak benetan hizkuntz irakaskuntza izan behar duela eta ezin muga daitekeela idazle klasiko edota nahi izanez gero modernoak ulertzeko irakaspenera, baizik hizkuntza baten forma agerian jarri behar dela forma bezala, hizkuntza jakin batean hizkuntza soila nabarmen jarriz. Lortuko balitz forma hori oratzea, orduan irekiko lirateke giza pentsatzearen, mintzatzearen eta jardutearen posibilitate guztiak. Horrela biltzen dira hizkuntzari buruzko Humboldtten oinarriko gogoetak bere prestakuntzaren ezaugarri erabakigarriekin. Hizkuntza da gizakiaren organoa, objektua ulergarri egiten duen giltza bakarra. Hizkuntzak, ordea, beti esan nahi du hizkuntza jakin bat, berari propio zaion moduan mundua espirituaren

jabetzako bihurtzen duena. Nazio baten edo indibiduo baten balizko indibidualitatearen adierazpen bezala bihurtuko da hari nagusi, nondik bere izatean ulergarri bihurtzen den. Balizko indibiduoaren emaitza bezala sortze indibidual bat da, ulertzekoa besteentzat, eta ezin ulertzekoa orobat; ulertze oro baita derrigorrean ez ulertzea ere. Era horretan konbaraziozko hizkuntz ikasketak jartzen du agerian konbaraziozko antropologiaren objektua hizkuntza ikuspegi desberdinen artean eta akaberara eraman ezin daitekeen ahalegina abiapuntu beti berrietatik harengana hurbiltzeko eta izaera nazionala eta indibiduala ulertzeko.

III. Eragina

Wilhelm von Humboldtek espiritu bizitza alemaniarrean izan duen eragina geroago etorri da, eta 20. mendea aurrera doala bereganatzen du nazioarteko arreta, inolaz hizkuntz filosofiari eta hizkuntzalaritzari buruzko bere lanetan oinarritzen dena. Humboldtek ezin du aurkeztu bere bizitzako lan borobildu bat. Egiaz ez dira falta bera bizi zela argitaratu ez ziren disertazioak, zirriborroak, zatiak, ustez beren artean loturarik ez dutela bata bestearen ondoan daudenak: baina astiro-astiro azaltzen da haiek antolatzen dituen oinarritzko pentsamendua, eta ikerketa guztiak azaltzen dira berak bere buruari ezarritako egitekoaren puska bezala, alegia, gizakiaren prestakuntzaren teoria antropologikoki oinarritua, giza izatearen alderdi guztiak kontuan hartu behar dituen, ustez mugarik ez duenean galtzen dena eta halere gizakiarengana bere izatean eta bere bokazioan zuzendua dagoena beti.

1841 eta 1852 artean zazpi liburukitan azaltzen dira Carl Brandesek Alexander von Humboldten laguntza eginkorraz argitaratu zituen «*Obra osoak*», Humboldtek hil zen arteino argitaratu zituen guztiak dakartzana, eta gainera ordura arte argitaratu ziren gutunak George Forsterri, Friedrich August Wolfi, poesiak (bereziki sonetoak), Pindaroren oden itzulpenak, hizkuntzalaritzako zatiak eta zirriborroak, antropologia (hamazortzigarren mendea), artea eta orobat ofiziozko lanak batez ere 1809koak. Humboldten uste filosofiko eta politikoei dagokienez, 1819ko abenduaren 31n estatuko zerbitzutik bota zutenetik eta are gehiago bere heriotzaren ondoren haien garaia

erabat joana zen. Gizatasunari buruzko bere filosofia kontraesan nabarmenean dago garaiko korronteekiko, Hegelen zuzenbidearen eta estatuaren filosofiak agintzen zuen garai hartan. 1844an adierazten du Friedrich Theodor Vischerrek: «Subjektuaren prestakuntza borrokak bere egoera pribatueta dagoeneko nahikoa luzaz egonak dira, orain herrien borrokak ikusi nahi ditugu». Humanitatea humanitate-lozorro bezala katedretatik iraindua izan zen. Nortasun prestakuntza, mundu guziaren txanpon gastatu izatera hondatua, oinarritze antropologiko baten ahaleginik gabe eta entzuleria estatuzale burges batentzat eskakizun filosofikorik gabe izango da prestatua. 1845ean esaten du Thaulowek: «Orain arte ez dago gizakia bere osoan objektutzat hartzen duen inolako jakintzarik eta egiaz ez litzateke pentsatzekoa gisako jakintza bat, zeren azken batean jakintza guztien osotasunak osatzen baitu gisako jakintza, horrelako deituraz aparteko izaerarik izango ez balu ere». 1851n Humboldten ondaretik *«Ideen zu einem Versuch die Grenzen der Wirksamkeit des Staates zu bestimmen»* argitaratzen denean, Alemanian, Ingalaterran eta Frantzian ez bezala, jazarpen maltzurra aurkitzen du, Treitschke, Leo, Lassalle eta Bismarckenganaino indartzen joango dena, eta baliorik gabeko «gaubeilari estatu» bezala pikotan jarriko da. Konbentzimendu nazionalistek desegiten dute kanpoko etsaien eta legezketasunaren babesaren aurrean segurtasunera mugaturiko estatua. Aldiz, 1846an lehen aldiz argitaratu zen *«Briefe an eine Freundin»* obra arrakasta publizistiko handi bihurtuko da, eta 19. mendean oraindik argitalpen ugari izango ditu. Gutun horiek bihurtzen dute atseginez irakurtzeko onbidezko idazle, haren esanak eta oharrak bizitza burges idiliko bat lantzeko egokiak baitira. Bere lorpen politikoak, hezkuntzaren eraberritzeko arrakastak —Berlingo Unibertsitatearen sorrera ezik—, eta are bere lorpen filosofiko eta zientifikoak kasik erabat ahazturik geratzen dira. Sentimendu nobleak aginte eskakizun indartsuarekin uztartzen dituen hezkuntza baten oroimen lauso bat da gertatzen dena. Askatasunezko Humboldten eskola mendekoen erakunde bilakatzen da, beren maila militarren arabera gizartean mailaz maila sailkaturiko lehen eskolako maisuek beren ezaugarria ezartzen diotelarik. 19. mendearen azken aldera Jakintzetako Akademia Prusiarraren bitartez Humboldten «Idazti osoak» argitaratzeko asmoa pizten da. 1903an azaltzen da lehen liburukia, eta Lehen Mundu Gerratearen hasiera arte beste hamaika liburuki etorriko dira. 17. eta azken liburukia 1936an argita-

ratuko da. Argitalpen hau da, akatsak dituen arren, gaur egunera arte Humboldti buruzko ikerketa guztien oinarria. Humboldten gutunen argitalpen oso bat, gutun guztiak hartuko dituen, oraindik gure egunotan egon ere ez dago. Horregatik da ezinbestekoa lan eta gutun guztiak hartuko dituen argitalpen kritiko bat. Hizkuntzalaritzako bere lana zatika baino ez da argitaratu.

Egiteko hau bezala gero eta kopuru handiagoan argitaraturiko gutunak dira Wilhelm von Humboldti buruz egiten diren gero eta lan ugariagoentzako oinarri gero eta zabalagoa. Hogeigarren mendearen hasieran dagoeneko hasten da konfrontazio kritikoa bere obra osoarekin. Garaiko jaunek beren gogoeten bizkarretik barre egiten dute eta beren helburuetarako erabiltzen dute. Guztien jakineko bihurtuko da bere prestakuntza berriaren indarrak ezin aurrera egin dezakeela industrializatzearen kontra, inperialismoaren kontra, aurrera doan jakintzen garapenaren kontra. Ustezko bere estetizismoa eginkortasunik gabeko kosmopolitismo bezala, errealitateari ihes egiten dion ilusio bezala izango da laidoztatua, norbanakoaren askatasun eskakizuna, norberaren heziketarako sustapena, norberaren buruaren kontenplazio egozentriko bezala gaitzetsia. Humboldten pentsamenduarren muina eta ingurua «*Wilhelm von Humboldt und die Humanitätsidee*» (1909) bere liburuan jaso zuen Eduard Sprangerrek eta «*Das humanistische und das politische Bildungsideal im heutigen Deutschland*» (1916) saioan beren buruak «humanista» bezala ulertu uste zuten zenbait adituren kontraesanaren kontra ukitu kritiko garbiak ipintzen ditu, Windelbandengan aurki daitezkeenak bezala, honek egiaztatzen baitu: «Burgesiaren eta nobleziaren goiko maila bakarrik iritsia zen hain aurrera non bizitzako indarrak premiaren bortxatik libre izaten hasiak ziren, eta beren ekintzak herriko bizitzan garapen librea izateko inolako objekturik eta inolako joko lekurik ez zuen, bihurtu zen bere bizitasun guztiaz barnera. Horrela Alemanian ere ireki zen garai bat non indibidua funtsean bere buruarekin eta bere interes espiritualekin diharduen». Eta argituz segitzen du: «Indar politikoen porrotaren erdian, zeinetan hark inolako barneko parterik ez zuen, jakitunen goimaila meheak sortu zuen Alemanian, atsegabaturik errealitate zakar eta gezagatik, mundu berri bat idealaren eterean». Barnekotasunaren prestakuntza sistema horretatik geratu zen itsatsirik «hasteko indiferentzia kanpoko errealitatearen aurrean eta

presentean eragiteari saminkiro uko egite bat geratu da itsatsirik». Sprangerrek Kerschensteinerri idazten dio 1916ko ekainaren 20an, 1907an dagoeneko, Humboldten monografia handia hasi zuenean, igarri zuela: «aro eder bat iragana dela», eta gerrako jazoeren inpresiopean inolaz gaineratzen du «gure bidea eta gure garaia bestelako bihurtu dira. Egiaz, guk ere bilatzen dugu humanitatea, gizatasuna, herritar guztientzat. Baina ez da gehiago fantasmagoria soilik estetiko baten humanitate hori, baizik bizi egituraketa bat egiazko errealtate-zentzu batean oinarritua: pozez lorpen produktibo bakoitzagatik, lan nazionalaren osotasun oso adarkaturiko batean itsasten den indar individual bakoitzagatik. Gizatasun oso bat azaltzen da horrela, baina ez norberaren atseginerako *à la Tegel*, baizik lan bortitzerako «bidai urteen» zentzuan, non nik gure aro berriko tipo guztiak alde aurretik jarriak aurkitzen ditudan. Oinarri zabalago hau bilatzen dut nik...». Lehen Mundu Gerrateko desegintza guduek dakarte azken iraulketa, eta orduan gerrako gertakarien inpresiopean esaten da indibidua Verdunen hil zela, eta jaio zela talde anonimo hitsa, horretan norbanakoa ezertarako ez delarik. Pentsamendu horren adierazpen bikainena S. a. Kaehlerren «*Wilhelm von Humboldt und die Staat*» (1927) liburu handian aurkitzen da; han adierazten da nola aldatzen den Humboldten pentsamendua askatasunezko, prestakuntzaz kezkarik gabeko atseginetzko gizakitik estatuko gizon heroikora, eta horren bitartez sortzen ditu goraka datorren nazionalsozialismoaren kritika gehiegizkoarekiko loturak. Humboldten konbentzimenduekiko erabat kontrajarririk dago ideologia nazionalsozialista. Pentsamendu baten muina —indibidualitatea, jendartetasuna, norberaren prestakuntza, liberaltasuna, humanitatea, kosmopolitismoa— herri mistizismo berriaren aldetik dena hartzen duen herri komunitatean, norbanakoa inolako baliorik gabekotzat jotzen duen estatuaren begirunerik gabeko baieztapenean, arraza ariarraren lehentasunean duen bere sinesteaz barregarri jarria izango da, Humboldt bera liberal, demokrata semitazale bezala historiaren okertzat deklaraturia izango da. Gerraosteak bere gisara segitzen du Humboldten kritika. Alde batetik, Humboldt humanismoaren pentsatzaile bikain bezala eta garai nahasi batean orientatzeko lagungarri bezala aitortua izango da; baina transzendentziarekiko erreferentzia falta omen zaio, eta horregatik bere humanismoa humanismo kristau baten bidez osatu behar litzateke. Beste alde batetik, gisa horretako balioztatze bat alde

batera utzita, bere pentsamenduaren funtsezko akats nabarmenak jarriko dira agerian, pentsamendu neohumanistikoak bere sorburuan bertan bere lituzkeenak eta 1945ko hondamendi alemaniarerako bidea argituko luketenak. Kritika horren gailurrean aurkitzen dira Weinstock eta Theodor Litt. Akats erabakigarri, nondik datozen gainerako kritika puntu guztiak, Humboldtten pentsamenduan muineko den antropozentrismoa da. Bere baitan oinarritzen den, gizatasunaren ideia guztiz irudikatzen duen gizakia, bere beraren helburu bezala, giza osotasunaren gauzatzea da. Gizaki izatea, harmonia, osotasuna hautsiezinezko moduan daude elkarren artean lotuak. Prestakuntzak ibilbide bezala balio du, horretan barneko izaera hori gero eta gehiago gailentzen delarik. Erlazio politiko, sozial, ekonomiko eta erlijio-soetatik aske gizaki horrek oin hartzen du iraganeko den, barnekotasuna lantzen, kanpoko mundua gutxiesten duen barneko eta kanpokoaren arteko eten baten gainean, garaiari ez dagokion, errealtateari arrotz zaiona, hondar estetizatzaile, kasik autista batean, zoriotsua bere baitan. Kritika hozkatzailearen aldia, defentsa oso neurritsu bat topatzen ez dakiena, hogeigarren mendeko hirurogeigarren urteetan amaitzen da. Horrela abiatzen da hasieran ezagutza zalantzati bat Humboldtten pentsamenduaren funtsezko osagaiei buruz, eta ulerkera berri bat eskatzen du, hori azaltzen delarik gero eta gehiago argitalpen internazionalen eta orobat Humboldtten obra zenbait beste hizkuntzetara egindako itzulpenen ugaritasunean. Horrekin batera dator orain arte argitaratu ez diren Humboldtten lanen eta gutunen aurkikuntza, oraingoz ondorio markagarririk ekarri ez dutenak. Ezagutza honetan hizkuntzalaritzari eta hizkuntz filosofiari buruzko lanak esanahi gero eta indartsuagoa hartzen ari dira, bere pentsamenduaren egiaztatzea bezala jarraipen emankorra dakartenak. Bere obrek eta bere ahaleginek ekarriko duten eragina gisa honetan laburbiltzen du Humboldttek hain alor desberdinetara hedatu diren bere ikerketa guztien muin bezala: «Baldin ideia bat badago historia osoan zehar gero eta balio zabalagoan nabarmentzen dena, baldin batek era askotan eztabaidatua baina era askoagotan gaizki ulertua izan den espezie guztiaren perfekzioa egiaztatzen badu, hori da gizatasuna, ahalegitea, gizakien artean etsai altxatzen diren aurreiritziak eta era guztietako ikuspegiak kentzea, eta gizadi osoa, erlijioa, nazioa eta kolorea kontuan hartu gabe, leinu bakar, oso hurbil senitartetsutat tratatzea. Hauxe da jendartetasunaren helburu azken eta garrantzitsuena, eta

bere izatearen hedatze mugabakorantz gizakiaren norabidea, biak ere bere naturaren arabera bere baitan ipiniak».

Clemens Menze

Kronologia

- 1767 ekainak 22 Wilhelm von Humboldt Potsdamen jaio
- 1769 irailak 14 Alexander von Humboldt Berlinen jaio
- 1779 urtarrilak 6 Aitaren heriotza
- 1785 Ikasketak hasi Johann Jakob Engel eta Ernst Ferdinand Kleinekin
- 1787 urriak 1 Ikasketak hasi Frankfurt a.d. O.-eko unibertsitatean
- 1788 apirilak 23 Ikasketen jarraipena Göttingengo unibertsitatean
- 1789 uztailetik aurreraBidaia Paris, Hego Alemania eta Suitzara
abenduak 16 Ezkontz hitza Karoline von Dacherödeni
- 1790 Zuzenbideko lizentziatu Berlinen.
Harremanak Friedrich Gentz eta Gustav von Brinkmanekin
- 1791 urteberria Estatuaren zerbitzutik irten Ordezkaritzako idazkari tituluaz.
Konstituzioari buruzko ideiak, Frantziako Konstituzioak aukera emanda.

ekainak 29	Ezkontza Erfurten
1792 udaberria	« <i>Ideen zu einem Versuch die Grenzen der Wirksamkeit des Staates zu bestimmen</i> »
1793 urtarrila	« <i>Über das Studium des Altertums, und des griechischen insbesondere</i> »
1794 otsaila	Jenara bizitzera
iraila	Jacobiren « <i>Woldemar</i> » nobelaren erreziensioa
1794/95	« <i>Theorie der Bildung des Menschen</i> »
1795 udaberria	« <i>Über den Geschlechtunterschied und dessen Einfluß auf die organische Natur</i> » « <i>Über die männliche und weibliche Form</i> »
1796 abuztuaren 3tik	Bidaia Ipar Alemaniara
irailaren 17ra	
azaroak 2	Jenara itzuli
azaroak 14	Amaren heriotza
1797 uda	Egonaldia Dresdenen eta bidaia Vienara
urriak 1	Bidaia Parisera
1799	« <i>Aesthetische Versuche. Erster Theil. Ueber Göthes Hermann und Dorothea</i> »
irailak 8	Bidaia familiaz Espainiara
1800 apirilak 18	Parisera itzuli « <i>Über die gegenwärtige tragische Bühne</i> »
1801 apirilak 19	Bidaia Euskal Herrira
ekainak 14	Parisa itzuli
uztaila	Itzulerako bidaia Erfurtera
1802 maiatzak 25	Aita Sainduaren aurrean Prusiako ministro izendatua
azaroak 25	Humboldt familia Erromara iritsi

- 1803 abuztuak 15 Bere seme Wilhelmen heriotza
- 1805 ekainaren 5etik A. von Humboldten egonaldia Erroman
irailaren azkenera
- 1806 «*Rom*» elegia.
«*Latium und Hellas*»
- apirilak 10 Ahalmen orodun ministro izendatua
- 1807/08 «*Geschichte des Verfalls und des
Untergangs der griechischen Freistaaten*»
- 1808 urriak 14 Humboldtek Erroma uzten du bere seme
Theodorekin eta München eta Erfurt barna
Berlinera doa
- 1809 otsailak 10 Prusiako Barneko Ministerioan Estatuko
Kontseilu Pribaturako eta Hezkuntzako eta
Herri Irakaskuntzako saileko zuzendari
izendatua
- otsailak 28 Lanean hasi
- apirilak 14 Königsbergera iritsi
- abenduak 3 Königsberg utzi
- 1810 urtarrilak 30 Berlinera iritsi
- apirilak 29 Dimisio eskaera
- ekainak 14 Kabinetearen aginduz Bidali berezi eta
ministro ahalmen orodun izendatua izango
da Vienan, estatuko ministro pribatuaren
izaera duelarik
- 1810 irailak 22 Laneko eginkizunak Vienan hartu
- 1811 Humboldt bidali bezala Vienan
- 1812 ekainaren 11tik Oporrak Thüringen eta Berlinen
abuztura
- 1813 uztailaren 12tik Prusiako ahalmen orodun Pragako Kongresuan
abuztuaren 22ra

abuztuak 22	Austria gerran hasi Napoleonen kontra
urriaren 20tik 23ra	Leipzigen
azaroak 24	Frankfurt a. M.era iritsi Austriako Kuartel nagusiari jarraiki
1814 otsailaren 3tik martxoaren 29ra	Prusiako ahalmen orodun Châtillongo Kongresuan
ekaina 1-30	Prusiako erregearekin Londresera
abuztuak 8	Prusiako bigarren ahalmen orodun Vienan
1815 ekainak 20	Bidaia Berlinera
uztailak 15	Prusiako bigarren ahalmen orodun lurraldeei buruzko hitzarmenetan
1816	Eskiloren « <i>Agamenon</i> » obraren itzulpena argitaratu
1817 urtarrilak 10	Frankfurtetik bidaia, oporrak Auleben eta Burgörneren
martxoak 5	Berlinera iritsi, Estatuko kontseiluan esku hartu
abuztua	Bidaia Londresera
urriak 5	Prusiako bidalia Londresen
1818 azaroak 4	Akisgraneko Kongresuan esku hartu
abendu hasiera	Frankfurt a. M. (Lurraldeei buruzko batzordea)
1819 urtarrilak 11	Estatuko Arazoetako ministro izendatua
abuztuak 9	Lanean hasi ministro bezala
irailak 20	Karlsbadeko akordioak
abenduak 31	Estatuko Kontseilutik eta estatuko zerbitzutik apartatua
1820	« <i>Über das vergleichende Sprachstudium in Beziehung auf die verschiedenen Epochen der Sprachentwicklung</i> »

- 1821 «Über die Aufgabe des Geschichtsschreibers»
 «Prüfung der Untersuchungen über die
 Ureinwohner Hispaniens mittelst der
 vaskischen Sprache»
- 1822 «Über die Entstehung der grammatischen
 Formen und ihren Einfluß auf die
 Ideenentwicklung»
- 1824 «Über die in der Sanskritsprache durch zwei
 Suffixa gebildeten Verbalformen»
 «Über die phonetischen Hieroglyphen des
 Herrn Champollion des Jüngeren»
 «Über den Zusammenhang der Schrift mit
 der Sprache»
- 1825 Prusiako arte elkartearen sorrera
 «Über vier ägyptische Löwenköpfige
 Bilsäulen in den hiesigen königlichen
 Antikensammlungen»
- 1827 Gutuna Abel-Rémusat jaunari forma
 gramatikalen izaerari oro har eta Txinako
 hizkuntzaren espirituari buruz bereziki
 (frantsesez)
 «Über den Dualis»
- 1829 apirilak 26 Karoline von Hulmboldt hil
 maiatzak 8 Museo Berriko barneko eraiketetako
 batzordeburu
- 1830 «Vorerinnerung über Schiller und den Gang
 seiner Geistesentwicklung»
 «Über Goethes zweiten römischen
 Aufenthalt vom Juni 1787 bis April 17882»
- irailak 15 Berriro deitua Estatuko Kontseilura
- 1832 martxoak 22 Goetheren heriotza
- 1835 apirilak 6 Wilhelm von Humboldten heriotza Tegelen

Bibliografia

I. Argitalpenak

1. GESAMMELTE WERKE (Argit. Carl Brandes), 1-7 liburuki. Berlin, 1841-1852.
2. GESAMMELTE SCHRIFTEN. Argit. Prusiako Jakintzen Erret Akademia. 1-17 liburuki. Berlin, 1903-1936.
3. Obrak bost liburukitan. Argit. Andres Flitner eta Klaus Giel. Darmstadt, 1960-1981

II. Gutunak

RUDOLF FREESE (argit.): *Wilhelm von Humboldt. Sein Leben und Wirken, dargestellt in Briefen, Tagebüchern und Dokumenten seiner Zeit*. Darmstadt, 1986

III. Bigarren mailako literatura

BOLESŁAW ANDRZEJEWSKI: *Wilhelm von Humboldt*. Warszawa, 1989.

TILMAN BORSCHKE: *Sprachansichten. Der Begriff der menschlichen Rede in der Sprachphilosophie Wilhelm von Humboldts*. 1981.

Id. *Wilhelm von Humboldt*. München, 1990.

VANDA FIORILLO: *Politica ancilla juris. Le radici giusnaturalistiche del liberalismo di Wilhelm von Humboldt*. Torino, 1996.

BRUNO GEBHARDT: *Wilhelm von Humboldt als Staatsmann*. 2 liburuki. Stuttgart, 1896/1899.

KURT GRUBE: *Wilhelm v. Humboldts Bildungsphilosophie*. Hale, 1935.

RUDOLF HAYM: *Wilhelm von Humboldt. Lebensbild und Charakteristik*. Berlin, 1856.

SIEGFRIED AUGUST KAEHLER: *Wilhelm von Humboldt und der Staat. Ein Beitrag zur Geschichte deutscher Lebensgestaltung um 1800*. München, 1927

ARNOLD LABRIE: *De 'Bildungsphilosophie' von Wilhelm von Humboldt bezieen in haar politieke en sociale context*. Amsterdamse Historische Reeks. Den Haag, 1986.

ROBERT LEVOUX: *La formation de sa pensée jusqu'en 1794*. Paris 1932.

Id.: *L'anthropologie comparé de G. de Humboldt*. Paris, 1958.

BRUNO LIEBRUCKS: *Sprache und Bewußtsein*. 2 liburuki: *Sprache. Von den Formen «Sprachbau und Weltansicht» über die Bewegungsgestalten «innerer Charakter der Sprachen» und Weltbegegnung zur dialektischen Sprachbewegung bei Wilhelm von Humboldt*. Frankfurt a.M., 1965.

THEODOR LITT: *Das Bildungsideal der deutschen Klassik und die moderne Arbeitswelt*. Bonn, 1955

CLEMENS MENZE: *Wilhelm von Humboldts Lehre und Bild von Menschen*. Ratingen, 1965.

Id.: *Die Bildungsreform Wilhelm von Humboldts*. Hannover 1975.

KURT MÜLLER-VOLLMER: *Wilhelm von Humboldts Sprachwissenschaft. Ein Verzeichnis des sprachwissenschaftlichen Nachlasses*. Paderborn, 1993

JEAN QUILLIEN: *L'anthropologie philosophique de G. de Humboldt*. Lille, 1991.

CHRISTINA M. SAUTER: *Wilhelm von Humboldt und die Humanitätsidee*. Berlin, 1909.

Id. *Wilhelm von Humboldt und die Reform des Bildungswesens*. Berlin, 1910.

PAUL R. SWEET: *Wilhelm von Humboldt. A Biography*. 2 liburuki. Ohio State University Press, 1978/1980.

FULVIO TESSITORE: *I fondamenti della filosofia politica di Humboldt*. Napoli, 1965.

JÜRGEN TRABANT: *Apeliotes oder der Sinn der Sprache. Wilhelm von Humboldts Sprach-Bild*. München, 1986.

HEINRICH WEINSTOCK: *Die Tragödie des Humanismus. Wahrheit und Trug im abendeländischen Menschenbild*. Heidelberg, 1953.

AURRE-OHARRAK

ANTOLOGIARI

Antologia honek argitasun pare bat behar du aurretik. Koloniako Unibertsitateko C. Menze profesoreari «Klasikoak» sailerako Wilhelm von Humboldten idazkien antologia bat eskatu genionean, gure asmoaren muga eta xede hauetara lotu genuen bera alde aurrez:

- antologiak W. von Humboldten pentsamendua oro har bildu behar zuen.
- ez zuen Euskal Herriari buruzko haren idazkirik jasoko,
- ez zuen jasoko hizkuntzalaritzari buruzkorik ere.

Azkeneko bi barrutiok, izan ere, kapitulu berezitzat jotzen ditugu, Euskal Herriko interesetatik batik bat. Uste dugu Humboldt-en ikerlan linguistikoek, berek bakarrik antologia bat aparte behar dutela; eta hark euskaldunez idatzitako guztiak ere merezi duela egunen batean bilduma propio batean bereiz euskaraz aurkeztea. Antologia honek —nolabait esan— «Humboldt orokorrari» sarrera bat izan behar zuen.

Muga hauekin C. Menzek prestatuturiko Humboldten antologia bikaina, gero, gure esku egon ez den ustekabeko hainbat oztopo gain-tesinagatik, are gehiago mugatu behar izan da azken orduan. Horregatik irakurlearen interesekoa izan daiteke, hemen aurkituko dituen idazkiez gain, jatorrizko proiektuak aurreikusten zuen, C.

Menze profesorearen iritzian Humboldt-en ezagutza egoki baterako material osoaren berri jakitea.

Hona hemen, irakurleak esku artean duen antologiako testuez gain, W. von Humboldt-en ezagutza egokirako C. Menzeren gomendioak:

Politikaz eta estatuaz

1. Estatuaren eraginkortasunaren mugak zehazteko saio baterako ideak.

1792an prestatu zuen lan hau Humboldt-ek, baina ez zuen argitaratu, sakonago landu nahi zuelako. 1851n argitaratu zuen Cauer-ek Wilhelm von Humboldt-ek utzitakoen artetik. Argitaratutako testuak II. III. IV. V. VI. eta VII. kapituluak dakartza.

Estetika

1. Schillerri eta bere espirituaren garapenaren ibilbideari buruz.

Saiakera hau lehenbizi Wilhelm von Humboldt-ek berak argitaratu zuen, «Aitzin oharra» titulupean, bere «Briefwechsel zwischen Schiller und Wilhelm v. Humboldt» argitaratzean, Stuttgart eta Tübingen 1830, 3-84 or.

2. Goetheren Erromako bigarren egonaldia-errezentsioa.

Lehenbizi «*Jahrbücher für wissenschaftliche Kritik*»-en, 1830. urtean, 353-374. orr. (iraileko alea, 45-47. zk.), eta «Goetheren idazkien 29. liburukiaren errezentsioa, azken eskuko banaketa» zen bere izenburua.

Idazki historikoak

1. Historia idazlearen egitekoaz.

Saioa Jakintzetako Erret Akademia Prusiarrean izan zen irakurria lehenbizi 1821eko apirilaren 12an, eta lehen aldiz argitaratua izan zen in «*Abhandlungen der historisch-philologischen Klasse der königlich preußischen Akademie der Wissenschaften aus den Jahren 1820-1821*», 305-322 orr. (1822)

2. Munduko historiaz gogartea.

Saioa, Leitzmannen ustez, 1814ean idatzia da eta lehen aldiz argitaratua in «*Sechs ungedruckte Aufsätze über das klassische Altertum von Wilhelm von Humboldt, herausgegeben von Albert Leitzmann, 55-66 orr. (1896)*».

3. Munduko historiako zergati eragileei buruz gogartea.

Albert Leitzmannen ustez lan hau Londresko garaietan, 1818an egina da eta Leitzmannek berak argitaratu zuen lehen aldiz Wilhelm von Humboldten idazki guztiak, III. liburukia, Berlin 1904, 306-366 orr.

4. Latium eta Hellas edo antzinate klasikoari buruzko gogoeta

Zati hau, Leitzmannen ustez, Erroman idatzia da, 1805ean eta lehen aldiz argitaratua in «*Sechs ungedruckte Aufsätze über das klassische Altertum von Wilhelm von Humboldt, herausgegeben von Albert Leitzmann*», 112-153 orr. (1896).

Ikas eta ikerkuntza antolaketaz

1. Lituaniako eskolako plangintza.

Humboldt Königsbergen estatu idazkari sekretu zenean, Kultura eta Herri Irakaskuntzako sailean sortu zen 1809an Lituaniako eskolako plangintza hau. Eduard Spranger-ek argitaratu zuen lehen aldiz in «*Wilhelm von Humboldts Gesammelte Schriften. Herausgegeben von der Preußischen Akademie der Wissenschaften*». XIII. liburukia. Berlin, 1920, 276-283 orr., «*Unmassgebliche Gedanken über den Plan zur Einrichtung des Lithauischen Schulwesens*» tituluaz.

2. Berlingo institutu zientifiko garaiaren barneko eta kanpoko eraketari buruz.

Zalantzakoa da data. Zatitan gorde den lan hau seguruenara 1810eko udaberrian edo udan egina da. Memoriaren lehen zatia Bruno Gebhardt-ek argitaratu zuen: «*Wilhelm von Humboldt als Staatsmann*», 1. liburukia, Stuttgart, 118-124 or. Lehen aldiz bere osoan Otto Harnack-ek: «*Geschichte der Königlich Preußischen Akademie der Wissenschaften zu Berlin*». 2. liburukia (Agiriak eta akten zatiak), Berlin 1900, 193. agiria, 361-367.

Hizkuntza eta pentsaera

1. Pentsatzeari eta mintzatzeari buruz.

Leitzmannek argitaratu zuen lehen aldiz zati hau in «*Wilhelm von Humboldts Gesammelten Schriften*», VII. liburukia Berlin 1907, 581-583 or. eta izena ere berak eman zion. Bere ustez 1795/94 arteko neguan idatzia da. Horretarako arrazoi bezala eskuizkribuaren filigrana ematen du. Data hori ez zait niri erabakigarria iruditzen.

2. Dualari buruz.

Lan hau lehen aldiz irakurria izan zen 1827ko apirilaren 26ean Jakintzen Akademian, eta 1830ean argitaratua in «*Abhandlungen der historisch-philologischen Klasse der königlich preußischen Akademie der Wissenschaften aus den Jahren 1827*», 161-187. orr.

3. Giza sintaxiaren desberdintasunari eta gizadiaren izpirituzko garapenean duen eraginari buruz.

Humboldt 1830etik 1835ean hil zen arte ahalegindu zen obra hau idazten. Kawi obraren sarrera da; lehen liburukia amaitu zuen, baina bigarrena eta hirugarrena ezin amaitu ahal izan zituen. Obra osoa hiru liburukitan azaldu zen. Berlin 1836, 1838, 1839.

(1. liburukia: Sarrera. Lehen liburua: Java eta India arteko erlazioari buruz. 2. liburukia: Bigarren liburua: Kawi hizkuntzari buruz. Hirugarren liburua: Malaiako hizkuntz arbolarari buruz. 3. liburukia: Hego itsasoko uharteetako hizkuntzei buruz). Argitaratua «*Wilhelm von Humboldts Gesammelte Schriften*» jarraituz, VII. lib. 13-164 orr.

Gutun hautatu batzuk

1. Schweigerhäuseri, 1803ko uztailaren 6koa. Iturburua: Albert Leitzmann (argitaratzailea): *Wilhelm von Humboldt Briefe an Karl Gustav von Brinkmann*. Leipzig, 1939, 154. orritik 157.era (laburtua).

2. Karl Gustav von Brinkmanni, 1809ko urriaren 22koa. Iturburua: Albert Leitzmann (argitaratzailea): *Wilhelm von Humboldt Briefe an Karl Gustav von Brinkmann*. Leipzig, 1939, 154. orritik 157.era (laburtua).

3. Karl Gustav von Brinkmann-i, 1804ko otsailaren 4koa, a.l. 162. orritik 164.era (laburtua)

4. Steini, 1819ko urriaren 10koa. Iturburua: Rudolf Freese: Wilhelm von Humboldt. Sein Leben und Wirken dargestellt in Briefen, Tagebüchern und Dokumenten seiner Zeit. Darmstadt, 1896. 678. orritik 680.era (laburtua).

5. Steini 1820ko martxoaren 22koa a.l. Rudolf Freese, a.l., 692. orritik 694.era (laburtua).

6. Goetheri 1820ko uztailaren 1ekoa. Ludwig Geiger: a.l. 250. orritik 252.era (laburtua).

Dena den, orain dagoen horretan ere, espero dugu antologia honek euskal irakurleari Humboldt-en ezagutzarako bidea zabalduko diola, irakurketa gehiagori ekiteko ere gogoia piztuz.

Joxe Azurmendi

GIZA PRESTAKUNTZAZ

GIZA PRESTAKUNTZARI BURUZKO TEORIA

Zatia

Egiteko obra handi eta bikaina litzateke, baldin norbaitek giza ezagutzako diziplina desberdinek, beren hedapen zorientsurako, eskatzen duten gaitasun propioak adierazteari ekingo balio; bakoitza lantzeko espiritu egiazkoa, eta denak beren artean uztartzeko behar den lotura, gizadiaren heziketa bere osoan osa dadin. Matematikaria, natur zientzilaria, artista, baita sarri filosofoa bera ere beren auzian abiatu ohi dira bere natura propioa ezagutu gabe eta hura bere osotasunean ikusi gabe; aldiz, gutxi batzuk igotzen dira geroago puntu horretara eta perspektiba orokorrako horretara. Baina egoera okerragoan gertatzen da oraindik, diziplina haietako bat bakarra kanpoan uztea hautatu gabe, bere heziketarako guztietatik abantaila atera nahi duena. Askoren artean hautatu beharraren nekean, eta prestutasun faltan, bat edo beste, haren muga estuetatik irtenik, azken helburu propio orokorrako baterako erabiltzeko asmoz, derrigor iristen da goizago edo beranduago bere burua halabeharraren esku uztera, eta zerbait hartzen badu mendeko asmoetarako bakarrik edo denbora laburtzen duen mekanismo soil bezala erabiltzera. Hemen datza arregura sarri eta ez zuzentasun gabeko baten arrazoi handienetako bat, alegia, jakitea alferrikako eta espirituaren lantzea antzu geratzen dela, gure inguruan gauza asko egiten dela baina gudan apenas ezer hobetzen dela, eta buruaren heziketa zientifiko goragoko eta gutxirentzat egoki denaren gainetik, gogoaren orokorrako eta bertanagotik baliagarria albora uzten dela.

Ekimen mota berezi guztien erdi-erdian, izan ere, gizakia dago; eta honek nolabaiteko bakarrera zuzenduriko inolako asmorik gabe, bere naturaren indarrak sendotu eta jaso nahi ditu, bere izaerari balioa eta iraupena eman. Baina indar soilak objektu bat behar duenez, non berak jardun, eta forma soilak, pentsamendu hutsak materia bat non aurrerantzean iraun, norbera han espresatuz, hala behar du gizakiak ere mundu bat bere baitaz kanpo. Horregatik jotzen du bere ahaleginak bere ezagutzaren eta eraginkortasunaren alorra zabaltzera eta bera horretaz guztiz jabetu gabe ere, ez zaio inporta berez harengandik irabazten duena, edo horren bitartez norberarengandik kanpo sortzen duena, baizik bere barnea hobetzea eta nobletzea inporta zaio, edo gutxienez bera xahutzen duen barneko ezinegona baretzea. Berez eta bere azken asmoan ikusirik, bere pentsatzea bere espirituaren ahalegin bat baino ez da, berez ulertzen duena, bere jarduna bere nahimenaren ahalegin bat berez aske eta libre bihurtzeko; bere kanpoko ekimen guztia, ordea, bere barnean alferkerian ez geratzeko ahalegin bat bakarrik. Soilik biak, bere pentsatzea eta bere jardutea hirugarren baten bitartez baino, zerbaiten irudikatzearen eta lantzearen bitartez baino ez direlako posible, haren ezaugarri bereizlea bereziki ez-gizaki, hau da mundu izatea delarik, saiatzan da ahal beste mundu hartzen eta ahal bezain hertsiki norberarekin lotzen.

Gure existentziaren azken egitekoa: gizadiaren kontzeptuari gure pertsonan, gure bizitzako denboran bezala, haren ondotik geroago, gure ostein uzten ditugun jarduera biziaren arrastoen bidez, ahal bezain eduki handia sortzea, egiteko hau ahitzen da bakarrik gure nia munduarekin korapilatuz truke orokorren, bortitzen eta askeen bilakaturik. Hauxe bakarrik da orobat neurri propioa giza ezagutzaren adar bakoitzaren lanketaren ebazpenerako. Izan ere, begiak aurrerapen hondatu gabe bat azken helburu honetaraino segi dezakeen bidea da zuzena bakoitzarengan, eta hemen bakarrik bila daiteke sekretua, bestela hil eta erabili gabeko geratzen dena, bizitzeko eta ernaltzeko.

Gure nia munduari lotzeak dirudi lehen begiratuan ez bakarrik esamolde ulergaitz bat, baizik areago gehiegizko pentsamendu bat. Baina zehatzago ikertuz gero, azken susmoa galdu egingo da, eta agerian geratuko da, baldin giza espirituaren benetako ahalegina (han baitago bere oldarrik gorena bezala bere ahalegin ustelena) bilatzen bada, ezin geldi daitekeela txikiago den zerbaitetan.

Zer eskatzen zaio nazio bati, garai bati, gizadi osoari, berari errespetu eta miresmen guztia eskaini behar bazaio? Eskatzen zaio nortasun prestakuntza [«Bildung»], jakituria eta bertutea ahal bezain indartsu eta orokorki haren barnean zabal daitezela, haren barneko balioa gora jaso dadila, gizadiaren kontzeptuak, baldin hori adibide bakar bezala hortik atera badaiteke, eduki handi eta duin bat lor dezala. Ez dago horrekin pozik geratzerik. Eskatzen da oraindik gizakiak berak prestatzen dituen eraketak, bera inguratzen duen bizirik gabeko naturarenak ere, bere balioaren aztarnaz ikusteko moduan marka ditzala, are bere bertutea eta bere indarra (hain indartsuki eta hain subiranoki distirarazi behar dute bere izaera osoa) berak sortzen dituen ondorengoei ere itsas diezaiela. Era honetan bakarrik, izan ere, da posible behin erdietsiriko abantailen iraupena, eta hau gabe, nobleztearen eta nortasunaren prestakuntzaren jarraipen jakin baten pentsamendu lasaigarririk gabe, gizakiaren existentzia iragankorragoa litzatekeela landareen existentzia baino, hauek, izan ere, zimeltzen direnean, garbi baitaukatere beren berdina izango den sorkari baten hazia uzten dutela.

Eskakizun hauek guztiak gizakiaren barneko izaerara mugatzen badira ere, bere naturak etengabe bultzatzen du bere baitatik irtenik beragandik kanpo dauden objektuetara joan dadin, eta hemen arazoa da irtete honetan ez duela bere burua galdu behar, baizik aldiz beretik kanpora ekiten duen guztitik argi pizgarriak eta berotasun onuragarriak bere barnean berriro atzera distiratzen duela. Helburu horretarako, ordea, berak objektuen pila bere alderantz hurbilago ekarri behar du, gai horri bere espirituaren itxura itsatsi eta biak elkarren artean antzeko egin. Hartan dago batasun erabatekoa eta elkarrekiko eragiketa orokorra, biak, beraz, eraman behar ditu naturara; hartan badaude gaitasun zenbait, bera objektu berbera itxura desberdinetan, behin ulermenaren kontzeptu bezala, behin irudimenaren irudi bezala, behin zentzuaren ikuspegi bezala bere kontenplazioaren aurrera eramateko. Guzτιαuekin bezala beste hainbat baliabiderekkin saiatu behar du berak natura ulertzen, ez hura alderdi guztietatik ezagutzeko, baizik ikuspegien ugaritasunaren bidez norberaren baitan bizi den indarra sendotzeko, handik datozelarik bestela eta bestela eraturiko eraginak. Baina, hain zuzen ere, batasun eta guztitasun horrek zehazten du munduaren kontzeptua. Gainera, kontzeptu horretan, hain zuzen,

maila erabatekoan aurkitzen da ugaritasuna, zeinarekin kanpoko objektuek gure zentzuak kilikatzen baitituzte, eta existentzia independente propioa, zeinaren bidez gure sentiberatasunaren gainean eragiten baitute. Izan ere, munduak bakarrik biltzen du pentsa daitekeen ugaritasun oro eta horrek bakarrik dauka independentzia hain askea, non gure nahiaren setari naturaren legeak eta halabeharraren erabakiak kontrajartzen dizkion.

Beraz, gizakiak derrigor behar duena da objektu bat, bere sentiberatasuna eta bere berezkotasuna elkarrekiko eraginkor izan daitezkeen posible egiten duena. Baldin objektu hau bere esentzia osoa bere indar betean eta bere batasunean mugiarazteko kapaz izango bada, horrek objektua azken batean, mundua izan behar du, edo bestela (hau baita bakarrik zuzena) halakotzat hartu behar da. Askotasun distraitzaileari eta nahastaileari ihes egiteko bakarrik bilatzen da guztitasuna; norbera modu huts eta antzu batez amaibakotasunean ez galtzeko, egiten da zirkulu bat, puntu bakoitzean erraz gainbegira daitekeena; aurrera egiten den urrats bakoitzean azken xedearen ideia lotzeko, bilatzen da jakite eta jardute zabaldua itxi, erudizio soil nortasun prestakuntza jakintsu, ahalegin soil urduria ekite zuhur bihurtzea.

2.

Hau guztia hau sustatu beharko litzateke era indartsu batean goian aipatu dena bezalako obra baten bidez. Izan ere, giza jardueraren mota ugariak espirituari ematen dioten norabideetan eta haiek egiten dizkioten eskakizunak begiratu eta konbaratzeak eramaten zuen zuzenean gudan eragina duen guztiak jo behar duen muinera. Hark zuzendurik, ihes egin zuen kontenplazioak objektuen amaibakotasunetik gure gaitasunen eta haren lankidetzaren ugariaren zirkulu hertsia gora; gure jardueraren irudia, guk bestela zatika eta bere kanpoko arrakastetan ikusten duguna, azaltzen da hemen argitzen eta une berean biltzen duen ispilu batean bezala, gure barneko giza prestakuntzarekin zuzenean loturik. Bizitzako lan bakoitzak honen gainean izan dezakeen eragina erraz eta garbi hartuz, bereziki aurki zezakeen halakoak bere indarren gehitzearekin eta bere nortasunaren nobletzearekin bakarrik zerikusirik duen horretan aurki dezake halakoak bere ikasketa.

Baina une berean lan bakarrean ari denak ikasten du betetzen bere lana bere benetako espirituan eta zentzu handi batean bakarrik. Ez du nahi gehiago bere ezagutza edo tresna gizakiarentzat prestatzea honek erabil dezan, ez gehiago bere nortasunaren prestakuntzaren zati bat bakarra bakarrik sustatzen laguntzea; ezagutzen du josi zaion helburua, ikusten du ezen, era zuzenean bultzaturik, bere lanak espirituari munduaren ikuspegi propio eta berria eta haren bitartez bere beraren animo propio eta berria ematen diola, ezen bera dagoen aldetik bere nortasunaren prestakuntza osoa osa dezakeela; eta hori da bere ahaleginen helburua. Baina berak indarraren eta haren gehitzearen alde bakarrik lan egiten duenez, asetzen du bere burua bakarrik bereak erabat bere obran markatzen dituenen. Baina ideala handiagoa izango da, hura lortzen duten ahaleginak kanporatzen direnean hura aurkeztu behar duen objektua kanporatzen denean baino. Alde guztietan jeinuak jaten duen barneko hersturaren asetzea dauka helburutzat; eta irudigileak, adibidez, ez du berez jainko baten irudia aurkeztu, baizik bere irudimen plastikoaren betetasuna adierazi eta finkatu nahi du irudi horretan. Eginkizun bakoitzak ezagutzen du berari propio zaion espirituaren animo bat, eta hantxe datza bere bikaintasunaren benetako espiritua. Kanpoko baliabide asko dago beti hori egiteko; baina haien arteko hautaketa hark zehaztu dezake bakarrik, nahiz asetasun txikiagoa edo handiagoa topatu.

Gure espirituaren jokamoldea, bereziki bere eragiketa guztiz ezkutuan, pentsatze sakonaren bidez eta norberaren buruaren begiratzetxe etengabearen bidez ikertu daiteke bakarrik. Baina horrekin apenas ezer gertatzen den, baldin orobat buruen desberdintasuna, moduen ugartasuna kontuan hartzen ez badu. Lan horrek horregatik une berean ugartasun hau adierazi beharko luke, eta, nonbaiteko alor batean nabarmendu direnen artean, inori ez lioke eman beharko, haren bitartez irudi berri bat edo kontzeptu zabalago bat erdietsi baleza. Honek bere individualtasun perfektuan, eta berarengan bere garaiak eta bere nazioak egin zitzaizketen eragin guztiak azaldu beharko lituzke. Horren bitartez ez bakarrik ikusten dira alor bakoitza gauzatzeko leudekeen modu ugariak, baizik jarraipena nola datorren bakoitza bestearengandik segidan. Baina segida hori karakter nazionalaren, garaiaren eta kanpoko zirkunstantzien eraginez inolaz hautsi daitekeenez, bi zerrenda desberdin baina beti elkarrekiko eragina dutenak aterako lirateke:

alde batetik espirituzko jarduera bat edozeinek bere aurrerakuntzan beti eta beti irabazten dituen aldakuntzak, eta bestetik gizakiaren jiteak nazio eta garai bakoitzean bezala bere osoan, jardutearen bitartez bereganatzen duelarik, beti eta beti hartzen duena; eta bietan azaltzen ziren, bestalde, desbideraketak, norbanako jeinuz beteek bestela etetik gabe aurrera egiten duen naturaren ibilbidea bat-batean eragozten dituztenak, eta beren nazioari edo beren garaiari bat-batean ikuspegi berrietara irekitzen dituzten bestelako bideetara botatzen dituzte.

Hau urratsez urrats segitu eta azkenean bere osoan ikusten denean bakarrik, lortzen da kontu osoa ematea nola gizakiaren nortasun prestakuntzak aurrerapen neurritsu baten bidez iraupenean irabazten duen, uniformitatean hondatu gabe ordea, horrekin gorputzezko naturak, sekula ezer berririk sortu gabe, beti berriro eraldaketa berberak igarotzen baititu.

JACOBIREN «WOLDEMARREN» ERREZENTSIOA

Baldin sistema filosofiko bat berak aztertzen duen egiaiekiko bere barneko ondorioaren eta kointzidentziaren arabera objektiboki epaitzen bada, subjektiboki ere bere egilearen espirituarekin eta karakterrarekin konbara daiteke aurrerantzean, eta aztertu ere azter daiteke zenbateko behartasun mailarekin bere individualitatetik ateratzen den, eta zein berezitasun dakarren berarekin ikuspegi honetatik. Zenbat eta garrantzitsuago den filosofatze ororen xede propioa, alegia, egia ez-sentsorialen ezagutza ere ezagutza horren tinkotasunaren azterketa zorrotza, orduan eta interesgarriago izango da hara iristeko zenbait buru desberdinek ahaleginez segitu behar izan duten bidea arretaz aztertzea. Baina interes hau gutxiago dagoen bezala sistemaren beraren balio objektiboaren esku bere egilearen individualitate bereziaren esku baino, halaxe lan hau filosofiari, jakintza bezala, zuzenean baino askoz emankorrago izango zaio hura burutzen duen filosofoari. Egiaz benetako filosofia baten ideala —baldin honek, hain zuzen ere, giza ondare osoaren erabateko neurtzea oinarritzat hartu behar badu, ondoren ezagutza objektiboaren posibilitatea zehazteko eta ondare horren egintzaren lege orokorrak aurkitzeko— giza indar guztien ahalegin bateratu batetik bakarrik etor daiteke, noski. Baita egiazkotasuna eta balio orokorra erabat ukatu beharko litzaietkeen sistemetan ere haiek sortu zituzten indarrarekiko lotura hertsia etengabeko arreta itsatsi dakioke. Azalduko balitz, beraz, buru pentsalari

guztiak filosofia bati buruz bat etorri diren une bat, halere, orain arteko sistemen ikerketa ikuspegi honetatik derrigorrezko litzateke oraindik ere. Gehienera ere hauxe litzateke kasua beren bizitza goren osoa beren konbentzimendu filosofikoan barnenetik eho duten gizakien sistematan; nola honetan, adibide bat jartzeko, beharbada inork ez dituen ez gaititu grekoak, haien sistemak kasik erabat beren indar guztien emaitza baitira beren ahaleginaren harmoniarik gorenean, eta inork ez baititu filosofo bezala guztiz aintzat hartuko, gizaki bezala haiek ulertzeko asmorik ez badu. Hemendik dator, beraz, filosofiaren historia tratatzeko era bikoitz eta hain desberdina, bi buru prestu guztiz desberdinen baino gutxiagoren bidez arrakasta erdiesteko itxaropenez nekez bila daitekeena. Izan ere, batak hemen onarturiko sistema egiazko bakarra etengabe begien aurrean eduki behar duen bitartean, besteak gehiago hartu behar ditu gogoan espiritu filosofikoaren norabide desberdin posible guztiak. Batak zorrotasun zorrotzenaz bere arau bakarretik urruntzen den oro atzera bota behar duen bezala, besteak aniztasun liberal batez bere iritzi propioak erabat erauzi behar ditu eta ikuspegi arrotzak erabat, baina inolaz ere ez okerreko bezala —guztiz bere iritzi propioaren kontrako izanda ere— ikusi behar ditu. Baldin, ordea, filosofia bat badago frogaren eta kontrafrogaren bidez eztabaida ezin daitezkeen gauzen gainean oinarritzen ez dena, baizik bakarrik bat datorren edo kontrajartzen den sententzia bat bakarrik baieztatu edo gaitzetsi dezakeena, orduan honetan bere sortzailearen indibidualitatearekiko lotura subjektiboa garrantzizkoa izango da edukiari dagokionez ere. Ikuspegi jakin batean inolaz pentsa litezkeen filosofia orotan konuan hartu behar da kasu hau. Izan ere, bakoitzak azken batean zuzeneko ezagutza batean, gertakari batean bezala, oinarriturik egon behar baitu. Hartaz, izan ere, izan litezke sistema filosofikoak gisa horretako gertakari anitz oinarritzat dituztenak. Mota horretakoak dira guztiz *Eduard Allwills* gutun-bildumaren argitaratzaileak bere bezala aitortzen dituenak. «Hark ikertu zuena», esaten du bere buruaz liburuaren atarikoan, XV. orrian, «saiatu zen bere buruan geratzeko eran itsasten. Bere konbentzimendurik garrantzizkoenak zuzeneneko kontenplazioan oinarritzen ziren; bere frogak eta ihardespenez gertakari hein batean (berari iruditzen zitzaionez) nahikoa ohartueta, hein batean ez nahikoa erkatueta». Gisa honetako teorian ez dago —eta horrek ez dio noski berorri baliozkotasun orokorraren posibilitatea erauzten— beste konbentzimendu modurik ez

bada ni partaide izan nintzen gisako kontenplazio batean, gisako gertakari baten jakinaren gainean jarri nintzen egoera berera bestea eramatea baino. Hemen argitu behar duen argia izan daiteke lehendik piztuta zegoen argia bakarrik piztea. Oso zuzen segitzen du, beraz, pasarte hori idatzi duenak aurrera: «Beraz, bere konbentzimenduak besteei eman nahi bazizkien, *deskribatuz* eman behar zizkien». Hori egiten saiatu da egilea obra horretan bezala honetan ere, eta berak hemen (l. lib., sarrera, XV. orria) berariaz hona ekarririko pasartearen gainean lehenago azalduriko idaztiaren aipamena egiten du. Ezinezkotasunaren digresio luzetxo hau barkatu egin beharko da, beraz, aipaturiko obraren helburua beste era batean guztiz azaltzeko, eta haren berezitasunarako behar bezala prestatzeko. Zenbateko neurrian zuzeneko kontenplazio bakoitzak zeharbidezko ulerkera baino eskaintzen ez duen azalpen oro kanpora uzten duen, eta zenbateko neurrian kontenplazio eta gertakari horiek oinarritzat dutena —horren gainean oinarritzen denak baliozkotasun orokor bilakatzeko asmoa badu— ez bakar bati baizik gizadiari dagokion horretarako idazleak bere idaztiaren asmoa zehatzago eskaintzen du: «Gizadia, bera den bezala, argigarria edo ezinargitsua, begien aurrean ahalik eta zintzoen ematea». Ez bakarrik da, noski, helburua garaia, baita ahalegina zaila ere! Hori lor dezanak, berak bere baitan gizatasun altua izan behar du, bere burua sarri eta zorrotz aztertu behar izan du eta epai geldikoaz bere karakterraren kontingentea ezinbestekotik bereizi behar izan du, horren bitartez zuzenean gizadiak bere irudi ideal garbian baitago loturik. Gisa horretako gizon batek bakarrik sor dezake Woldemarren pasarte askok irakurle iritzikideari utziko dioten bezalako inpresioa; eta baldin beste zenbait emaitza literariok idazlearen talentu bakan batzuk bakarrik egiaztatzen badute, oraingo honek bezalakoek gizakiaren karakter osoa azaltzen dute. Sentsazio hori bikoiztu egingo da, halere, mintzagai dugun idaztia filosofia *praktikoaz* bakarrik ari delarik; lerro bakoitzak sentimen garbiena, jatorrena, moralena, edertasun-zentzu xamurrenaz eta hunkigarrienaz loturik, arnasten duelarik; eta gutxiago arrazoitzen ikusten delarik gizadiari buruz, eta ikuspegi batean bederen gizadiaren ordezkari dei daitezkeen pertsonak egoera jakingarrietan jardunean.

Karakter bakan pare batek, ore indartsuenaz eta orobat finenaz eginak biak, gizadia beren gain daramatenak, eta gizatasunak har dezakeen formarik nobleenean moldeatuak, egoera sotilean, baina era

berean espiritua bezala bihotza egintzan ipinia dutenak, balio diote bitarteko bezala idazleari beraiengan benetako bertutearen eta moralitatearen kontzeptua bere garbitasun osoan azaltzeko. Edertasun moral altu bat erdiesteko dohain izugarri egokiekin, eta ontasunaren, norberaren ukapenaren eta bihotz-zabaltasunaren obligazio oro beteitzeko berezko sentimen batekin, bere moralitatea ez bakarrik bere baitatik, bere arrazoi praktikoaren indarretik sortzen ikustera ohitu da Woldemar, baizik orobat ohitu da bestetan beraien oposizioarekin gogor borrokatu behar duen joera gaiztoen erditik ere. Antolaketa zoriontsu horri gaineratzen zaio berarengan arrazoizko argudioetan sendoturiko konbentzimendua ezen, bertutea bezalako zerbait hain gorenak eta jainkotiarrak derrigor zuzeneko automatismotik sortu behar duela, eta ez kanpoko forma eta arauen mende egon, ezta helburu jakin batzuk lortzeko kontzeptuen eraikuntzaren bidez ezin dai-tekeela artifizialki jaso. Sentimenaren berotasun goriak, irudimen biziak, eta bereziki bere izate osoaren barneko harmoniak, batez ere pentsatzeko eta sentitzeko bere indarren arteko lotura estuak lotzen dute nonahi etengabe errealtate kontenplatura, automatismo askera, eta urruntzen dute alde guztietan idealitate abstraktutik, are ustezko ezinbestekotasunetik bertatik ere. Hartaz argudio hauek guztiek hain batera lan egiten dute, non berak, bertutearen eta moralitasunaren izateari buruzko konbentzimendu teoriko zuzenenetan, egintzetan errespetatzen dituen legeetara makurtzen baino gehiago betetzen baititu maite dituen obligazioak; non beretzat obedientzia eiki gizakiari komeni zaion baino arrotzago baitzaio, eta non bertutearen aginduak bertutetsuaren egintzetan bakarrik bilatzen baititu, hauek, bere esanetan, egitatearen bidez moralitasunari arauak agintzen baitizkiote, jeinuak arteari bezala. Ez da harritzeko, beraz, baldin berak ez gutxitan bere sentimendu moralari, aldi bakoitzeko beharrezko azterketarik gabe ere, leku gehiegi emateko, eta bere bihotzaren iradokizunekiko gehiegizko konfiantzaz ezinbesteko ondorioak ateratzeko arriskua badu. Aztura horrekin sartzen da Woldemar familia baten barruan; kideetako bat bere anaia Biderthal delarik, eta maitasunaren lokarriaz baino gehiago senitartekotasunez elkarrekin kateaturik daude. Egunoroko bizitzako ohiko gertakarietako aitzakia txikiek egoki eta komenigarri denari buruzko elkarrizketak sortzen dituzte, eta elkar-rrizketa aitzakia txikietatik printzipio orokorragoetara altxatzen denean, moral eta bertutetsu denari buruzkora, gure mendeko eta antzina-

teko moralitatearen arteko desberdintasunari buruzkora, eta abar, horietan —eduki filosofiko garrantzizkoaz aparte— Woldemarren eta azaltzen diren gainerako pertsonen karakterrak berez bezala garatzen dira irakurlearen aurrean. Woldemar inguratzen duten guztien artean, Henriette, bere anaiaren koinata oraindik ezkondu gabea da arreta gehien erakartzen duena. Beste sexuaz berak ordura arte izandako iritzi guztiak iraultzen dizkio. Emakumezkotasun oso eta betearen ondoan zerbait berezia aurkitzen du harengan, sexuari buruz duen uste orokorrarekin uztartzen asmatzen ez duena, zerbait goragoko eta handiagoa; eta gero eta hertsiago lotzen dira beren bihotzak elkarrekin, erlazio sakoneneraino. Bere ideia garrantzizkoen eta goienekin, bere izate propioenarekin lotuta dago adiskidantza hau Woldemarrengan. Sentimenen eta grinien aldaketen erdian, apeta ugarien sortu eta galtzeen ondoan, zerbait sendo eta aldagaitza sentitzen du bere baitan. Bere barnea era harmonikoenean doiturik zegoen unetan, hazten zen orobat sentimen oro bizikien; eta aldagaitz, gizakiaz gaindiko horren gainean bakarrik oinarri zitekeen orobat egiazko bertutea, hilkorraren jainkozkoarekiko senidetasuna. Halere horren ondoan giza naturaren aldakortasuna hain baitzen agerikoa, non zerbait goragoko horren sentimena bera ilundua gertatzen zen horrela maiz, bere biziera bera ere ezinulertua gertatzen zen; premiarik larriena bihurtzen zen beretzat, bere ziurtasun ezbairik gabea segurtatzeko. Woldemarrek, ohi baino bortizkiago eta bizikiago hunkitzen baitzuen guzti honek, ziurtasun honen bila bere gisara borrokatzen zuen. Sentimena, kontenplazioa, errealitate egiaztatua guztien gaine-tik zeuzkan. Beste izate batetan aurkitu behar zuen bere baitan zigortzen zuena. Hala ikasi behar izan zuen, «ezen bere jakituria ez zela poesia». Luzaz kezkatu behar izan zuen horrekin, luzaz bilatu, aurkitze zoriontsuaz amets egin. Azkenik Henriettek argitu zion ametsa, eta nola orain bere adiskidantza bertute garbienaren sentimen gorenera igo zen, hala gidatu zuen bere bertuteak berriro adiskidantzara, arreba-euskarri batera bezala. Ez egiaz indar propio gutxiegi izan balu bezala, baizik isolaturik orobat bere karakterra galdu egiten zelako eta bere benetako izatearen ezbairik gabeko ziurtasuna ezkutatzen zelako. Hari indartsu baina egiaz guztiz finekin adiskidetasun sentimen horretan ehuna zegoen inpresioa, alegia haren emakumezkotasunak eta berariaz emakumezkotasun ederrak ezin zuela huts egin gizon sentibera eta asmo onekoarengan. Gizon batekin Woldemarren adis-

kidantzak bestelako aldaketak hartuko zituzkeen, inolaz emakume-
arima batek bakarrik argituko zion amets hura, eta baliabide-argibide
zenbait beharko lirateke baldin bere aitoren propioa, «ezen emaku-
mezko erakargarritasun oro Henrietterengan berari agerikoago
zitzaiola gainerakoei baino, ezen beste neska bat ez zitzaiola oraindik
gustukoago gertatu Henrietteren parean» bere baieztapenarekin, ale-
gia, «ezen berarekiko sentitzen zuenak ez zuela zerikusirik batere
bere sexuarekin» kontraesanean ipini nahi ez bada. Hain gustura bere
mugimenduaren apenak egiazaturik edo gezurtaturik ikusiko lituzke-
en irakurleak penaz ikusten du, gaiaren fintasunak bere arreta erakar-
tzen duenean, historiak erlazioaren xehetasun finenak zehaztu gabe
uzten dituela; neke handiz aurkitzen ditu adituak han eta hemen ira-
dokizun arinak. Baina Woldemarrek bilatzen zuena, eta nola bilatzen
zuen, emakumezko arima batean baino ezin zezakeen aurkitu. Bere
izatearen naturak derrigorrean gidaturik, eta kanpoko bere egoeraren
bitartez lagundurik, beste sexua dagokio hein handi batean norbera-
ren ideietan eta sentsazioetan barneko bizitze eta ehotzeari. Hartaz
bere burua sotiltasun handiagoan mugatuz, emakumezko espiritua
irudi apurtxo bat pobreagoa eta ahulagoa izan daiteke nahi bada,
baina egiaz beste ezer baino garbiagoa eta, hartaz, Woldemarrek atse-
kabez huts ematen zuena eskaintzeko egokiena. Baina grina hura, zei-
naren ziurtasunaren bila hain antsiasi baitzebilan, eta filosofiak bes-
tela desinteresatu, arrazoï praktikoaren azalpena, deitu ohi duena
baino ez dena, grina soil bezala emakumearengan jada askoz eginko-
rragoa eta etengabe bizia da, joera eta sentimen guzti hauen aldean.
Bere goragoko naturan bakarrik dago nabarmenago. Beren boronda-
te propioaz mugitzen diren izaki guztien artean, emakumeak dira oro-
bat naturaren ordena iraunkor, beti errepikatzen dena hurbilen gera-
tu direnak. Horregatik eta edertasunerako duten zentzu finagoaren
eraginaren bidez, beren grina guztiak, egoistak ere, garbiago eta har-
monikoago daude doituak, eta baita beren ahultasun xamurrak ere
desio bortitz eta aldakorra sarriegi nahastea eragozten du. Azkenik,
badirudi zuzenean datozela naturaren eskutik. Gizonarengan ez beza-
la, honen nahimen indartsuago eta eginkorrago baten egintza arbitra-
rioak gutxiago zeharkatzen duelarik, izaki honen esentzia gehiago da
naturaren eta zirkunstanzien egoeraren bidez sorturiko osotasuna.
Harengan aurkitzen dena seguruago da barneko bere izaeratik erato-
rritako naturaren obra, sorkuntza propioa baino. Baina nor ez da fida

gusturago aldagaitzaren lekukotzan, beti aldatzen doan gizakiaren ahotsean baino? Hala, Woldemarrek bere karakterraren berezitasunaren bidez bezala berak huts ematen zuenaren bidez, emakumezko sor-kari bati bortitzago lotua izan behar zuen; eta hala harrituta uzten du egiaz emakumezko erakarpenaren eraginari buruz Henrietteri egiten dion harako aitorten haren egiak. Beharbada irakurlea erlazio honek bizikiago konbentzituko zukeen, baldin zehaztapen hauek argi biziago batetan ipiniak izan balira. Orain zail gertatuko zaio Henrietteren irudi egiazko eta zuzena, bereziki zehatza egitea; izan ere, berak, gutxienez Woldemarren arimara aldatu, aukera gutxi izango baitu hura egiaz den bezain emakumezko pentsatzeko. Edota berari ez jakinean geratu behar du? Edo, beste aldetik, Woldemarren auto iruzurrari egotzi behar dio guztia? Historiaren garapena ezinegon handia-
goz itzaroteko, adiskidetasunaren azpian benetako maitasuna uste behar du? Uste hori egiaz okerra litzateke, eta Woldemarren joera Henrietteganako ulerkera gorenean garbi dei zitekeen, baldin maitasuna orban izendatu beharko balitz. Ez, noski, hasieran Henriettekin lotzen zuena benetan soilik morala zelako, isildu behar du berez desio sentsual oro. Grinatsu bilatzen duena, hain zuzen ere, iragankorraren, aldakorraren, gorpuztiarraren guztiz kontrakoa izaki, haserretu egin behar du sentsazio sentsual baten nahasketarik txikienak. Nola edo hala ilun sumatzen duenaren ziurtasuna lortu nahi badu, ezin du hori berriro ikusi beste gai arrotzekin erraz engaina dezakeen lotura batean, hori arreta handiz apartatu behar du eta argiturik bere barneko begiari erakutsi. Aldagaitzari lotua dagoenarentzat bere erakarpena galtzen du aldakorrak. Woldemarrengan ez dira pentsatzeko eta sentitzeko indarrak, biak bakoitza bere aldetik heziak eta zainduak, beren heldutasunean elkartu; haurtzaroaz geroztik elkarrekin hazi dira, eta lehenek hezi dituzte azkenak. Izan ere, batasunaren bila dabilen arrazoia —beti errazago uztartzen baita hau fantasiarekin, honengandik mailegatzeko baitizkie sinboloak bere ideiei— ulermen bereizlea baino indartsuagoa baita berarengan. Hortik, beraz, bere borroka zuzeneko, garbi orenen atzetik, existentzia absolutuaren atzetik. Baina hori guztia ez dago errealitatean. Oro da han zeharkako, sortu, nahastu, baldintzapean dena. Hala sortzen da mota honetako izaeretan errealitate enpirikoaren kontrako higuina, eta zirrara sentitzeko moduari dago-kionez sentsualitatearen kontrako higuina. Sentimenak indar handia-
goz jotzen du atzera zirrara espiritualetara; irudimena ezohiko maile-

tara hazten da; ikusten da fenomeno harrigarria, alegia, zirraren indar izugarria guztietan jatorrizkoenaren, handienaren kontra elbarritzen dela. Alde guztietan aurkituko da uztarturik fantasiaren garra zentzuaren hotzarekin. Henriettek, ordea, ez zukeen egundo pentsatu ere egingo Woldemarrengan maitasuna piztea. Adiskidantzak aniztasuna eskatzen duen bezala elkar indartzeko, maitasunak desberdintasuna eskatzen du elkar osatzeko. Woldemar eta Henriette, ordea, Woldemarrek neska ikusten zuen bezala, berdinak ziren. Neskak berarengan eragiten zuen eraren arabera, Woldemarrek Henriettegan aurkitu zuenaren ondoren, sexuen desberdintasuna —honek nahi adinako eragina izan bazuen ere Woldemarrek hori senti zezan posible egiteko bakarrik— galdu zen bere begien aurretik; eta benetan zuzen epaitzen du bere burua esaten duenean «ezen bere sexu bereko pertsona bat ezkontzeko pentsamendua bezain ezinezko gertatzen zitzaiola harekiko erlazioa».

Zorroztasun psikologiko sakonez eta arte poetiko finez eiki Woldemarren berezitasunen garapenaren eta Henriettekin zuen erlazioaren azalpenaren bidez, arretatsu prestatu du egileak harrigarri dirudien nazka bere eskua hari emateko, alegia. Irakurleak ez du ulertzen inolaz Woldemarren espirituaren zirrara; harekin batera sentitzen du zein ezinezko gertatuko zitzaion, han, Platonen irudiaren arabera, goragoko esferetan kulunkatzeko hegoak bilatzen zituen lekuan bertan, ezkontza bateko egunoroko harremanen bitartez lurrari lotuta egon beharra. Halere, itxuraz kontrajarriak ziren emozio haien ehun harrigarri hura garbiago azter zatekeen, baldin idazlearen asmoan egon izan balitz loturaren proposamena beste era batera eskaintzea eta ez egiaz Woldemarren adiskidearen zorroztasun kasik lotsagabearen bitartez. Errazegi jotzen da nazkaren zati bat honi ere egoztera. Bi bihotzen arteko itun isila bezain gauza xamur batek ihes egiten dio ukitu arinenari ere. Norberaren baitatik bakarrik atera nahi du; bakardade profanatu gabe batean bakarrik garatzen da, eta hari hurbiltzen zaion eskuak xahutu egin dezake ukitu aurretik jada. Henriette, beraz, ez da izango Woldemarren emazte; berak bakarrik lotzen du Woldemar bere adiskide bihotzeko Allwinarekin. Izugarri ederki dago deskribaturik hiru gizaki hauen arteko bizitza bihozkor jarraia. Guk naturaren bide errazak jarraiki, indar zatitu gabe guztiekin gustu hartzen dugun lekuan, hantxe irabazten du gozamenak barneko eduki

jakin bat, eta honek, kanpotik emana, landua izan behar du bakarrik, ez berriro sortua. Nekeaz atsedena dator uztarturik, eta batak bestera darama txandaka. Horixe sentitu zuen orduan Woldemarrek. Ordura arte gehiago bizi izan zen ideietan eta berak sorturiko sentimenekin; esfera zerutiar haiekiko arrotzago bihurtu gabe —Henriettekiko harremana horixe baitzen egiaz—, Allwinaren besoetara itzuli zen, etxeko bizitza zorionsuenaren altzora, berriro mundu gizatiarrera, eta «mundu honetako gauzekiko adiskidantza jakin bat» —hala azaltzen da behin (2. lb. 68. or.) oso ondo beste aukera batean— «jakintsuek uste dutena baino goxoagoa» da. Baina oraindik ez zegoen baretasun iraunkorrerako prest. Segurtasunez oinarritu daitekeen gauza bakarra falta zitzaion bere karakterrari, alegia, hezkuntza zorrotza, autoaginte serioa. Halabeharrak egindako sari baten bidez bakarrik dastatu zituen. Naturaren ibilbidetik urruntze baterako bere anaiaren ekarpena ikusten duen Biderthalen kezka antsiatiek oso ondo prestatzen dute, ez baita natura zigorra jaso gabe uzten, hurbil dagoen ekaitza. Handik berehala azaltzen da bera ere. Henrietteren aitari herra sakon bat piztu zitzaion Woldemarren aurka. Ohituraren eta kanpoko egoerrek hezitako karakter baten bidez bakarrik ohartzten zuen Woldemar ohiko bidetik apartatzen zela, hori ulertu gabe, halere; harengan zentzu erabat nahastua baino ez zuen ikusten, Jainkoagan eta gizakiengan fede oro ukatzen zion. Henriettek bere eskua hari eman nahiko ote zion kezkak etengabe atsekabetzen zuen eta hiltzeko zorian gaixo zegoelarik, alabari zin solemnea eginarazi zion ez zela harekin ezkonduko. Ezerk ez, ezta Woldemar dagoeneko Allwinarekin ezkongai zenaren segurantzak ere, ez zion bere atsekabea kentzen. Bere adiskidearen kontrako hitzarmen batean sartu eta hari solemneki ukatzeko pentsamenduak haserretu egiten zuen Henriette. Baina hiltzen zegoen aitaren ikuskizunak eta borroka izugarrian gorputzeko bere indarren ahitzeak behartu zituzten bere ezpainak zina egitera. Jada lasaiturik zegoen aitak berehala esan zien agur. Woldemarrek ez zuen gertakariaren berri izan. Denboralditxo bat geroago aurkitu zuen halabeharrez berriro neska. Biziki hunkitzen du bera, eta, zenbait borroka egin arren, ezin zituen azpiratu emozio honen ondorioak. Garai honetantsu, Woldemarrekin zituen harremanen kontura herrian bere kontra zebiltzan zurrumuruengatik minduta zegoen Henriette. Bi inpresio desberdin hauen halabeharrezko topaketa honek ez zion ekarri hoztasunik beren arteko jokamoldeari, baina zerbait arrotza, ez ohikoa bai,

bakoitzaren baitan bestearengan sumatzen zena baino maila handiagoan hazi zena. Henriette ausartu zen azkenik argitzera. Woldemarri eskatu zion, jendaurreko jokamoldean urrats batzuk atzera egingo ote zuten. Eskakizun hau egindako zinaz lotzen zuelarik, bien eragin elkartuaren bidez barne-barnetik astindua izan zen Woldemar. Henriette, hala iruditzen zitzaion berari, bere, Woldemarren, larrutik ordainduz, adeitsuegia zen besteekiko. «Zer izango ote da hori bereztat, hain erraz sakrifikatzen denean?». Orain beretzat santuena eta maiteena den horretan zalantza beldurgarri horrek Woldemarren ari-man egiten zuen aurrerapena maisu-eskuz deskribatzen da; nolako eragina izan zuen Henriettengan; nola batak edo besteak korapiloa askatzeko edo desegiteko erabakia hartua zuten uneak erabili gabe pasatu ziren; nola bata besteari azaltzen zitzaion moduak egunetik egunera gaizki-ulertua handitzen zuen, garapena atzeratzen. Bizitza alai eta zoriontsuenaren ondoren denbora izugarri eta atsekabez beteata etorri zen. Zorionez, Henriettek jakiten du azkenean Woldemarrek bere zinaren sekretua badakiela. Orain kolpetik geratzen da garbi Woldemarren eraldaketa. Woldemarren karakterraz —horri buruz hemen irakurleak azken argibideak jasotzen ditu—, bertuteaz eta moralitasunaz bereziki izandako elkarrizketa baten ondoren (idazki harrigarri honetako zatirik ederrena osatzen duen elkarrizketa), abiatzen da Henriette Woldemarregana eta hasten da berari bere *aitortza* egiten, *barkazioa* harengan bilatzen. Hunkiturik geratzen da Woldemar hitz horien aurrean. Oihal moduko bat erortzen da bere begietatik; zorabioak jotzen du. Neskak berari eskatzen diona lortu behar du berak neskarengandik. Erortzera eraman zuen bere buruarekiko zuen uste harroa desagertu egiten da; lehen Henrietterekin zuzengabe izan zen bezala, orain bere buruarekiko zuzengabe izateko arriskuan dago. Baina hemen ere berehala hartzen du bira. Lehengo konfiantza, bake zaharra berriro itzultzen da eta Woldemarrek honoko esaldiaz amaitzen du: «Bere bihotzarekin fidatzen dena ergel bat da, ez epaitu!», eta horri Henriettek Felononen hitzok ipintzen dizkio ondoan: «Fida maitasunarekin. Dena kentzen du bai, baina dena ematen du».

Woldemar ohiturik zegoen segurtasun jakin batez bere sentimen moralaren esku geratzera, salbuespenik gabe bere bihotzaren oldeei segitzera. Eta hala egin ere egin zezakeen aukerarik gehienetan

arriskurik gabe. Ezin uka daitekeen gauza da, izan ere, bertutearen maila goragoko bat dela betebeharra egitea ohitura bihurtzen bada, bestela kontra jotzen duten joeren muinean sartzen bada, eta ez betebeharrak eskatzen duen egintza bakoitza gauzatzeko borroka berri bat egin behar bada. Betebeharraren sentimenaren borroka grina txarraren kontra noblea izan badaiteke ere, beti da hori gerraren patua, eta, nork ez du bedeinkatzen bakearen esku onbera? Baina bakea ezin da erdie-tsi biguntasunaren bidez; bere sorrera etsaiaren porrotari zor dio, bere iraupena tinkotasun iraunkorraren kontzientziari. Egiaz bertutetsu den gizakia bertutetsu da bere asmoa hala delako, bere emozio eta joera guztien isuri delako. Baina ez dio horregatik ernai egoteari uzten, ez du ahultzen bere irmotasuna. Arriskuaren hondamendia agertu bezain laster, badaki sentsualitatearen ahotsa zapuzten, legearen hizki lehorrari obeditzen. Eta arrisku horren kontra ez du inork segurtatzen, ez eraketarik onenak, ezta espiritu fineneko hezkuntzak ere. Hori erakusten du Woldemarren adibideak era oso egoki batean. Henrietteren zinarek sekretua jakin bezain laster sentitu zuen bere harrotasuna mindua, bere egoismoa umiliatua. Berea baino ez zuen izan behar, berarengatik ahantzi behar zuen gainerako guztia; eta bere aitaren azken orduan bere kontra hitzarmen bat egin zuen, orain zerbait ezkuta ziezaiokeen, berari zegokion zerbait begirune arrotzari eskaini nahi zion neskak. Bizkitartean, neskari zion maitasuna benetan zen handia eta apartekoa. Berarekiko ezbaia izateak bertutearen izatean, bere berarik onenean, gizakian dagoen jainkozko bakarrean ezbaia izatea esan nahi zuen. Horretan korapilatzen ziren bere joeraren mugimendu gutxien nobleak. Gizadiaren zatirik onenari uko egitea zen berari uko egitea. Amarruzko irudi horren azpian bakarrik, bertutearen soinekoa berak janzten zuen neurrian bakarrik joera egoistak engaina zezakeen Woldemar bat; honen azpian bakarrik garai zezakeen diziplinara eta mendetasunera jarria zegoen Woldemar bat. Harrokeriagatik erori zela erakusten du bere momentuko itzultzeak, Henriettek «aitorpena, barkazioa» hitzak esan zituenean. Gizakiaren arimaren sakonetik harturiko ezaugarri bat da hau. Bilaua ez den arima baten harrokeria bat-batean makurtzen da apaltasunera benetan ase denean. Horregatik oso zuzen jokatzeko du Woldemarrek norberaren buruarekiko gehiegizko ustearen aurrean abertitzen duenean. Eder eta emakume gisan gaineratzen ditu Henriettek Felonon hitzak. Maitasunarekin fida denak estropezu gutxiago egiten du. Maitasunari umiltasunak lagun

egiten dio ahizpa gisan eta egitekoaren bidetik desbideratze orok egoismoan, hau da harrokeria mota batean, du bere nolabaiteko jatorria. Maitasunarekiko konfiantza bakarrik izango litzateke orduan alde guztietan gotorleku? Hala zen Woldemar Henrietterekiko zegoen kasuan, eta hori aski izan lezake hemen izkiriatzaileak. Bestela ez luke, noski, hori oro har halakotzat joko. Edozein neurritan izan daitekeelarik ere joera bat noble, zerbait sentsualki baldintzatua izango da beti eta ez da gai ez moralitate segurua —sentsualitatearen alorrean milaka amarru igarri ezinezko baitira posible erneen dabilenarentzat ere— ezta garbia ere oinarritzeko. Bestalde, joera ez egoista bat gizakiengan joera jainkozko bat da. Bakarrik da jainkozko, ordea, norbanakoaren interesa legearen orokortasunaren azpian jartzeko indarra ere gizakiaz gaindiko den neurrian. Joera da bakarrik jainkozkoak gizakiarengan bizitzeko gorputz baten beharra duen neurrian.

Borrokatu behar ohi diren zailtasunak, soineko estetiko batez jantzitako eduki filosofiko bat garbi-garbi azaltzeko, kasik erabat desagertzen dira gure idazki honetan. Ideia filosofikoen idazleak bihotzean ipini duena hain dago arrasto bortitzez adierazia, deskribaturiko izaeretan hain era ezin ukatuzkoan dago markaturik, eta hain librokero ateratzen da guztia hain biziki zuzentzen duen espiritutik, non irakurlea ezin gera baitaiteke zalantza une soil batez ere. Hori posible balitz, nahikoa luke idazleak lehenagoko bere idazkietan azaldu dituen konbentzimenduez oroitzea. Izan ere, —hau bidenabar ohartarazteko—, gizaki gutxien idaztietan bakarrik aurkitu ahal izango da gisa honetako batasun harrigarritzkoa, nola idazlearen idaztietan ikerketa sakon eta arretatsu batek inolaz ere ezkutuan utziko ez duen bezala. «Nire iritzian» —esaten du behin Spinozaren dotrinari buruzko gutun batean (2. lib. 42. or.)— *existentzia* agerian jartzea eta eza-gutaraztea da ikerlearen merezimendurik handiena. Argitzea bitarteko da beretzat, helbururako bide, hurrengo, eta sekula ez azkeneko, xede. Argitu ezin daitekeena da bere azken xedea: ezin desegina, zuzenekoa, sotila». Idazlearen karakter filosofikoa zorrotzen deskribatzen duen konbentzimendu honi zintzo jarraiki, filosofia praktikoaren sistemara doa, hau Woldemarrengan bere izate osoaren arabera zehaztua dagoe-larik (1. lib. 130. or.) «giza sen» batetik —haren gainean oinarritzen baita azken batean bertute oro «gizakia behartzen duena bere izatearen sakonetik hura sortzera». Natura gizatiarraren edo inolaz natura

sentsual adimentsu ooren sen hori (erka Ed. Allwillen Gutun-bilduma, Hitzaur. XVI. or.) bihurtzen zaio energia bat, eta honek zehazten du jatorriz (kontuan hartu gabe oraindik poza edo atsekabea hartzen den) bere automatismoaren modua, beronen indarraren bidez bere egintza bakoitza egile bakartzat hasia edo segitua dela pentsatu behar delarik. Natura hauek beren *tasun arrazoidunean* kontsideratuak diren neurrian, dauzka horrek existentzia pertsonalaren, norberaren kontzientziaren, kontzientzia erreflexuaren batasunaren iraupena eta hazkundea, lotura jarraitu unibertsalaren bitartez: erlazioa objektuarekiko; eta abstrakziorik gorenean tasun arrazoiduna *garbi* bereizten den neurrian, gisako arrazoi *soil* baten sena *nortasunera* doa *pertsona* eta *existentzia* alde batera utzita, biek hemen derrigor kontuan hartu behar ez den indibidualtasuna eskatzen baitute. Azken sen honen eraginkortasunari *borondate garbi* dei lekioko, *arrazoi soilaren bihotz*, eta ohar-pide gisan filosofikoki jarraiki balitzaio, handik besteen artean zalantzarik gabe badagoen moralitasunaren inperatibo kategorikoa erabat ulergarri egingo litzateke. Sen honek, beraz, hartzen du gizakiaren natura bikoitza. Existentiaren gordetzera jotzen du, oldar orok bezala bestalde; natura arrazoidunarena ere izaki, gizakiaren propio den existentziaren iraupenera bakarrik. Gizakiaren natura propioa, ordea, arrazoa eta askatasuna da. Sen horren bitartez jartzen da gizakia indar baten jakinaren gainean; indar horrekin bera, zentzuen oldarren kontra, arrazoiari jarraitzen zaio; are gehiago, bere burua hori egitera beharturik sentitzen du joera suntsigaitz baten bidez. Joera hori nola sortzen den, nola jokutzen duen, ez du ulertzen berak; eta zuhurra bada, saiatu ere saiatzen da ez argitzen. Argitu, izan ere, mendekoa, tartekoduna argitzen da; joera hori da ordea, azkena, tartekorik gabea. Bere existentziari eta bere natura goragokoari buruz bakarrik dago jakinaren gainean ziurtasun bikain batez zalantza guztien gainetik; sentitzen du haren bitartez bakarrik lotzen dela jainkozko den guztia-rekin, «Jainkoaren arnasa dela lurraren sorkuntzan». Bertutea da joera horrek bere garbitasunean sortzen duena; eta bertutearen ariketa gizakiaren eginkortasuna bere existentzia propioenean baita, hala dago bertuteari une berean zuzenean lotuta zoriontasuna. Izan ere, bertutearen jatorria gure izatearen zatirik onenetik sumatzeko dugun kontzientzia berak irakasten digu «zoriontasunik handiena ez dela kanpoko egoeraren modu jakin bat, baizik espirituaren jarrera bat, pertsonaren tasun bat» (1. lib. 124. or.). Eta hala da bertutea «gizakiari une

berean bere naturaren ezkutukiak eta bere zorientasuna argiago azaltzen diena» (1.lib. 130. or.). Oinarri horretan finkatzen da idazlearen filosofia praktikoaren sistema. Zenbait esaldi bitxi guztiek, deskribapen modu osoa arrotz iruditu arren irakurleei, orain arteko sistemari hertsiki segitzen baitiote, ezin ukatu ahal izango dute moralitatearen garbitasun gorena han itsustu gabe gelditu dela. Izan ere, azken batean guztia laburbiltzen duena da arrazoï praktikoaren indarra, nahimenaren askatasun hesitu gabea. Printzipio material guztiak erabat alden du dira; eta inon formalki adierazi ez den hura, baina ideia sorta guztiak garbi seinatzen duena, azken batean formala da, eta giza arzoïaren forman gordea, haren gainean oinarritzen baita gizakiaren existentzia pertsonala, honen gordetzea eta goititzea delarik sen haren objektua. Ulermolde honi jarraiki, beraz, moralaz ez da formulaz eta arrazoizko printzipioz soilik finkaturiko teoria bat, berez nahi den adina kontsekuente izanik ere, berez kanpoko egia, premia praktiko falta daukana; lokarri sendoen eta naturan bertan ikusteko moduko bidez, errealitateaz korapilatua dago eta gizakiaren barneneko esentziatik sortzen da. Gizon izena eduki nahi badu, bere sentimenaren ahotsa gortu nahi ez badu, mendetasuna aitortu behar dio. Oldar hori ukatu ezinezko moduan dago gizakiarengan, eta sena barneko indar mugiarazlea den neurrian, zuzentasunez dei daiteke sen. Zehatz aztertuz gero oinarrian filosofia kritikoaren sistema moral *ondo ulertua* abiatzen den puntua dago, alegia, sentimen moralaz, kontzientzia, askatasuna. Bakarrik hemen bide erabat bestelako eta guztiz propio bateatik aurkitua dago, eta beste batera ekarria dago. Horregatik bere jatorria argi bikain batean jarria dago, garbiago erakusten du lege moralaren eta gizakiaren egiazko naturaren arteko lotura; halaber, hobeto jartzen ditu agerian askatasunaren eta sentimen moralaren egitateak, eta horrela azken eta alde guztietatik osaturiko filosofiaren eraikuntzarako iradokizunik zuzenenak ematen ditu. Gisa horretako iradokizina aurkitu uste dugu, esaterako: guztiaren oinean dagoen senak lotura unibertsala emango duela objektuarekiko, eta hartaz gizakiarengan oinarritzko oldar bat gertatzen dela barneko eta kanpoko bateratasunaren bila, handik —hau balitz lekua gisako garapenei aurre hartzeko— egiazta ahal zatekeelarik zehaztasunez, filosofia teoriko eta praktikorako beste ondorio garrantzitsuen artean, zorientasunak bertutearekin duen ezinbesteko lotura. Baina erlazio honen ulerpenak behar du beti begirada sakon bat gizakiaren natura barnenekoan. Filosofo zaharrek,

bereziki Aristotelesek, ez zuten hori ahantzi. Beraien ustetan gizakia guztiz zen osotasun bat; beren filosofia egiaren zentzuaren nozio ilun baina zuzenetatik abiatu zen. Baina zati batean kontrako muturrean erori ziren eta prestutasunaren eskuarekiko mendetasun oro ukatzen zuten. Filosofia berriagoak esku arrotzaren bidez lotu du bere naturaren arabera elkaturik zegoena. Geroagoko batentzat geratuko da sentimen moralaren naturan eta honek gizakiaren izate osoan duen eraginean sakonago sartuz, zera zehatz agertzea, alegia: zeren alde mintzodan gizaki natural baina orobat ondo prestatuaren sentimendua. Baina oldar horren, jatorrizko sen horren oinarrian ez daudela kontzeptu nolabait zehaztu gabeak edo sentsazio ilunak, egiaztatzen dute bereziki, idazki honetako zenbait pasarte harrigarrien artean, Woldemarrek (1.lib. 135. or.) Biderthalekin solasean ari dela esaten dituen hitzek. Behin erakutsi duenean kontzeptua sentimendua baino garrantzitsua goa eta goragokoa dela, eta gizakiaren ahalegin orok gure sentimenduak eskumendean edukitzera jotzen duela, dator galdea ea zertan datzan gizakiaren bikaintasuna? «Dohainak», erantzuten dio bere buruari, «era askotakoak dira; baina bakoitza da perfektua bere neurrian, haren arrazoiak bere sentimenduak, desioak eta grinak zaindu eta menderatzen dituelarik. Eta diot *menderatzen!* zeren sentimenduek, desioek eta grinek han egon behar baitute, giza arrazoiak han egon behar badu. Zentzu kamutsetatik ez da aterako kontzeptu argirik, eta oldarraren eta desioen ahultasuna dagoen lekuan ez bertuteak ezta jakituriak ere aurkituko du tokirik. Ez herririk; ez aginterik! Ez aginterik; ez elkarterik! Zenbat eta ugariagoa, ordea, eta sendoagoa aldra, orduan eta handiagoa printzerria! Eta printzerri baten gisako da nik ahotan darabildan arrazoiak. Hari dagokio sentimendu agintzaile hura, ideia agintzaile hura, zeinaren bidez gainera ideie eta sentimenduei beren lekua izendatzen zaien, eta *nahimen goragoko eta aldagaitz* bat arimara datorkion; handik dator maitasun garaiezinezkoaren gainean eraikitako fede garaiezinezkoa eta, fede horrekin, obedientzia santu hura, oparia baino hobea dena». *Maitasunari* eta *fedeari* buruz azken pasarte honetan esanak erlijioarekiko moralak duen lotura adierazten du, eta bere argitasun betea hartzen du Spinozaren irakatsiari buruzko gutunean. Hitzaurrea, XLI-XLV. or. §. XXXIX-XLVI. Beraz, idazlearen filosofia guztiaren emaitza izan beharko zukeena, alegia, *egia* eta *existentzia*, bere esamoldeari heltzeko, zorrotz bilatzen, eta agerian garbi jartzen, abiapuntutzat hartu behar diren egitateak adierazten, eta

bilakaera urrunagoaren bidea bere osoan erakusten, beste edozeinek baino gehiago beharbada, zori sarri harrigarritz saiatzen da; hau da inolaz mailarik oraindik goragoko batean Woldemarren formula-turiko sistema moralaren emaitza. Hori bai, bere gainerako adierazpen filosofikoetan bezala, hemen ere desiratzekoa litzateke, kontzeptuak zehatzago aztertzeko, tesiak jarraigo hertsiaigoan bata bestearen segidan zuzentzeko, are han eta hemen adierazpenari zehaztasun handi-
goa emateko gogoia izango balu, gerta zitekeen oker-ulertze orori hobeto aurre har zekion. Alde guztietan azalpenak horrela argitasun gehiago eta zorroztasun filosofiko handiagoa hartuko luke; baina sistemak berak ikerketa bat beharko lukeen lekuan, metodo honek hori arintzeko abantaila ere emango lioke. Baina egiaz ekintza hau, idazleak berak behin ohartarazten duen bezala (Spinozaren irakatsiei buruzko lana, hitzaurre, XXIV. or.), berak egindako obra oso kritiko batean bakarrik gerta liteke osotoro, bertan bere pentsamendu sistema abiapuntutik hasi eta ondorio guztiekin loturik azalduko lukeelarik; eta baldin irakurlea beharturik sentitzen bada jasotzen duen guztiagatik eskerrik beroenak ematera, egiaz ez du eskubiderik sari berri bat eskatzeko.

Baldin, ordea, idazki hau hain aberatsa bada eduki filosofikoaren aldetik, gisa berean da, beste aldetik, sorkuntzako emaitza aske bat, eta arte-lan bezala ere biziki irabazia dauka arreta ikertzailea harengan pausa dadin. Asmo filosofiko oro alde batera utzirik ere, bere osoan egoera jakingarrien margo eder eta erakargarria da; gertakarien saila berez finkaturik doa aurrera, premiarik gabeko arintasunez, eta arrazoiketak berez bezala eta asmorik gabe ehoaz dirudi. Osotasunari bitarteko bezala balio dion historia ez da aberatsa asmakizunetan, haren hariak katramilatzen du familia bizitza sotil bat, haien arteko erlazioak kasik gehiago finkaturik daudelarik diharduten pertsonen sentitzeko moduaren bitartez, kanpoko gertakarien bitartez baino. Hauxe bakarrik, hain zuzen, eskatzen zuen idazlearen asmo filosofikoak bezala poetikoak. Zenbat eta desbideraketa gutxiago eskatu kanpoko gertakarien esku hartzeak, orduan eta garbiago gara zitezkeen karakterrak beren indibidualitatetik, eta horiek beren osoan deskribatzea zen, zalantzarik gabe, berak zuen helburu nagusia. Eta egiaz haien deskribaketaren, haien portaeraren, haien akaberaren moduak salatzen du, nahas-mahasa batzuetan mailarik gorenera iristen denean,

oharketaren fintasun aparteko bat eta deskribaketaren dohain orobat ezohikoa. Merezimendu propio handia da arrasto bakan batzuk giza-kitara, hemen deskribatuak diren bezala, biltzeko, eta azkartasun psikologiko umotua guztiak, naturari jarraiki, irudi batean elkartzeko. Izan ere, hemen azaltzen diren karakterrak ez dira besterik gabe beren benetako bikaintasunagatik arraro; baizik badute halaber jotortasun maila bat, zenbait begiren aurrean, eta ez hain zuzen ere ez-adituren aurrean, zerbait arrotza, ez bada naturaltasun gabea, eman diezaiokena. Badira noski, gizadiaren zorion eta ohorerako, gisa bereko espiritu zorrotza duten indibiduoak, handitasun bereko sentimen berotasuna, xamurtasun bereko edertasunaren zentzua dutenak; badira gizakiak ez kanpoko azken helburuekiko ahaleginek, ezta indar intelektualen egintza soilekin ere aski dutenak, beren sentsazioen erdian bizitzea beren egiteko propioen eta azken batean maiteen bihurtzen dutenak. Baina oso gutxitan, eta hori ere naturak jakituriaz antolatu du, izango dira hemen bezala, bereziki aro batzuetan, Woldemarengan eta bere adiskideengan agertzen denez, kanpoko objektuen aldetik hain gutxi gogaitaraziak, eta gutxiago oraindik beren erlazioen aldetik hain premiatsukiro zirikatatuak, beren, esateko era zilegi bazait, sentimentera galtzeko, hain etengabe haien gainean luzatzeko, haiek azkenik hain iraunkorki eta indartsuki norberaren gainean agintari izaten uzteko. Naturan bakan, egoera desberdinetan, denbora luzeagotan zabalduko dagoena, hemen naturalki laburbilduago dago, eta horregatik bestelako inpresio ezohikoagoa egiten du. Horregatik ez litzateke harritzeko izango, baldin situazio batzuk, adibidez Henriettekin ezkontzeko Woldemarrek duen higuina, eta bereziki, oker-ulertze baten kariatz, argitze soil batek baretuko zituzkeenean, elkar mintzeko duten era, irakurle zenbaiti, lehen irakurri batean batez ere, ez gutziz natural irudituko balitzaie. Ez zinez gisakoak egiazko bizitzan gertatu ohi ez direlako, irakurleak antzekoak gogoan izango baititu agian; ezta ere sortuko ez balira bezala beraien izaeratik, deskribatuak izan diren gisan, eta baldintzak bata bestearen segidan behar den moduan jarri izan ez balira bezala, ez bakarrik zirelarik posible, baizik eta are beharrezko; baizik alde handia dagoelako zerbait benetako naturan begiratzearen eta iruditzen imitatzailean begiratzearen artean. Horrekin gertatzen da harako fenomenoarekin bezala, alegia, badaudela gauza batzuk une berean komikoegiak eta tragikoegiak direnak, adibidez, teatroan sinestea aurkitzeko, baina bizitzan halere, egiaz, eta

ez gutxitan gertatzen direnak. Nola alegia naturak errealitatearen ziurtasuna zuzenean berarekin daraman, hala imitazioak errazegi darama bere fideltasunaren kontra nolabaiteko mesfidantza. Honek eraginik, erraz segitzen da bide bat, zeinetan egoera bat sortzen den, bere posibilitatea neurtzeko; eta nahi bezain zorrotz eta zehatz hau deskribatzen dela, hala sakabanatzen du (kontuan hartu gabe badirela sarri zergati ezkutu, ezin ohar daitezkeenak, errepresentazio guztira hedatzen direnak) konbarazio honek kontenplazioa eta aldatzen inpresioa. Bereziki izaeren deskribaketan, beraz, gerta daiteke, egia enpirikoaren barruan bertan, egiantzekotasun poetikoaren muga jakin bat; horretan batik bat zilegi izan daiteke beharbada naturalaren neurri bezala bakoitzaren sentazioari balio dion giza natura ohikotik nolabait desbideratzea. Hain arriskutsua zen, izan ere, bere asmoaren arabera, deskribaturikoez aparte bestelako irudi moralik ezin hauta zezakeen idazlea hemen mehatxatzen zuen eragozpena; hain zori handiz jakin du hori gainditzen, eta puntuan aipatzen genituen zalantzak ere ziur asko deskribaturiko izaeren ikerketa sakonago baten bidez desagertu egingo dira. Arte poetikoaren muina ezagutzen duelarik, badaki, erabat subjektiboa dirudiena bera ere, giza naturaren ezinbesteko baldintzekin korapilatzen; arreta zuhurrez karakterraren aldaketa berri bakoitzari hain osoki uzten dio prestatzen, eta hain luzaz luzatzen, eta maisu baten talentuz saiatzten da hizkera eder eta, pasarte batean baino gehiagotan, bikainean irakurlea bere interesean halako moduan ktramilatzen, non bere sentimena bihotzaldi berean jartzen baita. Orain emango duen hurrengo urratsean argi geratzen zaio, orain berarekin partitzen du. Halere, Woldemarren eta Henrietteren bezalako karakterretan, hark hau aldarazi duen bezala, beti gelditzen da nolabaiteko zailtasun bat. Diren bezala ederrak eta nobleak izaki, hain sakon hunkitu eta astintzen dutenak izaki, kezkatzen duen modu batean tenkatzten dute, halere, interesa. Min ematen du ikusten denean nola ustez egoerarik zorionsuenean, patuak bere begikoenei erregalatu ohi dizkien indarrik onenekin, beren poztasuna eta lana, norberak sortua dela esateko gogoia ematen duen sufrikarioaren bidez hausten duen. Xamurkiro eta eder lerratzen da, ondoren, begirada haien ondoan ekonomia zuhurrez ipinita dauden beste zenbait irudiren gainera. Zein da hemen Allwinarekin gogoratzen ez den irakurlea, izaki maitagarriena, xalotasunik gorenaz, bera konturatu ere gabe, karakterraren sakontasun eta handitasun altxor bat gordetzen duena, Woldemarren eta

Henrietteren arteko harreman zaila adimenaren zoharditasunez bakarrik hartzen duena, eta maitasun jaierratsuz kontsonantzia ederrean garbitzen duena? Henrietteren ahizpa ezkondu biek ere, alderdi hone-tatik, ez daukate parte txikia osotasunaren eraginean; eta Hornich zaharrak berak ere, kanpoko erlazioen bidez baino ez dagoelarik iru-dikatua, eta itxuratan baino ez delarik bizi, bere irudi kontrajarriaren bidez bere parte handia gaineratzen du taldeari bere aniztasuna ema-teko, beste alderdi batetik batasuna hartzen duelarik. Izan ere Woldemar da, bere izateko modua, gero eta gehiago gainerako guztiei asko edo gutxi erasten diena, harengan gainerako guztia biltzen dela-rik. Bere karakterra garatzea, berari hainbeste falta zitzaion eta berak hainbeste irrikatzen zuen bake eta sendotasun mailara iristea, hori da osotasun eder eta oparo ehotariko honen azken helburua. Helburu honetara jotzen du guztiak batasun handiz. Woldemar azaltzen den bezala azaltzen delarik, bere karakterrak kezka sortzen du irakurleen-gan, bere adiskideengan bezala. Bera nola dagoen han, bizitasunez sumatzen da, ez da iritsi tinkotasunera eta bakera; proba asko gaindi-tu behar ditu oraindik, aldaketa berriak jasan. Ondoren katramila are-agotu egiten da, akaberaren aurreko unean igotzen da gailur garaiene-ra, honen bidez bat bi bider txokaturik geratzen delarik. Hala eta guz-tiz ere, akabera honekin gera daiteke irakurle zenbait ez gustura. Ordura arte Woldemar zer den pentsatzen ohituta, handitasunez eta sendotasunez, karakterraren irmotasun horrekin, gusturago ikusiko litzateke altxatzen, inoiz erori izan behar balu, bere indar propioz, hirugarren baten eskutik baino, hirugarren hau bere maitalea izanda ere. Zail da esaten ea gisako irtenbide bat posible litzatekeen idazlea-ren asmotan. Karakterrean bertan bakarrik, dagoen bezala garatuta egonik, badirudi ez dagoela ezinezkotasunik. Baldin zeraman bideari jarraiki izan balitzaio, baldin berak, giza duintasun eta giza indar guz-tiekiko zalantzati, guztizko sinesgabekeriara, guztia ezezten duen gogortasunera jo izan balu, orduan erabateko hondamendiak meha-txatzen duenean indar oro eraginkorren egiten dela dioen harako lege-aren arabera, sentimen kontrajarrien gehiegizko zamaren bitartez sen-timen xamurrago eta naturalago haiek berenez berriro bizi bihurtuko ziren. Zenbat eta izugarriagoa izan Woldemarren arimak inguruan sentitzen zuen bakardadea, orduan eta indartsuago eragin beharko zukeen sentazio horren zirrara arinenak; itzulerak desbideraketa baino azkarragoa izan behar zuen; eta Woldemar horrela itzuli zen

bere indar propioz bertutearekiko eta gizadiarekiko sinestera, eta horrekin batera Henriettekiko sinestera. Baina ez zion gutxiago esker-tu behar bere salbazioa maitasunaren sentimenari; maitasunarekiko ustea sartu zen norberaren buruarekiko uste harroaren lekuan; maitasunaren garaipena handiagoa izango zen, baldin berak ez Henrietteren hitza, aldiz bai haren gomuta bakarrik, Henriettek Woldemarren ariman txertatu zuena bakarrik, laguntzera deitu izan balu. Egiteko bakanak egokitasun handiaz daude banatuta azaltzen diren pertsonen artean, eta arte askoz taxutu eta gauzatuak karakterrak. Woldemar bera da garrantzitsuen. Baina honi buruz, ordea, lehenago, idazki osoaren zirriborro bat egiten saiatu garenean, hitz egin dugu; zirriborro horrek bere ezaugarriak, eta hauek bakarrik, azaltzen zituen, hain zuzen ere obra dagoeneko irakurrita daukan irakurleari mesedegarri gertatuko zitzaionlarik. Henriette hertsiegi dago Woldemarrekin loturik, orobat bere karakterraren deskribaketa nahikoa zehatz aztertuta ez egoteko. Inolaz hau da guztien artean kasik zailena, baina ezer baino lehen arte finez erabilia. Woldemarren bitartez nahasturik geratzen den egoeretan ezin huts egin dezake ezen han eta hemen une batez emakumetasun oso eta betea berarengan falta izatea. Hemen gogora ekartzen dugu Woldemarrekin ezkontzeko ezezkoa, emakumeen eskakizunetarik esperoko genukeen baino elkarrizketa luzeago, arrazoitsuago eta irakaskorragoak. Ikerketa zehatzagoa behar da konturatzeko hemen emakumezko gutxiago dirudiena emakumezotasun gorenaren bidez argitzen dela. Bere lagun to bere lagun nori eskaintzeko bakarrik berak uko egiten dio tori; harenganako maitasun gorenagatik, izate biak beraien existentzia osoan elkartzen dituen maitasunagatik alegia, segitzen dio lagunarena den ideia-katea propioan; azken elkarrizketan bakarrik, Woldemarren salbazioak balio duenean, hartzen du parte biziago eta eginkorrigo. Allwinari buruz lehenago hitz egin dugu. Gainerako pertsonak ere zehaztasunez eta arretaz daude deskribatuak, eta adiskidetasunak eta elkarrekin egindako bizitzak ematen dien berdintasun guztia arren, bereizten da oso nabarmen Biderthal leiala eta azkar kezkatzen dena Dorenburg ausarta eta gehiago arrazoitzen duenarengandik. Hornich zaharraren deskribaketan badago natura eta egia propio bat, eta tratatzeko arte handia behar da hainbat gogortasun benetako duen karakter bat neurri bateraino bederen maitagarri azalarazteko. Idazlearen hizkuntza bere berezitasunean hitz gutxitan zertu ezin bada ere, sarkorregia eta ederregia da erabat alde batera uzteko.

Bereziki egokia da hain zuzen ere besteengan hain gutxitan lortzen den horretan, arimaren sentimen goren eta xamurrak deskribatzean alegia, guk hainbatetan egiaztatu dugun bezala.

Orobat, gertakari orain luzeagoak, orain laburragoak, idazki honetan behin ohar psikologiko bikain pila batez, behin bizitzaren filosofiaren alorreko objektu garrantzitsuei buruzko arrazoiaketa jakingarriz ehotuak daude. Azken hauen artean aipatzekoak dira bereziki 1. lib. 24. eta 40. or. adiskidetasunaz eta maitasunaz; 51-63. orr. taldearen hautaketaz; 80-103. orr. bonbonkeria eta sotiltasuneko gehiegikeriaz; 2. lib. 37.etik 46.era emakumezko sexuaz, eta beste hainbat gehiago. Bertuteari eta moraltasunari buruzko azken elkarrizketa luzean (2. lib. 210-244. eta 285-294. orr.) Aristoteleren moraletik laburpen mamitsua eskaintzen digu, Stagiriarraren pentsaketa-sistema laburpen zorrotzez eta zehaztasun filosofikoz azaltzen duena, eta Plutarkoren zati eder baten itzulpen bikaina (2.lib. 178-205. orr.) bezala aipatu gabe utzi ezin dezakeguna.

Oraingo idazki hau, duela urte asko azaldu ziren zati zenbaiten osaketa, irakurle gehienek ez dute aipatu beharrik izango.

GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKO FORMARI BURUZ

Gizonezko eta emakumezko moldaketan azaltzen den espezie-aren batasuna alde batera utzirik, bien sexu desberdintasunak hain daude elkarrekiko kidetasun betean, non horrela osotasun batean bate-ratzen diren. Abstrai bedi edota sexuen karakterra edo batera bitez biak, bi aukeretan *gizakiaren* irudi bat ateratzen da bere natura oroko-rraan. Bi formen ezaugarriek elkarrengana jotzen dute; indarraren adierazpena batengan ahultasunaren adierazpenaz xamurtua izango da bestearengan, eta emakumezko guritasunak gizonezko irmotasunera jotzen du. Hala, batekin ase ezinik, bestearengana itzultzen da begia, eta bakoitza bestearen bidez izango da osatua. Eta giza osotasunaren ideia bezalaxe giza edertasunaren ideala bien artean banaturik daude halako moduan, non bateratuz edertasuna sortzen duten bi printzipio desberdinetatik sexu bakoitzean beste bat gailentzen ikusten baitugu. Gizonaren edertasunean argi eta garbi gehiago aseko da arrazoimena formaren (*formositas*) gailentasunaren bidez eta hazpegien zehaztasun zuzenaren bidez, emakumearen edertasunean gehiago aseko da senti-mentuaren betetasun askearen bidez eta hazpegien liraintasun (*venustas*) maitagarriaren bidez; nahiz eta bietarik inork ezin duen eskakizunik egin edertasunaren izenean, baldin bi ezaugarriak bere baitan ez baditu elkartzen. Baina edertasun goren eta osokoenak ez du eskatzen bateratzea soilik, baizik formaren eta gaiaren, zuzentasuna-ren eta askatasunaren, espirituzko eta gorputzezko batasunaren *oreka*

zehatzena, eta bi sexuen bereizgarria pentsamenduan bateratzen denean bakarrik erdiesten da hori, eta gizonezkotasun soilaren eta emakumezkotasun soilaren itun muinekoenetik gizatasuna eratzen denean.

Baina gisako gizonezkotasun eta emakumezkotasun soilak aurkitzea bera bakarrik izugarri nekeza da, eta enpirikoki ezinezko inondik ere. Esperientzian indibiduoaren karakter propioa sartzen da tartean, haren baitan hein batean ezaugarri arrotzak nahastuz sexu karakter orokorra eratzen duena, hein batean halabeharrezko bere muga propioen bidez bere bikaintasun gorena lortzen eragozten diona. Arrotz, hori, beraz, arrazoimenaren bidez apartatu behar da handik, indibiduoaren muga horiek urrundu egin behar dira, sexu karakter garbia agerian jarriko bada. Arrazoimenak ordea abstrakzio urriak eskaini ditzake, eta hemen irudi sentigarri osoa da auzia, sexu berezitasunaren egiazko espiritua ezaugarri guztien kolaborazio bizioan bakarrik nabari baitaiteke.

Kezka horretatik inolaz irudimen produzitzailearen bidez atarako gara, zeina esperientziaren alorretik alor ideal batera baitoa, halabeharrezko oparotasun guztiak eta halabeharrezko muga guztiak bere objektutik apartatzen baititu, eta arrazoiaren amaibakoa, bestela denboraren jaiotza halabeharrezko eta mugatuak bakarrik, benetako indibiduoak, erakusten dituen forma zehatzetan janzten du. Ondare harri-garri honekin naturaren aldetik horniturik, grekoak bere Olinpoa irudi idealez populatu zuen. Baldin, ordea, indidualtasun eta edertasun soila bilatzen bazuen, Jainkoen ingurura bueltatzen zen, eta han aurkitzen zuen lurtean huts ematen zuena. Inork ez du hurrengo mendetan herri hau gainditu esentzia baten karakter ezkutuena oraindik ireki gabeko bere kuskuan hartzeko eta xamurtasun horretan irudi jakin batekin arretaz tratatzeko artean. Artista grekoak bakarrik lortu du ideala bera indibiduo bihurtzen, eta harengan erdietsiko dugu eskuartearen daramagun gaiari buruzko argibide lasaigarriena.

Jainkosen artean emakumezkotasunaren idealaz topo egiten dugu lehenbizi *Dioneren* alabarengan. Egitura txiki eta xamurra, grazia balakatzaille oro berarengan duena, tankera joria, begi enamoratu hezea, aho antsiasi irekia, ahalke maitagarria, zorrotasun urruntzailea baino gehiago herabetasun birjina salatzen duena, eta liraintasun zerutiarra, hats bat antzo, bere irudi guztiaren gainera isuria dena: honek guztiak bere indarra bere ahuleziaren gainean eraikitzen duen sexu bat

iragartzen du. Haren ingurura hurbiltzen denak, maitasuna eta gozotasuna arnasten ditu, horretara gonbidatzen du adiskidetsu bere begiradak berak. Ideia handi eta zabala zen grekoen *Venus* hark irudikatzen zuena: guztia sortzen eta bizi den oro azpian hartzen duen indarra. Ideia horretarako ezin hauta zezaketen beste sinbolo egokiagorik emakumearen, esentzia sortu guztien artean ederrenaren irudi ideal loretsua baino, ezta ere une egokiagorik lehen desio oraindik zalanztatiak bularra betetzen duenekoa baino.

Lehen gaztetasun honetan garbiago azaltzen da emakumezko-tasuna, eta horregatik hain zuzen ere, gainerako natura oraindik guztiz bereganatu ez duelako, bakanago sumatzen da; gutxiago da karakterra, aukeraren eta joeraren jarrera baino. Maitasun argian, karakter moral eta are intelektualaren adierazpen bizienean ikusteko moduan gera daiteke inolaz emakumezko berezitasuna; baina erarik leialenean irudi fisikoan eta adierazpen sentsualean nabarmentzen da eta hori hain zuzen, idealera jasorik, distiratzten da edertasunaren jainkosarengandik. Gure sentimen ilunak emakumezko itxuratik espero duena harengan aurkitzen dugu errazenen, eta bera ikusteak gudan sortzen duen eragina aztertzen badugu, graziaren betetasun ugari batek alde-rik alde zuluak sentitzen gara, eraiketaren edertasun harrigarriak irmotzen eta grazia finak eratzen duelarik hau. Horregatik iruditzen zaigu gizatiarra, eta inolaz ere jainkotasuna ukatzen ez duelarik, itxaropen fidakorrez hurbiltzen gara harengana.

Maitasunaren jainkosarengandik ozen eta ezin ukatzeko moduan azaltzen dena, *Dianaren* irudian lotan eta estalirik aurkitzen da. Bere sexuaren grazia oroz apaindua, maitasunaren poztasun gozokak zapuzten ditu, eta gizonezko lanetan pozten da. Asmo bereko jolas-kide talde baten erdian, oihanetako sakonetan ehizari jarraitzen zaio uztai basatiaz, eta begi lizunez hurbiltzen zaion gaizkilea zorrotz zigortzen du. Portaera birjin honengatik *Minervaren* kide da; baina bi jainkosen karakterra oso da desberdina. Jupiterren alaba beldurgarriaren jakituriaren seriotasunak emakumezko ahulezia oro erauzten du; hori erakusten du begirada bare, pentsakor makurtuak. Bere aha-lingaiari josia dago Dianaren begia bizitasunez beteriko irrikaz; joera joeraz trukatu baino ez du egin. Ez zaio arrotz emakumezko-tasuna, inondik ere ez du azaltzen gizonezko indarra; tolesgetasun alaiez, ordea, ez da hortaz jabetu ere jabetzen. Inolaz ere ez da mota

baten ideala, agian bai egoera indibidual batena, edo adinaren maila jakin batena. Sexu bat besteaz lotzen duen desira xamurrak, garatuko bada, zentzu sorgortu baten eragina behar du. Baina sentimen gaztearen lehen borborrak han-hemenka ibili ohi dira, Dianaren begirada bezala, urrunean. Horregatik lehen-lehenengo adin birjinari sarri nolabaiteko sentimen gabezia batek, are gehiago, eta kontuan izanik emakumezko eztitasunaren zati handi bat sentsazio haren mende dagoela, gogortasun batek laguntzen dio. Baina karakter batzuk oso azkar lerratzen dira garai honetatik aurrera, eta apenas igar daiteke hura, batez ere beste batean luzaroago geratzen direnean. Egoera honek eratzen du Latonaren alabak artistaren eskutik jaso duen itxuraketa berezia. Emakumezko grazia ez dario edertasun liluragarritz, baizik bere baitan dago hertsia eta bere buruarekiko ezkutuan. Atalen eraikuntzak irmotasun eta malgutasun argaletik gehiago dauka, eta inpresio guztiak dio arima ez dela bere baitan murgiltzen, baizik kanporaka objektu arrotzetara jotzen duela. Horrela, ordea, azaltzen da emakumezkoatasun jainkotiarraren karakter nagusia, maiestateak darman erakarpena, halako maila gorenean, non zenbat eta gehiago atzera egin orduan eta indartsuago azaltzen den. Dianaren zorroztasunak poeten fantasia bera apaldu du. Gaueko bakardadeak eta ehiza zarata-tsuaeren amaitzeak jainkosa bere baitarago eraman dutenean, Endymionen graziak ukituko du, Pallas serioak ahultasunik batere erakutsi nahi ez duenean.

Baldin Ziteretarraren erakarpena *Junoren* maiestateaz erkatzen bada, beste esfera berri zabalago batera aldatua ikusten da emakumezkoatasuna. Eraginkorra eta ekintzailea da lehenbizikoetan; azkenean izate osoan zehar isurtzen da bare eta ez da azaltzen ez bakarrik ezta joeraren edo afektuaren momentu jakin batean, baizik, barnebarneraino nortasun jainkotiarraren katramilaturik, karakter bihurturik. Egiaz zail egingo zaio poetaren irakurleari ezaugarri hauek bere arerioei mendekua arnasten duen aiherkondeaz jarraitzen zaien eta sutan dagoen Iliongo hondakineta zabaltzen den jainkotasun honetan. Baina berezi egin behar da Jainkoen karakter orokorra haiek herri sentsual baten fantasia jolastiak desitxuratu dituen fabuletatik. Izan ere, Jupiterren lizunkeria Jainkoen aitaren mamiko ez den bezala, ez da Junoren aiherkondea eta mendeku-gogoia zeruko erreginaren mamiko ere. Halere, fabuletan bertan poetak ez dio ukatzen Jainkosari

ez gorentasunaren ezta xamurtasunaren karakterra, eta une jakin batzuetan afektuen indarrak ilundu ere egin dezake. Emakumezko maiestate eta duintasun gorenez jantzirik, artista eskulturagilearen eskutik azal daiteke, honek, ondo uler daitezkeen arrazoiengatik, bere fantasiari kapritxo gutxiago uzten baitio poetak baino. Egia da hemen ere maiestate jaineratsuak ingurune santu bat egiten duela jainkosaren inguruan. Baina beneratzaile isilak lortu badu bihotz opalduz haren-gana hurbiltzea, kolpetik dizdizari inguratuko du bere graziazko edertasunak. Jainkotasun bera erabiltzeko eskulturagileak eta poetak duten desberdintasunaren oinarria badirudi sexuaren irudikapen moral eta fisikoaren kontzeptuaren garapen desberdinean dagoela; izan ere sexuaren adierazpenera mugatzen zen eskulturagileak orduan eta alde gehiago kendu behar zion poetari, kanpoko itxuraren ideala argiagoa eta eginagoa zen neurrian. Baina sexuaren definizio moralari buruz egin zitezkeen kontzeptu mugatuaren arabera zuzentzen zen poetak jainkosaz egindako irudia; bere eredia zen emazte zintzoa, ordena eta etxebizitzaren adiskidea, baina orobat bere eskubideen zaintzaile saiatua, eta hau izan zen jainkoen erreginatzat idealizatu zuena.

Baldin gure fantasia bigarren mailako ideietatik garbitu badugu, jainkotasun honetan benetako emakumezkotasunaren irudia maila altu batean azalduko zaigu. Ez du aurrerago egiten inondiko ezaugarrietako batean, baizik itxura guztiaren inguruan errezel xamur bat botatzen du, handik barna jainkotasunak aske eta eragozpenik gabe begiratzen duelarik. Ez da hartaz azaltzen aldioro egoera jakin batek berarekin daraman mugaketan, baizik hartzen du oraindik garatu gabeko jarrera oro, eta arrazoimenari eta fantasiari mugarik gabeko alor bat eskaintzen die segitzeko. Izan ere, ez du agerrarazten Junok emakumea, maitasunaren jainkosak bezala, desira kilikatzaileaz, ezta Latonaren alabak bezala, naturaltasun gazte batez, baizik betetasun bare, izaera guztiaren gainean zabalduko batez. Grinaren itzala bera ere desagertu egiten da, eta barneko poztasunak lurreko mugen ingurutik aurrera jasotzen du. Bere irudi bikainenak, bere begi zabal biribilak, eta maiestatearen adierazpenak bere ahoan ematen diote duintasun bat, txirotasun aztarna oro xahutzen duena. Baina bere emakumezkotasuna bera zapuzten badu ere, halere, horrixeri zor dio gainerako bere edertasuna. Emea da bere izaeraren betetasuna, indar emea, astiro isurtzen dena bere ahalmen ongilea, eta orobat

biak batera da maiestate maitagarriz eta gaztetasunaren grazia oroz edertua. Izan ere, oraingo unetik aurrera, hilkorren antzo, ondorio mugatzaileak pairatu gabe gizatiar oro dastatzeko eskubideaz jainkotasun oro pozten den bezala, hala itzultzen da betiko andregai birjin bezala Zeusen besoetara.

Halere, ez da azaltzen emakumezkotasuna jatorrizko bere egoeran, ezta ere, nortasunaren bitartez oraindik aldatu gabe, naturaren eskutik datorren bezala. Aldiz, jainkotasunaz bat eginik, honek jasoa izango da. Ausartago altxatzen da, hartaz, jainkosaren irudia, askeago uztai gisan eratzen da begia, harroago agintzen du ahoak, eta sexuaren mugetatik libre, haren pribilegioekin, ordea, dago hornitua. Natura jainkotiarraren eta emakumezkoaren adierazpena galdu egiten da xamur bata bestearengan, eta bakoitza izango da bestearen bitartez goratua edo eztitua. Emakumezkotasunaren betetasun oparoa, taxua erraz galtzen duena, bere baita menderatzen duen aberastasun bihurtuko da, eta kanpoko premiaren mende dagoen emakumezko indarra badirudi barneko baten bidez dagoela lotua. Baina, aldiz, jainkotasunaren handitasun beldurgarriak izu-laborria sor lezakeenean, han emakumearen biguntasunak uxatzen du hura. Haren bitartez azaltzen da jainkoen bekokiak aldarrikatzen duen erabaki sendoa, aldartearen gogoaren mende ez dagoena, baizik gauzen ordena gorenari lotua dagoena, eta Jainkosa inguratzen duen seriotasun ospetsuak emakumezko ahalkeak eta lotsak sortzen duen gogortasunaren itxura gutzia galtzen du.

Hemen, beraz, itxura berri batean azaltzen da emakumezkotasuna. Ez da haren ideal bat guk ikusten duguna, ez irudi bat, noren pribilegioak bezala ezinbesteko mugak erakusteko jarria legokeena; natura espiritual baten ideala da, gorputz bat hartu nahi bazuen ezinbestean sexu bat hautatu beharrean zegoena eta orain emea hautatu zuena. Izan ere, sexuen forma alde batera utzirik, izan behar du erdiko bat, gizatiartasunaren, edo, idealki jasorik pentsatzen badugu, jainkotasunaren kopia garbi bat dena antzinakoen zentzuan eta norengana sexu bakoitzak jo beharko lukeen. Eragozpena da, ordea, horrela alor artzean sartzean, orobat norberarena ez uztea, baizik hura idealki zabaltea. Eskakizun hori, hain zuzen ere, dago hemen betea, jainkotasunak emakumezkotasunaren izaera naturaren izaera bezala xahutzen duenez eta, nahimenaren izaera bezala azaldurik, amaibako alor bat pres-

tatzen dionez, eta, bere mugak bazterturik, bere gailentasunari berari distira berri bat ematen dionez. Sorkuntza gorenaren ezaugarri oro emakumezko da; baina ezin ukatzeko moduan mintzo da bakoitzetik jainkotasuna; eta hala, emakumeengan eta Jainkosengan irabazten du gizatiartasunak eta jainkotasunak emakumezkotasunak bere izate osoa bizikiago animatzen duen maila berean.

Baldin ideal honetan, errealitatean bertan bezala, emakumezko edertasunak sentimenean sortzen dituen zirraretara makurtzen bada, eta saiatzeko haiek kontzeptu jakin eta orokor batzuetara erakartzen, maitagarritasuna eta grazia dira zentzuei alde guztietatik datozkienak. Gorpuzkera xamur bat handitasun neurritsukoa eta lerro borborti ederez inguratua, atal guztietan betetasuna eta malgutasuna, kolore nahastura xamur eta aldi berean bizia, larru-azal fin eta suabea, bilo luze eta maiestatez eroriak...; hauek eta antzeko hazpegiak dira ikuslearen fantasian markatzen direnak eta inolako egiazki emakumezko sorkarietan huts egiten ez dutenak, nahiz une berean irudi desberdin anitzetan azaldu. Emakumezko sorkariaren ezaugarri berezia da horregatik siluetaren jarraipen etenik gabea, horren bitartez dirudielarrik atal bat nolabait beste batetik datorrela. Iruditik distiratzen duen indarra graziazko betetasun bihurtzen du, eta hazpegi guztiak arintasun airosoan osotasun harmoniko batean biltzen ditu.

Zentzu guztiak kitzikatzen dituen erakarpen material honek, grazia bilaka dadin, espirituaren eskakizun goragokoa aseko duen forma bat hartu behar du. Hura gabe ez da iritsiko edertasunaren alorrera, eta hura da bakarrik grazia bihurtuko duena. Emakumearen gorpuzkaren eraketan artetasuna siluetaren biguntasun handiagoaren eta jario xamurragoaren bidez ezkututzen da egiaz, baina ez du desagertu behar, eta benetako emakumezko eraikuntza eder batean bikaintasun teknikoak ere bere distiratxoa izan behar du, antzinetatik geratu diren zenbait artelanetan begiaren bistan gelditu den bezala, horrek sentimenaren gidaritza laguntzailatzat duenean gutxienez. Eraketaren harmonia sentsualetik artetasun garbiak azaldu behar duen bezala, hala, irudia amaitutzat ematen bada behintzat, bien aldetik karakterren harmonia moralaren adierazpena eskatu beharko zaio. Duintasunak eta subiranotasunak distiratzen dute orduan iruditik eta hazpegietatik. Agintaritzako ahalegin harroputza salatu gabe, aski du eraikitako irudiak bizidun guztiak bestela lotzen dituen lokarrietatik askatua izate-

arekin. Bere indar propioan altxatzen da, eta gogo onez jartzen da bere askatasunaz bat datozen antolakuntzako legeen mende. Era horretan espirituaren adierazpena emakumezko eraketan urrun utzi behar dela uste ere uste gabe, bai erabat bestela, hura grazia maitagarriaren mende jartzen da bere borondatez.

Gizakien eraketa soiletik espero zitekeen baino bizitasun handiago karakter honetan nekerik gabe ezagut daiteke emakumezkotasuna alde guztietan. Neurri berean ezagun geratu behar du gizonetzko edertasun goian gizontasunak; baina hemen bereiztasun oso harrigarri bat azaltzen da, alegia, azken hau ez dela falta denean bezain erraz igartzen badagoenean. Sexu adierazpen propioa gizonaren itxuran ez da hain nabarmena, eta ezinezko beharko luke gizontasun soilaren idealala isolatzea, *Venusengan* emakumezkotasun soilaren idealala bezala. Bi itxuren lehen begiratuan dagoeneko igartzen da sexu eraketa gizonetzkoarengan askoz gutxiago dagoela lotua gorputzeko gainerakoarekin. Emakumezkoarengan sexua markatzen duten edo markatzen ez duten atal guztiak uka ezinezko arduraz bete dituela forma bakar batean, eta edertasuna bera horren mende jarri ere jarri duela. Bestearengan honetan zabarkeria handiagoaz jokatu du; askatasun gehiago ematen dio sexuari bakarrik dagokionean, eta aski du, osotasunarekiko harmoniaren kezkarik bat ere gabe, hura adierazte hutsarekin. Beharbada ordea, eho du gizonetzko karakterra finago gizonaren gainerako esentzian, eta markatu du indar gehiagoren adierazpenaz, esfortzu eginkorrago eta azkarrago batez eta mukuru txikiagoz. Ezaugarri berezi hau, ordea, ezin jarri liteke inolaz bere sexuaren kontura. Izan ere, gizatiartasun soilaren karakterra inolako aldetik kontraesanen ez duenez, izan daiteke forma gizatiar soilarena bezala kontrajarririko emakumezko forma soilarena; eta sexu desberdintasunarekiko askatasun handiagoa hartaz zuzenean lotzen da gizonetzko eraketaren kontzeptuarekin.

Zenbat eta indar eta askatasun gehiago erakusten duen gizonaren irudiak, orduan eta gizonetzkoago deklaritzen du egunoroko epaiak. Emakumezko edertasunean baino gehiago gaintitu behar du indarrak mukuru, eta azkarrago barkatzen diogu, baldin hau, grazia soila hautsiz ere, gehiegi azaltzen bada, eta ez aldiz haren azpitik gertzen bada. Horregatik gizonetzkoaren edertasuna beti igoa izango da indarra areagotuko den neurrian, eta beste hainbeste egingo du behe-
ra plazerrak eginkortasunaren aldean pisu handiagoa duenean.

Indarraren hazteko modua bera ez da garrantzirik gabekoa, eta beti azalduko da gutxiago gizonezko, hura betetasunaz elikatzen denean, esfortzuaren bidez egiten denean baino. Hala imajinatzen zuten antzinakoek *Bako*. Betetasun oparoa da bere ezaugarria; balantza alaituan igaro zuen lurra, eta herrialde urrun eta ahaltsuak bere naturaren ahalmen joriaren bidez gehiago garaitu zituen, bere nahimenaren esfortzuaz baino. Bere eraketa gainerako jainkoena baino xamurragoa eta gazte itxurakoagoa da, haren hankak emakume itxuran daude borobilduak, eta bere atalen moldaketa osoa beteagoa eta biribilagoa da. Hala eta guztiz ere, gizonaren indar eginkorrez horniturik, bere karakterrean adierazten ditu sexuaren ezaugarriak, alabaina emakumezkotasunaren mugetara hurbiltzen da. *Venusek* bezala naturako indar bat izendatzen du, eta gainera, hau bezala, goragoko jainkotasunak baino hurbilago dago naturaz loturik. Baina hura emakumezkotasunaren irudi leialena bada, honek gizonezkotasunaren desbideraketa bat aurkezten du; eta areago gizona, zenbat eta sexuak gehiago menderatu, une oro gradu horretan bertan bere sexutik orduan eta gehiago eroriko da. Nahiz hau oro har emakumeengan ere berdin gertatu, eta afektuaren bortzitasunean emakumezkotasunaren hazpegi maitagarrienak irautsi, hemen urrunago dago jarria muga, eta emakumeei maila goi batean beren sexuari amore ematea onartzen zaie, gizonak berea kasik alde guztietan gizadiari opaldu behar dion bitartean. Baina honexek, hain zuzen, egiaztatzen du berriro sexuaren mugekiko bere irudiak duen askatasun handia. Izan ere, bere jatorrizko naturaren xedea gogotan hartu gabe ere, gizonezkotasun gorena azal dezake; aldiz, emakumezko edertasunaren begirale zorrotzari hura beti begien aurrean azalduko zaio, zein fin gainera emakumezkotasuna izaera osoaren gainean zabaltzen den. Berez kasik bat dator gizonezko gorputz moldaketa gizonezko gorputzari dagokionez sor ditezkeen itxaropenekin, eta ez da gizonen partzialtasuna bakarrik hura orobat arautzat jartzen duena, emakumezkoaren desberdintasunak desbideratze bezala joko liratekeelarik. Partzialtasunik batere ez duen begiraleak aitortu behar du emakumezkoak bizidun ooren naturaren xede jakina azaltzen duela, gizonezkoak, aldiz, xede orokorra, alegia, mukurua formaren bidez garaitzen dela.

Baina gizonezko moldaketan ere, edertasun gorena sortu behar duen lekuan, gizatiartasun soilean galdu beharko litzatekeen sexu

berezitasunetik nahikoa arrasto gelditzen dira. Baldin emakumearen gorputzak azalera biguna, uhin gisako lerroez mugatua eskaintzen badu, gizonarenak goraipatzen du indar eta bortzitasun berezkoa bere zain nabarmenetan, eta bere moldaketa gogorragoak, haragi xamurgarriagoz gutxiago jantziak, inguru guztiak ageriagoan jartzen ditu. Ertz guztiak ateratzen dira azkarrago eta gutxiago prestaturik, gorputz osoa atal zehatzagoetan dago banatua, eta esku ausart batek, zehaztasun zorrotzez, baina graziari dagokionez apenas kezkatutik, egindako marrazki baten antza du. Hemen, bere muturrean deskribatzen denak, baita egia naturalaren behaketa zehatzez ere, hobekuntza handirako aukera ematen du. Baina mailarik gorenean ere zehaztasun bat egin behar da, gogortasunaren mugara hurbiltzen dena. Gisa honetako ideala da, arteko adituen iritziz, *Herkules Farnesiarra*. Lan luzearen ondoren atsedean hartzen dago, bere indarraren tresnaren gainean apoiaturik. Erraldoiak eta munstroak garaitu ditu, baina ez beren ahoaren aginduz eta beren eskuaren keinu batez beren etsaiak deuseztatzen dituzten jainkoen ahalmen arinez; hilkor baten esfortzuaz borrokatu da, izerdi neketsuz erdietsi du garaipena. Espezie berekoak dira gladiadoreak ere. Lana eta indar ariketak distiratzten dute haiengandik, eta hartzen duten gustuaren adierazpena alde guztietan da urrundua, baita gizonezko indarra saritzen duenean ere. Irmotasunak, kemenak eta gogortasun bihur daitekeen siluetaren doitasunak osatzen dute, beraz, gizonaren moldaketaren bigarren ezaugarri funtsezkoetako bat. Naturaren eskuak edo kultura moralak hazpegi hauek bigundu ez dituen lekuan, hantxe erauzten diote berriro gizonezko edertasunari sexuarekiko bere independentzia handiago baten bidez irabazi duen askatasunetik pixka bat.

Jainkotiarraren naturan espeziearen garbitasunera eta osotasunera jotzen du guztiak. Sexuen karakterra bera ere iraungitzen hasten da, eta jainkoen itxura gaztean gizonezko gorputzaren marrazketa doia galtzen da grazia goxo batean, gogortasuna kenduz, baina doitasuna erauzi gabe, ordea. Baldin *Herkules* Olinporaino igo bada, eta Heberen besoetan munduko bizitza neketsua ahazten badu, bere gorputz moldaketa edertasun garbiagoak inguratzen du eta arintasun gazteaz mugitzen dira bere atal askatuak. Gizakia ere saia daiteke ideal honetara hurbiltzen, eta giza edertasuna gizonezkoarekin lotzeak laguntzen dio azkenari osatzen. Hein handi batean saia daiteke arima gailentasun hau

barrutik kanpora ateratzen; baina gehiago da, izaera moralaren adierazpena sendotu ez baizik berezko edertasuna areagotu behar duen neurrian, naturaren dohaina. Bereziki *gaztaroan* gertatzen da hau, *hautzaroaren* moldaketa hein batean emakumezkoago denez, bi sexuen arteko muga estuan dagoelarik. Orduan azaltzen da gizonaren berezko edertasuna bere distira bikainenean. Muga hertsatzaile oro urrundua da, eta dena elkartzen da erakarpenak otzantzen duen indarraz hornituriko adierazpen bizienean. Gisako benetako gizonezkotasunaren ideia ikusten dugu *Vaticanoko Apollo* ikustean. Gizonezko indar eta doitasun gorena dago bararengan jainko-gaztetasun ederrenez jantzirik; moldaketaren hazpegi guztiak daude xamurtasunez marraturik eta sarri sentimenak bakarrik igar dezake; eta baldin bere eskuko uztaiak eta bere bizkarreko gezi-potoak izutzen bagaituzte ere, Jainkoaren goitasun bareak bereganatzen gaitu itzal lasaiez.

Gure zentzua edertasunera nahikoa ohituta balego alde guztietan edertasuna eskatzeko, gizonaren irudiarri sarri lagun egiten dion gogortasuna gutxiago begiratu genuke eta haren bitartez espezieia baino gehiago ekarriko genuke gogora sexua. Halere, ez datza hori ez gudan sentsibilitate estetiko faltan, ezta ere bere moldaketaren espiritu guztian, guk haren baitan doitasunari formen edertasunari baino arreta gehiago eskaintzen diogunean. Doitasun hori da, izan ere, *bere* moldaketaren ezaugarri berezia, emakumezkoaren baitan grazia eta bizitasuna diren bezala; horregatik doitasun-eza eta hustasuna ez zaio barkatzen, emakumearengan grazia gabezia barkatzen ez den bezala. Horrek agerian jartzen du berezko indarraren adierazpen goia, eta atal bakoitza izaera bizi eta berezko baten kontzeptuaren batasunarekin gehiago lotzen du emakumezko gorputzean hainbeste atseginez pausatzen garen formaren batasun sentsualarekin baino.

Ezaugarri hauen arabera gizakiaren irudian bikaintasuna bakarrik gaitzetsi eta edertasuna zalantzan ipini beharko litzateke, baldin eraikuntzaren zuzentasun zorrotz harekin une berean bizitasuna erakargarria lotu ahal izango ez balitz. Hauxe da, ordea, gizonezko edertasunean gertatzen dena; arrazoia asetzen duen kontzeptuaren batasun abstraktuak egintzaren batasun biziaren bidez asetzen du sentimena, eta siluetaren doitasun eta aniztasun gorenaz forma batetik bestera igarotze arinena onar daiteke. Gure artean gimnasi ariketa faltak, moldaketa hondatzen duen lan gogorrak, kezka eta egite mekanikoareki-

ko askatasun gutxiagoak eta edertasunari garaiaren joera desegokiak zailago egin badu hori gizonezko gorputz bizian egiaztatzea, antzinateko artelanezko jo baina ez daukagu. Gogortasunaren itzala bera handik uxatua dago eta gizonezko irudiaren planoak orobat xamurkiro nahasten dira, baina hori bai, gaiaren aldetik aurreztapen handiagoz emakumezkoan baino. Bereziki agerian geratzen da hau gizonaren ideal gorenean: berezitasun fisikoaren ondoan, orobat, intelektuala eta morala daude han. Grazia eta bizitasuna ez dira ezkontzen, beraz, gutxiago gizonezko formarekin emakumezkoarekin baino, baina hori bai: badirudi azken honekin araua berak emateko, lehenarekin gehiagoraz arrazoiaren legea betetzeko.

Bi sexuen itxuraren deskribaketa honetan ezinezko da une berean beren barneko berezitasunak gogora ez ekartzea. Begiraleak nahi adina utzi nahiko balu ere alde batera haiekiko konbarazioa jartzeari, horrela kontenplazioaren gardentasunaren bidez ez eragozteko, antzekotasunak behartu egingo du horretara, bere borondatearen kontra ere. Izan ere, ez baitago izaki organiko bakar baten irudia garbia denik, bere buruaren mendeko bakarrik denik; aldiz, bakoitza izango da zehaztua haren edukia bidez eta bere baitan bizi den indarrak. Natura inorganikoan irudi oro da mukuru soil, kapritxozko ez esateko, ez gutxienez barneko legeen arabera baizik, aldiz, kanpoko eraginez elkarrekin pilatua. Indarraren arrastorik ez dago, ez bada mukuru indartsu egiten duenarena; eta, hartaz, gisa horretako formak ez dira bestelako esanahia edukitzeko gauza ez bada fantasiak haiei gogora antzekotasun zehaztugabeen arabera eman nahi diena. Guztiz bestela da honekin muga egiten duen erresuman. Landarea bere bizitza propioaren bila altxatzen da gora, eta atal askotan banaturiko sustri eta adarrak zabaltzen ditu kanpotik gaia hartzeko eta berea isolatzeko. Hemen ez da gehiago han bezala irudia lege mekaniko soilen bidez ulergarri, han mukuru zabarkiro banatu gabea oinarri segurua gainean baitzegoen; harengan azaltzen da barneko indar eratzailerik bat. Hau ahalegiten da materiaren bila, eta gorputz organiko bakoitzari borroka baten irudia ematen dio, eta orain atal batek, orain besteak gaina hartzen du. Materiak uzten dionean kontra egiteari, abantaila ematen dio materiari, berak, barneko izaeran sentsibilitateak automatismoari bezalaxe hain zuzen ere gorputzezko gai bat ematen dionean eta arintasunaren bidez ezitzen duenean. Bi osagai hauen egiturak eta

erlazioak, indarraren kopuruak, eta materiak hura gorpuzteko duen moduak finkatzen dute eraketa gutxi edo gehiago nobleen mailaketa bat, eta horren arabera natur irudi bakoitzari bere tokia izenda dakioke. Egiteko honetan, ordea, kontu hartu behar da kanpoko moldaketaz gaindi ez joatea. Itxurak hemen aipatzen ari garen indarra iragarri behar du zuzenean, eta hala egin ere egiten du egiaz. Muku osoak, atal desberdinetan zatiturik, arintasuna eta mugikortasuna irabazten duenean, zatiketa honetan, planoetan bezala, harmoniak eta arauak agintzen dutenean, badago agerian indar moldatzaile bat, materia soilaren legeetatik ezin argituzko fenomeno hauek ekartzen dituen eta egintzari bere *zabaleroa* bezala bere *mugak* finkatzen dizkiona. Lehenbizikoa bereziki giza itxuran da nabarmen, ez baitu honek erakusten, moldaketa organiko orok bezala, indar moldatzaile bat eta gai malgu bat, baizik indar mugarik gabe bat, erabat inolako egiteko baterako bakarrik finkaturikoa, eta materia bat, hari uko egin ordez, hari ongietorria egiten diola dirudiena.

Abereen gainerako sorkuntzan zehar ikusten dugu izaki bakoitzak bide kopuru jakin bat duela, nondik ibili behartua dagoena, eta gainerako guztiak aldiz debekatuak zaizkiola. Baina ez da aski azken hauek egiaz ezin hartu izana, areago ez dago hori desiratzeko egoeran ere, eta bere grina, bere gaitasuna bezala, loturik dago. Alderantziz, gizakiaren egintzari dagokionez honek ez dauka norabide bakar bat bera ere alde aurretik agindurik; bere naturak zuzenean debekaturik dagoela dirudiena, horretarako barruko eragozpenak ariketaren bidez eta kanpokoak era guztietako laguntzaz urrundu ditzake eta erabat ezinezkoa bera ere berak irrikatuz bila dezake. Bereztasun honek bere irudia jartzen du zuzenean agerian, eta horren ezaugarri fisiognomiko berezigarria da moldaketaren egitura bat, behartzearen pentsamendua bera jasanezinezko eta askatasunaren bidez bakarrik argitzekoa dena¹. Egiaz ez da hau agerian jartzen hazpegi batean edo bestean, baizik gorputz eraikuntzaren itxura osoan eta atal guztien konkordantzia askean, eta hartaz hori ikusi eta sentitu egin daiteke, eta ez hitzen bidez deskribatu. Baldin badirudi ere gizakia berea den askatasunaren bidez mugatasunaren mugen gaindi mugitzen dela, ez da inolaz ere irteten naturaren mugetatik; aldiz, mugako gizakiaren eraikuntzan pixka bat atzera egin baino ez dute egin. Izan ere, materiak espirituaren egitate askea bere astuntasunaren eta axolagabekeriaren bidez

mugatzen duen bitartean, halere, arindu egiten du bortiztasun oldarra bere sendotasun irmoaren bidez, horrekin arbitrariedade azaltzen baita; eta espirituak bere legezkotasun zorrotzaren bidez materiari bortxa eragiten dion bitartean, aldi berean bere gehiegikeria mugatzen du, etengabe saiatzeko baita hau forma desegiten.

Gizakiak izaki nahastu bezala askatasuna naturaren ezinbestekotasunarekin korapilatzen duenez, bien arteko oreka osoenaren bidez erdiesten du gizakitasun garbiaren ideala. Egia da, duintasun moralari eutsi behar bazaio, nahimenak agindu behar duela, baina ez kontra saiatzeko den baizik berarekin bat datorren natura batekin, eta honek, gainera, aldarrikatu beharko luke kanpoko moldaketa. Hemen, ordea, irudimenak ikusten du nola utzi duen errealitateak, honek ez baitio inon erakusten sexu berezitasun ororen gainetik jaso legokeen izate soil bat, eta are zail gertatuko zaio horren irudi soil bat marraztea. Izan ere, hura sexueta baten karakterra ezabatzen saiatzeko den bitartean, haren lekuan besteara jartzeko edo, baldin horri ihes egin nahi badio, gainerako ezaugarriak doitasun gabeziaraino ahultzeko arriskuan aurkituko da. Hala eta guztiz, ezin uka daiteke, inoiz edo behin errealitatean bertan ere, nahiz irudi baten hazpegi batzuk ozta-ozta distiratu, gizatiar soil bezala, gizonezkoaren eta emakumezkoaren erdian dagoenez, eta bakoitzak bere ariman horren irudi iluna dakarrelarik, ezin utz daitekeela alde batera. Han eta hemen aurkitzen da zerbaite emakumezkoaz gaindikoa, esamoldea zilegi bazait, inork horregatik ez-emakumezko edo gizonezko dei nahiko ez lukeena; eta hala, aurkitzen dira gizonengan sexuaren kontura jarriko ez liratekeen hazpegiak. Gisa honetako da, esaterako, handitasun bare jakin bat, ez naturaren bidez, baizik nahimenaren irmotasunaren bidez sortzen dena eta emakumezko irudi batean sekula ez-emakumezko bezala azalduko ez dena, baina gizonezko batean ez bakarrik gizonezko baizik eta gizatiar deitu behar dena. Baldin ezaugarri hau eta antzekoak bilduko balira (hauek bilatzeko erarik egokiena izango litzateke galdetzea ea zer eraman zitekeen gizonezko moldaketa batetik, emakumezkotasun osoa ere gordez, emakumezko batera?) moldaketa batean, hazpegien zehaztasun artistiko bat azalduko litzateke, baina gogortasunetik eta bortizkeriatik neurri berean urrun egongo litzatekeena, eta honekin elkartuko litzateke grazia bat, hura ezabatu nahi gabe ere, orobat ez litzatekeena haren aldetik ezabatua. Baina batak bestea albo-

ratzen duen neurrian, bata eta bestea orduan ahuldu egingo lirateke; biak guztiz lotzeko ahaleginari dagokionez, begiraleak ezin ikusi ahal izango luke ez bata ez bestea bere soiltasunean, eta nahasketa etorriko litzateke korapilatzearen lekuan.

Giza irudiaren bi ezaugarri nabarmen hauen artean, zeintzuen berezitasun propioa idealaren batasunean desagertzen den, sexu bakoitzean bietako batak agintzen du bereziki, baina bestea halere ez da faltako. Era horretan bata bestearekiko daude ikusten ez den osotasun baten erdi gisan, eta elkarrekiko beren gabeziaren bidez espiritua behartzen dute hura idealean osatzera. Gizonaren forman espiritua nagusigo zorrotzagoa agertzen da, emakumearen forman liberalagoa; han nahimena mintzo da ozenago, hemen natura. Indar handiagoak eta naturaren xede jakin bakoitzarekiko mendetasun txikiagoak hura gaiago egiten duten bezala edozein egoera pairatzeko eta are sortzeko, hala gauza bera salatzen dute bere gorpuzkera garaiagoak, bere bular irtenagoak, bere hezurdura sendoagoak, eta giharren bere joko gutxiago estaliak. Txikiagoa, gizentasun handiagoz eta hazpegi borobilez hornitua, emakumezko sexuak mugikortasun handiagoa dauka, baina indar gutxiagoz lagundurik dagoelarik, gehiago malgutasun dirudiena. Gizonarengan nahimenak garaipen beteena erdietsi du, eta materia landu du kasik bere naturazko izaera guztiz desageteraino. Materiak hobeto asmatu du emakumearengan bere indibidualtasuna gordetzen, eta mendeko egiten delarik ere, ihes egiten dio bere hondamenaren azalpenari. Era honetan, bi sexuetak bakoitzak egiaz gizakitasun osoa du bere berezitasun guztietan, baina gehiago norabide partikular batetik erakusten badu ere, batak beti bestearengana zuzendu behar du derrigor. Hain zuzen ere, alderdi bat nagusiago izatean ezinbestean sortzen da inoiz bestea agintzen ikusteko gogoia eta, hala, ez bada errealitatean, bai gutxienez fantasian, oreka hondatua berriro leheneratzekoa.

Bi sexuek gizakitasun soil eta sexu bakoaren idealari dagokionez jokutzen duten bezala, jokutzen du, halaber, bien aldetiko edertasunak edertasunaren idealari dagokionez. Bietan, entzun dugu, dago adierazia gizakitasuna, bakoitzak aurkezten du bien natura bertan bateratua; bakoitzean inolaz natura bi horietako batek gaina hartzen duelarik, ordea. Gisa berean datorkie bie edertasuna, baina bakoitzarengan haren zati bat da nagusi, bestea kanpora utzi gabe alabaina.

Gizakitasunean naturaren ezinbestekotasuna askatasunarekin uztartu den bezala ikusten dugu edertasunean materia formarekin ezkondurik. Nola gizadi noble-tuan arrazoiaren agindua joeraren nahi aske bezala, eta afektuaren ahotsa nahimen arrazoidunaren adierazpen bezala azaltzen den, hala azaltzen da edertasun gorenean formaren arauzkotasun naturala materiaren joko aske bezala eta kapritxoaren jaiotza legearen egintza bezala. Hartaz, gizatasuna azaltzen den lekuan, edertasuna ere posible izango da; biek izan ere, jokatzeko errealitateak eta itxurak bezala, bata bestearekiko arketipo eta erretratu bezala, eta gizatasuna *espezifikatua* den bezala, gisa berean izango da edertasuna ere une oro. Nahimenaren nagusigo zorrotzagoaren azalpenak gizonezko egituraren formen zehaztasun gehiago sortuko du; emakumezkoagan naturaren askatasun handiagoak materiaren iraunkortasuna gehiago zainduko du. Baina bi irudiek edertasun eskakizunari uko egin beharko diote, baldin bakoitzak bi abantaila hauek berarengan bateratzen ez baditu, eta haren *gain-pisu* baino ez balitz, horrek bereizten baitu bata bestearengandik eta biak idealetik. Errealitate oro bere mugen bidez nahasturik dagoen guduaren gaindi altxatua, eta espezieak beren artean banatzen dituen berezitasunetatik libre, edertasunaren ideala bezala gizatasunaren ideala baieztatzen du, *oreka* perfektuena. Formaren desioa eta materiaren desioa, hartaz, asetsuak izango, dira eta joko librean elkarrekiko duten zereginak trukatzeko dituzte¹.

Edertasunaren bi printzipio hauen oreka hondatua bai, baina une berean beren arteko lotura ez bada jaso, sortzen dira edertasun ideal soilaren lekuan bi desberdin baina espezie ez hain perfektukoak. Biek azaleratzen dute edertasun sentimendua markatzen duen harmonia, baina bakoitzak bere bidetik jotzen du helburu honetara. Batak, arauzkotasunaren adierazmolde nagusiaren bitartez arrazoiari gomentatzen zaiolarik, aurkezpenaren graziaren bidez irudimenaren interesa erakarriko du; bestea, bien bitartean itxurazko kapritxoaren bidez irudimena lausengatzen duelarik, orobat jartzen da egiazko ezinbestekotasun baten bitartez legearen mendean. Hala ikusten dugu bi sexuen edertasunak sentimenaren gainean duen eraginean. Gizonezkoak hasiera batean tartean nahasten diren formen bitartez arrazoiak kilikatzen du, honen asetzeari geroago egiazko edertasun sentimenean betetzen delarik. Emakumezkoak bere forma errazagoen bitartez askatasun gehiago ematen dio irudimenari, eta lehenbizi materiaren oparotasuna-

ren bitartez zentzuak gonbidatzen ditu, azkenik egonaldi luzeago eta ikerketa sakonago bati esker edertasunaren eskakizun serioenak ere ase arte. Baina bide honetatik beti alde baterako gain-zama dagoenez, ondorioz beste aldean gabezia bat geratzen baita, ez bata ez besteak asetzen du sentimen estetikoa, bere naturaren arabera bikaintasunera jotzen duena, eta idealera iritsi arte atsedetik ez duena. Moldaketa batetik, beraz, bestera doa, eta ahalegintzen da, bataren berezitasunen bidez kontrajartzen zaizkion bestearnak aurkitzen dituenetz, biak osotasun batean lotzen, ideala une batez bederen oratzeko. Sexu moldaketa bikoitzak edertasun idealarekiko duen erlazioak egiten du, bakoitza bestea aurrean daukan neurrian egiaz eder azal dadinean, bakoitzak (irudi ausart bat erabil dezadan) jotzen duela akorde bat bakarra, erabat osoki bestearengan bakarrik garatzen dena. Hemen ere elkarrekiko mendetasunean aurkitzen dira sexuak; izan ere, beren baitara mugaturik, hemen ere beren barneko erlazioaren bidez erdiesten dute bakarrik bikaintasuna. Baina sexuaren moldaketaren mugek fantasia idealaren sorkuntzara etengabe bultzatzen duten bezala, gisa berean gidatzen dute berriro ezinbestean ahalmen honen mugek sexu moldaketara. Alferrik saiaturiko litzateke fantasia formaren nagusigoa materiaren askatasunaren kontra erabat berdina orekatzen; izan ere, alderdi batetik baino abia ezin zitekeelarik, edota batari edo besteari nagusitasuna emango lioke, eta horrela, bera konturatu ere egin gabe, gizonezko eta emakumezko moldaketara itzuliko litzateke.

Aldiz, ordea, baldin bikaintasunerantz jotzen duen sentimen estetikoa sexu moldaketa batetik bestera ase gabe aldatzen bada, bien egitura berezien bitartez babestua izango da. Izan ere, beren berezitasun propioak alde batera utzirik, gizonezko eta emakumezko moldaketak elkarrengana hurbiltzen dira, bakoitzarengan sexuaren adierazmolde bereziak gizatasunaren adierazmolde orokorra ondoan duelako. Azkenak agintzen duen idealarekiko berdintasuna lehenaren mugek bitartez mugatua dagoen bitartean, guk gizonezko eta emakumezko deitu ditugun edertasun mota desberdinak sortzen dira. Sexuaren karakterrik gabe gizonak ez luke edertasun propioirik izango, gizatasunaren karakterrik gabe ez luke inolako edertasunik; eta horixe da emakumeari gertatzen zaiona, emakumezko moldaketa, emakumezko den neurrian hain zuzen ere, edertasunetik hurbilagozat dirudienean. Alde guztietan ohitu behar da sexua muga bezala ikustera, espeziea-

ren kontzeptuak bere baitan hartzen duen gaitasun multzotik beti kopuru jakin bat kanpora uzten baitu. Gizatasunean eten egiten du elkarrekiko askatasunak, harekin automatismoak eta sentsibilitateak idealean elkarrekin lan egiten baitute, eta bakoitza bere karakterrean azal dadin, behar du (ezin baitute sekula elkar guztiz alde batera utzi) bata bestearen azpian egon. Automatismoak sentsibilitatea zapaltzen duenean, materiak formari hazpegian zerbitzatu behar dio, eta alde-rantzizkoa gertatu behar du automatismoak sentsibilitatea malaskatzen duenean. Edertasun oro formaren eta materiaren arteko *lotura librean* oinarritzen da, eta horrek (beren mailarik gorena alde batera utzita) bi osagaietako baten nagusitasuna onartzen badu ere, ez du onartzen inolaz bestearen erabateko zapalketa edo, gauza bera dena, bien benetako etena.

Ez da inolaz beharrezko hori kontzeptuen bidez frogatu nahi izatea, bestela ere esperientziaren alorrean hain oparo egiaztatua dagoenean. Gizadiaren karakterrak sexuaren karakterra nobleitu duen neurrian aurkitzen du edertasuna gure sentimen estetikoak gizonarengan eta emakumearengan. Gizonezko karakter natural hezi gabeak, giza karakter moralarekiko erlaziotik aparte ikusita, gogortasun eta bortizkeria marka ezartzen die hazpegiei, eta formaren marrazki gogorregiak materiaren biguntasun oro uxatzen du, baina halere arauz-kotasunaren bidez arrazoia ezinbestean ase gabe. Alderantziz, emakumezko moldaketak erakusten du, baldin guk emakumezkoatasuna giza kultura erantzirik ikusten badugu, masa zabar bat, astuntasuna eta ahultasuna azaltzen duena, eta materiaren joritasunak formaren arrasto guztiak zapaltzen ditu. Oldar berri aske orotarako ezgauza, grinaren adierazpenaren bidez bakarrik izango da bizitua itxura, eta horren bidez indarrak gabeko pasionamendu baten irudi okaztagarria ematen du. Baldin, ordea, sexu karakterra bakarka aztertuko balitz, indar sortzailearen adierazpena energiaren ahalegin bortitzean legoke, hartzailearen adierazpena materiaren masa gehiegizko oparoan bakarrik; eta hark helburu jakin batera zuzenduriko arrazoia asetuko lukeen bitartean, eta honek berriz sentsualitate zabarra, biek zentzu estetikoak baretu gabe utziko lukete.

Sexu karakterra egiaz giza karakter gorenarekin loturik bakarrik dela edertasuna sortzeko gai, segituan garbiago ikusiko da baldin hura honengandik berezia ikusten bada. Gizakitasunaren arloa utzi bezain

laster, edertasunak behera egiten du; baina segituan azaltzen da, orobat, bi sexuen artean beren berezitasun funtsezkoetan derrigor oinarrituriko desberdintasun bat. Nahiz guztiz bere karakter natural soilera laburbildu, gizonezko sexuak beti gordetzen du indar baten adierazpena, egiaz basatitasun gordinez horniturik, beldurra eta nazka sortzen duena, baina halere beti, bereziki eskakizun moral guztiak erortzen direnean, interesa eta harridura esnatzen dituena. Emakumezkoagan, aldiz, orduan materiak indarra zapaltzen du, eta galera hori ez du konponduko inolako graziak. Hartaz, beraz, argitu egin behar da fenomeno bitxia, alegia, abereen artean, bi sexuak beren edertasunari dagokionez guztiz kontrako erlazio batean daudela gizakien parean. Izan ere, gizakien artean sexu ahulena indartsuenaren parean edertasunari dagokionez ez bakarrik guztiz berdina da, baizik horretan gaina hartzen dio, baina abere emeak nabarmen itsusiagoak dira bere espezieko arrak baino. Alferrik bilatuko litzateke desberdintasun honen oinarria gorputzera organikoan, izan ere, gorputzaren egitura propiotik ezagut daitezkeen sexu desberdintasunen zergatiak, naturaren legeen analogiari jarraiki, ezinbestean alde guztietan berberak izan behar baitute. Abereen artean ere egiaz gizakien artean aurkitzen diren sexuen ezauzgarri fisiko berberak aurkitzen dira; haien artean ere, emea, arraren parean, egiaz txikiagoa, ahulagoa, hezurdura xamurragokoa da eta masaz gehiago hornitua. Aberetasunaren natura orokorra da bakarrik, beraz, fenomeno horren arrazoia daukana. Ezgauza bere beraren bidez duintasun eskakizunik egiteko, atxikitasun, ahultasun eta xamurtasun emearen bidez erabat behera egiten du, eta handitasun, indar eta irmotasun arraren bidez bakarrik egin dezake gora. Emetasunaren ahulezia fisikoa harengan indar moralaren bidez altxatu ezin daitekeenez, ezintasunaren adierazpen soil bezala azaltzen da, eta hori emakumezko-gizakizko itxuran ere itzalia izan behar du lehenik, baldin edertasunerako gai izango bada; baina abere itxurari abantaila fisikoak baino eskatzen ez zaizkionez, ez dio kalterik egiten baldin legerik gabeko nahikeriaren adierazpen batean amaitzen bada independentzia arraren adierazpena.

Halere, aberetasuneraino jaitsi gabe, goian aipaturiko oharpenak giza naturatik hartutako adibideen bidez ere egiazta daitezke. Oraindik inolako kulturarik gabe, jatorrizko basatitasun egoeran bizi diren nazioen artean ere, emakumeen itxura apenas konbara daitezkeen

edertasunez gizonen itxurarekin; eta nazio hezien artean ere han eta hemen gisako desberdintasunak igartzen direnean, azterketa sakonago batek ziurrenera antzeko zergatietara eramango gintuzke. Gutxienez ikusten dugu gure artean, gizonezko eta emakumezko irudiek moraltasun gabezia borobilaren arrastoak beraiengan daramatenean, gizatasuna beraiengan bilautzen denean, eta askatasunak arrazoia zapaltzen duenean, azkenek beti inpresio nazkagarriagoa eta gorrotagarriagoa sortzen duela lehenek baino, hauek gutxienez indar fisikoaren adierazpenaren bitartez nolabaiteko jarrera hartzen baitute. Kasu honetan guztietan fenomeno bera azaltzen da berriro; alde guztietan dago sortua emakumezko itxura espresio gorenerako bakarrik, eta baldin bera *gizakitasunezko* edertasunean agertzen ez bada, bere edertasuna egiaz da arrotz. Honek, noski, iritzi estetikoari dagokionez bakarrik balio du, gizakiak, ez sexuak, erabakitzen duen lekuan, alegia. Hemen bereizkuntzarik gabe sexu baten moldaketak bestearen joera lausengatzen du, eta erraz irabazten du hemen saria batak bestearen gainean. Fin antolatuturiko arimetan edertasunerako sentimenak sentsazio guztiak zehaztu dituen lekuan bakarrik dago joera hori eskakizun goragokoen mende jarria, han bakarrik bihurtuko da giza maitasun sexuaren grina, eta zentzuen alor mugatutik fantasiaren alor idealera eramana izango da. Bestela, alderdi hau ukitzen duten objektu guztien gainera hedatuko da gustuaren likiskeria hau; eta aztertuko bagenitu sakon gizarte bizitzan prestakuntzaz, modaz, zintzotasunaz, artelanez, teatroaz, idatziaz, eta abar, labur zentzu zabalenean gustuaren alorrari dagokion guztiaz dauden iritziak, harrituta onartu beharko genuke zein gutxitan koroatzen duen egiazko edertasuna interesik gabeko txaloak.

Karakter sexuala, beraz, ikusi behar da gizonezko eta emakumezko edertasuna idealetik urruntzen duen muga bezala; eta formaren gainean eragina duen bitartean, ezinezko bihurtuko du hura idealera altxa dadin. Baina natura mugatuaren legea denez mugaren bitartez amaibakotasunera igotzea, materiaren bidez formara, eta banaketaren bidez harmoniara iristea, gisa berean sexu edertasuna da, nahiz berez bakarrik beti edertasun ideala kontraesan, harako bide bakarra. Gainera, gizakia bakarrik dago, sexuari arreta eskaintzen dion neurrian, muga horietara lotua; baina, orobat, sexurik gabeko gizakitasun askerako baldintzak bere baitan daramatzen neurrian, handik libratuta. Azken honen bidez bere sexuaren mugek ukatzen dioten betetasu-

na erdiets dezake askatasunaren bidez, eta bere karakter natural partziala bere karakter moralaren bidez idealera jaso; eta zenbat eta bizia-
goa honek hitz egin, dela naturaren faborearen bidez, edo dela arra-
zoiaren barneko eraginaren bidez, baita kanpoko prestakuntzaz ere,
orduaz eta gehiago galtzen du sexu karakterren adierazpenak bere
partzialtasuna. Ikusten dugu gizakitasunak sexuaz duen loturatik erdi-
ko edertasun berri bat altxatzen, eta hau da gizonezko eta emaku-
mezko edertasun bezala ulertzen dena. Berarengan idealaren oreka
naturaren mugadurak beharrezko egiten duen neurrian dago aldatua,
eta aldaketa honek berak itxurari hazpegien halako nahasketa indibi-
duala ematen dio non horren bidez lilura berria irabazten duen. Ez da
ez gizakitasuna bakarrik ezta sexua ere gizonarengan eta emakumea-
rengan azaltzen dena; irudi bereziak, beren hartan itxiak dira biak, eta
ez hau ez hura ez dute gogorarazten. Gizonezko sendotasunaren adie-
razpena, inoiz errazegi indar fisikotzat jotzen dena, giza duintasuna-
ren adierazpenaren bidez arindu egingo da, eta kapritxoaren nagusigo
itsua, arrazoiaren nagusigoaren azpian jarri aurretik, gizona nolabai-
teko anarkian jartzen duena, askatasun moral bezala ematen da eza-
gutzero. Hala, artearen idealean heroien gizonezko setak lekua uzten
dio Jainkoaren bikaintasun xamurrari; eta hala, honengan aurkitzen
dugu berriro kasik bere azken arrastoetaraino ezabatu den gizonezko-
tasunaren karakterra gizakitasun soilarekin bat eginik.

Hertsia dago uztarturik oraindik emakumezkoasuna gizaki-
tasunarekin emakumezko edertasunean; eta gizonezkoan baino gehia-
go oraindik sortzen da biengandik erdiko moldaketa berri bat, bere
hazpegiak biengandik mailegatu dituenek, bakoitzaren adierazpena une
borean engainatuz ezkatzen duenari. Izan ere, perfekzioaren maila-
rik gorenetan ere gordetzen baita ezin ukatzeko moduan emakumezko-
tasunaren adierazpena gizakitasun soilaren adierazpenaren ondoan; eta
etengabe harengana igarotzen bada ere, ez da guztiz galtzen harengan.
Ezaugarri hau izan arren, gizonak baino ez gutxiago eman diezaioke
emakumeak perfekzio bat, sexu moldaketa berezitik at dagoena. Egiaz
ezin ken daiteke guztiz materiaren nagusigo handiagoa, ezta ere ezin
ezaba daiteke emakumezko itxurari beti lagun egiten dion ahulezia
fisikoaren eta mendetasunaren adierazpena. Baina gizakitasunaren
indar aske hori ahulezia fisiko horren alboan ipintzen denez, sortzen du
indar moral eta berez zuhur baten irudia, eta era horretan mendetasun

natural hura eskumende libre bihur daiteke berak bere buruari eman-
dako lege baten azpian. Orobat, trabarik gabeko indarra mintzo da, har-
taz, gizonetzko eta emakumezko moldaketatik; baina hori bai: gizonetz-
koan badirudi mugarik gabeko eragingune batera zabaltzen dela, ema-
kumezkoan, aldiz, nahita ezitzen dela.

Baina nola bi sexuek mugatutasunari ezin dioten ihes egin, itxuraren perfekzio ideal horri bietan betiko eragozpen bat jartzen zaio tartean; eta ezin erdiets daiteke errealitatean edertasun gorena. Mugatua mugabako bihurtu beharko litzateke oreka hura fenomenoan agerian jarri beharko balitz, eta orduan ere ezingo luke ulertu ezein giza zentzuk. Hemen bakarrik erakusten du sexu karakter bikoitzaren adierazpenak bidea helburura hurbiltzeko, eta fenomenotik ideia-
r igotzen saiatzen den begiraleari ere lagungarri izango zaio. Bi sexu moldaketak gizakitasunezko soilarekin loturik daudenez, biek pizten dute harengan benetako edertasunaren sentimena; baina bakoitzak mota desberdin bat osatzen duenez, bere arreta bakoitzaren bidez bereziki bi edertasun motetako batean loturik geratuko da. Horrela jasotzen ditu idealaren bi osagaiak bakarka eta ulertzeko moduko garbitasunean, baina batasuna hautsi gabe inolaz, horretan baitatza bere esentzia. Lasai, beraz, saia daiteke moldatzen bere fantasiaren sorkuntza-indarraren bidez, eta orobat, hemen alde guztietan bezala, bere baitaz kanpo dagoen errealitatetik materia mugatua bakarrik alokatzen duenez, barneko berezko indarraren bidez mugarik gabeko ideia-
ra igo.

Sexuen moldaketa bera objektiboki azter daiteke, edo subjektiboki sortzen duten inpresioa nahi izanez gero; baina sexuaren karakterra, idealarekin erkatuz muga hertsatzaile dena, natura mugatzaileen mugekiko zuzenago perfekziorako bitarteko bat deitu beharko litzateke. Gizonetzkoaren adierazpenak hazpegien *zehaztasunean* gehiago baztertzen du *formaren nagusigoa*, eta gizakitasun soilaren adierazpenak arinduz laguntzen dionez, ezin du berez beharrezko den baino gehiago urrundu idealetik, azkenaren alderdi hura agerian jartzeko batez ere. Emakumezkoaren adierazpenak hazpegien *grazian* erakusten du *materiaren askatasuna* irudi bizi batean, eta era horretantxe gizakitasun soilaren adierazpen berberaren pean hartua izango da. Sexurik gabeko gizakian uste zitekeen baino sutuagoa azaltzen da

orain gizona, emakumea xamurragoa; eta horregatik esan ohi da gizonetzko edertasunak ahaleginera bultzatzen duela, emakumezkoak atse-denera gonbidatzen duela. Adierazpen hauek bakarrik deskribatzen dute sexu-moldaketa desberdinen eragin orokorra zentzu gutxi findutan, eta bereziki sexu-etako bataren itxurak bestearengan sortzen duen inpresioa. Gizonaren indar neketsuak atsedean indarberritzailea, emakumearen gurari zehaztu gabeak batasun zehatzailea bilatzen duenean, elkarrekiko itxurak biei lasaitasuna eman behar die, baina hau, premiei erantzuten dienez, beti da egoista eta kaltegarri ezagumen estetikorako.

Gizakiak, edertasunaren kontenplaziora ematen denean, partzialtasun oro utzi behar du eta sexurik gabe gizakitasunari bakarrik atxiki. Gisako une zorionsuetan bakarrik lortzen du bere izaera orokorrik gorenera jasotzea, eta naturaren eta jainkotasunaren kide egiten duten indarrak batasunean elkartzea. Helburu horretara gidatzen dute gizonetzko eta emakumezko formek bide desberdinetan zehar. Emakumezkoak liluratu egiten ditu hasteko zentzuak bere liraintasunaren bidez; baina materia guztiz forma, ustezko kapritxoa guztiz premia, eta grazia sentsualaren betetasuna espiritualtasun xamur eta finaren adierazpen baino ez delarik, hasieran esnaturiko sentsazio sentsuala garbitasun kutsagabearen sentsazio espiritual bilakatzen da. Gizonetzkoak, zentzuei dagokienez, zuzenean bultzatzen du orobat irmotasunaren bidez espiritua egintzara; baina forma berarengan materia bezala, premia askatasun bezala, eta espirituko duintasuna liraintasun sentsualaren jantzitan agertzen zaionez, hasteko eginkor bihurturiko sentsazio espirituala sentsual bilakatzen da. Jolasetik seriotasunera doa han espiritua, hemen seriotasunetik jolasera; eta bi aukeretan bi sentsazio desberdin pizten direnez, horien artean espiritua etengabe zalantzan dabilelarik eta beti berregiten delarik, bi moldaketetako bakoitzak sortzen du sentimendu nahastu bat, eta horretan bietako bakoitzaren izaera partikularra kontrajarriaren bitartez eztitua da. Emakumezko itxurak lotura horren bidez bere tasun xamurtzailea, gizonetzkoak tinkatzailea jartzen du; eta lehena indarraz biziarazia den bezala eta azken hau liraintasunaren bidez eztitua, biek indarberritzaile bezala dute eragina bihotzean. Aldiz, bi formatako bakoitzarekiko joera norberaren karakterra bestearenarekin bat etortzearen esku dago, eta sentsazio xamurragoa emakumezko edertasunean, kemen-

tsuagoa gizonezkoagan hedatzen da hobekiago. Baina era horretan bakoitzaren kontenplazioa berarekiko analogo den sentimentu partikular batetik abiatzen da, baina nahasi bat sortzen saiatzen denez, espiritua beti prest egongo da batarena bestearentzat eta hartara biena edertasunaren idealarentzat jasotzeko.

Beraz, eraginik handienera jo behar duen artistak ez du banatuko bi itxuren ikerketa, edo bestela bataren errepresentaziora eman- go da. Baina gisako partzialtasun bat arretaz baztertzean ez da bietan neurri berean arrakastatsu aterako, eta ezin gaudituko du erabat bietako batera bereziki erakartzen duen joera. Izan ere, arteko jeinuak berak ere sentitzen du sexu-karakterraren eragina, eta idealtasun soilaren atzetik egindako ahalegin neketsuenak nobletu egingo du noski; nekez, ordea, ezabatu. Erlazioen zuzentasunaren bidez argiago asezten ditu *artearen* eskakizunak gizonezko moldaketak, emakumezko- ak siluetaren liraintasunaren bidez edertasun *sentsazioaren* eskakizun- nak. Sentsazioa, ordea, gida ziurra da bakarrik hura adimenak hezi duenean, eta artista hasiberriak hasteko gizonezko itxura landu behar du, han aurkituko baitu artearen atal teknikoa irmo eta garbi marraz- tua. Behin ariketa horretan aurrerapen nabarmenak egingo dituenen, bere begiak aurkituko du, orobat, formaren ezinbestekotasun berbera emakumezko liraintasunaren betetasunaren azpian; eta bere heziketa- ko azken urrats zaila izango da ezinbestekotasun hori deskribatzea, grazia hondatu gabe, ordea. Perfekzioaren mailarik gorenetan zaila- goa da emakumezko edertasunaren errepresentazioa; izan ere, gizo- nezkoak artistari aurkezten dizkion eskakizun guztien gainetik zaila- na dator oraindik: arauzkotasun zorrotzera erakusten duelarik, horren itxura ekiditea, alegia. Nahi bada, ordea, perfekzio eskasagoa, horre- tan emakumezko itxura errazagoa da. Izan ere, gizonezkoan egiaren kontrako oker oro agerikoegi gertatzen bada eta oker guztiak ekidite- ak ahalegin sakonagoa eskatzen badu, emakumezkoan, aldiz erdipur- diko artista bezala ohiko kritikoa emakumezkotasunaren kanpoalde soilarekin asetzen dira, biguntasunarekin, gozotasunarekin eta grazia- rekin, eta errazago egiten diete ezikusia, ez bada benetako ez-egiaz- kotasunari bai gutxienez hustasunari.

Emakumezko edertasunera bereziki jotzen duen egiazko artis- tarengan berarengan ere hasieran fantasiak irmotasun xamurrarekiko eta liraintasun maitagarriarekiko bere eskakizunak agerian jartzen

ditu, eta bera ere artearen alderdi sentsualetik (esamoldea zilegi bada) abiatzen da, baina hori bai: ez da horretan gelditzen, baizik handik ideiarra igarotzen da. Hori gardentasun eta zehaztasun handienaz jaso eta irudikatzen saiatzen da; baina fantasiaren nagusitasun horrengatik ez dauka ez begiradaren zorroztasuna ezta xamurtasuna ere, ez eskua-
ren ausardia ezta fintasuna ere; eta hazpegi bakoitza zehatz ez duela bereizten dirudien bezala, osotasuna, aldiz, igartzen ez diren igaroal-
dien bidez lotzen duela dirudi. Alderantziz, hain zuzen, gertatzen da gizonetzko edertasunerako jarritakoarengan: espirituaren zehaztasun eta ezinbestekotasun eskakizunak bihurtzen dira eginkor lehenbizi; artearen alderdi espiritualetik abiatzen da, itxuraren karakterra ora-
tzen du begirada sakonez eta marra indartsuz marrazten du, une bere-
an grazia lirainez jantzen eta era horretan egiatik edertasunera jaso-
tzen duen bitartean. Zinez ekidin ezinezkoa da, hemen marraztu dena bezalako deskribaketetan, errealitatean barnetik loturik dagoena gehiegi ez banatzea; ezin uka daiteke inolaz kontrajarririko gisako partikulartasunen nagusitasunak agintzen duela artista asmo desber-
din bi horietan eta edertasun idealaren azterketaren bidez egiaz arindu bai baina erabat ezabatu ezin daitezkeela.

Edozein direlarik ere, hartaz, sexu moldaketa desberdinak ikusteko baldintzak, beti aurkituko dira erlazio bikoitz batean: bere baitarakoan eta idealarekikoan; eta, hain zuzen ere bi sexuek beren barneko eta elkar eusteko jarreraren bidez giza indarra mugatasunaren alorraz gaindi zabaltzen duten bezala, beren kanpoko itxura desberdi-
nen bidez edertasun sentsazioa idealerantz eramaten dute. Izan ere, kanpoko moldaketa barneko definizio organikotik ulertzea zaila bada, pozteko ere bada naturaren lotura ezkutua bilatzea; eta hemen ez da beharrezko inolako ahalegin neketsurik konbentzitzeko bi sexuetako ez bata ez bestea legokeela, bere barneko berezitasunaren arabera, era-
kusten duena ez bezalako beste itxura batean agertzeko moduan. Gizonetzkoarengan indarraren nagusitasuna da ezaugarri eta zinez indar bat ernaltzeko jarria dagoena, azkar elkar daitekeena, eta beti puntu batetik kanporaka ahalegintzen dena. Azkartasunez ikusten dugu giharrak tenkatzen, adorez traba egiten dion masa orotik libratzen, eta, etengabeko egintza arnastuz, gustu barea urruntzen. Horren bitartez hurbiltzen da benetako artera, hark bezalaxe, printzipio bizia-
ri masa hilean nagusigoa ematen diona.

Indar hartzaileak, aldiz, betetasun handiagoa dauka; gehiago dago egina eginkortasunari erantzuteko, hura jatorriz sortzeko baino, baina sutan falta zaiona, iraupenaren bidez ordezkatzen du. Hazpegien etengabeko irmotasunaren, xamurtasunaren eta biguntasunaren bitartez agertzen da ondorioz emakumezkotasuna orobat kanpoko itxuran ere; eta erasten dio horren bidez, baita edertasunak huts egiten badu ere, beti gustukoaren grazia gutxienez, eta hori sarri berez eder denarekin nahastu ohi da. Orduan, une berean inolako atal batek bereziki aurrea hartzen ez duenez, eta batasun sentsual gorena bakarrik erabat ongi datorkionez, emakumezko itxura dago edertasunetik hurbilago gizonezkoa baino, eta bere edukia falta den lekuan bertan beraren forma dauka gutxienez. Behartze ororen askatasuna edertasunaren arima denez, eta egiazko edertasuna bereizten duena delarik bakarrik ezaugarri honekin errealtate eta zehaztasun gorena uztartzen dituela, ondorioz formaren irmotasun soila, jarioa eta ausardia azaldu behar dute edertasunaren analogo gisan, haien karakter funtsezko hura bere baitan dakarrelako. Honetan oinarritzen da ezbairik gabe edertasunaren eskakizuna, gizonezko sexutik emakumezkora zuzentzen dena. Gizonarengan edertasuna da berarengan gailentzen den gizakitasunaren gehigarri bat eta opari aske bat; emakumeari sexuak bezala emakumezkotasunak berak ere ordaintzen duten zor bezala eskatuko zaio. Hau bezala, hura ere gero barnearen azterketan kontenplaziora izan daiteke, eta hein batean betebeharrak bihurtu; izan ere, emakumezkotasunaren barneko karakterrak ezin du eduki edertasuna baino beste adierazpenik. Okerkiro ordea trukatu litzateke espezie mugatu propio baino ez den edukirik gabeko edertasun hau egiazko eta idealarekin, hartara altxatzen baita bakarrik sexu bakoitza gizakitasun soila beren baitan nabarmenduz, gizonezkoa askatasun gehiago erdiesten saiatuz, emakumezkoa ezinbestekotasun gehiago.

Baina ez beti goratzen da edertasuna bera bi ahalegin horien bitartez. Sarri oso hartzen du irudiak *adierazpen* bizia horren bitartez eta adierazpena funtsean edertasunetik berezi behar da. Egia da esperientzian biak elkarrekin nahasten direla, eta ez gutxitan entzuten dugu eder deitzen interesgarri soilik deitu behar liratekeenak. Bestetan nola sentsualitatearen bitartez hain sarri bezala, hala hemen sentsazio estetikoaren adimenaren bidez okerrera eramana izango da, eta beste behin egiaztatzen da zein gutxitan den espirituaren jarrera harmonikoa

edertasunarekiko sentibera egiten duena. Adierazpena nagusitzen denean, espirituak menderatzen ditu hazpegiak, eta beren askatasun propioari segi diezaioten eragozten die. Hartaz, gisako moldaketa bat ez da argitzen estetiko bezala soilik bere beraren bidez, eta arreta kanpoko itxuratik barneko karakterrera izango da eramana. Moldaketa atsegin soilak, aldiz, hazpegien askatasun handiena hots egiten du; inolako adierazpen jakin batera loturik, irmotasun lirain baten esku jartzen dira bakarrik. Horregatik hemen begia ez da eramana izango itxuratik harat beste batera; baina, orobat, ezinezko izango zaio hustasun horretan gelditzea. Bien artean erdian dagoen itxura ederrak bakarrik dauka, bere baitan osaturik, une berean zentzua eta arima asetzen dituen guztia, eta harengan bakarrik dago edukiz beteriko adierazpena hazpegien liraintasun askeenarekin uztarturik. Horregatik aurkitzen ditu orain gainditurik bere itxaropen ausartenak berarengan begira dagoenak, eta gauza osoa batasun betean ikusten duenez, bere fantasiak ez du banatzen gehiago kanpoko itxura barneko esanahitik. Ez hari karakterra falta zaiolako, baizik askatasunaren galerarekin agintzen uzten ez diolako berezi behar da edertasuna adierazpenetik. Azken hau *oraingo* egoeraren deskribaketara, hots, errealitate estu batera mugatzen denez, edertasunak aldiz adierazten du karakterraren *osotasuna* eta amaibako gaitasuna, handik ateratzen direlarik azalpen guztiak banan-banan. Baina amaibakoa fenomenoan ezin erdietsia denez, giza edertasun gorena ere, noski, ulertzeko modu batean adierazpen bakarrik izanez geratzen da, eta horrela bakarrik gertatzen da azken horri edertsuna ondoratzea. Nahikari aldakorraren irudi batetik altxatua izan behar du karakter iraunkorraren irudira, eta egiaz ez alderdi batetik soilik baizik guztietatik harmonikoki eraturik dagoen karakter batera.

Agerpen bitxia da, hain zuzen, edertasunaren adierazpena arriskupean egon arren, gure garaiko gustu hobeak harengana zuzendua dagoela kasik erabat. Bai margoetan baita eskulturgintzan ere izaren eta sarri haren uneko sentimendu pasionatuaren marrazketak izaren grazia eta edertasuna ahaztarazten dizkigu; poetarengan ezikusia egiten diegu edertasunaren oinarri den osotasunaren konposizioko akatsei izaren adierazpenaren bidez asetzen gaituenean, eta gisa berean barkatzen diogu idazleari deskribaketaren batasun artistikoan dituen hutsak itzuli ausart eta jatorrizkoen bidez interesatzen gaitue-

nean. Modaren apetaz gaindi jartzen den egiazko musikariak gisa bereko arregura aurkezten du, eta edertasunaren legea egunoroko bizitzako gauzetan ere erabiltzera ohitu denak gure inguruan, gure gizalegian, gure ohituretan huts emango du beharrezko grazia eta egiazko edertasunarekiko ahalegina, nahiz adimena barneko eduki eta izaeraren bidez ase. Ezinezko da une honetan gure gustuaren gainean karakter kontrajarriko bi naziok izan duten eragina ez gogoratzea, eta edukia bezala forma zor zaion lekuan jarri eta biek elkar desegin zezaten eragotzi zuen hirugarren batera bere begirada itxaropenez beterik ez zuzentzea, baldin nazio-karakter batetik arrazoizko karakter orokorraren emaitza baino izan ezin daitekeen perfekzioa itxaron badaiteke. Baina ezinezko bada ere bide horretatik ez bestetik egiazko edertasunera iristea, orobat dator arriskua bide horretatik, hain zuzen ere hura erabat huts egitea.

Edertasuna bera baino gehiago emakumezkotasuna dago arrisku honen pean, ez bakarrik edertasunetik hain hurbil dagoelako, baizik areago adierazpenaren bidez hondatzen den alderdi horretatik bertaritzen zaiolako; eta egiaz kezkatu egon beharko litzateke adierazpenean egiazko emakumezkotasunari dagokionez, baldin garaiko gustu nagusi horri eragin bat aitortu ahal balitzaio emakumezko heziketan. Izan ere, hemen berriro nahasten da ez gutxitan erakargarria ederrarekin, eta adierazpenaren mota desberdinen artean bortitzago altxatzen denaren ondoren xamurragoa eta atseginagoa jartzen zaio. Emakumeen zoria denez zentzuen edo adimenaren eskakizun partzialei baino sarriago sentimen soilaren iritziari segitzea, beren edertasuna juzgatzean ere (sentsualaren gainetik altxatuz gero inolaz) nolabait nabarmentzen den espirituaren adierazpen bati, zirtoari eta bizitasunari arreta gehiegi eskaintzea, eta aldiz, sentsazio bare baina xamur eta gozo baten adierazpena errazegi alde batera uztea. Gaur oraindik ez dugu guztiz utzi pikantea baino ez dena bilatzeko ohitura eta, bat-batean norberaren ahuleziaz jabetu izan bagina bezala, alde guztietan grazia emerazlea eskatzekoa. Horregatik, hain zuzen ere, karakter adierazpen gorenari —eta haren harmonia orokorra edertasunaren hartzaile handiena izan daiteke— da gaur ezezagunena, eta begietara gehiago jotzen duen adimenaren distira asaldaketaren bidez baizik jakingarri egin ezin daitekeen zirrararen adierazpen apalaren aurretik jartzen da. Egiaz emakumezko itxurek, ezer apartekorik ez daukate-

nak, baina sentsazioaren xamurtasuna, neurritasun barea, egiazko eta on den orotarako su soila darienak, hala holako laudorioaz izango dira zapuztuak, horrela bihotz ontasuna lotsatzeko gehiago aipatzen delarik saritzeko baino. Baina ez dago gauza txarragorik egiazko emakumezkotasunaren karakterrarentzat kanpoko moldaketan gustuaren joera baino; hau, garaiaren norabide hobearen arabera, bere azkenera hurbiltzen ari da, eta aurki ez da izango gehiago agintzen duena, baina betiere orokorregia da. Izan ere, emakumezko itxuraren berezitasuna askatasunean eta osotasunaren harmonian oinarritzen denez, baina beti adierazpenari hazpegi batzuk gutxi edo gehiago kentzen dizkionez, ezinbesteko aurkakotasunean egon behar du harekin, eta sarri moldaketa jakin batzuen ez-emakumezkotasuna adierazpenaren indar soilean oinarriturik aurkituko dira.

Halere, emakumezko itxuraren perfekzioaz, baita edertasunarekiko bere askatasunean ere, konbentziturik dagoenak ez dio hari gizonezkoari baino adierazpen *gutxiago* egotziko. Aldiz, bere naturaren arabera adimenari gutxiago zuzentzen baitzaio zentzuei baino, arreta handiagoz ihes egin behar dio hustasunari. Adierazpenak jokatzeke dituen ezinbesteko mugak, noski, emakumezko itxuran hertsia-go jarriak dira bai, baina emakumezko gorputza, bere malgutasun handiagoagatik, gai da berezitasun finagoak agerian jartzeko, eta horren bitartez bereziki adierazpenaren fintasuna dauka. Izan ere, ez hazpegi bakan eta zorrotz marraztuetan, baizik barnetik itxura osoan ehoturik, lehen begiratuan ez igartzeko moduan eta sotiltasun noblean jantzirik azaldu behar du barneko karakterrak benetako emakumezko moldaketan. Harmonia erabateko hori ezin erdietsia delarik, are da oraindik emakumezkoago arima ikuskatzea aski denean, hari aurre hartzen saiatzen denean baino. Zalantzarik gabe, beraz, emakumezko edertasuna konpon daiteke adierazpenarekin, baina gorenarekin bakarrik. Karakterra bakarrik, ez grina eta nahikari iragankorren egoera mugatua azaltzen da hartan zorionez, eta hori bere indarren batasun harmonikoan bakarrik, eta bere jarreraren osotasuna. Errazago egiten dio mesede hartaz emakumezkotasunak fantasiaren eta zirraren adierazpenari adimenari baino; honek, izan ere, gehiago jotzen baitu bereziketara, hark loturara bezala. Baina adimen indarrek emakumearen eragin gutxiago dute banatzeko lotzeko baino, hortik datorrelarik bereziki fenomeno berezia, guk *espiritu* deitzen duguna, eta

gizonarengan ez beti erraztasun berberaz lortzen ez dena. Erabat eta guztiz daude, beraz, edertasuna eta emakumezkotasuna erlazio berean adierazpenarekiko itxuran; modu berean daukate biek arriskua, eta modu berean da lotzekoa biek.

Erabat bestela jokutzen du adierazpenak gizonetzko moldaketa-
ren izaerarekiko. Oinarri daiteke nabarmentzen diren hazpegi batzue-
tan, edo gainerako itxura guztian finago tratatua egon daiteke, aurre
hartu edo apalago atzean geratu; egiaz bere bortiztasunagatik bi
sexuak beti elkarrengana hurbiltzen dituen edertasuna mindu dezake,
baina gizonetzkoatasunaren ezaugarria gehiago izango da horretan ira-
baztea galtzea baino. Baldin emakumezko itxuran giza itxurarengan-
dik espero zitekeena baino ezkutuago badago, gizonetzkoarengan
nabarmenago azaltzen da. Nabarmenago jotzen du, hartaz, begian
gizonetzko moldaketan, emakumezkoarengan begiratu ohitu gabeari
sarri ihes egiten dion bitartean. Baina gizonetzko itxuran kointziden-
tzia gehiago denez pentsatua aurkitua baino, gizonetzko adierazpenak
emakumezkoak baino asmagaitzago eta harrigarriago dirudi sarri,
emakumezkoa itxura guztiarekin uztarturik baitago eta horren bidez
baita argitua ere. Horregatik eskatzen du azkenak, guztiz ulertua
dadin, naturak fin landuriko antzea, hark zorroztasun sarkorra eta
esperientziaren bidez lagunduriko ezaguera.

Adierazpenari itxuraren mugimenduan irekiko zaio alorrik
zabalena, eta hemen bereziki zabaltzen du emakumezko karakterrak
bere berezitasun osoa, era desberdinean azaltzen delarik nabarmenago
txandakako maitasun jokoan bere aurpegiaren hazpegi iraunkorretan
baino. Inondik ere ageriagoa da emakumearen itxura gizonarena
baino; eta arimaz beteriko musikaren harmonia antzo, bere mugimen-
du guztiak finago eta goxoago daude modulatuak; gizonak, aldiz,
honetan ere bortiztasun eta astuntasun handiagoa salatzen du.
Emakumezko ariman fantasia beti adimenaren aurretik, zirrara arra-
zoiaren aurretik doanez, eta horrela biek, bata bestearengana etengabe
pasatzen direlarik, komunean sortzen dutenez espirituaren batasuna,
hori baita gizonak ahalegin neketsuz bilatzen duena; emakumeengan
barneko bizitza kanpoko azalpen-modutik gutxiago dago apartatua,
eta erraztasun askez margotzen ditu arimak eraikuntza malguenean.
Berez ematen die hazpegiei siluetaren askatasun mugabakoa, haren
bidez adierazpen soila edertasunera doalarik; izan ere, ez da mugi-

mendu bakar bat, baizik arima osoa han agerian jartzen dena, eta inolaz emakumezko arima bat, eta honek, fantasiak eta zirrarak berarengan agintzen baitute, gogortasunari eta irmotasunari gehiago ihes egiten dio kolokan eta laino denari baino. Baina ez bakarrik itxurak, baita zirrara zuzenean esnatzeko indartsuagoa den ahotsak ere ezaugarri berbera dakar bi sexuetan. Xamurrago eta melodikoago, baina dardara anitz eta aldakorrean egiten du soinu emakumearen ahotik; sotilago baina sarkorrago eta indartsuago gizonaren ahotik; eta biek adierazten dituzte bere arimen sentimenak beren karakterraren arabera.

Barnearen ispilu leial eta garbi bihurtuko den emakumezko itxuraren malgutasun xamur horretan oinarritzen da beste sexuarekiko harremanak dakarren atsegin berezia. Inon ez digu hitz egiten zirrarak hain zuzenean, eta ezerk ezin dezake esnatu sentsazio hain sakonik, ezta sortu ere sentimen hain harmonikorik. Bere egintzen bidez bere baitatik erraz erauzi daitekeen gizona berriro bere baitara itzultzea, bere adimenak bereizten duena, sentimenaren bidez elkartzea; bere aurrerapen motelagoak azkartzea, eta hark bilatzen duen arrazoi batasun gorena, sentsualtasunean hari aurkeztea da sexu honen patu ederra, eta horrekin bere kanpoko moldaketa bera ere erarik zehatzenean bat dator. Horretan oinarritzen da emakumearen indarra ere bereziki presentzia bizian, ez bada zentzuetatik bai irudimenetik. Egiaz gizonari dagokionez ere balio du honek, bere moldaketaren noblezian sartu nahi badu; bere itxurak ere badu hizkuntza propioa, bihotza bortizki oratzen duena eta bere arimaren sentimenak hazpegi finenez margotzen dituen. Baina bere barnea xamurtasun horretara jartzeko, eta bere kanpoko eraikuntza gisako malgutasun baterako gai egiteko, berak ere uko egin behar dio bere sexuari eta naturaren helburuaz gaindi igo behar du; beraz, bere patu goiak eskatzen duena baino gehiago erdietsi. Emakumezko sexuak, aldiz, saiatu behar du, hain zuzen ere emakumezko ezaugarri oro arreta arduratsuz gordetzen, bere itxuraren adierazpen bizi hura berak desegin ez dezan; eta ahalegin hau guztia oker aterako balitzaio ere, bere naturazko patura eta kanpoko egunoroko bizitzako betebeharrak amilduko da edo bere inguruneak ez diren eginkizunetara joango da. Hain zuzen hemen ere emakumezko-tasuna, naturaren helburu soilen mugak utzi bezain laster, *gorena* emateko sortua da, eta bestelako eskakizunekin harengana itzultzen denak sexuarekiko bere ezjakintasuna baino ez du erakusten.

Oharrak

¹ Hemen, baina oinarrizko lehen ezaugarrietan, gizakiengan gertatu den bezalatsu, egin zitekeen abere espezie guztien fisiognomia bat, baina bi eragozpen baztertu beharko lirateke bereziki, alegia: irudimen jolasti baten kapritxoa eta sorkuntzaren barneko propietateekin ohitua dagoen arrazoimenerari alde baterako karga gehiegizkoa egitea; ondorioz, 1: apeta soilari jarraitzea, baizik alde guztietan, naturaren historiaren eskutik, gorputzaren erai-kuntzatik bertatik, irudiaren gain eraginik duen neurrian, abiatu; 2: sorkariaren barneko perfekzioaren kontzeptuari, gorago gogoratu bezala, inolako eraginik ez onartu bere irudiaren azterketa fisiognomikoari dagokionez, eta hasieran behintzat ez aztoratzea baldin abere perfektuagoek bere irudia ikusita leku apalagoa hartu badute ere, eta alderantziz. Abereen erresumatik ondorioz landareengana joatea asko arindu beharko litzateke.

² Atal honetan bezala hurrengoan irakurleari eskatuko zaio gogoan izan dezala *Briefen über aesthetische Erziehung* (*Heziketa estetikoari buruzko gutunak*) laneko *Horen*-eko 1. eta 2. orr. edertasunari buruzko kontzeptua.

POLITIKAZ ETA ESTATUAZ

ESTATUKO KONSTITUZIOARI BURUZKO IDEIAK

Frantziako konstituzio berriaren bidez sortuak
Adiskide bati 1791ko abuztuan egindako gutun batetik

Ari naiz nire bakardadean arazo politikoekin, bizitza aktiboak eskaini ohi dituen aukera ugarietan sekula egin dudana baino gehiago. Bestela baino maizago irakurtzen ditut egunkari politikoak eta ezin esan dezakedanez ere nigan hainbestearainoko interes handirik pizten dutenik, egiaz gehien kilikatzen naute auzi frantsesek. Horretan burura datozkit azken bi urteetan horri buruz entzun ditudan gauza zuhur eta ergel guztiak, eta azkenean zuregana etorri ohi naiz, maite hori, eta zuk gai hauetan hartu ohi zenuen parte bizi hartara. Nire iritzi propioa —baldin, neure buruari kontu emateko, halako bat neuri ematera behartzen banaiz— ez dator bat beste inorenarekin; paradoxa irudi ere irudi lezake, baina zuk ezagutzen dituzu nire paradoxak, eta oraingo honetan ez zenuke huts eman behar gainerakoekin ondoriozkotasuna.

Nik sarrien eta, ezin dut ukatu, interesik handienaz asanblada nazionalari eta bere legegintzari buruz entzuten nuena zen larderia, tamalez ordea larderia bat, erantzuna beti hain hurbil zeukana. Batean gaiaren ezagutza eskasia, bestean aurreiritzia, hurrengo berri eta ezohiko den ororekiko izu-laborri espiritu txikiko bat, eta nork daki erru erraz errefusa daitezkeenak; eta baldin errefutazio bakoitzak larderia bat badauka ere, beti geratzen da aitzakiarako arrazoi gogaikarria, alegia, mila eta ehun gizon, zuhur izanda ere, beti gizon soil direla. Larderiarekin bezala arau bakoitzarekin, beraz, apenas egin daite-

keen garbitasunik. Aldiz badago, nire usterako, factum bat erabat age-rikoa, laburra, edozeinek onartua, ekimen guztiaren azterketa sakone-
rako datu guztiak erabat berarekin dauzkana.

Asanblada nazional konstituitzaileak ekin dio estatu eraikuntza guztiz berri bat, arrazoiaren printzipio soilen arabera, egiteari. Factum hau edozeinek, eta berak ere bai, onartu beharra du. Halere, ezin izan dezake arrakastarik arrazoiak plano jakin baten arabera oinarritzen duen inolako konstituzio batek —onaturik trabarik gabeko indarra izango duela bere zirriborroak egia bihurtzeko—; halabehar indar-tsuago batek kontraka ahalegintzen den arrazoiarekin egiten duen borrokatik sortzen den batek bakarrik eman ditzake ondorio onak. Esaldi hau hain daukat argi, ze ez bainuke konstituzioetara bakarrik mugatu nahi; aldiz, hedatzen dut ekintza praktiko guztietara. Zu zaren bezalako arrazoiaren aldezle sendo batentzat, ez du beharbada garbi-tasun bera izango. Horretan luzatuko naiz, beraz.

Baina oinarrietara joan aurretik, hitz pare bat esan nahi nituz-ke oraindik haren definizio hurbilagoari dagokionez. Ezer baino lehen, ikusten duzu, legegintzarako asanblada nazionalaren zirribo-
rrua arrazoiaren zirriborrotzat baliozko bezala ematen dut. Bigarren, ez dut esan nahi bere sistemako printzipioak espekulatiboegiak dire-
la, egiaztatzeko ez pentsatuak. Areago, ontzat eman nahi dut legegile guztiek batera Frantziako eta bertako biztanleen benetako egoera argi eta garbi begien aurrean zeukatela eta arrazoiaren printzipioak, ahal zen neurrian eta ideal hari kalterik egiteke, kontuan hartu zituz-
tela. Azkenik, ez ditut aipatuko gauzatzearen zailtasunak. *Qu'il ne faut pas donner des leçons d'anatomie sur un corps vivant* guztiz egiazko eta ustetsua izan daiteke, baina lehenbizi arrakastak erakutsi behar du ea, halere, ekimenak iraupenik izango ote duen, eta osota-
sunaren onura ongi oinarrituak norbanakoen gaitz iragankorraren gainetik jartzea merezi ez ote duen. Ni, beraz, tesi sinpleetatik abia-
tzen naiz: 1. Asanblada nazionalak konstituzio erabat berria sortu nahi zuen, 2. nahi zuen hori eratu bere atal bakoitz eta guztietan arra-
zoiaren printzipio soilari jarraiki, nahiz Frantziaren egoera indibi-
dualari egokiturik. Konstituzio hori —oraingoz— erabat gauzatzeko modukotzat hartzen dut, edo nahi bada, dagoeneko benetan gauzatu-
tzat. Halere, esaten dut nik, gisa horretako konstituzio batek ezin du arrakastarik izan.

Konstituzio berri batek etorri behar du orain artekoaren ostean. Bat bakarraren handinahia eta bonbonkeria asetzeko naziotik ahal beste baliabide ateratzeko baino pentsaturik ez zegoen sistema baten lekuan, beste sistema bat jarri behar da, helburutzat norbakoitzaren askatasuna, bakea eta zoriona dauzkana. Egoera erabat kontrajarriek etorri behar dute, beraz, bata bestearen ondoren. Non dago, ordea, biak lotuko dituen lokarria? Nork uste daukala nahikoa irudimen eta trebetasun hori lotzeko? Nahi adina estudia daiteke gaurko egoera, nahi adina kalkula daiteke haren ondotik etorriko dena; sekula ez da aski izango. Gure jakite eta ezagutze oro oinarritzen da ideia orokorretan, hau da: baldin esperientziako objektuez badihardugu, ideia ez osatu eta erdi egiazkoetan, indibidualei dagokienez oso gutxi uler ditzakegu, eta hala eta guztiz ere, arazoa hemen da indar indibiduala, eragite, sufritze eta gustatze indibiduala. Erabat bestela da halabeharrrak ekiten duenean, eta arrazoa hura gidatzen saiatzen denean. Orainaldiko egoera indibidual guztitik —guk ezagutzen ez ditugun indar horiek halabehar bezala kalifikatzen baititugu, izan ere,— honoko ondorioa dator, alegia, arrazoa lortzen saiatzen den asmoek hartzen dute, ahaleginak ondo ateratzen badira, arrazoiak finkatu nahi duen objektutik bertatik forma eta aldakuntza. Horrela iraun dezakete, horrela onura ekarri. Beste era hartan betiko antzu geratzen dira. Gizakiengan fruitu eman behar duenak bere barnetik atera behar du, ez kanpotik emana izan; eta zer da estatu bat, ez bada giza indar eragile eta jasotzaileen multzo bat?

Egintza bakoitzak, bestalde, eskatzen du neurri bereko kontraegintza, sortze bakoitzak neurri bereko hartze eraginkorra. Orainaldiak behar du, beraz, dagoeneko etorkizunerako prestaturik egon. Horregatik eragiten du halabeharrrak hain bortizkiro. Orainaldiak etorkizuna bereganatzen du. Hau harenganako arrotz denean, dena hil eta hotz da. Horrela asmoak sortu nahi duenean. Arrazoiak badu, noski, baden gaia eratzeko gaitasuna, baina ez indar berria sortzeko. Indar hori gauzen esentzian datza bakarrik, gauzek eragiten dute, arrazoi egiaz zuhurrak egintzara bultzatzen ditu eta hura gidatzen saiatzen da. Honetantxe geratzen da apal, geldi. Konstituzioak ezin txerta daitezke gizakiengan, mentuak arboletan bezala. Denborak eta naturak aldeztu aurretik lan egin ez duten lekuan, loreak hariz lotuko balira bezala da. Eguerdiko lehen eguzkiak erreko ditu.

Bien bitartean beti hor dago arazoa: ea nazio frantziarra nahikoa prestaturik dagoen konstituzio berria onartzeko. Arrazoiaren printzipio soilen arabera, sistematikoki eraturiko konstituzio baterako ezin daiteke nazio bat nahikoa heldurik. Indar guztien egite bateratu eta proportziozkoa eskatzen du arrazoiak. Norbakoitzaren perfekzio mailaz aparte, haien bateratzearen tinkotasunak eta bakoitzak gainerakoekiko duen erlazio zuzenena dauzka begien aurrean. Baina, ordea, alde bate-tik eragite anitzaren bidez bakarrik asetzen bada arrazoa, beste aldetik partzialtasuna da gizadiaren zoria. Une bakoitzak indar bat egiten du bakarrik adierazpen mota batean. Errepikatze sarriak ohitura dakar, eta indar bakar horren adierazpen bakar hau bilakatuko da izaera gutxi edo gehiago, luzeago edo laburrago. Gizakiak borrokatu nahi badu ere une bakoitzean eragiten duen indar bakoitza gainerakoan lankidetzarekin aldarazteko, ez du lortzen, eta partzialtasunean irabazten duenean, gal-tzen du indarrean. Objektu askotara zabaltzen denak eragin ahula egi-ten du guztien gain. Hala daude, beraz, indarra eta nortasun garapena beti kontrako erlazioan. Zuhurrak ez dio bakar bati erabat jarraitzen, bakoitza du maiteegi beste bati opaltzeko. Gisa berean gertatzen da giza naturaren ideal gorenean, fantasia sutsuak gara dezakeela orainaldiko une bakoitzean lore eder bat baina bakarra. Iragana eta oraina lotzen dituen memoriak bakarrik txirikorta dezake koroa. Gizaki bakoitzare-kin bezala, nazio osoekin. Abiada bakar bat hartzen dute bat-batean. Hortik beren desberdintasunak beren artean, hortik beren desberdinta-sunak bere barruan garai desberdinetan. Zer egiten du orduan legegile zuhurrak? Oraingo norabidea aztertzen du, gero, hura aurkitu duenean, bultzatu egiten du edo haren kontra ahalegintzen da; horrela beste alda-keta bat jasotzen du, eta honek beste bat hurrengo, eta horrela segidan. Horrela asetzat jotzen du bere burua perfekzioaren helburura hurbilduz. Baina zer sortu behar du, baldin bat-batean arrazoi soilaren asmoen ara-bera, idealaren arabera lan egiten badu; baldin gehiago bilatzen ez badu bikaintasun bat, baizik une berean guztien bila borrokatu behar badu? Ahulezia eta nagikeria. Berotasun eta entusiasmo hitzekin ulertzen dugun guztia maitasun modu bat da. Hartaz, ideal batek arima gehiago betetzen ez duenean, hotza dago lehen sua zegoen lekuan. Oro har ezin du jardun energiarekin indar guztiekin batera uniformeki jardun behar duenak. Energiarekin, ordea, gutxitu egiten da gainerako bertute guztia. Hura gabe makina bilakatzen da gizakia. Miretsi egiten da egiten duena; mesprezatu egiten da bera dena.

Bota diezaiogun begiratu bat konstituzioen historiari eta ez dugu inon perfekzioaren inolako gradu garairik aurkituko, bakarrik estatu bateko idealak bateratu behar dituen lehenasunetatik beti aurkituko dugu okerrenetan ere bata edo bestea. Lehen agintea sortu zuen premiak. Ez zen obeditzen, edota agintaria baztertu edota hari aurre egiten ahal bitartean. Hauxe da estatu guztien historia, baita antzinako loretsuena ere. Arrisku hurbil batek behartzen zuen nazio bat agintari bati obeditzera. Arriskua igaro zelarik, uztarria botatzen saiatzen zen. Agintaria, ordea, sarriegi gehiegi tinkotu zen; baina alferrik zen bere borroka. Pausakera hau giza naturari erabat dator. Gizakiak bere baitatik kanpo joka dezake, eta bere baitan garatu. Lehenbizikoetan indarra da kontua eta hari dagokion norabidea; azkenetan, berezotasuna. Horregatik haurrentzat askatasuna da beharrezko, haientzat mendetasuna, ezin daitekeenez indar anitz hobeto zuzendu borondate batek gidatzen dituenean baino. Sentimendu horrek menderatu zituen gizakiak agintaritzaren azpian, jardun nahi zuten bezain azkar; baina beren barneko duintasunaren sentimendu goragokoa esnatzen zen helburu hori lortua zenean. Gogoeta hau gabe ulertu ere ezin egingo zitekeen nola erromatar berak hirian senatuari legeak aurrezartzen zizkion, eta kanpamenduan bere borondatez eskaintzen zion bere bizkarrara ehuntariaren zigorrei. Antzinako estatuen jarrera honetatik ateratzen da, ezen, baldin sistemen azpian berariazko asmoak ulertzen badira, ez zutela propio inolako sistema politikorik, eta ezen, baldin guk antolaketa politikoetan oinarri filosofikoak edo politikoak aitoritzen baditugu, guk historikoak bakarrik aurkitzen ditugula haietan. Konstituzio honek ertaroraino iraun zuen. Garai honetan, barbarotasun sakonenak dena estaltzen baitzuen, barbarotasun horrekin bat egin bezain laster, despotismo gogorrenak altxatu behar zuen agintea, eta gogotsu aldarrikatuko zitzaion askatasunari bere erabateko gainbehera. Agintezaleek beren artean izan zuten borroka bakarrik eutsi zion. Baina egiaz, gauzen egoera bortitz horretan, inor ezin zitekeen bakarrik libre izan, une berean gainerakoen askatasunaren zapaltzaile izan gabe. Feudalismo sistema izan zen esklabutza gogorrena eta askatasun bizkorrena bata bestearen ondo-ondoan zeuzkan lekua. Basailuak, izan ere, liskarrak erabiltzen zituen bere jaun feudalaz, bere mendeakozkoak gizatasunik gabe zapaltzen zituen baino gutxiago ez. Basailuen indarrarekiko agintariek zuten jelsiak kontrapisu bat sortu zion honi hirietan eta herrian, eta azkenik hura zapaltzea lortu zuen. Lehenago

klase bat askatasunaren *Dépot* izan zenaren ordez, orain dena zen esklabo. Noblea agintariarekin itundu zen herria zapaltzeko, eta hemendik hasten da beti beharrezko oker bat zen eta orain alferrikako bihurtu den noblearen hondamendia. Handik aurrera agintariaren asmoei bakarrik zerbitzatu zien denak. Hala eta guztiz ere, askatasunak irabazi zuen. Izan ere, herria agintariaren azpian baitzegoen noblearen azpian baino gehiago, harengandiko urruntasun handiagoak arnas gehiago ekartzen zion. Orduan asmo horiek ezin zitezkeen zuzenean lortu mendekoen indar fisikoen bidez baino —handik sortua baitzen bereziki esklabutza pertsonala—. Baliabide bat zen ezinbestekoa: dirua. Ahalegin guztia, beraz, zihoan honetara, alegia, naziotik ahal beste diru ateratzera. Posibilitate horren oinean bi gauza zeuden. Nazioak dirua eduki behar zuen, eta harengandik lortu behar zen. Helburu hura ez huts egiteko, industriaren era guztietako iturriak ireki behar zitzaizkion; hori erdiesteko bide ugari aurkitu behar ziren, bate-tik erabili beharreko bitartekoengatik haserrea ez pizteko, eta bestetik altxatzeak berak eragiten zituen kostuak gutxitzeko. Honetan oinarritzen dira, egiaz, gaurko gure sistema politiko guztiak. Baina, helburu nagusia erdiesteko, mendeko bitarteko bezala beraz, nazioaren ongizatea begiz jota zegoenez gero, eta ongizate honen ezinbesteko baldintza bezala askatasun maila handiagoa tokatzen zitzaionez gero, bihotz oneko gizonak, idazleak batez ere, gauza azpikoz gora jarri zuten eta ongizate hori helburu izendatu zuten, egitekoen iraultza horretarako ezinbesteko bitarteko. Han eta hemen ideia hau sartu zen noski printzeren baten buruan, eta horrela sortu zen printzipioa, alegia, aginteak arduratu behar zuela nazioaren zorion eta ongizateaz, fisikoaz eta moralaz. Despotismo gogorrena eta zapaltzaileena, hain zuzen ere. Izan ere, zapalkuntzaren baliabideak hain ezkutatuak, hain matazatsuak izaki, gizakiak beren buruak libretzat zeuzkaten eta beren indar nobleenetan elbarriturik geratzen ziren. Hala ere, gaitzetik berriro ere medizina. Bide horretan aurkituriko ezagutza altxorrak, alde guztietara zabalduko ilustrazioak gizakiei berriro irakatsi zien beren eskubideei buruz, askatasun gogoa ekarri zuten. Bestalde agintzea hain arte-kontu bihurtu zen, non zuhertasun eta arreta ezin esanezkoa eskatzen baitzuen. Hain zuzen ere, ilustrazioak nazioa despotismoarentzat beldurgarrien bihurtu zuen lurraldeetan, gobernua zabartu zen gehiena, eta ahuleziarik arriskutsuenak erakutsi zituen. Hemen hasteko iraultzak sortu behar zuen, eta ezin zion bestelako ino-

lako sistemak jarraitu, ez bada askatasun neurritsu baten baina orobat erabateko eta mugarik gabeko baten sistemak, arrazoiaren sistemak, konstituzioaren idealak. Gizadiak mutur batean sufritu zuen, mutur batean bilatu behar zuen, beraz, bere salbazioa. Konstituzio honek jarraipenik izango ote du? Historiaren analogiaren arabera, ez! Baina ideiak errotik argituko ditu, bertute aktiboak errotik suspertu, eta era horretan bere bedeinkazioa Frantziatz gaindi oso zabal ekarriko du. Horrela giza gertakari guztien martxa sendotuko du, ongiak ez baitu eraginik izaten gertatzen den lekuan, baizik espazio eta denbora urruntasun handietan, eta haietan ere leku horrek bere aldetik bere eragin ongiea beste orobat urrun baten eskutik hartzen du.

Ezin gera naiteke azken gogoeta honi adibide batzuk gaineratu gabe. Aro orotan beti izan dira gauzak, berez kaltegarriak, baina giza-diari pentsa ezinezko ongia salbatu diotenak. Zer erdietsi zuen askatasunak ertaroko garaietan? Feudalismoa. Zer, ilustrazioak eta jakintzek barbaroen garaian? Monakismoa. Zer, beste sexuarekiko maitasun nobleak sexu horren beheratze garaietan grekoen artean, etxeko bizitzatik adibide bat hartzeko? Pederastia. Bai, ez dugu behar historia ere; giza bizitzaren martxa bera da adibide egokiena. Aro bakoitzean existentziaren modu bat da pinturan irudi nagusi, eta hari zerbitzatzen diote gainerakoek alboko irudi bezala. Beste garai batean bera izango da alboko irudi, eta besteetako bat jarriko da erdian. Horrela eskertzen dugu guztiok haurtzaroko gustu alai eta kezkarik gabea; aurkitutako edertasunarekiko entusiasmo osoa, lanaren eta arriskuaren mespretxu oso hura, gaztaro loretsua, lortzeko; gogoeta arretatsu oro, jaiera oro gizonaren heldutasunaren arrazoiaren printzipioengatik; erorkortasunaren pentsamenduetara egokitze oro, kontenplazioko gozamen malenkoniatsu oro, hori izan zen, eta orain ez da gehiago! zaharraren zimeltzea. Aro bakoitzean gizakia oso-osorik existitzen da. Baina bakoitzean bere izatearen txinparta batek distirutzen du distirakor eta argitsu; gainerakoetan argitasun ahula da, orain kasik itzaliarena, orain geroago piztuko den argiarena. Gisa berean gertatzen da gizaki bakoitzarengan bere gaitasun eta emozio bakoitzarekin. Mota bateko norbanako batek berak bakarrik ez ditu ahitzen sentimendu guztiak egoera guztien jarraipenean. Gizonak, adibidez beren baitaz kanpo eragiten, askatasunaren eta nagusigoaren bila ahalegintzen diren giza-kien artean, oso gutxitan izan ohi du sentitzen den pozaren bidez, ez

beti ematen denaren bidez zoriontsu izateko xamurtasuna, ontasuna eta gogoa hori guztia emakumeak baitu. Aldiz, emakumeari sarri falta zaio indarra, jarduera, animoa. Horregatik gizaki osoaren edertasun betea sentitzeko, izan behar du bitarteko bat bi lehentasunak, une jakin batzuetan besterik ez bada, eta gradu desberdinetan, bateraturik sentiarazten dituenak, eta bitarteko horrek bizitza ederrenaren atsegina ederrena gorde behar du.

Zer ondoriozta daiteke honetatik guztitik Gizakiaren eta gauzen inolako egoerak ez duela berez arretarik merezi, aldiz bai aurretiko eta ondorengo existentziarekin loturik; emaitzak ez direla ezer berenez, sortzen dituzten eta haiengandik ateratzen diren indarrak bakarrik bai.

Eta gaurkoz nahikoa, adiskide. Bizi ongi!

III. ANTROPOLOGIA GONBARATZAILEA

ANTROPOLOGIAKONBARATZAILE BATERAKO EGITASMOA

Anatomia konbaratzailean giza gorputzaren izaera aberearenaren ikerketaren bidez argitzen den bezala, gisa berean ipini daitezke eta gonbarazio bidez arakatu giza moten izaera moralaren berezitasunak.

Historialariek, biografoek, bidaia idazleek, poetek, era guztietako idazleek, filosofo espekulatiboak alde batera utzi gabe, hartzen dituzte jakintza honetako datuak. Bidaian bezala etxean, negozioko bezala nagikeriazko bizitzan, alde guztietan eskaintzen da aukera hura aberasteko eta erabiltzeko, eta ikerketa guztien artean ez dago beste bat gizakiaren ikerketa bezala, gure etengabeko bidelagun izango dena. Arazoa da bizitza guztiak eskaintzen duen gai oparoa bildu, sailkatu, ordenatu eta landu behar dela.

Horretarako da propio antropologia konbaratzailea: orokorrean oinarritzen delarik eta gizakiaren espezie izaera alde ezaguntzat onartzen, haren berezitasun indibidualak bilatzen ditu, halabeharrezko eta iragankorrak funtsezkoetatik eta iraunkorretatik apartatzen, honen izaera aztertzen, haren zergatiak arakutzen, haren balioa epaitzen, haiek tratatzeko modua zertzen eta haren garapenaren aurrerakuntza igartzen.

Ikerketa honen garrantzia

Ez dago giza bizitzan egiteko praktikorik batere gizakiaren ezagutzaren beharrik ez duenik, eta ez noski orokorrarenik, filosofikoki pentsatuarenik, baizik indibidualarenik, gure begietan azaltzen dena bezala. Zaila da ezagutza hau lortzean huts bikoitza ekiditea, edota norbanakoaren kontzeptu zehaztu gabeegi eta orokorregia, edota partikularregia egitea; edota gehiegi bere plano posiblearen araberaren edota halabeharrezko muga guztiekin ikustekoa. Lehenaren bitartez filosofo espekulatibo soilak bere printzipioei erabilgarritasun praktikoa lapurtzen die; azkenaren bitartez merkatarik soilak bere eraketekira iraupen luzeagoa eta beren eragin onuragarria ilustrazioarekiko eta barneko izaerarekiko.

Gizakia bera den bezala zehaztasunez ezagutzeko eta aldi berean nora garatuko den askatasunez epaitzeko, behaketa zentzu praktikoa eta espiritu filosofatzaileak biek batera egin behar dute lan. Baina lotura hori asko arinduko da baldin izaera indibidualaren ezagutza konbaraziozko antropologia batean pentsatze zientifikoaren objektu bihurtzen bada eta baldin hartan gizaki klase desberdinen berezitasunetatik eta kanpoko egoerek barneko izaeran duten ohiko eraginari buruz deskribaketa zehatzak eta fidatzekoak aurkitzen badira. Horrek eskaintzen duen tipo orokorra norberaren esperientziaren laguntzarekin osa daiteke orduan; honek izaera bat inolaz posibletzat adierazten duen esferan zehaz daiteke une bakoitzean berak benetan hartzen duen lekua.

Legegileak, hala esan da beti, ikertuta eduki behar du bere nazioa, haren espiritua eta haren izaera, baldin harengan arrakastaz eraginik izan nahi badu. Nolatan da, ordea, posible nazio baten izaera guztiz ezagutzea, ikertu gabe harekin harreman hurrekoetan dauden besteak, neurri batean haiekiko berezitasun kontrastatzailearen bidez sortua baita, neurri batean bakarrik erabat ulertua izan baitaiteke? Eta nolatan da zilegi izaera indibidual baten gainean eragina izatea, pentsatu gabe zenbatean diren inolaz posible izaera desberdintasunak? Zenbatean heziketa aske eta orokor baten eskakizunekin lotu daitekeen? Edota politikoki edo moralki beharrezko diren?

Ezaugarri batzuk eta orobat agintzeko artearen maltzurkeria jakin batzuk ikasteko, frantziarrak ez direla pedanteki tratatu behar ikusteko, ezta ingelesak ere nabarmen despotikoki, ez da behar, noski, prestakuntza hain handirik. Giza izaeraren toki sentiberak arretaz tratatzeko eta haren ahuleziaz profitatzeko, azaleko oharketa bat aski izaten da.

Baina guztiz beste zerbait behar du gertatu. Izaera indibidualek halako gisan egon behar dute eraturik, non bereiz iraun behar duten partzial izan gabe, non eskakizun orokorren betetzeari bikaintasun ideal orokorrarekiko bidean inolako trabarik ipini gabe; ez dute izan behar soilik oker edo extremotasunagatik berezi, baizik aldiz beren muga esentzialak ez dituzte gainditu behar, eta berenean kontsekuentte geratu behar dute. Orduan idealarekiko barneko kontsekuentzia eta kanpoko kongruentzia honetan denek batera jardun behar dute.

Izan ere, gizartean lor dezake gizatasunak bere gailurrik garaiena, eta askoren batasuna behar du indarren gehitze soilaren bidez soilik obra handiagoak eta iraunkorrak sor ez ditzan, baizik, batez ere, inbertsioen ugaritasun handiagoaren bidez bere natura bere oparotasun benetakoan eta bere zabalera osoan erakutsi dezan. Gizaki bat beti da forma bat bakarrik, izaera baterako sortua, orobat gizaki klase baterako. Gizatasunaren idealak ordea elkarren artean konpon litezkeen beste forma ugari aurkezten ditu. Horregatik norbanakoen guztitasunean baino ezin daiteke azaldu.

Aparta dezagun pentsamenduan Europako nazioen artean bat, munduko zati honen kulturaren eta aurrerakuntzan oro har parte oso nabarmenik hartu ez duena, eta arbola propiorik, izan ere, ez duena, aldiz beste nazio baten adar dena, esan nahi dut suitzarra, eta Europa hain kultibatu, aberats, naturaren sotiltasunetik hain urruti dagoen honetan herri bat faltako litzateke, hurko desberdinen erdian besteen parean ohituren sotiltasun hain handia daukana, bere premien kopurua hain gutxira hesitua, bestela nazioen haurtzaroak baino erakusten ez duen baliabide hornikuntza hain urriarekin eta konstituzioekin bere izateari laguntzen diona.

Arretaz hautatu dugu izaera suitzarra adibidetzat, neurri batean gutxienez naturarekin hain hurbil senide baita, non inork ez bailituzke ikusiko bere berezitasunak galtzen barneko sentimendurik gabe.

Izan ere, bestela ez baita, noski, berezitasun oro berdin gordetzeko duin, eta gutxiago oraindik halabeharrezko zirkunstantzia hain ugari-
ren loturaz sortu den berezitasun nazional bat.

Baina, hain zuzen ere, aldagarri oro ez delako gomendagarri, are asko direlarik gaitzesgarri, eta (bakar horixe hemen begien aurrean ipintzearren) fisikoki ere ezinezko baita gizakiak batera eta osotasunean beren ohiko karriletik ateratzea, beren indibidualitatea desegin eta bestelako gizaki egitea, haien desberdintasunak ikertu behar dira eta haietatik garatzen dena kalkulatu.

Naturaren eta egoeraren bitartez behinola jaso duen bere izaera gorde behar du gizakiak, hantxe mugitzen da arin, han jarduten du eta da zoriontsu. Baina horregatik ez ditu utzi behar ase gabe gizatasunaren eskakizun orokorrak ezta bere heziketari inolako mugarik jarri ere. Bi eskakizun kontrajarri hauek elkarren artean lotu eta bi egitekoak une berean bete egin behar ditu giza ezagutzaile praktikoak, eta nolatan izan liteke zoriontsu egiteko honetan, giza izaeraren desberdintasun orokor posibleak eta espeziearen idealarekiko berezitasun bakoitzak duen zerikusi orokorra arretaz ikertu gabe?

Gizakiaren prestakuntza [«bilden»] ez da propio hezitzailearen, erlijio irakaslearen, legegilearen kontua bakarrik. Nola gizakia, bestela izan zitekeen guztiaren ondoan, une berean oraindik gizaki den, hala dauka, bestela erabil ditzakeen egiteko guztien ondoan, norberaren eta orobat bere buruarekiko eta gainerako prestakuntza intelektual eta moralarekiko arreta praktikoa hartzeko obligazioa.

Lege orokorra da arrazoiak gizakien elkarteari beren artean zuhurkiro agintzen diela: haren moralitatea eta kultura elkarrekiko zaintzea, hari kalterik ez egitea, baizik, hala gerta dadinean, txukundu eta gorago jartzea. Obligazioaren sendotasuna hemen hazi egiten da egiteko jakin bakoitzean espirtuarengan eta izaerarengan duen eraginarekin arabera, eta erabat ase behar den lekuan izaera forma indibidualari bezainbat begiratu behar zaio orokorrari.

Inor baino gutxiago legegilea da obligazio horretatik aske senti daitekeena, berak baitu eskuetan indar handien eta arriskutsuena, gizakiengan eragitea, alegia. Politika guztia, bereziki barnekoa, berez arrotz zaion ikuspuntu baten mendean jarria izango da. Izan ere, nola berez beste zereginik ez daukan ez bada honoko egitekoa betetzea ale-

gia, nola herritarren eskubideen bateratzearen azken helburua, pertsonaren eta jabegoaren segurtasuna, erarik laburrenean eta ziurrenean gorde daitekeen proposatzen duen eraketa bakoitzean hark herritarren izaeraren gainean, gizaki bezala, egiten duten eraginei buruz galdetu behar du, eta bakoitza neurri horren arabera aztertu behar du. Bi ikuspuntuek alde kasik guztietan erabat kontrajarririk dauden emaitzetara joko dutenez, politiko soilak behartzera eta moral irekiagoak askatasunera, egiteko zaila gertatuko zaio elkarren artean borrokan dabil-tzan bi eskakizun horiek bateratzea, eta zailtasun hori oraindik handiagoa izango da, baldin, bataren erabilera aipatu bezain laster, izaera indibidual bat babestu eta zuzendu behar badu, beraz oraindik egoera partikular gehiago kontuan hartu behar badu.

Objektu honi buruzko ohiko teoriak gehiegikeria handiak izan ditzake. Legegileari irakasten dio berezitasunak erabiltzen, era horretan nazioa errazago gidatu eta mendera dezan. Baina zein erraz eraman ohi duen ikuspuntu politiko soil honek, goragoko moralik gabe, ahulezia eta makaltasun nabarmenenak nahita mantentzeko arriskura.

Beste zailtasun bat gehiago aurkitzen du azken aldiko politikoak, nazio zenbait ez bakarrik, lehenago sarri bezala, makila bakar baten azpian bateraturik daudenean, baizik zentzurik hertsienean masa bat bezala ekin behar dutenean. Baldin hori zehaztasun eta bizkortasun erabatekoaz egin behar bada, zalantzarik gabe hobe litzateke sail bakoitzaren berezitasunak kentzea, hizkuntza, ohiturak, iritziak, e.a. berdinduz. Baina egin ahal daiteke hori berezitasunik, eta ondorioz orobat berezkotasunik eta energia galerarik gabe, eta bi abantaila hauetatik zein opalduko dio besteari? Abiarazten badu ikerketa hau ez izaera indibidualaren duintasuna ez estatu handien eta gizaki aldren onura ukalezina baztertzen ez dituen espirituaz, berehala utzi beharko ditu eta nahiago izango du bi abantailak elkarrekin bateratzen saiatzea. Berak tratatzen dituen subjektuen indibidualitate egiazkoaren ikerketa zehatzagotik espero lezake inolaz honen konponbidea.

Badirudi erlijioak jasan beharko lukeela bere jarraitzaileen berezitasunen aldetik eraginik gutxiena. Egia irakasten du, eta egia inolaz objektiboa eta orokorra da. Halere, harekin da inon baino gehiago derrigorrezkoa beti eta urratsez urrats espirituaren aldaketei lagunarazteko ardura, baldin kontzientziaren bortxa zapaltzaile baten edo erlijiozko indiferentziaren arrisku bikoitzari ihes egin behar bazaio.

Bizitzako gainerako arazoek gutxitan izan ohi dute eragin hurbil eta handirik barneko indibidualitatearen gainean. Aski da oker zabarrak ekiditea, ondorio kaltegarrien arriskuari ihes egiteko.

Hala indartsuago jotzen du izaera prestakuntza propioaren gainean eguneroko harreman librean: ezkontzan, adiskidetasunean, gizarteko inguru txikiago edo handiagoetan. Harreman honen artea, baldin, orain arte beti gertatu den bezala, atsegingarri izateko eta irabazteko talentu soilera hertsia izan ez bada, izaeraren ezagutzan eta izaeraren garapenean oinarritzen da erabat eta guztiz.

Hasteko saiatzen da erlazio oro ahal bezain inportante bihurtzen kulturarako eta izaerarentzako, hari ahal beste arima ematen, baina gero saiatzen da bakoitzarengan indibidualitate desberdinak halako gisan bakarka jartzen edo aldratan taldekatzen, non ikusleari irakatsi handiko ugaritasun baten irudia eskaintzen dion, baina elkarren artean ukitze neurritsuaren bidez orobat sentiberago eta bereziago egiten. Biek, ordea, askatasun erabateko baten baldintzapean baino ez ditu gauzatu nahi, asmo itxura oro guztiz ekidinez. Guztiak berez sortu behar du, denak jolas eta atsedean izan, ezerk ez seriotasun edo arazo.

Arte honen oinarrizko lerroak marraztea baliagarri eta dibertigarri litzateke une berean, baina bere izaera propio handi eta anitza indibidualitate arrotzen ezagutza zabalarekin lotuko lukeen gizon baten lana izango litzateke bakarrik, eta nola pentsamendu eta sentimendu oparotasuna eduki behar lukeen harreman estu bat interesante bihurtzeko, hala arintasun eta mugikortasuna mundu handiko zirku-letan egiteko bat izateko.

Beraz eguneroko premia bezala beti azaltzen denerako behar dugu guk gehienik giza ezagutza indibidualizatzailea, eta haren laguntzarekin guk hutsik eta galdu bezala jotzen ditugun orduak gure bizitzako baliotsuen bihur ditzakegu.

Ez dugu aipatu ere egin heziketa orain artekoan. Oso nabari dago nolako prestaketa ezinbestekoak eskatzen dituen haren ikerketak; nolakoak, gaurkoak. Bestelako erlazioak laburtasunagatik gaintetik pasatu ditugu. Hala, sendagileak, adibidez, izaera moralari arreta eskaini behar dio, eta hori ezagutzea inportante gerta dakiokenez, baita izaera indibidualari ere.

Antropologia konbaratzailea, beraz, helburu bikoitz baterako eta zeregin bikoitz baterako da baliozko. Izaeren ezagutza errazten du eta, orobat, irakaspen filosofiko bat ematen haren balioa epaitzeko, haren garapen urrunagoak kalkulatzeko eta posibilitatea ematen du neurtzeko nola den gauza bera osotasun bat bezala besteekin batera ekiteko. Balio dio gizakiak erabili eta menderatu nahi dituen merkataritari eta, orobat, hura hobetzen eta garatzen saiatzen diren hezitzaile eta filosofiei.

Baina, gainera, giza espirituaren zeregin interesgarriena da. Harengan aurkitzen baitu 1. naturak eskaintzen duen objekturik bikainenena, erarik zehatz eta osokoenean deskribatua; 2. ugaritasun bat, ez bakarrik pinturaren koloreen joko koloretsuaren bidez irudimena eta zentzuak atsegintzen dituena, baizik areago marren fintasunaren bidez espiritua eta sentimendua aberasten dituena, eta 3. halako moduan da tratatua, non ez bakarrik berezitasun bakar bakoitza osotasun bezala begiratzen duen, baizik dena osotasun batera laburbiltzen.

Giza ezagutza indibidual baten eragin zuzena izaera berezitasunean.

Ez da aski antropologia konbaratzaile batek giza izaeren desberdintasuna ezagutzea, oraindik handiago bat ekartzen laguntzen du eta lehendik dagoena egokiago gidatzen.

Ea lehendabizikoa, ordea, abantaila dei daitekeen, edo izaera formen ugaritasun handiago batek kulturaren, gustuaren eta ohituren zuzentasun eta objektibotasun orokorrari bidean trabak jartzen ote dizkion? Gehienen begietan hori ezin konpon daiteke horrela. Gizakiak sortzen dituen obra guztiek irabazten dute trataera orokor baten eta norbanakoaren subjektibitate aparte dagoen baten bidez aurrerakuntza hobe bat, eta espirituaren lanak beraiek ere ezin dira kontsiderazio jakin baten salbuespen gisan utzi hemen. Era berean konstituzioei eta gizakien arteko harreman praktikoei iraunkortasuna eta segurtasuna gehiago bermatzen zaie ohituren berdintasunaren bidez norbanako apartekoen eragiketa irregularragoen bidez baino.

Alderantziz, indarra, asmamen espiritua, entusiasmoa orijinaltasunaren mende dago, eta espirituaren bide aparteko eta hautaturik gabe ez litzateke sortuko ezer handirik.

Izaera formen desberdintasuna, nahiz kaltegarri ere izan, ezinbesteko da inolaz, eta galdera soilik da ea hori itsu-itsuan halabehararren esku utzi behar den edo gidatze zuhur baten bidez partikulartasunera aldatu behar den. Baina honi dagokionez, erantzunak bat baino ezin du izan.

Antropologia konbaratzaileak giza sail osoen izaera bilatzen du, eta bereziki nazioena eta garaiena. Izaera hauek sarri halabeharrezkoak dira; horiek ere gorde egin behar al dira? Filosofoak, historialariak, idazleak, gizakiak, agerian eraman behar al du azken batean bere izena, bere nazioa, bere garaia, bere indibiduo? Hala da, baina ondo ulerturik. Bera aurkitzen den erlazio guztiei utzi behar die berarengan eragina izan dezaten gizakiak, ez du atzera bota behar inoren eragina, baina denen eragina berarengandik kanpora eta printzipio objektiboak jarraiki landu behar ditu. Hala behar du izan; gero, horregatik, zenbat erakutsiko du bere jardueraren mota desberdinetan? Hori mota eta bere indibidualitatearen naturaren beharren mende dago. Gero eta orijinaltasun subjektibo gehiago erakusten duen, obraren balio objektiboari ordea kalterik egin gabe, orduan eta hobeto.

Gizakiak bere bizitzako kasu eta aro jakin batzuetan, baina ez guztietan, materia bil dezake beharbada. Zenbat eta materia gehiago forma bihurtu, zenbat eta ugaritasun gehiago batasun, orduan eta aberatsagoa, biziagoa, indartsuagoa, emankorragoa da bera. Baina gisa horretako ugaritasunak harreman anitzen eragina ematen dio berari. Bera harekiko zenbat eta gehiago ireki, orduan eta alderdi gehiago ispilatuko dira harengan, orduan eta eginkorragoa izan behar du bere barneko jarduerak, hura garatzeko, eta osotasun batean batera lotzeko. Desegokia eta kaltegarria da bakar bati emate alferra. Hortik datoz izaera nazional eta familiar zabarrak, egiaz guri etengabe bidera ateratzen zaizkigunak; baina horren errua barneko nagikeriak eta sorgortasunak dute, ez kanpoko ugaritasunak. Prestakuntzaren teoria zuzen baten erakutsiaren arabera nazio bateko inolako kide bat ez da izango era hain bitxian beste baten antzeko; izaera nazionala norbanako bakoitzean ispilatuko da, baina bakoitzarengan gainerako harreman guztien eraginaren bitartez eta bereziki arrazoi aztertzaille eta gidatzailearen bidez arindua izango denez, ez da izango bere osoan hain zabarra eta nabarmena, aldiz garbiagoa, partikularragoa, finagoa eta anitzagoa azalduko da.

Gizakia bakarka hartuta ahula da, eta gutxi irauten duen bere indar propioaren bitartez gutxiegi egin dezake. Garaiera bat behar du non jarri; aldra bat, berari balio diona; ilara bat, nora bera bildu. Abantaila hori erdiesten du berak hutsik egin gabe, bere nazioaren, bere leinuaren, bere garaiaren espiritua bere baitan itsasten duen neurrian. Zer zen erromatar bat, besterik gabe Erromak jaioarazi zuelako? Zer Eszipion bat, Korneliotarren leinutik jaiotako zelako? Zer dira idazle berriak sorkuntza grekoko aberastasun guztia beraien ondasun bezala erabili eta halako garaiera batera kolpetik altxatzen direlako besterik gabe?

Baina naturaren ezagutza subjektibotik haren egoera objektibora badirudi jauzi handia dagoela. Nola susta dezake lehenbizikoaren zabalte eta fintzeak zuzenean azkenaren nobletzea? Ezin ukatuzko eran, honela, alegia, biak: begiratzailerak eta begiratuak gizakia dira; hau alde guztietan, hortaz beti ohartu gabe ere, bere barneko espiritu formari egokitzen zaio eta agintzen duten kontzeptuen aldra beti azkenean guk geuk ere ulertzen ez dugun modu batean sarri, ez soilik gizakiaren baizik natura hilaren mende dago.

Izaerako partikularitasunaren ezagutza zabalago batek izaerak hobeto epaitzen eta haiek tratatzeko metodo egokiagoak bilatzen irakasten duela, hori berez ulertzen da hemen. Baina izaeran nabardura finagoak aurkitzen direlako besterik gabe, izaera bera aldatu egiten da egiaz era oparo batean; leinu partikularrak ikertuz eta haien formak diren bezain indibidualki, eta izan daitezkeen bezain idealki ipiniz soilik garbiago eta zehatzago garatzen dira benetan.

Pentsamenduaren eta sentimenduen jardueraren etengabeko eraginaren bidez baino ez da sortzen izaera. Ohitura jakin batzuk etengabe eta beste batzuk sekula ez edo oso gutxitan erabiliz, batzuk garatu egingo dira eta besteak zapalduko, eta horrela sortzen da astiro-astiro izaera forma jakin bat. Izateko gure eraren eta epaitzeko gure eraren arteko, gure egoera praktikoa eta teorikoaren arteko korrespondentzia orokorraren bidez posible izango zaigu hori, ideien bidez soilik eta gure espiritutik era aktiboan eta praktikoa guran eragitea, alegia. Ezin jaso daiteke ezer ulermenaren bidez, nolabait zentzuen eta sentimenduaren alorrean jokatu ez dena; baina ezin da, halaber, ezer hartu norberaren izatean, kontzeptuen bidez hein batean prestatu ez dena. Ezin azter daiteke ezer, hartarako zentzurik ez dagoenean, hartarako

gaia falta denean; baina, halaber, ezin izan daiteke ezer, haren ideiarik batere ez dagoenean, hartarako forma falta denean.

Izaeraren deskribaketarekiko arretak gehiago ekartzen du oraindik. Alde batetik, objektu bakoitza lehenik eta bereziki barneko izaerarekiko erlazioan hartzen du; beste alde batetik, izaera esnatzen du eta bere jardutea suspertzen. Baina izaera esnaturik dagoen bezain laster, berarengan eragina duten gauza guztietatik jasotzen du, beti bakarrik berez berari homogeenoa zaiona; alde guztietatik pilatuko da, beraz, gaia eta elika puntu bakar batera. Oso garbi ikusten da hori naturaz bortitzak, sutsuak eta partzialak diren izaeretan. Horien kontura esan ohi da eskubide osoz alde guztietan beren burua baino ez dutela ikusten, gauza guztietan beren buruak baino ez dituztela eramaten; horregatik hazten da beren partzialtasuna aurrerapen bikoitze-kin. Okerra ez dago haiengan beren indibidualitatea bortitzegia izatean, baizik hura grinaren eta naturaren ohituraren bitartez izatean. Egina izan balitz espirituaren joera baten bidez, alde guztietan indibidualitate eder bat azaltzeko ahaleginaren bidez, arrakasta erabat eta gutiz bestelakoa izango litzateke. Gisa honetako gizaki bat orobat izaeraren garapenari buruzko guztia bere baitan eraginkor izaten eta izaeraren garapenaren arabera tratatzen saiatuko litzateke. Baina berari heterogeneo litzaiokeena ez luke utziko pasatzen ezta bota ere egingo, aldiz bere erara eta nire helburuetarako erabiliko luke; objektu bakoitza erabat objektiboki eta sotilen bezala, osoa bezala hartuko luke, baina berezitasun inportantea noski izango litzateke bereganatzearen graduan eta moduan. Nazio arrotz batzuen eta alemaniarren arteko kontrasteak garbi erakusten du hori. Frantsesak eta ingelesak izaera forma jakin deigarrietan doaz aurrera; baina beren inguruko mundua sarri beren era partikularrean tratatzen dute eta egia eta objektibitatea huts egiten dituzte.

Bereziki, ordea, izaera gizartean garatzen da garbitasun eta segurutasunerako, izaera garbi eta seguruekin harremanetan jartzen bada. Ez da antza bakarrik batek bestearekin duena, kontrastea ere bada elkarri kontrajartzen dituena. Izan ere, eraketa moralak bezala fisikoak badaukate prestakuntza oldar asimilatzaile bat, baina, norberaren izaerak sendotasun jakin bat lortu duenean, ez hain zuzen antzekotasunera, baizik elkarrekiko bi aldeetako indibidualitateen proportziozko jarrera batera zabaltzen dena. Hala, gizonaren izaera izango

da garbiagoa eta gizonezkoagoa, parez-pare emakumea daukanean, eta alderantziz. Bestalde, ordea, partikularitasuna gehiago sumatzen da, noski, banakako indibiduoetan, leinu osoan baino. Batez ere hori huts emango da nazioen izaeretan, beren arteko harremanetan beti beren orijinaltasuna gehiago esajeratzen edo ukatzen dute, zehaztu eta garatu baino. Kanpoko aurpegierak berak erakusten du hein batean eragin hori, ezkonduak adibidez beren artean duten antza ez kimerikoak egiaztatzen duen bezala.

Baina behin urrats bat gertatzen denean, ezin sinetsizko erraztasunez datoz hurrengoak. Izan ere, ez dago ezer bere inguruan giza indibidualitateak baino bizitasun handiagoa erakusten duenik. Bereziki eragiten du alde honetatik jatorriak: orainarte jasotakoa indibiduo berriari prest dagoen ohitura bezala igaroarazten dio honek, eta horrela aldi bakoitzean ondare ez hain seguru zirudiena jabetza seguru bihurtzen da

Izkeren ikerketak bere indibidualitatean ugaldu egiten du, beraz, azken hau. Baina honen, izaeren formen ugaritasunaren mende dagoela espezieen nobletzea, hortaz giza naturaz aparte badago adibide harrigarri bat: gertakari ezagun bat, alegia, etxeko abereetan arraza, aldaki, eta azkenik ezaugarri indibidual gehiago azaltzen direla gainerako abere espezieetan baino.

*Antropologia konbaratzailearen helburua eta jokamoldea oro har.
Gaizki erabiltzeko arriskua.*

Antropologia konbaratzailearen irrika da giza naturaren desberdintasun posibleak beren idealitatean neurtzea; edo, gauza bera dena, aztertzea nola indibiduo bakar batek egoki eskaintzen ez duen giza ideala askoren bitartez aurkeztu daitekeen.

Bilatzen duena ez da, beraz, naturaren objektu bat, baizik zer-bait erabatekoa —idealak, baina— indibiduoetara, objektu enpirikoe-tara halako gisan zuzenduak direnak, non haiek hurbildu behar duten helburu bezala ikusten diren.

Erdiets baleza helburu hori benetako natura begiratzera makurtu gabe, orduan jakintza filosofiko eta espekulatibo soil baino ez litzateke.

Eta egin ere, egin lezake hori hein batean. Gizadiaren ideal orokorrean pausa daiteke; hori bere alderdi desberdinen arabera bana lezake, eta posibilitate horietako bakoitzetik irudi ideal bakan batzuk gara ditzake, eta horietan, hazpegi nagusien inguruan, gizaki osoki burutuak ezin huts izan ditzakeen gainerako dohainak bildu, dagokien mendetasunean biltzen baitira. Gizakiaren idealean aurkitzen da, esaterako, edertasunaren zentzua eta egia bilatzeko ahalegina, biak berez indar handiz, eta elkarrekiko erabateko orekan. Bi joera horiek banatzen dira, bihurtu bakoitza indibidualitate berezi baten funtsezko hazpegi, ikuspegi hone-tatik gainerako irudia osatu, eta lortzen da, esperientzia bereziren pre-miarik gabe, artistaren edo filosofoaren izaera garbia.

Baina goian azalduko eskakizuna erabat betetzeko, errealitatearen begiratze zorrotz batera ohitu behar du derrigor antropologia konbaratzaileak, eta alde guztietan handik abiatu. Izan ere,

1. Baldin modu espekulatiboago hark erabateko eskasia kalte-garria eramango luke, forma guztien ugaritasunean bezala bakoitzaren segurtasunean. Ahalegin zoriontsuenarekin ere ezinezko litzateke, handik aurrera nolabaiteko indibidualitate handi batera jaistea.

2. Idealaren jarrerak berak errealitatearen begiratze artatsu baten premia dauka. Ideal hau ez baita norabide guztietara zabalduriko, eragozpen mugatzaile guztietatik askaturiko natura baino.

3. Jasaten du, zuzenean begiratze enpirikoari eusten badio, erabilera praktikoa benetako bizitzara badarama, bestela ideal garaiak alferrik jarriko lituzkeelako, baldin baliabiderik ez balu haiek errealitatearekin lotzeko.

Inguratzen duten gauza fisikoen neurrien arabera bakarrik garatzen da gizakia. Zirkunstantziak eta gertakariak, lehen begiratuan bere barnearentzat erabat heterogeneo direnak, klima, lurra, bizitzeko baliabideak, kanpoko eraikuntzak, e.a. ekartzen dizkiote agerpen berri eta sarri finenak eta garaienak. Bitarteko fisiko baten bidez, ernalketaren eta jatorriaren bitartez igaroarazi eta sortarazten da behinola lorturiko natura morala, eta horren bidez hartzen dute aurrerapen intelektual eta moralek, bestela agian behin-behineko eta aldakorrek izango liratekenek, eta aldagarri izango lirateke, nolabait naturaren jarraitutasun eta iraupena. Gizakiaren egoera fisikoak bere izaeraren pres-takuntzan ikuspegi orotatik zeregin jakingarri bat jokatzen du.

Indibiduo bakoitzarengan baino nabarmenago dago hori giza espezie osoaren begiratzean. Aldra handiek, leinuek eta nazioek mendeetan zehar izaera komun bat gordetzen dute, eta aldaketa handiak jasaten dituztenean ere bere jatorriaren arrastoak ikus daitezke. Zergati berek garai guztietan zehar eragin berberak ekartzen dituzte, eta erabat oro har kasik gisa bertsuko indarren emaitza berak aurkituko dira, kanpoko egoeren eragin bera, grinena joko bera, harekin ongiaren eta egiaren indar bera, gertaeren ehun nahasitik eta irudi anitzetan altxatzen baita. Alde guztietan salatzen dute bakoitzaren egitateek joeraren nahikeria apetzako bat, aldraren patuek naturaren marka beraiengan dakarte eta. Zein zehatzago eta garbiago ikusiko genukeen hau, baldin denbora esparru hain labur batera makurtu beharko ez bagenu, eta horretan oraindik gure ezagutzaren osotasun faltagatik molestaturik ez bageunde.

Horregatik antropologia konbaratzailea beharturik gertatuko da, ez bakarrik esperientziatik abiatzera, baizik ahal bezain sakon hartan murgiltzera. Arrazen, adinaren, izaeren, nazioen eta abarren izaera iraunkorra bilatzen saiatu behar du, natur ikerlaria abereen munduko arraza eta aldakiak zehazten saiatzen den arreta berberekin. Horretan egiaz eta berez ailegatuko bada besterik gabe jakitera zein desberdin izan daitekeen gizaki ideala; itxura egin behar ote du bere egitekoa balitz bezala jokatzera, zein desberdin den errealitatean gizaki indibiduala zehazteko?

Bere berezitasuna da ezen gai enpiriko bat era espekulatibo batean, objektu historiko bat filosofikoki, gizakiaren benetako izaera garapen posible bat kontuan hartuz tratatu behar duela.

Ikerketa natur-historiko baten eta filosofiko baten lotura gertatzen denean, lehena da sufritu ohi duena; hemen, halere, ez da arrisku txikiagoa azkena ere mehatxatzen duena. Antropologia konbaratzailea giza espezieen izaeren bila ari denez, erraz bultzatua izan ohi da errealitateak erakusten eta gizakiaren duintasunak ziurtatzen duten baino neurri batean zehatzago, neurri batean iraunkorrago onartzera. Gisa horretako joera batek, ordea, giza naturaren heziketarako guztiz kaltegarri izan behar du, haren noblezasuna indibidualitate aske baten posibilitatean oinarritzen baita bereziki. Hemen dago gizakiari buruzko iritzi orotan ekidin behar den zailtasun arriskutsua, alegia, ez dela beti une berean eta halere ez gehiegi natur izaki bezala tratatzekoa.

Hemen inolaz zailtasun hori ez da inondik ere hain arriskutsua. Izan ere, gure asmoa hemen da soilik berezitasun indibidualak eta, hain zuzen ere, eskakizun idealekin uztar daitezkeenak aztertzea; ez, ordea, giza arraza natur-historikoki klasifikatzekoa. Azken hauek behar ditugu helburu hura erdiesteko baliabide bezala bakarrik, bai indibiduoengana hurbiltzeko, iraunkorra eta funtsezkoa seguruago ezagutzeko, eta halabeharkeria joankorrek okerrera gutxiago eraman gaitzaten, bai naturaren beraren ibilera hobeto begiratzeko, horretara honek espezieen antzekotasunaren bitartez indibiduen orijinaltasuna jotzen du eta honek, haiek erabiltzen dituelarik hauek zehazteko, haien askatasuna lotu gabe ordea.

Izan daitezke, beraz, arraza, jite eta nazio izaerak egiaz diren baino gutxiago zehaztuak; halere hori ez da eragozpen antropologia konbaratzaile baten emaitza onaren kontra. Izan ere, honek aski du funtsezko desberdintasunetara zuzendua izatea, eta objektuan benetan aurkitzen dena erabilera praktikorako behar bezala aztertu eta estimatua izatea.

Metodoa. Zabaleroa eta mugak. Banaketa

Orain arte esandakoaren arabera, giza ezagutza filosofiko-praktikoaren adar bat da antropologia konbaratzailea. Honek bezala, beraz, ihes egingo dio enpirismoari bezala espekulazio soilari ere, eta esperientzian oinarrituko da bakarrik eta erabat. Halaber, honek ipintzen dituen arau nagusiak onartu eta segituko ditu. Hartaz:

1. Haren izaera marrazteko datuak gizaki osoaren azalpenetatik, une berean bere natura fisiko, intelektual eta moraletik hartuko ditu, gaiaren osatuena ziurtatzeko.

2. Hauen artean jaramon egingo die bereziki berariaz izaera, eta hain zuzen ere indibidualki desberdin izaten saiatzen den lekuan, izendatzen duten hazpegiei, indarren erlazioari eta mugimenduari.

3. Beti ikusiko du bakarrik barneko izaera eta perfekzioa, ez soilik edo bereziki kanpoko helburuetako egokitasuna.

4. Karakterra ahal beste genetikoki deskribatuko du.

5. Joango da gertakari eta azalpenetatik ezaugarri orokorretara, eta handik barneko izate propiora.

6. Bereziko ditu halabeharrezko nolakotasunak funtsezkoetatik eta ustekabekoen maila desberdinak eratuko.

7. Orain arte alderdi banatatik begiratu den izaera batasun gorenean bateratu, erabat marrazturiko iruditik kontzeptua atera, eta hori ondoen gertatzen da baldin gizakiaren helburu garaien eta guttiz orokorretara iristeko haren modua adierazten saiatzen bada.

Giza jakintzak ez bezala, ez gizakia oro har edo indibiduo jakingarri batzuk bereziki estudiatzeko, baizik giza generoaren desberdintasun posiblearen ingurua —horren bitartez orobat eramana izango baita espeziearen karakterra aztertzeraz—, idealtasunari kalterik egin gabe, aztertzeko duen joera berezia, aurreko arauz gaindi honokoetara makurtzen da:

1. Indibiduo batek ezin erdietsizko perfekzio ideala sozialki askorengan nola adierazten den aztertzea izaki bereziki bere egitekoa, batez ere asmo horrek gidatuko du bere ikerketarako karakterren hautaketan. Ahal beste bilatuko ditu edota gizatasunaren kontzeptua hedatzen dutenak edota elkarrekin hain kontraka portatzen direnak, alegia beren artean irmotasun berean jasangarri izango ez liratekeen ezaugarriak bakarka azaltzen dituztenak.

2. Bere bidean espezieen karakterrari lotu behar zaionez, haiek indibidualitate bakoitzaren eragin orotik ahal bezain garbi finkatuko ditu, eta beren ezaugarriak hartaz batez ere sozialki berarengan eragiten duten kausetatik eta haien kontzeptuetatik aterako ditu.

3. Alderantziz bere, burua begiratuko du espeziearen kontzeptu tinko eta estu baten bidez indibiduen askatasuna mugatzetik.

Antropologia konbaratzailearen ingurumena berez giza espezie osoarena bera izango litzateke, baldin bi kausek eragotziko ez baliote bere mugak hain urrun zabal ditzan.

Kultura maila jakin bat, ez txikia, behar du gizakiak forma indibiduala lortzeko. Bere lehenbiziko heziketa osotasunean da, forma zabar, marra gutxitan zehazturikotan. Kultur maila hau garaiera nabarmen batera jasoko da, baldin karakterra halako gisan findua eta bere forma halako gisan finkatua bada, non berak gizatasunaren kontzeptuaren zabaltze bat bere perfekzioan iragartzen duten hazpegi batzuk baino ez dituen erakusten, gehiago oraindik ordea, non gizakiak bere perfekziora hurbiltzeko hartzen duen bide bezala azaltzen. Izan ere,

oraindik zabarrak diren herrien lehen ezaugarriak neurri handi batean dira edota kanpoko berezitasunak, edo ustekabeak edo garrantzirik gabeak, edota bestela okerrak; horiei jarraitzen zaizkie gutxi edo gehiago agintzen duten hazpegiak; eta azken maila da azkenik, partikularitatea indar guztien gaintik zabaltzen denean, eta inolaz karakter indibidual bat garatzen hasten denean.

Gure Europa kultibatu honetan bertan oraindik aurkitzen ditugu maila horiek guztiak bata bestearen ondoan. Goikoenean daude, zalantzarik gabe, frantsesak, ingelesak, e.a.; poloniarrek, espainiarrek eta portugaldarrek, erdikoan bakarrik; eta azpikoenean inolaz, errusiarrak eta turkiarrak. Nork saiatu nahi luke azken hauetatik karakter indibidual ideal bat prantatzen hastea, nork inondik ere, berezitasun kanpoko eta halabeharrezkoak kendu ondoren, karakter indibiduala, giza karakter orokorretik aztertzeke merezi duen moduren batean bereziko dena?

Baldin objektuaren egokitasunaren kontra eragozpenik jarri ezin badaiteke, haren ezagutza sakon eta zehatza beharrezkoa da hemen beharrezko den bezalako deskribaketa bat eratzeke. Barneko eta funtsezko nolakotasun bakar bat ikertzea zaila da jada; zenbat gehiago, ordea, ez ote da izango denak osotasun baterako duten loturan ezagutzea. Nazioen ezagutzerako adibidez nahi adina baliabide edukita ere, hemen lanari heltzen diona berehala sentituko da utzita gidari bat gehien beharko zukeenean, hain zuzen ere.

Giza arraza oso gutxiarekin da, beraz, posible beren barneko ezaugarri funtsezkoenen irudi oso bat ematen ausartzea. Izan ere, inor ez dago nahikoa prestatuta lorpen osora heltzeko, baldin objektuan eta harekiko dugun ezagutzan aurkitzen diren ezintasunak kontuan hartzen badira. Halere, antropologia filosofiko bat ezin asetzat eman daiteke ezer gutxiagorekin. Beti bilatu behar du osotasun bat, irudi osatu bat; baina, fisiologikoak bezalako berezitasun pila baten bila ibiltzea, erabat arrotz zaio. Baldin, beraz, azken hauek batez ere desberdintasun berezienak erakusten dituzten eskualderik urrunetan gelditzen badira, partikularitasunak gehien zehazturik eta osaturik azaltzen diren kultura goreneko ingurune txikira mugatuko dira bereziki.

Atalen antolaketari dagokionez, karakter bakoitzaren deskribaketaren aurretik sarrera orokor bat jarri beharko da, 1. desberdintasu-

naren posibilitatea, kausak eta balioa, 2. espeziearen karakterren natura oro har, 3. haien arteko bakoitzaren natura, adibidez leinuen, nazioen eta abarren natura bereziki tratatzeko.

Iturburuak eta baliabideak. Espirituaren beharrezko jarrera.

Baldin gizakiaren karakter indibiduala bere idealizazio posiblea dela eta ikertzen bada, eta gai hori ez zatika kasu bakoitzean, baizik pasarte orokorretan, teoria bat bezala, landu behar bada, naturaren begiratze mota guztiak pasatu behar ditu haren trataerak, eta orobat natur-historiko, historiko eta filosofiko izan behar du.

Gizakia, espezie bezala ere begiraturik, natura fisikoaren katean begi bat da, noski. Gainerako abereak bezala arrazatan banatzen da, arraza hauek beren partikulartasunak hurrengoei pasarazten dizkiete, eta elkarrekin mestizo ez garbiak sortzen dituzte. Hemen eta antzeko beste kasu batzuetan noski, ezin uka daitezkeen natur eragin batzuk erabili eta zuzendu egin behar dira bakarrik. Honi dagokionez, gizakia azken batean naturaren atal da. Hura bezala, aztertua izan daiteke, eta, honetan karakterrari dagokion ezaugarri propioa da, harekin esperimentatu ere egin daiteke.

Naturaren premiarekiko kontrakoena gizakiarengan bere nahimena da. Honen bidez hasi eta bukatzen ditu egintzak, ez naturaren bortxaren bidez, ezta arrazoiaren hertsaduraren bidez ere mugitua ez delarik. Jarraitzen zaio, esan ohi den bezala, halabeharri, kanpoko eraginei, edo barneko uneko oldarrei. Gisa horretan egiten duena egiaz sarri fisikoa da, zuzenean arrazoitik ez datorrenez, baina natura aske baten gainean gertaturiko aldaketa fisikoen edo beste era batekoen ondorio da beti, eta horregatik ez naturaren legeen arabera kalkula daiteke ezta esperimendu bateko gai dira. Alderdi honetatik gizakia historikoki bakarrik ezagut daiteke. Hala da bera: hala izan da bera. Zergatik galdetzeak ez dakar ase dezakeen erantzunik.

Natura eta nahimena benetako giza askatasunean arrazoiaren bidez izango dira lotuak. Arrazoiak, izan ere, naturak adinako lege premia dakar, baina askatasunari ez dio kalterik txikiena egiten, bere buruari legea ematen dionez. Hemen daude, beraz, lege

batzuk, eta hain zuzen ere itxuren alorretik kanpo, indar aske bate-
tik darienak. Hemen hasten da, horregatik, ikerketa filosofiko eta
estetikoen alorra.

Gai baten lanketa teoriko bakoitzak legeen arabera azterketa
aurretik emantzat jotzen du, eta giza karakterra gisako baterako gauza
den neurrian aukera ematen du trataera zientifiko bat egiteko.

Gizakiaren natura organikoak agerian jartzen ditu arauz eta
hutsik gabe egiaztatzen diren legeak. Hala, adibidez, naturaren lege
orokor bat da gurasoen indibidualitatearen zati bat hurrengana pasa-
tzen dela. Baina tartean sartzen den giza gorputzaren ekonomiak,
karakter moralarekin duen lotura ulergaitzak, eta gizakiarekin esperi-
mentatzearen neke handiak egiten dute lege hura hain inperfektuki eta
bere osoan nekez ezagutua dadin. Hala, aurreko adibidean ezinezko
da zehaztea, hain zuzen, ernalketaren bidez zer den helarazten dena,
zein mailatan eta zein baldintzatan. Are, eta hori askoz errazago da,
indibiduo baten partikularitasun fisiko eta fisiologikoa osotasun beza-
la ezagutzeko ez dago oraindik formula edo metodo orokorrik.
Begiratu eta ezagutzen dira soilik desberdintasun batzuk, baina horie-
tatik oso gutxi edo ezer ezin daiteke ondorioztatu.

Zorroztasun eta legezkotasun handiena bultzatzen du azterketa
filosofikoak, gehiago bere pentsamolderako gizakiari arauak izenda-
tzen dizkiolako, bere jakitearen zabaltzeko bere indarren arteko bene-
tako lotura aurkitzen saiatzen delako baino. Zinez lotura bakoitza
hutsik egin gabe zuzen zehaztu eta argituko du, baina bakarka eta
banaka ez daudenez gero, hau da kasuak garbi emanak ez direnez
gero, barneko lotura intelektual eta moralak ez dira erabat hutsik gabe
aurkeztu ahal izango edo guztiz ahituak izango.

Lege araberasun gutxiena azaltzen du historikoki soilik trata-
tutako gai batek. Bakoitza azaltzen da han halabeharrak eta nahikeriak
adierazten duten bezain araurik gabe. Halere, berriro bueltatzen dira,
pila handitan kolpetik begietan hartzen diren bezain azkar, gertakari
berberak erregulartasun jakin batean, nahiz erregulartasun hau ez hain
zorrotza eta ikusteko nekezagoa izan.

Antropologia konbaratzaileak eskaintzen duen gaia horregatik
ez da gauz, hain zuzen, erabilera zientifiko baterako, ezta inolaz teo-
riko baterako ere. Edozein delarik ere enpirikoki egiteko maila altua,

gertakari bakoitzak erakusten du egiaz beti nolabaiteko tinkotasuna, segida eta erregulartasuna; eta azken honek bai gure ezagutzaren gehitzearekin, bai giza naturaren nobletzearekin berarekin, baita garaiaren aurrerakuntzarekin ere beti gorago igo behar du. Langilea, horregatik, hasteko errealitateari ahal beste atxiki behar zaio; baina behaketari orobat trataera filosofiko ahalik eta gehiena lotu behar dio: alde bate-tik gertakarien pila teorikoki antolatzeke, bestetik behaketaren bitar-tez ateratako karakterrak praktikoki legeen arabera juzgatzeko.

Honetan onez atera eta giza ezagutza indibiduala zinez zabal-du nahi duenak natur behatzailearen, historialariaren eta filosofoaren espiritu jarrera desberdinak neurri batean bere baitan bateratu behar ditu. Lehenbizikoak bezala, antolaketaren kontzeptutik abiatu behar du; oro har alde zure erregulartasun erabatekoa jarri behar du; izatearen indar barneko eta propioen bidez argitu behar du, honetan bakoitza aldi berean helburu eta bitarteko bezala behatu; eta ez du aterpe hartu behar, argibide fisikoetan ez bada. Bigarrenak bezala, berak ikusi behar du ea indiferentziarik handienaz galdetu behar duen: zer gertatu da; eta ea berak behatzen dituen gertakari banaka-koei dagokien osotasuna ez naturaren emaitza bezala ezta nahimena-ren emaitza soil bezala ere ikusi behar duen, era horretan tentatua izan ez dadin kausa eta legeetatik adierazpen bakoitzera joateko, bai-zik beti hauetatik haietara joan dadin. Izan ere, hauxe baita historia-laria, honi natur behatzailea eta filosofoa kontrajartzen bazaizkio, markatzen duena, bere egitekoa gertatu denari atxikia dagoela, eta bera lanean dabilen alorra ez naturaren esparru bezala ezta nahimen soil baten esparru bezala ere, baizik patuaren eta halabeharren erre-suma bezala ikusi behar duela, hauen aldarten kontu, banaka bede-ren, emateko gauza inor ez delarik. Filosofoak bezala, azkenik, ezin du ahantzi izate aske eta berezi bat dela bere behaketaren objektua; eta begiz jotzen dituela kausa lehen, beharrezko, azalpenez kanpo daudenak; eta berak legeen arabera, arrazoiaren idealaren arabera juzgatu behar duela.

Zailena dena, espirituaren hiru jarrera beren artean hain des-berdin hauek ez bada beti, bai sarri, bakarka dihardute karakterren ezagutzaren atal bakoitzean, sarri oso elkarren artean loturik egon behar dutenean. Izan ere, gizakia naturaren katean izate aske bat denez, harengandik zeharo independenteki datorrenak erraz joko du

antolaketa moduko batera, eta baldin gero karakterraren gaia nahikoa historikoki ikertua bada, orobat beharrezko izango da aldi berean hura natura eta antolaketa bezala argitzen saiatzea, eta giza indar soilen gauzatzeko askeen bezala juzgatzea. Gizakiaren natura moralean onartu behar da une berean antolaketa mugikor bat, erraztasun harrigarria zerbait natura bihur dadin eta, halere, karakterraren norabide aldaketa bat gertatzen bada, berriro beste zerbaitekin truka dadin. Egiaz ikusten dugu berak alde batetik gizakiak nolakotasunak era horretan beregana ditzakeela, berarengan haiek guztiarekin lotzen direla, bere izaera fisiko bilakatzen direla eta berarengandik berez beste batzuegan ernaltzen; berak gainerakoengan, bere espirituak beste aldaera bat hartu bezain laster, orain arteko formatik irten eta bera beste batekin nahas daitekeela. Azken indar hau azaltzen da batzuetan maila harrigarri batean hazpegi desberdinek leinuaren edo nazioaren karakterrarekin duten borrokan. Lehen begiratuan iraunkortasunaren eta aldakortasunaren arteko lotura ulergaitz honek zalantzarik gabe bere argitasuna aurkitzen du indar sentzualen eta espiritual soilen elkarlanean gizakiarengan. Lehenak saiatzen dira beti dena berenganatzen, dena ohitura eta natura bihurtzen. Aldiz, azkenengan iraunkortasun oro arrotz da, oraingo unearan onarpen jarraian ez, baizik aurreko inpresioen irautean oinarritzen baita hau. Orain borrokan indar espiritualek gaina hartzen dute; baina sentzualak oraindik beti jardunean segitzen dutenez, sortzen da natura ohiko bat beti, eta hau, baldin espirituaren norabide aldatuekin kontraesanean jartzen bada, ez da izango agintari nagusi.

Horri dagokion nahasketa, non maila hain altuan desberdin diren eraikuntzak gizakien ezagutza zuzen baterako elkarren artean loturik izan behar duten, artifizialki eta erregulari aurkitzea oso zaila izan beharko luke, ezinezko ez esateko. Egiaz edota giza behatzaile enpirikoegiak edo espekulatiboegiak aurkitu ohi dira gehienetan. Giza ezagutzarako eskola onena, beraz, da gizona; eta horretan ondoen aterako da bere karakterra bera maila handian kultibatua duena, formen aberastasunaren arabera eta legeen arabera juzgatzen aski ohitua dagoena. Izan ere, beharrezko askatasuna eta erregularitasuna bere baitan uztartzen dituenak ez du ez sentiberatasun eskasirik izango bertan dagoen gaia ulertzeko ezta indar faltarik ere, hura legeen arabera azterketa zorrotz baten azpian jartzeko.

Karakterren desberdintasunari buruz oro har

Gizaki askoren artean ohartzen den eta begiratu arin bati ihes egiten ez dion lehen desberdintasuna da beren jardueren objektuen, beren ariketaren emaitzaren desberdintasuna, beren premiak asetzeko eta bizitzaz gozatzeko moduarena. Begietara jotzen duten gauza horietan itsasten da lehenbizi partikulartasunaren kontzeptua indibiduo bakoitzarengan bezala nazio osoetan, azken hauen artean askori dagokionez apenas ezagutzen den ezer, ez bada beren jantzia, jarduerak, atseginak, bizitzeko modua, eta abar.

Gizakien arteko desberdintasunaren ezaugarrietako bigarren klasea bere nortasunetik hurbilago dago, haren barnea oraindik ez osorik eta zuzenean deskribatzen ez badu ere. Hor kanpoko guztia gorpuzkeran eta portaeran kontu daiteke, itxura, aurpegiaren eta bilorearen kolorea, fisiognomia, hizkuntza, ibilera eta keinua inolaz. Ezaugarri mota hau bereziki garrantzitsua da, alde batetik aurrekoak baino gehiago gizakiarengana hurbiltzen duelako, eta bestetik irudi egiazko eta fidagarri bat ematen duelako, eta dirudiena baino gehiago dakar horrek beti barnekotik. Horregatik geratzen da ez bakarrik ukitu osasuntsu eta naturala, gutxi batzuetan inoiz bai baina osotasunean oso gutxitan huts egiten duena, egiaz hauengan, baizik areago giza ezagutzaile filosofikoak hori tinko gordetzen du begien aurrean, haie-tan, zuzeneko gertakarietan bezala, bere iritzi xeheagoa aztertu eta egiaztatzeko.

Ezaugarri mota bi hauetatik abia daiteke azkenik barneko desberdintasunetara. Hauek ez dira aurkitzen gero indarretan beraietan, giza leinu osoa berberekin hornitua dagoenez; bai ordea beren mailetan, batengan bestea igo ezin daitekeen garaiera handia lortzen baitute; bere arteko harremanetan, batengan fantasiak, bestearengan arrazoiak, e.a. delako agintzen duenean, edo beren mugimenduan, bata atsedetik gabea eta eginkorra baita, bestea nagi eta geldoa, e.a.; gehiago, sentsazioetan, batengan xamurragoak eta sentiberagoak baitira bestearengan baino; azkenik joeretan eta irritsetan.

Baina desberdintasun horiek guztiek, hemen azaltzen diren bezala banaka ikusita, desberdintasun gehiago erakusten dute azalpen bakoitzean karakterrean bertan baino. Banaka ikertzen diren bitartean, zalantzazko gertatzen da beti ea kanpoko egoeraren eta zirkuns-

tantzien desberdintasun batetik gehiago ez ote datozen barneko karakter forma batetik baino, indibidua haietatik irteteko moduan ez dagoelarik batere edo oso gutxi bederen. Azken kasu honetan bakarrik aurkitzen da han karakter desberdintasun propio bat, eta gero honetara joateko beharrezkoak izango dira behaketa gehiago eta xeheagoak.

*Antropologia konbaratzailearen ideiak
oinarritzat bereziki hartzen duen gertakari funtsezkoena*

Sexuen desberdintasuna da gertakari hori; naturak hori norbanako bakoitzaren hain ukaezinezko berezitasun eta hain zorrotz kontrajarririko desberdintasun izateko finkatu du, non ezinezko baita bataren karakterra bestearenarekin truka edo bien indibidualitatea hirugarren batek desegin dezakeela pentsatu ere pentsatzea. Auzia desberdintasun indibidualei dagokienean, horrek laginetarako balio dezake ikertzeko nola begien bistakoa den erarik nabarmenean gisako berezitasunen sorrera, garapena eta erlazioa beren artean eta espezieari dagokionez. Baina naturaren behatzean oinarritzen denean, metodo on baten eskakizun nagusi bat da puntu bakoitza hain zuzen ere nabarmenen azaltzen den lekuan bilatzea.

Hemen, auzia berezitasunen batasuna finkatzea denean, zein den egokia karakter desberdintasun propio bat oinarritzeko, hobe da bi sexuen artean emakumezkoan geratzea, honek indibidualtasuna garbiago eta espeziearekin gizonezkoak baino gutxiago nahastua daramanez.

Behatzen badugu orain emakumearen naturaren hazpegi bakoitza, gizonarekin konbaratuz, konturatuko gara:

1. Bere gorpuzkera txikiagoa, ahulagoa eta xamurragoa dela; bere hezurak finagoak eta malguagoak; giharren indarra egokiagoa erresistentzia luzeagorako, bat-bateko esfortzurako baino; bere irudia inguramen bigunez, mugikorrez mugatua, oparotasunez eta graziaz betea; bere espresioa soseguan eta mugimenduan ugaria, adierazkorra eta goxoa gehiago, gogorra eta zehatza baino; bere edertasuna inolaz gailenagoa gaiaren askatasunaren bidez grazian, formaren nagusitasunaren bidez baino hazpegien zehaztasunean; bere antokaleta fisikoa

azkenik kirio sistemaren sentsibilitate eta eginkortasun nagusiago baten bidez eta nolabaiteko pasibotasun baten bidez markatua, haren bitartez gaitzei hobeto aurre egin eta aldaketa handiak errazago jasan ditzakeelarik.

2. Bere gaitasun intelektualei dagokionez, natura behatzeko joera nabarmena, eta balio eta eduki zuzena duen oro, bitarteko eta sinboliko den orori kasik pareko higuinaz loturik; sentsibilitate bizi eta mugikorra, ulertze eta korapilatze erraza eta azkarra eskatzen duen egiaren ikerketaren atal berezian sendotasun harrigarria; aldiz, ahulezia ez gutxiago bitxia eta kasik gorroto oraindik handiagoa automatismoan eta zorrotasun berezitzean oinarritzen den guztiarekiko. Horregatik emakumeen tasuna da propio maila hain garaian beren ahalegin ikertzailea alde guztietan gauzen benetako izatera zuzentzea; baina horregatik, hain zuzen, ere erdiesten du azken hau hain gutxitan bere garbitasun objektiboan. Ez du erabiltzen beren objektua gizonak ez gutxitan erabiltzen duen bezain gogara; aldiz, ordea, hura ulertzeko eta harengan gutziz sartzeko onartzen den eskakizuna baino begirune onberatasunez beteago batez erabiltzen du. Egiaren espirituari dagokionez, huts egiten dituzte beren letrek. Hala, jotzen dute, behatze objektuari dagokionez, beti zuzenean errealtatera bertara, baina hark berarengan sortzen dituen inpresioen aurrean gehiago amore ematen dutenez, haiek argitu eta aztertu baino, eta ahaleginen bidez hari jarraitzea jotzen dutenez, oso gutxitan lortzen dute hartan sakontzea; gehienetan korapilatzen diote beren irudimen modu subjektiboa eta harengan segitzen dute aurrera, bere osagai propioenean bezala, beren bizitza propioa bakarrik. Orobat, hartzen dute beren arrazoiketa bakoitza inolaz beti bere ondorio esanguratsu eta emankorrenen aldetik, jartzen dute gainerako kontzeptu guztiekin elkarren artean loturik, baina ez dira nahikoa arretatsu oinarri seguruetan behar bezala eusteko. Arrazoi beraiengatik sentitzen dute premia larria filosofia abstraktuaren azken ondorioekiko, beren naturak ez dielako bakerik ematen beren pentsamendu pila batasun batean lotu arte; abstrakzioak beren indibidulitatea erabat kontraesanen duenez gero, beti arrotz gertatzen zaie espekulazio propioa. Hitzaren zentzurik zorrotzenez existitzen da beraiengan egiaren zentzua, zentzu bezala, beharturik daude beren naturaren bitartez hura maitatzera eta hari men egitera; baina ni propioa inguratzen duen mundutik zorrotz mozten duen eta naturan

oinarrituriko indar behatzaile horien faltagatik ez dira beren azken helburura, egiaren azterketara alegia, gizona bezain hurbil iritsiko.

Beste sexuarekiko berezitasun intelektual hau bereizten duena oinarrizten da hein handi batean fantasiaren kilikagarritasunean eta bizitasunean; fantasia honek, gainerako indarrei dagokienez, gutxiarik ulermenari eta arrazoiari dagokienez, isolaturik ez daki eragiten, baina alderantziz, ez du hain gogara jokutzen, gizonarengan sarri bezala, baizik zentzuei eta sentimenari etorkorrage zintzoki leial segitzen die.

Ezin itxaron daiteke beraz irabazi garbirik emakumearen espiritutik ezagutza edo egia bakoitzean; gehiago erdiesten du, eta bere patua garaiagoa eta nobleagoa da. Zuzenean bere naturaren bidez emana zaio garaiena eta onena espirituaren egintza orokorrean inolaz, aberastasun ugari baten hartzea, pausatze leiala naturan eta edukitasun zuzena, dena eta alde guztietan korapilatze ahalegina, norberaren nia eta inguruko mundua ez bakarrik beti elkarrekin erlazionatzeko baizik bakar batean urtzeko premia. Falta zaio bakarrik bakoitzean beti nahikoa ziurtatzea.

Horregatik du eragin hain onuragarria emakumezko espirituak gizonezkoarengan. Azkenak apetazko nahikeriaren eta espekulatze gogartetsuen bidez zalantzan dagoenean, lehenaren begirada osasuntsu eta naturalak sarri lasaitu eta sendotzen du; hura, aldiz, bere iritzia kontraesanen duten gertakariak ez ikusi bezala eta gutxitzat dauzkalako, goizegi ziur dagoenean, honek zalantzara erakartzen du. Horretaz gain, ordea, gizonak ikusten du, berak astiro eta urratsez-urrats neurtu behar duen bide amaibakoa, azkar eta erdiko urratsei gainetik jauzi eginez elkarren artean bi muturrak lotzen dituen emakumearen spiritutan, bide labur bat bezala zentzuen bidez adierazia, eta horrek gogoraraziko dio etengabe erdietsi behar duen azken eta garaiena, baina bere egite propioan eragotzia izan gabe inondik ere; honetan bera ezmakumezkoarengan kontrajarririko gabeziaren bidez bortitzago lan egitera bultzatua sentituko da.

3. Sexuaren karakter estetikoari dagokionez

Edertasun zentzua bizi eta eraginkor izango bada, espirituaren energiak nolabaiteko erdiko norabide batean sentsualitatearen eta arrazoi soilaren egintzaren artean eutsi behar du, ezein objektuk ez

bere erabilera fisikoaren aldetik ezta bere kontzeptuaren aldetik ere bakarrik behatua izan behar du; aldiz, beharrezko da beti biek batera elkar har dezaten eta aldi berean alda daitezten, eta haren materia bezala kontzeptua irudi bezala, hau da, zerbait egiaz sentsual bezala baina orobat ez gorpuzdun bezala tratatua dadin. Ahalmen afektibo heterogeneoen lotze honi, errealitatearen eta espiritualtasun soilaren arteko erdiko zabuketa honi oso ongi datorkio emakumeen proiektu intelektual guztia maila garai batean. Kultura maila berean gizona baino gehiago daude zuzenduak garaienera eta idealera (hein batean, batasunera gehiago ahalegintzen direlako; hein batean, beraiengan bereziki agintzen duen fantasiak norabide bera duelako, hein batean, azkenik, esfera apalago batean arrazoaren kezka soilaren bidez lasaitzea gutxiago ezagutzen dutelako), eta hain gustu gutxiz apartatzen dira urruti errealitate sentsualetik arrazoizko ideien esparruan geldituz geratzeko. Ezer ezin zaie gertatu ongietorriago berarekin beste edozein batek adina orokortasun eta beharrezkotasun dakarren eta, halere, printzipio garbi ezagutu eta erabat ongi adierazien arabera mekanikoki gertatzen den iritzi bat baino. Horri gaineratzen zaio emakumezko itxurak daukan eta hartzeko gai den kanpoko grazia eta edertasuna, gorpuzkeraren eta hazpegiaren oparotasun eta fintasun ongi banatua, mugimenduen liraintasuna, doinu ederra duen ahotsaren indar eta xamurtasuna. Izan ere, erakargarritasun propio horrek etengabe zentzuak erakartzen dituenez gainera, sentsazioen egoeraren eta erritmoaren gainean du eragina, edo beharbada zuzenago, bera dago bietan oinarriturik. Azkenik elkartzen zaio kanpoko egoera, eta horretan arazo serioak dira gutxien kezkatzen dutenak, gainerako guztiak jolas eta atsedean bezala ikusteko aukera ematen dutenak, eta batez ere espirituaren aisialdiari eta fantasiaren alderrai ibiltzeari hainbeste denbora eskaintzeko modua egiten diona. Horregatik dago emakumeen edertasun zentzua etengabe erne, eta neurri hain harrigarrian bizi; horregatik epaitzen dute dena atsegin-korraren arauari jarraiki, eta beren bizitzako adierazpen txikienean bilatzen dute gustua bilbatzea. Hau da ulertzeko modurik propioenean sexuaren funtsa, eta ezinbestean sortu behar du giza kultura emakumezko karakterrarekin lotzen den bezain laster. Halere, edertasun zentzu hori zuzena eta garbia ote den, edo adibidez ez ote den atsegin soilik dena ederraz nahasten, hori subjektu bakoitzaren indibidualitateari atxikia dago.

Baina edertasun zentzu zehaztu gabe honetatik arte gustu prioraino bide luzea dago, eta luzeagoa oraindik arte jeinuraino. Arteari dagokion guztian, teknika, arau logikoetan soilik oinarritzen den tekniko berezi egin behar da egiatik naturaren imitazioan, eta hau bere aldetik berariaz artistiko edo poetiko denetik, fantasia berezkoaren sorkuntzatik. Lehen eskakizunari buruzko iritziaren zuzentasuna hartara zuzenduriko ulermen kultura jakin baten mende dago erabat. Emakumezko izango da, halere, hau guztia oso hertsiki ez hartzea; aldiz, beste edertasunen oker nabarmenak ere barkatzea. Bigarren eskakizunari dagokionez, emakumeak izango dira beren behatze espirituaren fintasunagatik eta beren ukimenaren fidagarritasunagatik epaile bikainak. Naturatik hain hurbil egoki, ez dago beraiantzat handik erator daitekeen adierazpen arrotzik; hain maila garaian sentikor eta mugikor, poetak beraiengan esnatuko duen sentsazio baterako hari dagokion tonua beren barnean huts emango dute. Hala sakonago eta barneago ulertuko dute; baina orobat zorrotzago juzgatuko dute. Beren sentiera naturalari segitzen diotenez, alde zurretiko iritzietatik libre (gizonak hain sarri okerrera eramaten dituztenak), karakterrik gabeak eta naturala ez denak ez ditu hainbeste atzipetuko. Hemen mehatxuka daukaten arrisku bakarra da beren ebazpenari beharbada esperientzia alde bakarrekoezia, beren indibidualitatetik eratorriegia ipintzen diotela oinarritzat; baina hau bera ere txikiagoa da, beren karakterrak zirkulu handiagoa hesitzen baitu. Emakumezko natura berez eta beretzat gizonetakoaren aldean poetikoagoa da, eta horregatik hutsik gabe artearen eskakizun goren eta azkenerako ere emakumezko espiritua irekiagoa eta makurtuagoa izango da. Ez da murgiltzen sakonegi errealtatean, eta oso gutxitan altxatzen da ideien esparru guztiz garbira. Hemen falta lekiokoen gauza bakarra litzateke beharbada indarra, horrekin irudimen indar berezkoak bere emaitza erabat indibidualki eta, halere, guztiz idealki, aldi berean naturaren eta ideiaeren artean erdian libre zabuka baitauka; eta egiaz alderdi honetatik ere emakumezko epaia ez da beti garbia aurkitzen, sarritxo egiaren bidez gehiago zehaztua artelan baten poetikotasunaren bidez baino, eta maiz erlazio subjektiboen, kointzidentzien edo desberdintasunen bidez erositia. Sexu funtsak iritzi poetiko bat gizonarengan baino errazagoa eta ohikoagoa egiten du, baina haren askatasun eta garbitasun erabatekoari (fantasia sentsazioarekin hurbilegi korapilatzen duelako eta batez

ere ahalmen afektiboei aparteago eragiten gutxiago uzten dielako) eragozpen handiak jartzen dizkio bidean; baina ez, beren iritziari dagokionez behintzat, beren berezitasuna guztiz gordeta, ezin gainditzeko moduan handiak.

Askoz zailagoa da sortzea bera, arte jainua. Jainuak egiaz, giza espirituaren energia askeen eta garaien bezala, indibidualitatearena bakarrik izan behar du eta genero karakterrean aldioro trabak aurkituko ditu; galdetzen, da zeinetan gehiago edo gutxiago? Atal jakin bat inolaz artegintzan emakumeei zalantzarik gabe maila altuan ondo ateratzen zaie. Beren emaitzek bereziki arintasuna eta grazia daukate, maitagarriak eta atseginak dira, eta noski, beti marra batzuetan gutxienez egiazki eta naturatik sakon hartuak. Baina beste auzi bat da ea beraiek, jainuak bakarrik ahal duen bezala, naturaren gaindi erabat altxatu baina, halere, erabat eta guztiz natura den gisan irudi bat jartzeko gauza diren, ea haien fantasiari horretarako indarra edo gutxienez gogorki lege arrotz orotik askatzen duen eta bere buruari legea ematen dion nagusigoa falta zaion, ea beren espirituak objektibotasun premia daukan. Gauza bat dago garbi gutxienez, emakumezko karakter batek bere sentiberatasun handiangoaren bidez espontaneitate handiagoa eskatzen duela jainuaren produkzioarako beharrezko den oreka izateko. Edozein modutan indibiduo bakar batek zailtasun hauek gainditzeak ez du biderik ematen inolako patu orokor bat badagoela esateko. Baina esperientziak erakusten du ezen emakumeak ez direla erraz aritzen, arrakasta erdiesteko bereziki jainuaren bidez posible diren arte formetan oinarritzen diren generoetan, hala nola poesia epiko eta dramatikoan eta arte plastikoan; aldiz, kasik bakarrik, zabalero gehiago eskaintzen dutenetan, gaiaren kilikagarritasunari eta oporotasunari esparru gehiago onartzen diotenetan, musikari eta pinturari, eleberritari eta literatura lirikoari leku gehiago ematen diotenetan, nahiz eta hemen arte gaitasun handiagoa eta ahalegin iraunkorra errudun izan daitekeen genero hori sustatzean.

Inolaz emakumezkotasunak nolabaiteko argitze bat ikasia izan beharko luke, produkzio indar zientifiko edo literarioa posible izan aurretik. Hau gabe subjekturik prestuenetan ere beharrezko argitasuna eta lasaitasuna faltako litzateke eta oraindik gehiago indarra, eta baita joera bat ere pentsamendu edo sentsazio sorta bat ore osotik bereizteko eta bakoitza lantzeko.

4. Sentsibilitateari eta nahimenari dagokionez

Emakumezko sexua bere alderdi berezkoenetik ikusteko, karakter moraletik abiatu behar da. Gizonengan espiritua bezala, hala da emakumeengan karakterra gehienetan ernaia eta eginkorra. Nondik edo handik jasotzen dutena karakterra bihurtuko da; dena pasatzen da berarengan; dena dator handik. Horren bitartez dute beren errealtaterako norabide erabaki eta etengabea. Izan ere, espirituak, bere azken helburuaren arabera gutxienez, orokortasunaren eta beharrezkotasunaren esparruan eta fantasia posibilitatearen erresuman geratzen denez, gustuari eta karakterrari dagokio oraintasun indibiduala.

Lehenbiziko eta jatorrizko arrazoia sexuaren natur-erabakian dago hemen. Bizitza eta existentzia emateko eta gordetzeko, leial izan behar du naturarekiko eta errealtatearekiko, eta hertsiki hari lotu. Egiaz, hasteko antolaketa fisikoan du oinarria honek; baina haren eragina zuzen-zuzen zabaltzen da karakter moralera. Izan ere, naturaren premiaz batera maitasunean sentimendu gizatiarrak eta espiritualak lotzen diren bezalaxe, sentsazio hori isurtzen da izate osoan zehar, eta hari itsasten dizkio bere partikulartasunak. Berbera da gizonaren kasua ere, baina bada desberdintasun garrantzizko bat, alegia, emakumeak direla hartu eta gordetzen duen atala, haiena bakarrik dela ama izateko sentimendu propioa, eta sexuaren karakterra askoz barneago bilbatzen dela beren nortasunean.

Emakumezko sentsazioa, noski, bereizten da gizonezkoarengandik sentiberatasun handiagoaren bidez, baina gehiago oraindik barnetasun handiagoaren bidez. Ez gizonaren ariman sentsazio bakar bat hain sakon sar ezin daitekeela, espirituaren indar eta joera guztiak tenkatzen dituelarik; berezitasun bat, erabat bere propio duena. Baina emakumeen ariman hots egiten dute (irudia zilegi bazait) hari bakar baten dardaretatik gainerako guztiekin batera; beren espiritua ur isil eta garbiaren pareko da, mugimendurik txikiena uhinez-uhin azken mugaraino dardarka baitoa. Horregatik doa bere barnetasuna gehiago arintasunez eta berotasunez lagundua; gizonarena, berriz, gehiago; oldarrez, suz eta ahaleginez.

Barnetasunetik dator emakumezko lotsa, hemendik emakumezko ahalkea datorren bezala. Lotsaren sentsazioa sortzen da beti, bat norberaren baitan murgiltzen denean, gogoeta eta ulermena nahikoa zoharkiro sentsazio eta joeratik bereizita edukitzen ez direnean,

eta kontrajarririko egoera ikusiz beste batean norberaren egoeraren kontraste horretan atentzioa jartzen denean. Gizona bere naturaren arabera hotzagoa eta zuhurragoa denez, emakumezko lotsa nabariaren igartzen da beste sexuaz erlazionatuz. Emakumearen antolaketa fisikoa bezala morala ere prestatua dago biltzeko eta hartzeko, dena berriro barneko egoeraren gainean ispilatzeko. Biak elkartzen dira zirrara horren genero berezian, guk lotsa birjina deitzen dugun horretan, eta iturburu bezala ikus dezakegun horretan, hartatik isurtzen delarik sentimen hau antolaketa osoaren gainera eta haren egoera guztietara, neurri desberdinean eta itxura desberdinetan, ordea.

Gutziz propio dute emakumeek ama sentiera, bereziki fruitua jaio aurretik. Maitasun bat, indibidualitatearen inolako inpresioaren bidez altxatua (izan ere, aitarekiko atxikimendua indartu eta aldatu egiten da bakarrik, baina ez du sortzen sentimendu hori) eta halere oparitze baldintzarik gabekoenaz loturik dagoena, honetan oinarritzen dena, alegia, izate arrotz bat norberarenaz komunikazio hain orokorrean, harreman hain barnekoetan dagoela, non bera haren zati baino ez den, eta izate hau izate bizi eta gizatiarra da, existentzia independente bat bilakatzeko denbora labur batez existentzia arrotz bati loturik dagoena —gisa horretako maitasun bat beraz, gainera hori esperimentzia propioz ezagutzen ez dutenengan itsatsia dagoena, eta noski, haren azken helburu fisikoa ez bakarrik betetzen duena, baizik areago haren eraginekin karakter osora hedatzen dena; emakumeei irekitzen die jabetzearen erabat bestelako zentzu bat, eta irakasten die bide bat erabat bestelakoa kanpoko objektuak berenganatzeko, beraien baitan babesteko eta berriro beraiengandik apartatzeko, eta horretarako gizonak ideia soil bat baino ez du. Hortik dator emakumezko ariman sentimendu sakonago bakoitza, ideia berezi bakoitza bere izatearen zati bat izatea, nekez eta orobat sufritud norberarengandik askatzen dena, eta oparitze gabeztatzaile eta orobat sufrikarioz betearen poza ezagutzea, gizonak oso gutxitan eta une sutsu bakanetan sentitzen duena.

Zirrararen sentiberatasun biziak eta behin egindako iritziarekiko mendetasunak karakter sutsu, erraz pizten dena eta beroa dakarte. Baina kultura intelektualak ulermenaren alderdikeria gutxitzen duenez, eta kultura estetikoak zirrararen materialtasuna, orobat desageritzen da grina hori emakume kultuetan bere arrasto azken eta apenas ezagun daitezkeenetara arte. Karakterrak oso gutxitan sentitzen ditu

guk grina deitu ohi ditugun irabio neurribako eta zakar haiek; ordea, ordaintan aurkitzen da tentsio jarrai garaiago baina orobat berdina go baten egoeran, eta grinaren batek menderatzen badu, hori izango da, subjektuaren ikuspegiaren arabera behintzat, arimako indar guztiak elkar daitezen merezi duen objektu baterako, eta modu noble eta handi batean bakarrik. Gisa horretako grina baten egoeran galdu egiten du orduan, zirkunstantziek hori eskatu bezain pronto, emakumekotasun ederrak ohiko bere herabetasuna, behingoz libre bihurturik, azaldu egiten da, bere burua objektu maitatuaren alde aitortzen du ozen, eta kanpoko begirune konbentzionalen uztarria botatzen du gainetik.

Ez dago emakumekotasunarentzat indiferentzia morala baino gogaikarriagorik ezer. Natura arruntetan gogortasunaren eta jasangaitzasunaren bidez adierazten da hau; hobe eta goragokoetan liberaltasun askeen eta ederrenak agintzen du noski, baina gizonenaren liberaltasunaren parean bereizten da honetan, alegia: sentimendu morala laidotzen duten gauza batzuk ondoan dituztenean merezi duten beste nolakotasun batzuk, hauen estimak ez du haien gutxiespena ezertan gutxitzen, hain zuzen ere aldiz gizona honetan sarri urrutiegi joaten baita, eta berak jasan baino nahi ez lukeen okerra bere egiten baitu. Badira inolaz emakumeak —honek balio du nobleentzat gutxienez— printzipioen juzguarekiko askoz zorrotzagoak direnak momentu jakin batzuetan haien erabilerarekiko baino, eta emakumeko ere bada honetan xamurtasuna eta inkontsekuentzia (biak gertatzen baitira sarri oso) gehiegitzea.

Baldin galdera jartzen bada ea, emozio sentsualak, estetikoak edo moralak, bere osoan harturik emakumeengan lehentasuna ote daukan, orduan ezin da haietan inorengan bereziki baieztatu. Sentsualtasun nagusigoa eta bortitzagoa emakumeengan oro har eta heziketa natural bat dutenean ez da batere propio, eta sexuaren hoztasunari edo pasioari buruzko eztabaida ospetsua puntu honetan lehen iritziaren alde erabaki behar da zalantzarik gabe; estetikoak, baldin sentsualitateari eta karakterrari badagokio, ez du garaituko moralarekiko borrokan; eta moralaren seriotasun lehor eta une berean urria ez da asetzen, bere hartan harturik behintzat, hobearekin eta alderdi asko dituenekin, ohikoa eta egunorokoa zeharo asetzen badu ere. Emakumekotasun ederrean, espiritua benetako grina bero izateraino

sutzen bada, hiru emozio mota horiek elkarrekin bat egin behar dute; orduan, ordea, hori bakoitza halako su indartsu batekin azalduko da, non esperientziarik gabeko epaileak aldi bakoitzean gailentzen dena bakartzat deklaratu duen. Emakumezkotasun gordinari, naturari erabat atxikiari ez zaio arrotz grina sentzualen lasakeria, baina ez da sortzen ez sentzualitatearen sendotasun positiboagatik (hori gizon askeago eta objektiboarengan paregabekoki handiagoa baita) ezta emozioen hustasunagatik eta haiek hertsatu beharko lituzkeen indar kontrajarririko baten faltagatik ere. Horregatik, gizonarengan baino gehiago motelduak izango dira kulturaren bitartez.

Emakumeen beren emozioen batasun osoan bultzatzen duten harmoniak, objektu bakoitzean bilatzen duten eta nolabaiteko berotasunez atxiki behar zaizkion guztitasunak, eta beren sentzazioaren sakonak eta barnekotasunak, denek batera harturik, mailarik gorenean ekarri beharko lukete pentsamolde tinko eta iraunkor deitzen dena, eta alde batetik umorearen aldaketari, eta bestetik nahimenaren jokatzeko modu berariazkoari kontrajartzen zaiona. Horregatik, oinarritzen da gehiago emakumezko moralitatea naturan, gogoetan eta karakter sendotasunean baino; eta horregatik ematen du hain sarritan emakumezko emozioak pentsamolde nobleen borondatezko nagusigo baten ikuskizun ederra, gizonezkoak banan-banan lorturiko borroken bikaintasuna pozez eskaintzen duen lekuan. Beste sexuari ere, edozein modutan, horretarako behar duen indarra ez zaiola falta adibide askok erakusten dute, bakarrik inolaz moraltasun garbian hautsi ezinezko dependentzia bat-batean naturara pasaturiko pentsamoldeetatik gehiago aterako dela legearekiko errespetu zuzenetik baino.

SEXUEN DESBERDINTASUNARI ETA HORREK NATURA ORGANIKOAN DUEN ERAGINARI BURUZ

Azken helburuaren garrantziaz jabeturik, hari eskainia baita hasteko sexuaren desberdintasuna, saiatu ohi da haren analisisia harengan berarengan bakarrik mugatzera. Hartzen bada zuzenean bera ere bere kontzeptuan, naturaren prestaera horren azpian ez da beste ezer uler-tzen, ez bada baliabide derrigorrezko bat ernalketarako, eta, hori beste bide batetik lortu ahal balitz, desberdintasun bat alde batera erraz utz zitekeena, hain zuzen ere, generoaren garapena indibiduoetan eragoz-ten duela dirudiena. Hala behar izanez gero, ordea, azterketa zabaldue-nak gizakiengan arreta gehiago jarriko dio sexu batek bestearengan duen eragin mesedegarriari. Baina gainerako naturan ere ez da feno-meno hori gutxiago nabarmena, eta pentsatzearen ahalegin neurrizko bat aski da sexuaren kontzeptua hertsia ohi den eremu mugatutik hara-tago neurtu ezin daitekeen alor batera aldatzeko. Natura ez litzateke natura hura gabe, haren egiturak geldi egongo lirатеke, eta bai esentzia guztiak lotzen dituen tenkada bai bakoitzak bere energia propioaz armatzeko behar duen borroka gelditu egingo lirатеke desberdintasun honen lekuan berdintasun aspergarri eta iraungi bat jarriko balitz.

Naturaren ahaleginak mugarik gabeko zerbaitera jotzen du. Indar mugatueta bizi den handi eta bikain den oro nahi du bere egin, salbuespenik gabe, eta osotasun batean bateratu gainera. Baina indar horiek beti mugatuak eta denboraren legeetara lotuak daudenez gero, batak, eginkor den neurrian, bestea altxatzen du, eta ezinezko da

denak *batera* obra dezaten. Baina horrek ez du balio bakarrik bere indarrei bakarka dagokienez, baizik areago bere bi eragin motei dago-kienez, bakoitzaren garapenari eta osotasunaren loturari dagokionez. Indar jarduerak *partzialtasuna* badakar, hara jotzen baitu gaiaren bikaintasunak, forma lotzaileak *aniztasuna* eskatzen du, eta eskakizunetako batak gertatzen den unean bertan desegiten du derrigor bestea. Beraz, mugatutasunaren muga guztiak arren, eragite amaibako bat sortuko balitz, ez legoke beste erremediorik ez bada une berean elkar jasan ezin duten berezitasunak indar berezietan edo, besterik ez bada, indar beraren egoera desberdinetan banatzea, eta premia baten bortxaren bidez elkarrekiko eragin batera behartzea. Bi ezaugarri hauek dira, izan ere, sexuaren kontzeptuak bere baitan hartzen dituen bakarrak. Bada, hura naturan egiaz azaltzen den bezala bilatzeko abiatzen bagara ernalketaren kontzeptutik, hartuko dugu, hau gogoan hartu gabe, bere orokortasun betean; eta orduan ez du besterik adierazten ez bada indar desberdinen arteko ez-parekotasun guztiz propio bat elkar-turik bakarrik osotasun bat egiten dutena, eta elkarren premia bat oso-tasun hau elkarrekiko eraginaren bidez errealitatean gauzatzeko.

Elkarrekiko eraginean bakarrik oinarritzen baita naturaren misterioa. Gai desberdina korapilatzen da, korapilatua bere aldetik berri-ro bihurtuko da osotasun handiago baten atal, eta amaigabe batasun berri batek hartzen du betetasun oparago bat, askotarikotasun berri bakoitzak zerbitzatzen dio batasun ederrago bati. Gaiak eta formak, era hain askotan elkarrekin bilbatuak, beren esentzia trukutzen dute, eta inon ez dago ezer eratzen dutenik edo eraturik. Horrela hartzen du naturak batasuna eta betetasuna, bi ezaugarri itxuraz kontrajarri baina oso hurbil senidetuak, haietarik batak espirituari bake onuragarria eskaintzen diolarik besteak pentsatze aktibora tenkatu duenean.

Indar ezin zenbatuzko honen eragite miragarriak liluraturik, zalantzak ditu giza espirituak inoiz iluntasun santu honetan sartzeko. Halere, bere naturaren bidez bultzaturik sentitzen da horretan ahale-gintzera. Ahalegina guztiz ustel ateratzen ez bada, eraginaren baterake-tatik indar eragile bakoitzera aldatuko du begirada. Han esku hartze askotarikoen bidez itxura arrotz eta anitz desberdinetan azaltzen dena, hemen ikusten du berriro, bakoiztua, bere itxura propioan. Izan ere, lotura bakoitza naturan esentziaren barneko izaeratik ateratzen da, eta eragite isilak ez du eteten inolako nahikeria arbitrario-rik. Elkarrekin

bateratzen dituenak bere esentzian bertan darama bateratze horren premia; eta indar eragilearen karakterrak zehazten ditu naturaren agerpen guztiak. Baldin bidea era horretan errazturik geratzen bada, ezin esan daiteke aldi berean arindu denik. Garrantzizkoa da oso karakter ezkutu hori sumatzea, ez baita eusten gauza baten azalpen sarri hala-beharrezkoen muinean, baizik haren esentzia barnekoena egiten baitu, ez da ahituko ezaugarri bakoitzaren zenbaketa rapsodiko baten bidez, baizik bere batasun osoan hartua izan behar du. Haien azken lotura denez hain zuzen ere, ezin du onartu apartatzerik batere, barneko ikusmenerako da kanpoko itxura begiarentzat den gauza bera, eta azaltzen du kasik zigortu egiten duen sentsazioa, kontzeptuak aztertzen baititu eta frogen bidez egiaztatua izan behar baitu.

Karakter hau bezala, elkaturiko indar guztien azken emaitza dena indarrak elkartuz bakarrik uler daiteke. Sentiberatasunak pentsamenduarekin itun harmonikoan biek batera jardun behar dute. Baldin ulermenak natura eta esentziaren eragiteko modua kontzeptuen arabera aztertu badu, fantasiak bere agerpenaren kanpoko irudia, eduki haren forma ulertu behar du, eta espirituak emaitza bikoitz hau korapilatu nahi duen batasunak bakarrik erantzun diezaioke hein batean bilatzen denari. Indar baten inolako agerpenik ez du zapuztu behar ikerleak, eta bere eraginkortasunaren esparru guztian zehar segitu behar dio. Gorputzen munduaren azterketan mundu morala ezagutu behar du eta honen azterketan hura ezagutu, eta baldin bere ahalegina abiatzen bada naturaren ekonomia handira edo gizakien inguru txikia-gora, ez du galdu behar osotasuna bere begien aurretik. Objektuen kanpoko itxura sentsibleak ipintzen dio, izan ere, eskuan ispilu bat, bere begiak han barneko bere izaera ikus dezan.

Beste ezer baino gehiago bere natura morala oinarritzeko eta nobletzeko behar du gizakiak bere inguruko natura fisikoa ere astiro eta seriotasunez behatu, eta bere aurreikuspenak are erraztu ere egin dio ikerketa hori. Bere esentziaren gorputzeko atalean dagoeneko aurkitzen du idazkera ezin garbiagoz adierazia bere atal moralean izatera ekartzen saiatu behar duen hura. Inolaz behatzailearen begia oso gutxitan luzatzen da nahikoa idazkera horren ezaugarrietan. Fantasiaren irudi hutsek atzipetuko ote duten kezka zuhurrek erauzten dute sarri handik arreta, eta askoz sarriagotan oraindik zentzuaren fin-tasun faltaz ernai egotea bera eragozten dio. Halere, ezin uka daiteke

natura fisikoak moralarekin osotasun handi bat baino ez duela osatzen eta bietako agerpenek lege berberei obeditzen dietela. Gorputzaren mundua ikertu eta espirituen barneko bizitza aztertu ondoren, azkenik geratzen da bi erresuma erabat desberdinen arteko erlazioari begiratu bat botatzea, bietan agintzen dutelarik, naturaren osotasunaren korapilatze gorenara osatzen duten legeak bilatzeko. Lege hauek inolaz beti oso gutxi eta erabat sotilak izan behar dute, berezi diren guztien aniztasun aberatsa beren artean konpondu behar baita. Horren bidez baka-rrik egingo zaio gizakiari errazago haiek beren atalean obeditzea eta bere esentziaren ezkutuki ezkutuenak haietan hobeto argiturik ikustea. Izan ere, bereziki giza emozio eta grinaren alorrean badira sakonerak, ikerlariak arrazoitu ezin dituenak baldin begirada hara zuzentzen badu zuzenean eta bakarrik. Gizakiaren natura guztiz fisikoarekiko senitar-tekotasuna hurbilegi denean, dena natura moralaren bitartez argitzeko posibilitatea ahitzen da. Horregatik, aldi berean, haiengana jo behar du, eta eraketa fin eta matazatsu batean ilun azaltzen dena bilatu behar du marra handi eta xamurretan adierazia baitago. Baina nora joko du hobeto ez bada natura berarengana bere ekonomia ez hain matazatu bai ordea handiagoan? Han ikasi behar du gizakiak bere burua hobeto ulertzen eta han berarengan lore finenak ernarazten dituen arbola bilatzen. Hau aurkitu badu, ez da hain zaila izango eraikuntza harri-garria azken adarreraino jarraitzea. Hau da ikuspuntua natura fisikoaren ezagutzaileak eta moralaren ikerlariak elkarri eskua non eman goiera malkarrera igotzeko, handik ikusten baitu bakoitzak bere esparru propioa itxura berri eta zinez egiazko batean. Goiera horretako gailur handienera iristea giza indarrei eragotzia egon beharko luke inondik ere. Baina naturaren ezagutza beti eta beti egiatik urruntzen doa, baldin gutxienez haren bila saiatzen ez bada, eta hori ez bada jarduterakoan bi erresumetako bakoitzean begien aurrean tinko eusten duen ikuspuntua.

Indar amaikorrez osaturik dagoelarik, badaki naturak bere formaren bidez amaibakotasuna eskuratzen. Haren legeari obedituz, gutxitzen doan esentziak uzten du atzetik, bere jarduerako eszenatokitik apartatu aurretik, berri bat bere lekuan, eta bakoitza horrela aldatzen delarik osotasunak segitzen du batasun hautsiezinean. Generoen iraupenaren aldeko arreta hau da, indibiduok iragankorrak direlarik, naturaren esparru osoaren gainean botatako begirada orokorrenari

azaltzen zaion lehen agerpena. Baina ez dago iraupen soilera mugatua, eta bere asmoa, honetan, aldi berean, zerbait garaiagora zuzendua dauka. Esentzia mugatuan bikaina ez delarik bat-batean sortzen, igozo doa hobean mailaz maila. Horren bidez posible egin du, hazia lehenbizikoz bota ondoren, bere eskua bere obratik kentzea, eta begirada lasaiez esentzien ilaran luzatzea, katea amaibako bat bezala, berez, eta halere, beti helburu batera joz garatzen baita. Guk sumatuko ditugun lokarri guztien artean gorenak, anitzenak eta barnekoenak dira azken helburu bikoitz honetara jarriak; eta lor baleza giza espirituak karakterraren ikerketaren bidez han diharduten indarrak zehatzago ikustea, posible izango luke orduan misterio sakon hori eskubide handiagoz mirestea.

Ernaldi guztietan dator lehendik ez zegoen zerbait. Sorkuntzak bezala, ernalketak existentzia berria dakar, eta harengandik bereizten da berri bezala etorriari lehendik bazegoen gai bat aurretik egotean bakarrik. Premia hau arren, sortuak, badu, halere sortzailearengandik libre den bizitzako indar bat, eta hau haren bitartez ezin argitua baita, misterio ezin asmatuzko segitzen du nola datorren handik existentzia hau. Garatzearen edo haztearen bidez sortzen dena norena den, haren zati bat da, eta esku arrotz batetik hartzen du bere indar bizigarria. Baina ernalketa bidez argitara datorrena esentzia bat da berez, bere kabuz dauzka bizia eta eraketa, eta bera sortua izan zen bezala berak ere bere aldetik sor dezake. Ernaltzeko gaitasuna natura guztian zehar barreiatuak badago ere, halere ez dago indar bat bizitza eta eraketa mekanikoki gara dezakeenik; ez dago jakintzarik harako bidea iragar dezakeenik. Horregatik dira ernaldia eta prestakuntza desberdin, eta esnatzea bakarrik dei dakioke; ernalduaren ondorengo prestakuntza berari dagokio, eta ez erneltzaileari. Ezaguna da ernaldiaren aurretik doana, eta ikusten da handik datorren existentzia; nola lotzen diren biak? Hori oihal ilun batek estaltzen du. Ernaldia ernalduaren aldetik esnatzea den bezala, esentzia erneltzailearen aldetik da une bateko sentimena, ez indarren ahalegin handienaren bidez bakarrik, baita bereziki guztien bateratzearen bidez ere markatua dagoena. Bizia eta organikoa biziartzatzen dituen indarra bera berez bakarra denez, bere partetik bakarrik sor daiteke, eta ez soilik izate ernerazle orok bere parteko indarra harmonia gorenerako jarria sentitzen duela, gisa berean da ernaldi bakoitza bi printzipio desberdinen lotura, hauek, bata eginko-

rrago izaki eta bestea jasankorragoa, ernarazle (hitzaren zentzurik hertsienean) eta hartzaile dei daitezkeelarik. Hala naturak bere umeei, amaidun izate bezala ez zaienez zilegi dena batera edukitzea, ahalegin goren bakoitzak bakarrik asetzen duen batasuna ekarri die gutxienez gogora, eta existentzia apartatura kondenatuak daudela ahaztuko ez duten uneak eskaini die beren gurariari.

Ez da jarri gorputzen munduan generoen iraupena bakarrik elkarren arteko ernaltze eta hartze horren esku. Zirrara garbien eta espiritualetan bide bera egiten du, eta pentsamenduak berak, sentsualitatearen azken seme finenak ez du ukatuko jatorri hori. Ernalketa espirituala da jeinua. Bera agertzen den lekuan, dela artistaren fantasia, edo ikerlariaren aurkikuntzan, edo jardunean dabilen gizakiaren kemenean, sortzaile gisan agertzen da. Existentziak bere ernaldiari zor diona, lehenago ez zegoen eta ez da orobat lehendik zegoenetik edo ezagunetik ondorioztatua. Pentsatzearen arloan egiaz (hor erlazio logiko unibertsalak agindu behar du) agerian jarriko da beti haren eta lehendik dagoenaren arteko lotura, baina bide hori ez da hargatik hura aurkitzeko lekua. Egiazki jeniala dena, izan ere, ez da azkar gogoan hartu eta elkarren artean zeharka loturiko proposizioen inolako ondorioa, benetako aurkikuntza da, era berean (era honetakoa ez da hori) jeinuaren gisako moduan sor badaiteke ere. Aldiz, jeinuaren benetako marka bekokian dakarrena bizitza organiko propioa duen izaki propio baten pareko da. Bere naturaren bidez agintzen ditu legeak. Ez du ematen, ulermenak astiro kontzeptuen gainean eraikitzen duen teoriak bezala, araua hizki hiletan; aldiz, zuzenean bere beraren bitartez ematen du, eta harekin batera baita hura betetzeko akuilukada ere. Jeinuaren obra oro, izan ere, berriro da zirrargarria jeinuarentzat, eta horrela bere ondorea biderkatzen du.

Entusiasmoak sortua, ezin ulertuzko zaio jeinuari berari bere eraginkortasun propioa. Ez doa zuin hautsietan barna, han eta hemen azaltzen da, baina alferrik bilatzen genuen haren urrats ibiltariaren arrastoak. Horregatik ezin da asmatu, eta berak ere apenas berma ahal izango duen ea bere produktua legerik gabea edo legearen araberakoa izango den. Azken hau zeharka bakarrik aurrera daiteke: *bera legearen araberako egiten denean*; eta ez zaio onartzen bestelako eraginik ernelduaren gainean ernaldi unean, ez bada bere beraren, erneltzailearen jokaeraren bidez. Une horretan bere indar guztiak

bateraturik daudenez gero, ez da geratzen bestelako behatze alferrikakoegirik, edo jokabide hotzik gehiago. Automatismoa eta sentiberatasuna, biak batera daude eginkor harengan, eta bi natura desberdin hauen ezkontza da gogoan daukan gauza bakarra. Automatismoaren eta sentiberatasunaren arteko eraginaren bidez bakarrik da posible norberaren barnetik ateratzea eta norbera, halabeharrezko guztitik apartatuta, bere gogoetaren objektu bihurtzea. Bereizte hau, ordea, ezinbestekoa da produkzio jenialerako, bere arrazoiaren sakonetik ateratzen baitu jeinuak ezinbestekoa, eta bere existentzia enpirikoaren ingurunetik erabat atereaz bereizi daiteke. Horregatik eskatzen du horrek, kreatzaile izan nahi duen heinean, objektibotasun handiena, hau da, premia izatera pasatzen den gaitasun bat ezinbestekoa jasotzeko. Baina hau bere barnetik sor dezake bakarrik edo, hobeto esanda, bere existentzia subjektiboa eta halabeharrezkoa ezinbesteko bihurtu behar du. Ez du erdietsiko artistaren eskuak maisulanik, baldin bere fantasiak berak trazuak garatuz proiektatu duen edertasun ideala benetako irudi bezala atxiki ezin badu; ez du filosofoak ideien kopurua aberastuko duen aurrerakuntzarik egingo, baldin bere espiritua sakontasunetik atera zuen egiak bere barneko zentzua kanpoko objektu baten gisan mugitzen ez badu; eta bizitzako egokiera zailetan ez ditu ari dabilen gizakiak elkarren kontra eragiten duten erresorteen gorapilo guztiak jenialki askatuko; baldin bere ni propioaren munduaz gainerik ez badu ahazten edo, hobeto esanda, bere nia mundu baten ingururaino hedatzen.

Existentzia berria esnatua izango den unea baino errazago da behatzeko haren aurretik dagoen egoera. Sagaraketa sortzailearen jokaera horretan, edozein delarik ere produkzioaren mota, gainezka egiten duen betetasun baten sentsazioa loturik dago gabezia premiatsu batenarekin. Indarra bere barnean biltzen da, ez da sentitzen ez aberastago eta handiago, ez bizikiago mugitu, ez indartsuago egintza bikainerako. Sendotasun hori gogoratzeak berak ondoren sutsu esnatzeko aukera ematen dio. Baina mugimendu horretan datza bakerik ematen ez duen irrika baten muina, produkzionako kilikatzen duena. Berez, bere aberastasuna gogoan hartu gabe, bera den bezala, aski ez izaki, beste zerbait bilatzen du, harekin bateraturik erabateko osotasun bat eratzen duelarik. Bere bilatzea aurkitze zoriontsuak koroatzen badu, existentzia bakoitza xahutzen duen bateraketa baten bila ahalegindu-

ko da. Sortzen da uhin bat, hara eta hona mugitze bat, eta irrika hark garaiera samingarri bat erdiesten du. Itxarote guztia une honetan produkziara dago tenkatua, eta bere burua sorkuntza berriaren alde pozik opaltzeko mailan erazten du norberaren nia. Existentzia goren honetara ino altxatzen da existentzia. Momentu honen gainean oinarritzen da emaitza espiritualaren beraren sorkuntza. Behin artistaren fantasiak irudia bizirik sortu badu, maisulana bukatua dago, baita bere eskua une horretan bertan elbarrituko balitz ere. Benetako aurkezpena une erabakigarri haren oihartzunari dagokio bakarrik.

Harritzeko fenomeno da, ezen, hain beharrezko diren indarrak eta elkar hain bortizki bilatzen dutenak izaki, apartaturik existitu behar dutela, eta loturarako jarriak ezin duela bat izan. Alde guztietan ikusten baitugu beharrezko direla bi indar desberdin ernaldirako, horiek nahi luketela, naturaren atal batean bezala, esentzia batean loturik, edo bi desberdinetan banaturik egotea. Sortua sortzailearekiko beti era bereko eta antzeko denez, harrigarri gertatzen da zergatik ezin etor daitekeen bizitza bizitzatik zuenean, indar batetik beste bat. Eta hemen indar soilaren kontzeptuak kontraesanen duenik ezer ez daukanez, haren mugetan bilatu behar dugu hori.

Esentzia organiko oro arnasten duen indar biziak gorputz bat eskatzen du. Gorputz hau eta indar hura etengabeko elkartasunean daude, beren artean aurrera eta atzera obratzen dutelarik. Horrela esentzia organiko orotan loturik dago egitea eta kontraegitea. Ernaldiaren auzia inolaz ulertezina bada ere, edozein modutan garbi dago gutxienez sortua sortzailearen jokaera batetik datorrela eta, jeinuaren produktuek bereziki nabarmen erakusten duten bezala, haren antzekoa dela. Esentzia organikoaren sorkuntzak, hartaz, jokaera bikoitza eskatzen du, egitera jotzen duena bata eta kontraegitera jotzen duena bestea, eta hori indar berean eta aldi berean ezinezko da.

Hemen hasten da, beraz, sexuen desberdintasuna. Indar sortzaileak gehiago jotzen du egitera; hartzaileak, berriz, gehiago kontraegitera. Lehenbizikoak biziartzten duena *gizonezko* deitzen dugu; bigarrena arnasarazten duena, berriz, *emakumezko*. Gizonezko orok berezkitasun gehiago erakusten du; emakumezko orok, sentsibilitate jasantzaile gehiago. Halere, berezitasun hau jokamoldean datza, ez gaitasunean. Izan ere, nola esentzia baten indar eginkorra, hala jasantzailea ere, eta alderantziz. Jasan soilik egiten duen zerbait ezin pen-

tsatuzkoa da. Jasate orori (kanpoko eragin bat sumatzea) dagokio ukitzea gutxienez. Eginkortasun gaitasunik ez daukana, ordea, ez da ezer; zulatua izango da, ez ordea ukitua. Beraz, alde guztietan kontraegitea adina jasatea. Indar eginkorra (gogoan hartzen badugu hemen mugatuaz ari garela) denboraren baldintzen azpian dago eta gai bati lotua, eta honekin batean jasaten duen zerbaiti. Froga sakonagotara jo gabe, gizakiarengan ikusten dugu berezkotasunak eta sentikortasunak elkarri erantzuten diotela beti. Espiritu berezkoena da orobat sentikorrena ere; eta bihotzak, inpresio orokiko sentikorrena denak, itzultzen dio bakoitzari energiari bizenaz. Beraz, norabide desberdinak bereizten du hemen gizonezko indarra emakumezkoetik. Lehena hasten da, bere berezkotasunari esker, eragitearekin; baina, bere sentikortasunari esker, hartzen du kontraeragina kontrara. Azkena kontrako bidetik abiatzen da, hain zuzen. Bere sentikortasunarekin jasotzen du eragina, eta berezkotasunaz erantzuten dio.

Karakter bikoitz hau adierazten du, halaber, bietan produkzioaren aurretik zuzenean doan egoera desberdinak. Bietan gaitasun oparo baten sentiera gabetia samingarri batekin uztarturik dago. Baina gizonezkotasunak agintzen duen lekuan gaitasuna da: bizitzaren indarra, gaiaren txirotasuneraino soildurik; eta gogo premiatsuak energiari une berean egintzarako gaia eman eta kontraeraginaren bidez bere sentikortasunari zeregina ematen dionez, intentsitate sutua arinduko duen esentzia batera zuzendua. Emakumezkotasunaren ingurunean, aldiz, gaitasuna da: betetasun oso oparo bat, aberatsegia bere indar propioa bakarrik aski ez delarik bere biziarazpenerako; bien bitartean, gogo premiatsuak esentzia bat bilatzen du barneko gaia esnatuko duena eta norberaren indarrari, eragitearen bitartez berezko kontraeraginerako behar duenez, sendotasun handiagoa partituko diona. Lehen kasuan bada sendotasun bat, puntu batean bildurik, handik *kanporaka* jotzen duena. Bere baitaz kanpo bilatzen du gai bat bere egitearentzat nahikoa zeregin aurkitzen ez duena. Azkenean gaiaren betetasun bat badago, objektu arrotz bat bere esentziaren *barruko* puntu batean hartzeko eta harengandik batasuna jasotzeko irrika duena. Hala asetzen du indarretako bata bestearen gogo, eta biek elkar bilbatzen dute bata bestea osotasun harmoniatsu bat osatzeko.

Ernaldi espiritualetan ere ez dugu hartzen gogoan elkarrekiko eragin hau soilik, baizik bi sexu desberdinen desberdintasun hori bera.

Erabat bestela dago eratua karakterrei dagokienez, ernaltzekoak hartzekoak ez bezala baitaude eratuak. Zail da, noski, berezitasun hain finak bizitza intelektualean eta moralean sumatzea, eta askoz zailago oraindik adieraztea. Jainua, gizonezko indarra daukan lekuan, han izango da, ernalduz, berezko ulermenaz eraginkor objektu idealaren gainean. Baina baldin hark emakumezko betetasuna badu, hartuz, objektu horren eragina fantasiaren pisu gehiegiagatik gogoan jaso eta erantzungo du. Bereziki nabarmentzen da bereizketa hau barneko jokaeran produzitzerakoan bertan; baina begirada adituari ez dio ihes egingo inondik ere produktuetan. Izan ere, baldin jainuaren egiazko obra bakoitza fantasiaren eta ulermenaren arteko kointzidentzia aske, bere izatean oinarrituriko eta bere gisan ulertezinezko baten fruitu bada, behin gizonezko arrazoiak sakontasun gehiago, behin emakumezko fantasiak betetasun oparagoa eta grazia sustatzaileagoa ziurta diezaioke. Baina sexu desberdintasunak, naturaren bereizkuntza bezala, nahimen formatzailearen bidez, batasunera ahal beste altxatua izan behar duenez, bere prestakuntzaz zerbait ulertzen duen jainua inolaz saiatuko da bi indar horiek, biak erabat nahasteraino, oreka garbi batean zehazten. Hemen baino nabarmenago azaltzen da bereizkuntza hau bizitza praktikoan. Bertutetsuak, legearen begirunearen sentsazio bikainaz konbentzituak, bere betebeharraren praktikari bere zoriona eta bere bizitza eskaintzen dion lekuan, hantxe sortzen da egintza handi eta heroiko bat gizonezko indarrarekin. Zentzu morala sendotasun irmoan sentitzen da, egitekoaren ahotsak deitzen dio egintzara, eta beharturik sentitzen da hura segitzera. Aldiz, bertuteak, fantasiarekin uztarturik, bere graziaren bidez zirikatzen duenean, han sentsazio moral hura gehiago da hartzaile sortzaile baino. Irudimenaren eskutik hartzen du irudi mesedegarria, barnekotasunez bat egin du harekin, eta saiatzen da hura bere esentziarekin bateratzen; eta horrela da sortzen den egintza bertutetsua ez bakarrik indar guztiz libre eta autonomo baten obra, baizik areago ostera eragiten duen batena.

Indar sortzaile eta hartzailearen berezitasun hau bera, bere egingortasun garaieneko uneetan igartzen duguna, bere existentzia osoan zehar azaltzen da. Alde guztietan mintzo da lehenbizikotik indar produzitzailea emate askearen bidez betetasun propiotik; alde guztietan bigarreanean agerian dago ulertzearen indarra jasoaren inguratzekoaren bidez. Baina karakterraren existentzia barearen gaine-

tik arretarik gabe aurrera segituz, gure begirada beti azkartzen da haren eraginetara, hain zuzen ere arretarik eskaintzen ez zaion bizitza hori da naturaren indarrek beren iraupena zor diotena. Zer da, izan ere, existentzia hori ez bada eraginkortasun etengabeko bat, atergabe guk bere ibilbidearen azken zatian bakarrik sumatzen dugun egintza prestatzen duena, ahalegin jarraituak indarra azkenik gainezkatzeraino hazten denean? Gorputzezko eraginak zentzu zabarrera bakarrik ukitzen du; aldiz, bizi den orok zuzenean, bera izan izatearen bitartez zabaltzen duen eragin fin baina indartsuak segituan ikusten ez den arnasa isurtzen du. Halaxe, bada, indar sortzaile eta hartzaileen esku ez bakarrik dago jarrita umeketaren egitekoa, ez bakarrik gure begien aurrean gertatzen den ernaldiarena; baita kontserbazioa ere, eta mugatuaren kontserbazioa etengabeko heriotza denez, hari atxikirik dagoelarik beti bueltatzen den bizitza, guri ezkutu geratzen zaigun elkarren arteko eragina da bere egintza. Naturak umeketaren helburua beste bide batetik lortu nahi balu, ezingo luke elkarren arteko eraginik gabe gelditu, sexuen indarrak han osatzen baitute elkar.

Naturak, baliabide mugatuez mugarik gabeko helburuen atzetik baitabil, indarren gatazkaren gainean oinarritzen du bere eraikuntza. Mugatu orok desegintzara jotzen du, eta berez aski duenaren egintza esparruan bizi da bakarrik bake zerutiarra. Eta bataren jarduera xahutzaileari besteak kontrara ahalegin behar dio, eta biek elkarri beren azken helburua eragozten dioten bitartean, naturaren asmo oztoporik gabea betetzen dute.

Besterik gabe berak irabazten du garaipen hori, baldin bere zabalero osoan eta bere aro guztien iraupenean zehar behatzen bada; edo hobeto esanda, hori bere legeen edukian dago. Aro bakoitzean segitzen du borrokak aurrera, eta bete-betea falta delarik, ahalik eta garaiena erdietsiz ase behar du. Eragozpenak urrundu ezin daitezkeen, indar batek bestearen hutsarteak bete behar ditu; eta jarduera oro azkenik ahitzen denez, baina jarduera-eza bazterturik dagoenez, bakeak eraginkortasunaren trukean oinarritu behar du. Indar gorenak, izan ere, baldintza kontrajarrien bateratzea eskatzen baitu. Ahalegin nekezinezkoaz lotu behar da egonarri irmoa. Baina ahalegina su bat da, bere burua xahutzen duena; bizitasuna ez galtzeko, eragozten duten pila guztiak alhora utzi behar ditu, eta berak daukan gaia bortizki estutu. Izan ere, baldin indar batzuk pilaren bitartez bortitz bihurtzen badi-

ra —eta horren adibide nabariak natura hilak bereziki eskaintzen ditu—, han berez bakarkako askoren indar ugariak, halabeharrez komunean dauden atalek, lan egiten dute. Baina ahaleginak hartzailetasuna kanpora uzten duenean, berak hartzen du bake freskagarriaren dastapena. Aldiz, egonarri iraungarriako beharrezko den oposizioaren sendotasunak eskatzen du gaitasun gehiago eragin arrotza hartze-ko atzera botatzeko baino, prestutasun gehiago jasateko, eta hartaz gai aberatsago bat. Baldin ordea, bere baitan uzkuriturik, egintzarako energia arrotzaz badago hain jarria, ahalegin autonomo propio baten posibilitatea bera debekatzen du. Horrela ixten dizkie literatur sorkuntzak, su garretan irudiak irudiaren gainean sortzen dituenean, zentzuak kanpoko inpresioei; eta horrela debekatzen diete hauek, berotasun biziak errealitatea hartzen dutenean, haiei irteera ausarta asmakizunaren lurrera.

Gizonezko indarra, biziartzeko zertua, berez eta mugimendu propioarekin pilatzen da. Berak daukan gai guztia batasun hautsi gabera behartzen du. Zenbat eta aberatsagoa eta oparoagoa hura izan, hainbat eta nekagarriagoa da ahalegina, baina hainbat handiagoa orobat eragina. Gaia ezin eraman daiteke loturara bere natura propioaren bitartez. Harengandik, printzipio agintari batetik bezala, norabidea hartzen du. Hala, bere, baitan pilaturik, kanpora ere eragiten du. Herstura bortitzak eginkor izateko biziaraia, kutsatuko duen objektu bat bilatu nahi du; baina zeharo automatismo bakarrik izaki, une horretan sentsibilitate orori itxita dago. Gisa horretako ahaleginari nekeak segitzen dio, eta bortizki arnasten baina berehala desagertzen den arnas baten pareko da. Gainbehera datorren sendotasunaren sentsazioarekin esnatzen du harengan sentsibilitatearen nahia, eta lehen kreatzaile zen lekuan pozik hartzen du atsedean. Hala da, bera dena, bere bitartez eta bere forma bereziaren bidez. Bere bularra adore ausartuak entusiasmatzen dion gizona bere baitan hertsirik sentitzen da. Esperientzia asko pilatu du espiritu ohartuarekin bizitzaren bidean, ideal garaiak bere barnetik sortu ditu; sentimen oparoek mugitzen dute, batean berak irrikatzen duen sorkuntza berriaren duintasunak, bestean bera nobletzen saiatzeko den izatearekiko erruki partehartzailak. Irudi bikain hauetarako guztietarako ez dauka nahikoa leku erraietan, eta eginkortasun egarri beroak astintzen du. Bere irrikari dagokion mundu bat bilatzen du. Bere dastamenari buruzko pentsa-

mendu ororen aurrean ez-berekoi eta urrun, bere indarraren betetasunaz ernaltzen du. Hantxe dago sorkuntza berria, eta poztasunez hartzen du atsedean bere haurrei begiraturaz.

Emakumezko indarra, erreakziorako zertua, biltzen da objektu arrotz batean eta erakarpen arrotzaren bidez. Berak betetasun oparotan daukan gaia natura propio baten bidez bateratua denez gero, gehiago eragiten du gaitasun jasantzaile baten bidez, egintzaile batez baino. Bere oparotasunaren mailarekin batera hazten da eraginaren edertasuna; ez ordea, orobat, ahalegina. Hau, aldiz, era askotako ukipuntuen bidez izango da arindua, eta bere maila elkarrekiko harmoniaren mende dagoen inguruketaren barnekotasunaren bidez zertzen da. Emakumezko indarraren gaiak gutxiago behar izaten du printzipio bateratzaile baten nagusigoa; aldiz, bere mota berekoen bidez lotzen da. Batasun honetan itzultzen du eragina beti beroagoa den suaz, azkenik bere eginkortasun guztian tenkaturik dagoen arte. Baina bere natura propioak erreakzioa jasateko gaiago egiten duenez gero, eta gizonetzkoa xahutzen duen biolentzia goritik libre dagoenez gero, bere eraginaren astirotasuna iraupen luzeagoz saritzen du. Hala, bere gaiaren izaerari zor dio beraren bitartez prestatua eta babestua den bere eraginkortasunaren zati bat. Sentimendu oparoek bultzaturiko eta lehia noble batek animaturiko bihotz bat aberats sentitzen da bere baitan; baina animo ausarta galdurik bere buruari norabide propio bat emateko, irrika artega batek torturatua izango da. Bere buruarentzat ulertezinezko, eta gainezkotasunaren magalean pobre, bere sentimenduen korapilo kateatuak askatuko dituen izate bat bilatzen du. Zenbat eta sakonago egon ezkutaturik sentimen nahaspilatu honen iturburuak, orduan eta nekezago aurkitzen du bere gogoaren bermatzea, baina orduan eta barneago atxikitzen da aurkituriko azalpenari. Zenbat eta luzarago hartan geratu, orduan eta ukipuntu gehiago aurkitzen ditu, eta ez du uzten hazia fruitu bete izatera heldu ez den arte.

Ez, beraz, bere mailaren baizik bere generoaren arabera baka-rik dira desberdin beren artean indar produzitzaileak eta jasotzaileak. Hartze soila ez da jasotzea inolaz; baizik honen azpian dago ematea sortzearen azpian bezala. Biak, produzitzea eta jasotzea dira energia garaiago eta indarrez beteagoak, biak sortze bat dira ematearen eta hartzearen bidez. Betetasun emankor propioak lagun egin behar dio harengan uko egiteari, honengan inguratuz hartzeari. Bi indarren

benetako karakter bereizkuntza honetan datza, alegia: jasotzaileari gai gehiago, gorputz gehiago dagokiola, produzitzaileari arima gehiago, baldin arimak printzipio autonomo oro adierazten badu. Hain zuzen ere desberdintasun horren bitartez naturaren eskakizuna asetzen dute. Baldin gizonezko indarraren bortizkeria mehatxagarriaren desegiteari beste bat kontra jarri beharko balitzaio, ezin izan zitekeen hau haren era berekoa. Elkarren arteko ahitzeak orduan gatazka bukatuko luke, eta orduan, naturan alde guztietan bezala, menderatuak bizitza berria hartuko luke garailearen eskuetatik. Betetasun gainezkatzailearen aurrean premia bat sortuko litzateke; baina naturak bere alorrean ez nahikoa pobrezia ez nahikoa autosufizientzia onartzen ez duenez, premia berriro aberastasunarekin loturik dago. Gizonezko orok *energia saiatzailea*, emakumezko orok *egonarri irmoa* daukatenez, bien arteko eragin etengabeak eratzen du naturaren *indar mugarik gabea*, eta haren ahalegina ez da ahitzen, eta haren egonaldia ez da geldotasunean hondatzen.

Produktzio orotarako bi gauza eskatzen dira, beraz: indarraren energia bizia, puntu bakar batean biltzen dena, eta gaiaren betetasun bizia, bere ekarri guztia bere puntu guztietan jasotzen duena. Hura, ondoren, bere naturaren arabera, apartatzera zuzendua izango da, bera berbera ez den orok bere eraginkortasunean eragozten diolako: hau batasunera zuzendua izango da, alde guztietatik eragiten duen indarrez inguratua dadin. Baldin jeinuak (azalpen hauek izate sortzailearen kate guztian zehar berberak baitira), arrazoiaren automatismo soilaren bitartez, gar biziarezlea zabaltzen badu, eta honek, txinparta bat antzo, egintza jainkotiarra distiratzen badu, fantasiak ere bere magalean hartu behar du eta onbera inguratu. Indar sortzaileak ezingo zuen energikoki bildu, baldin ahalegin hau eragotzi zezakeen oro baztertuko ez balu; eta jasotzaileari ezinezko litzaioke alde guztietatik puntu bakar batera jotzea, baldin bere baitan gordeko ez balu adostasun gorena. Lehen aurrera egiteko duen bortizkeriak ikuspuntu bakar batera zuzentzen du, eta bere eragin eutsi ezinezkoa alde guztietan zatitzea eta desegitea izan beharko luke. Aldiz, azkenak aurrean azaltzen zaion xamurtasun harmonikoa gehiago hartzen duen batasuna bihurtzen du lege, eta haren emaitza da kontserbatzea. Biziarazteko zertua dagoenak era sustatzailean esnatu behar du. Zirikatze orok, ordea, egoera bakar batera zuzentzen du arreta, eta indiferentzia oro-

korrraren sentimena atsedena edo heriotza litzateke. Biziarazleak ez du eragotzi behar, beraz, gehiegizko babesarekin, zirrara oro. Aldiz, biziarazienari aurkeztuko zaion gaiak neurri bereko izan behar du eta hark erabat penetratua. Azkenean forma gehiago duenak lotzera jotzen du, baina, formak berak bezala, apartatzearen bidez bakarrik; gaiarengandik hurbilen dagoena bezala, hau bera bezala, berez egiaz anitz bat, baina oraindik gutxi berezia da.

Gizonezko eta emakumezko karakterra agerian dagoen leku guztietan alderdi hau onartuko da; lehenean, ahalegin bat, bortzitasun apartatzaile batekin sortzen duelarik; azkenean, saiatze bat, loturaren bidez kontserbatua izateko. Natura guztian zehar, baina bereziki giza-kiengan jantzita dauzkaten berezitasun guztiak, haiengan inpresio desberdinak sortzen dituzte. Emakumezkotasunaren grazia kilikatzaileak eta betetasun maitagarriak zentzuak mugitzen dituzte: adierazpen konkretuak bezala metaforikoak eta kontzeptu guztien lotura sentzibleak ematen diote fantasiari irudi aberats eta bizi bat; eta inpresio orori irekita, bakoitzari dagokion barnekotasunez erantzuten dion karakterren batasunak sentimendua ukitzen du. Era horretan eragiten du emakumezko orok bereziki gizaki guztia bere jatorrizko sotiltasunean agerian jartzen duten indarrengan. Gizonari eta bere sexuari dagokienez, hauek gutxiago aseturik uzten ditu, baina kontzeptuen gaitasuna gehiago erabiltzen du. Itxurak zehaztasunetik gehiago dauka edertasun bizitasunetik baino; kontzeptuak garbiago eta arretatsuago daude bereziak, baina erlazio ez arinean daude; karakterra sendoa da eta norabide tinakoak ditu, baina ez gutxitan azaltzen da alde bateko eta gogor. Gizonezko oro, esan daiteke beraz, argigarriago da gehiago, emakumezko oro kilikagarriago gehiago. Batak argi gehiago gordetzen du, besteak berotasun gehiago. Natura mugatuan bizitza beti heriotzaren ondoan dagoenez, eta hobea ez hain onaren ondoan, hala, existentzia berriari leku utzi behar dio lehendik dagoenak. Norberaren erabakiak bultzaturik eta norberarengandik kanpora jarduten duen indarrak, eragozpenak hautsiz aurrera jotzen duenean beldurgarri bezala azal daitekeen arbitrariedade batez jokatu behar du. Horregatik ezin pentsa daiteke ekintza handienerako amore bat nolabaiteko gogortasunik gabe. Baina sorkuntza berria zabaltzen ez denez emakumezko arretaz zaindua ez bada, aldatzen du obratzeko bizitzarako egiaz jaiotako jeinuarrengan xamurtasun gozoak gogortasuna irmotasun serioenean.

Izan ere, bi sexuen partikularitasunen loturak bakarrik sortzen du bete-betea, eta gizonezkoaren ikerketak arrazoia geldiroago okupatzen badu, eta emakumezkoaren behatzeak emozioa biziago mugitzen, bien korapilatzeak bakarrik, edo hobeto esanda, izate soilak, sexu desberdintasun oro alde batera utzita, asetzen du arrazoia, ideien gaitasun bezala. Batasun gorenak edozein modutan kontrajarrita dauden bi norabide eskatzen ditu. Nola batasunak balioa daukan betetasunetik datorrenean, ez pobreziatik, hala atal bakoitzaren sendotasunak eta eraketak ez du izan behar guztien loturaren barnekotasuna baino txikiagoa. Bakarkakoa prestatzeko bakarrik eskatzen da *apartatzea*, eta apartatze horrek, hain zuzen, mugatzen du *loturaren* posibilitatea. Baina nola sexueta batak hau eta besteak hori gehiago faboratzen duen, hala sustatzen dute biek, elkarrengan eragiten dutelarik, bat eginda naturaren *batasun* miragarria, eta honek barne-barnetik lotzen du guztia eta bakoitza erarik erabatekoenean eraturik erakusten.

Izan ere, jatorriz hasten den egintza indar produzitzailearen propio da erantzuten duena jasotzen duenarentzat bezala, eta ernaldia, bien egintza komun bezala, era horretan bien artean banatua geratzen da. Produkzio orok bere gaia egintzat ematen du; lehen denari lotzen baitio lotzen naturak berria. Gai hori eratu egiten da, eta hain zuzen ere, indar propioarekin eta arau baten arabera (lehenago ohartu den bezala, maila berekoaren produkzio dirudiena) eginkor den grina baten bidez. Baina grina horretarako, beretzat arrotz zen energia baterako bezala, esnatua izan behar du, eta esnatze hori da bizitzaren hasiera, prestakuntza grinaren (orokorki ulerturik) loturaren hasiera bezala materia gordinarekin. Prestakuntza grina horren lehen egitekoa heziketa bera da, eta, hau bete denean, gorputz organikoak galtzen duenaren ordezkotza. Gainera, etengabe eginkor da behin betetako prestakuntzari eusteko. Izan ere, baldin materiaren legeak, hemen bereziki homogeneitate kimikoak, bizitzako legee, hau da, antolakuntzari etengabe kontrajartzen bazaie, eta bizitza, azken ikerketen emaitzek erakusten duten bezala, azkenen garaipena lehenen gainean baino ez bada, beharrezkoa da, halere, etengabeko borroka bat nagusigo honi eusteko. Hemen eginkor den printzipioa bizitzako indar deitu ohi da, eta haren aldaketa berezia egiten du prestakuntza grinak (hertsiki ulerturik). Produkzioak horregatik bi osagai ezinbesteko eskatzen ditu, gai gordina eta haren biziara zientzia heziketarako.

Bi hauek indar produzitzaileen eta jasotzaileen artean banatzen badira, badirudi, noski, azkenari gaia, lehenari biziarrazpena egotzi behar zaiela. Orain arteko argudiaketaren arabera gutxienez, indar produzitzaileengan energia azaltzen da, jasotzaileengan jatorriz hor zegoena, haren gainean energiak eragiten duelarik mailarik gorenean. Indar produzitzaileei dagokienez, badirudi lehenei berezko su gehiago dagokiela, sendotasun kontraeragile gehiago azkenei; eragitearen batasunari dagokionez lehenei printzipio bateratzaile sendoago bat, azkenei bakoitzaren adostasun libre gehiago. Naturari dagokionez, begirada arin batek aurkituko luke alde guztietan gizonezko sexuan indar agerpen gehiago, emakumezkoan, ez egiaz berez, baina bai harengandik argitzen duen indarrarekin konbaratuz, betetasun agerpen gehiago.

Zatiketa garbi bakoitzak kontraesaten du, bien bitartean, naturako legearen analogia bera. Izan ere, gure behaketa iristen deneraino ikusten dugu natura, aberastasun handiena baliabide errazenekin lortzen saiatzen dena, eraginkortasun desberdinetako izatea ez mailaren bidez baizik bere indarren norabidearengatik beren artean bereizten dituela. Gisa berean jasotzailearengan ez duela eragiten indar gutxiagok gai produzitzailearengan baino produkzioaren unean; eta berezitasuna datza biek elkarrekiko zehazturik dauden moduan. Gizonezko sexuan dena dago eragitera bakarrik zuzendua. Gaiaren helburua, berriz, delarik hari gorputz bat ematen dion bitartean bera sendotzea, saiatzen da bere natura propioaren desagertzearaino kasik bereganatzen. Emakumezkoan, aldiz, jokaera guztia doa kontraeragitera. Indar hau gaien jasotzen saiatzen den bitartean, arretaz tratatzen du. Egiazki horregatik biziarrazpena bi sexuen bidez batera gertatzen da; baina gizonezko indarrak esnatzeari lagun egiten dio bakarrik, emakumezkoak haren posibilitatea bakarrik prestatu eta haren iraupena segurtatzen duen bitartean. Ez luke posibilitaterik indar biziarrazleak gaiaren gainean eragina izateko, hari berari dagokion izate horren egintza propioa gaineratuko ez balitzaio. Eragin indartsuena bera ere kontraeraginaren bidez bakarrik hartua izan daiteke izate propioan, eta bere esparruaren inguru guztian natura organikoak jasate ez-aktiboa uxatu baino ez du egin. Sexu bakoitzari biek ernalketarako beharrezko diren indarrak ematen dizkieten bitartean, posible egin du ezen alde bateko indarraren gabezia beste aldeko gehiegizko pisuaren bidez era berean

eskualda dadin. Gizonezko indarrari sendotasunak huts egiten dionean, emakumezkoaren bizitasunak emankortasunaren posibilitatea salba dezake, esperientziak egiaz ez gutxitan egiaztatzen duen bezala, eta alderantziz: emakumezkoak jasotzeko gutxi prestatuak dagoen gaia eskaintzen duenean, gizonezkoak oker hori bere aldetik zuzendu dezake. Egitekoen truke egiazko baten bidez edo, egiazkoago izan daitekeena, alde bateko ahulezia beste aldeko aparteko indarraren esnatze edo laguntze baten bidez argitu daiteke hori nahi bada, horrek hura gauzatzean maila oso bikain batean asetzen duen bitartean, bien artekoa arintzen duelarik; hala egiaztatzen dute hemen esana esperientziaren bidez gisa honetako kasuek bezala amaren une bateko jokaera fruituaren izaeraren gainean eraginkor diruditenek. Baldin, beraz, produkzioak eta jasotzeak biek gai bat eta indar bat eskatzen badute, lehenbizikoan gaia beharrezkoa da bakarrik indarrak ez delako eraginik gairik gabe, eta bigarrenetan indarra beharrezkoa da bakarrik hura gabe gaiaren gainean eragitea ezin gauza daitekeelako. Horregatik bi sexuen norabide nagusiez hitz egitean, produkziokoan, indarra produzitzaileari dagokio bakarrik, gaia berriz jasotzaileari.

Naturak bere garatze santuena biltzeko erabiltzen duen oihal sagaratua pasatzeak badu bere nekea, objektu horri buruzko teoria ugari eta erabat desberdinek salatzen duten bezala. Horien arteko egiazkorena bat dator zeharo puntuan aipatuarekin. Naturak produzitzea eta hartzea bi izaera desberdinen esku jarri duen leku guztietan, gaia dago jasotzailearengan, printzipio biziarazlea produzitzailearengan. Baina biak beren artean lotu ahal izateko, lehenaren egintza batek etorri behar du, haren bitartez gaiaren zati bat abiatzen delarik eta hurrengo sorkuntzarako muin izango. Hain zuzen ere, bere lantegi sekretuenean lan egiten du naturak gehienez sortzaile gisan eta gutxienez mekanikoki. Hemen, hain zuzen ere, apenas igar daiteke eragina kausetatik datorrenik; aldiz, txinparta batek pizten du hurrengo. Fenomeno hau eragiteko modu haren bidez argitzen saiatu direnek sentitu dute hau gehien; baina giza ulermenari hemen ez zaio beste biderik geratzen ez bada kausa produzitzaileak bilatzea, arrakasta ikustea, eta ezer ez argitzea baizik isilik mirestea, begirune apalaren gailur bat lan maistra handiaren aurrean, harengana natur zientzia filosofiko berrienak bakarrik gida dezakeelarik. Miragarria da ikustea nola saiatzen den natura, gorputzezko indar haiek ezinbesteko

dirudien neurrian baino erabiltzen ez dituenean, askatasuna, espiritua-
ren munduko oinarrizko eskubide hau, bere erresumako beste espa-
rrura ere eramaten. Gaiaren kizi bat bakarrik hartzen du, lehen bizia-
razpenerako alokatzen du indar arrotz bat. Lehen txinpartak distira-
tzen duen bezala, izarniatzen du bere beraren bidez, hartzen du jakia;
baina bere legeen arabera erabiltzen du.

Begirunea egiazko existentzia ooren aurrean, eta ahalegina hari
itxura jakin bat norberaren gogoaren arabera emateko: horiek dira ema-
kumezko eta gizonezko karakterra alde guztietan markatzen duten
ezaugarriak, eta era horretan elkarrekin betetzen dute naturaren azken
helburu handia, formaren eta materiaren *elkarren arteko ekintza* ater-
gabea. Zuzenean parez-pare jarrita, materiak eta formak elkarrekiko
etsai bezala azaldu beharko zuketean. Baina bi sexuek propio duten eki-
teko moduan, formaren hertsitasun hura jaso behar duen materiaren
bidez arindua denez, eta materia indar formatzaile baten bidez jasotze-
ko prestatuko denez, barneko bateratzea posible da orain, haren gaine-
an oinarritzen delarik eraikuntzaren misterioa. Aldiro elkarrekiko era-
gina duten indarrek bata bestea behar izateko premiak dakar, bestal-
de, produzitzailea eta jasotzailea elkarren mendeko izan daitezzen. Hala
eta guztiz ere, bere eraginkortasunaren erabilera guztia lehenari bere-
tzat bakarrik, bigarrenari bezala, eragozten dio, eta horrek oinarritzen
du askatasun handiagoa bere aldetik. Horregatik, hain zuzen ere, dira
kontrajarriak lotura ooren garraibide goren eta loturaren arteak exist-
tentzia gorena babesten duenez naturan, beren barneko izaeraren bidez
hori gero eta gehiago bideratzera bultzatuak daude. Horiek dira natu-
raren osotasunean lotzen dituen lokarri propio bezala ikus daitezkee-
nak; beren energia biziarazten saiatzen diren objektu eginkorrenetan
bilatzen direnak eta aurkituetan luzaroen geratzen direnak.

Geratze horren bidez bihurtzen du jasotzeko gaitasuna irmota-
sun iraunkor. Bere natura, beraz, gehiago bultzaturik bere baitara
itzultzera urruntasun handian aldarrari ibiltzera baino, izaera jasotzai-
le guztiak daude kateaturik gutxiago aldatzen den ibilera etengabe
batera. Gainera datorkien indarrari sendotasun iraupentsua kontrajar-
tzeko, banatua lotzeko, eta eraginari erantzuteko, behar dute ahalegin
harmoniko eta adostasunezko bat. Jasotzearekin muinaren garapena
ere loturik dagoenez, honek sarri eskatzen du eraketa nahasiago bat;
eta gutxienez naturak helburu hori ez hutsegiteko lotu behar ditu bere

legeetara honetarako jarrita dauden izaerak arreta bikoitzez. Iraupen irmoa, ordea, da mugatuaren aldaezintasuna, eta hala, badirudi naturak azken abantaila hau ere ematen diela bera gabe existentzia apal eta iragankorra izango luketen gainerako guztiei, barneko benetako balioa eta kanpoko dirdai ederra, indar hartzaileei bereziki berez eta grazia librez bana diezaieten.

Baina, baldin iraupen irmoak baliorik badu, egitearen legea denean du, ez makurtzen denean ez egitera. Emakumezko sexuak iraupenaren printzipio bat badauka, ez dauka une berean egitearen beste bat, baizik hori espero behar du gizonezkoaren besteko eragine-tik. Indar bat, halako oldarrez eragiten duena, non desegiteari beldurrik ez baitio eta materia arrotza bere gogo propioaren arabera formatzeari ekiten baitio, ez da nekatzen, baina erraz makurtzen da aldatze-
ra. Harrotzen ari den ahalegina jasotzeko bere baitan nahikoa leku sentitzen ez duenez, bere egonaldia jasanezinezkoa da; eta materiaren izaerari amore ematen ez dionez, ez dio bermatzen uzten bere eragin-kortasunaren tinkotasunari. Gogorik oso gutxi edo batere ez dagoen naturako atalean, hori apenas igarriko den; beharbada, alor honetan sarri gerta ohi den bezala, gutxi ohartua izan da, eta gainerakoan egiaztatu egiten du esperientziak hemen kontzeptu soiletatik eratorri-
riko obserbazioa. Baldin gizakiak arrazoiak agintzen dion idealera iritsi nahi badu, gizonak bere eginkortasun naturala lege tinko batera lotu behar du, emakumeak bere izaera markaturik sentitzen duen arau-koitasuna barneko zirikadaren bitartez eginkortasunaz biziara. Azpiratzen badu, ordea, arrazoiaren saiatzea hemen naturaren joerak, orekatzen da berez bi sexuen oker bikoitza. Nolakotasun desberdinez hornituak eta, halere, bata bestearengandik ezin apartatuak, osotasu-naren azken helburuari dagokion mugaraino mugatzen dira.

Natura, bere ingurune osoan behaturik, ezin aldatua da. Bere indarren eginkortasunak ez du atsedunik, eta haren legeek obedientzia bera lortzen dute. Hala, beraz, ezerk ez du eteten ez haren eraginkor-tasunaren maila ez forma ere. Eginkortasun hau, ordea, *ezin aldaturik* gordetzeak bi sexuen elkarrekiko tasunean aurkitzen du euskarri indartsu bat. Batetik *atseden eza* sortzen duen bitartean, besteak egon-kortasuna ziurtatzen dio.

Hala daude banatuak bi sexuen artean neurribako osotasun hau eratzeke modua ematen dieten gaitasunak. Horren bitartez bakarrik

lortzen du naturak berezitasun kontrajarriak bateratzea eta mugatua mugabakoari hurbiltzea. Alde guztietan mehatxatzen baitio egite gogorrak existentzia lasaiari; energia biziaren baretasun eusleak gain-beherari. Horregatik animatzen zituen naturak bere semeak indarrarekin, suarekin eta bizitasunarekin, eta puzten zien beren alabei taxua, berotasuna eta barnetasuna. Halere, batzuk bere esparrua zabaltzen saiatzen diren bitartean, besteek esku arretatsuz aberasten dute bere mugen barruan. Gizonezko sexuaren karakter guztia *energiara* zuzendurik baitago; hara jotzen du bere indarrak, bere oldar xahutzaileak, kanpoan eragiteko bere ahaleginak, bere atsedean ezak. Aldiz, emakumezkoaren jokoerak, bere sendotasun iraupentsuak, loturarako duen joerak, eraginari erantzuteko bere apetak eta bere egonkortasun onberak jotzen dute kontserbatzera eta *existentziara*. Arreta komunez, beraz, betetzen dituzte, beti berriro itzuliz, hain sarri aldaturiko irudian azaltzen diren naturaren bi egintza handiak, ernalketa eta ernalduaren garapena alegia. Baldin, ordea, erkatzen badira hurbilagotik beren izaera propioak beren artean, naturak indar jasotzaileak babes zehatzago baten azpian hartu ditu. Harekin banatzen dituzte beren abantaila erabakigarrienak eta, alabak etxean bezala, ama arretatsuari gehiago hurbiltzen zaizkio.

Existentzia, energiak animaturik, da *bizitza*, eta bizitza gorena azken helburua, han bateratzen baita naturako indar desberdin guztien ahalegina. Bi sexuen desberdintasunak helburu hori erdiestea eskatzen du, edo hobeto esanda: beren izaera propioak hara daramatza, horren jakinaren gainean egon gabe ere. Izan ere, naturako inolako indarrak ez dio balio bitarteko gisa helburu bati, edo asmo arrotz baten bila saiatzen da. Denak harmonikoki eraginkor diren bitartean, segitzen dio bakoi-tzak bere grinari, eta guztien egintzaren azken ondorioa sortzen da ezinbestekotasun batekin, eta honek, asmo guztiak alde batera uzten ditue-nez, lehen begiratuan halabarrezko lirudike. Askatasun berean eragiten dute, beraz, bi sexuen indarrek ere, eta horrela bi irudi ongile bezala ikus daitezke, haien eskuetatik hartzen duelarik naturak bere azken betetasuna. Patu bikain hau, ordea, asetzen da bakarrik, beren eraginkortasunak elkarren artean bilbatzen dituenean, eta bata bestearengana irrikaz beterik hurbiltzen dituen joera da *maitasuna*. Horrela obeditzen dio, beraz, naturak jainkotasun berari, honen ardurari grekoen jakituria-ren zentzu iradokiztaileak kaosaren antolaketa eman baitzion.

GIZADIAREN ESPIRITUAZ

Sarrera

1. Gizakiak, premia baitauka bere pentsatzean eta jardutean jarraipena eta batasuna behatzeko, ez du aski bere jardueraren objektuen juzguarekin eta bere baliabideen hautaketan mendeko kontsiderazioak segitzearekin, on eta desiratzeko denaren neurritzat besteetako erlazioan balioa duten gauzak soilik onartzearekin; azken helburu bat, neurri lehenbiziko eta erabateko bat bilatu behar du, eta azken honek bere barneko naturaz hertsiki eta zuzenean lotua izan behar du.

2. Halere, bere ikerketa espirituari beste garai batean muga heretsiagoak ipini ahal izan bazitzaizkion, oraingo honetan ezinezko litzateke. Gizakiaren kanpoko erlazioetan asko oraindik tinko eta ikararik gabe dagoen bitartean, dena harekin berdintzea behar du; baina segituan galdera hau da beharrezko: gizaki joritasunaren oinarrizko pilare hauek, arriskuan ote? Gutaz kanpo dena zalantzan badabil, gure barruan bakarrik dago irekita aterpea, eta munduko zati esanguratsuen eta kultibatuenetako batean erlazio guztien benetako iraulketa gertatu denetik, zalantzagarri da zenbat jaso diren gainerakoan hartatik? Are gehiago iraulketa hura garai filosofiko batean zilegi den bakar bezala, erabat moralkiro beharrezko den zerbait bezala aurkeztuko denean.

3. Azken eta baldintzarik gabeko den zerbaitekiko ahalegin horrek badu beste premiazkotasun arrazoi bat. Bitarteko eta baldintzadun orok beti partzialki edota gure ulermena edota gure sentimen-

dua lasaitu dezake; gure izate propio eta barnea hurbiletik ukitzen duenak bakarrik interesa lezake gure giza natura osoa, hau da gure natura onena eta egiazkoa.

4. Gizakiak, beraz, bilatu behar du zerbait, azken helburu bezala dena hari makur diezaion eta erabateko neurri bezala haren arabera dena juzga dezan. Hori ezin lezake norberaren baitan baino aurkitu, izate ororen muinean dena hari ezartzen baitio; ezin ezar diezaioke, ordea, une bateko atseginari, ezta bere zorionari ere; izan ere, bere naturaren lehentasun noble bat baita atsegina zapuztu eta zoriona albo batera utzi ahal izatea; horregatik bere barneko balioan, bere perfekzio goragokoan egon daiteke bakarrik.

5. Gizakiaren duintasuna da, beraz, bilatu behar duena, eta berak erantzun behar duen galderak honela dio: zer da hura, zeinaren arabera neurri oroko baten gisara gauzen balioa eta gizakien balioa beren artean finkatu behar den? Nola ezagut daiteke non dagoen? Nola sortu, falta dela dirudien lekuan?

6. Denetarako erabilera izan behar duenez, zerbait orokorra izan behar du; baina natura desberdinak lagin bakar baten arabera modelatzea inori burura ezin dakiokenez, indibiduen desberdintasunari ez dio horrek inolako kalterik egin behar. Zerbait izan behar du beraz, beti bat eta bera, era askotara gauza daitekeena.

7. Zerbait ezezagun hori eta hara iristeko bitartekoa bilatzen duen bitartean, beraz, teorikoki diharduen bitartean, zuzendu behar du, lankidetzara orokor baten posibilitatetik abiatuz, guztietara, gizadi osoaren nobletzera. Baina bitarteko hori praktikoki gauzatu nahi duen bitartean, bere baitan itxi behar du, ergelkeria bailitzateke norberaren gogoan tinko ez dagoena asmo jakin batean altxatzea. Ulermenak guztitasun bat bilatzen du munduan, eta ez du beste mugarik ezagutzen, bereak baino; nahimenak bereak aurkitzen ditu indibiduoan eta ez da ateratzen handik.

8. Baina biak elkarren artean kontrajarririk ez badaude, era honetan konpondu behar da auzia, alegia: helburura bere aurreratze propioak gainerakoak hara hurbiltze orokorra sustatzen du, eta egiaz zuzenean eta artez-arte (ez soilik bera osotasunaren zati bakar bat den neurrian). Bere heziketa propioa gainerakoei beren nahirik gabe eta are kontra behartu behar die, eta egiaz berearekin bat datozen

aurrerapenak haietan egiteko. Ulermen teorikoaren eta nahimen praktikoareen elkarren arteko eragin unibertsalak jokatzeko modu bat sortzen du, eta horretan guk energia indibidual erabatekoaz egiteko bakar bat plan orokor batean gauzatzen dugu.

9. Berak bilatzen duena ezin berma diezaioke moralak eta ezin har daiteke lehendik ezagutzen den zerbait bezala. Izan ere, balio moralak bakarrik giza duintasun oro zehaztu arren, mugaturik dago gure esentziaren zati batera, sentimenduetara bakarrik. Hemen prestakuntza ere eskatuko da, hemen zerbait hain orokorra non gizaki osoa bere indar guztietan eta bere adierazpen guztietan hartzen duen.

10. Izan ere, hauxe baita gu bila ahalegintzen garenaren karakter berezitzaila, alegia, giza energia ororen, giza obra ororen balioaren gainetik sententzia gorena hots egiten duela, eta hain zuzen ere, erabaki behar duela bai ea poesia bat benetan poetikoa den, sistema filosofiko bat benetan filosofikoa, bai ea karakter bat benetan gizatiarra den.

11. Badago egon zigilu bat, gizakiarengandik datorren handitasun oro derrigor zigilatzen duena, gizatasun handiaren zigilua bera delako; eta zigilu hori bilatzea eta bere arrastoak alde guztietan berriro ezagutzea da guk eskuartean dugun arazoa.

12. Eta hara iristeko, gizakiak bide bikoitza segi dezake: esperientziarena bat eta arrazoiarena bestea.

13. Esperientziaren bidea. Bere ingurua begiratu eta gizatasun perfektuaren kontzeptu onena eta gorena ematen dioten indibiduoak aukeratzen ditu. Idealak berak berez ikusi ezin duenez, kopiarik leialenei segitzen die. Aroen eta nazioen pilatik hautatzen ditu egiaz estilorik handiengan lan egiten duten poetak, artistak, filosofoak eta natur ikertzaileak, genero hauetako bakoitza bere berezitasun onenean azaltzen dutenak. Batez ere ez du uzten bizitzatik deitu gabe beren barneko nolakatasunagatik eta beren kanpoko itxuragatik gizadi garai eta noble baten irudia nabarmenen jarri duten gizonak.

14. Denak konbaratzen ditu arretaz beren artean, eta guztien gan bereziki begiratzen du beretzat barneko balioaren maila hain garaian ipintzen duen zer komuna. Hori begiratzen ari dela ondorengo puntuetara iristen da bata bestearen atzetik:

15. Berak oraindik ezagutzen ez duen zerbait hori da 1., ez mekanikoa; ezin da kopiatu arau zeharo zehatzak jarraitu hutsarekin,

ezta ulermen soilarekin ere, eta hori, badagoen nolabaiteko antzekotasun baten bitartez, nolabait saiatzea, ez ulertzea. Horretarako zentzurik ez duenak, ez du ikusten; eta ikusten duenak ezin du adierazi.

Artean guztiz garbia da hori. Inork ezin ulertu edo argitu ahal izan du nola sortzen den pentsamendu egiaz artistiko bat, eta gutxiago oraindik nola gauzatuko den; nahiz kasik bakoitzak ilun sumatzen duen, eta askok nabarmen sentitzen.

Neurri beretsuan ikusten da hori bizitza praktikoan. Betebeharra betebeharrak delako besterik gabe betetzen dugun energia ezin daiteke gehiago hitzekin argitu. Hala nahi du gure naturak, horregatik da horrela. Hori garbi ikusten da honetan, alegia: sentimen hondatu gabearentzat guztiz argia dela, atarranteari geza eta barregarri iruditzen zaiola. Zenbat gutxiago adieraz daitezkeen oraindik bereziki emakumezko arimen emozio xamurrenak, karakterren fintasun eta edertasun gorenaz azaltzen dutenak. Arimak ezintasun hau sentitzen du hainbesteko neurrian, non ulertzen dituenak baino ez dituen agerrazten, eta senari jarraiki profanoaren begiradatik ihes egiten duen.

Filosofoi tramu luze batean jarrai lekioko, noski, urratsez-urrats ulermen egiketa soilaren bidez. Baina huts egiten ez duen seinalea da bere filosofia ez dela igotzen lehen oinarrietaraino, azkenean ez bada etortzen puntu bat non gehiago analitikoki jo ezin daitekeen, eta non ahaleginak bakarrik erabakitzen duen ea filosofo izateko jaio den ala ez.

Natur ikerlariarengan da hori ulertzen zailena, eta eztabaida luzea eskatuko luke honek. Guk aski dugu ohartaraztea bizitzaren kontzeptua dela punturik zailena natura biziaren behatzailearentzat, natura hilaren behatzailearentzat mugimenduaren kontzeptua atal dinamikoan, antzekotasunaren kontzeptua atal kimikoan.

Matematika bera ere ez da inondik hemen salbuespen. Berak oinarritzat osotoro eta guztiz daukana, eraikuntza agertu baino ez da egiten, eta kopia daiteke, ez argitu. Han kontzeptu soila baino gehiago baitago, eta gehiago hau ez dago hartua natura sentsualetik.

Bi bide baino ez dago gauza bat ulergarri bihurtzeko: 1. naturan gutaz kanpo guri benetan azaltzen zaigunean. 2. kontzeptu batzuk erakusten direnean, haiengandik derrigorrezko ondorio bezala zintzilik dagoelarik. Hemen gure mintzagai dena ez da aurkitzen bi kasue-

tatik ez batean ez bestean, eta horren bidez ikusten da 1. berezkotasunaren emaitza dela (ez kanpoko naturatik soilik hartua), 2. lehen ekimen batena dela, ez dagoela beste ezer norengandik zintzilik dagoen eta zeinaren arabera ulertu behar litzatekeen.

Litekeena izan behar duenez auzi espiritual soil bakoitza lehen berezkotasunaren egintza batera jarraitzea, hala bakoitzean gertatu behar du derrigor puntu ulertezinezko bat, non arrazoi soilaren operazioak gehiago aski ez diren.

16. Gizaki hain aparteko horrengan aurkitzen dena da 2., ez probetxua edo atsegina ekartzen duenik ezer, gizakiari baliabideak eskura jartzen dizkionik ezer, edo zuzenean bere joera sentsualak lausengatzen duenik; gizatasunean heltzen du sakon eta bere barneko indarrak sendotzen dizkio.

Hala bereizten dugu egiazko poeta, gugana eta mundura begirada sakona irekitzen diguna, atsegina eta mintzatzaitetik; idealki presaturiko gizakia negozio gizon baliagarri soilarengandik, etxeko aita otzanetik edo lagun elekaritik, e.a.

17. Da 3. berak daukan bezala, haren bitartez orobat gizadi garaiagoa darama. Balitz halere berez partzialki hezia, handitasun propio horrek ez balu erdietsi nagusigo unibertsa, gizatasun perfektuaren irudi hartan egokituko da, eta beste batzuegan eraginez hau beti elikatu eta sendotuko du hura.

Egiazko poetak bakarrik dauka eragin mesedegarria karakterraren gainean; gainerako edozein kaltegarri edo indiferente da barneko prestakuntzarako. Zentzu honetan, morala izatea da artista orori dagokion lehen eskakizuna. Artista handia ez bada gizaki handi beti, bere izateko puntu guztietan eta bere bizitzako une guztietan artista ez delako ez da.

18. Era guztietako bikaintasunaren eta gizadiaren bikaintasunaren arteko erlazio honetan oinarritzen da ikuspuntu bakar bat aurkitzeko posibilitatea, haren gainean dena konbaratu eta juzga daitekeelarik. Gisakorik gabe, ordea, gizakiak ezingo luke ez inguruan daukana behar bezala bereganatu ezta prestatuz haren gainean erreakzionatu ere; ez mundua bere indibidualitatera iraganarazi ezta honen zigu-lua munduari itsatsi ere, hori bakarrik izaki bere ahaleginen azken helburua, egiazko giza atseginarene iturburu bakarra.

19. Oker bat da giza ekimeneko mota bakoitzari lege bereziak ezartzea, haiek jarraiki orobat gizadiaren duintasun orokorrari leial izango zaizkielarik. Artea benetako arte eta filosofia benetako filosofia izanik bakarrik eta zuzen-zuzenean du eragin mesedegarria karakterrean.

20. Hemen eredutzat balio diguten gizon aparteko haiek dute 4. beti indibidualitate erabakiorra eta jatorra. Prestatu, beraz, erabateko gizaki izateko, eta azaltzen da ziurki gizaki propio bezala, eta gauza bera gertatzen da artistarekin, filosofoarekin, natur ikerlariarekin, ugaritasunaren bikaintasun orokorrak norbanakoarengan mota bakoitzean eskaintzen duen zabaleroaren arabera.

21. Gizaki haiek gizaki handi bihurtzen dituenak ez du ezagutzen 5. perfekzioko inolako mugarik. Mugabakoraino hezten da, ez dago puntu bat, behin azken helburua erdietsirik, bere neurria ahitzen duena; indar bizi baten energia da, eta bizia biziaren bidez hazten da.

22. Baina azkenik 6. bere inguruan emankor eta liluragarri da. Bera bizi izaki, alde guztietara igortzen ditu txinpartak; eta eraginkortasun orokor honetan dauzka hiru berezitasun bera funtsean apaintzen dutenak.

23. Lehenbizi: ez du eragiten ezarritako plano, berariazko aldaketaren bidez, ezta inola ere besteengana zuzenduriko ekintzaren bidez. Bera han dagoelako, egin egiten duelako eta ikusia delako besterik gabe eskaintzen du bere indar garatzailea.

24. Bigarren: indibidualitate desberdinenak dituzten gizakien gan du eragina. Aski du bera osatzen duenaren zerbait aurkitzea; haren errainurik suabeena aurkitzen duenean, hura estaltzen duten orbanak zabarrekiak eta sarkaitzeak ez diren lekuan, esnatu egiten du txinparta erdi itzalia eta gar berotzaile bihurtzen du.

25. Hirugarren: bere eraginaren pean dituenak ez ditu inolaz egiten bere baitan, bera aurkitzen den lekuan, daraman indibidualitatearen pareko; ez bakarrik ez die ematen inolako forma zehatzik, baizik beraientzat propioena dena bilatzera bultzatzen ditu. Beren barneko bizi indar espirituala esnatzen du, izan ere; eta honek berez garatzen du haiengan beraiei neurrira datorkien karakterra.

Maitasuna da baieztapen honen frogarik adierazgarriena. Inon ez du eragiten, han bezala, hemen aipatzen ari garenak hain indartsu

eta hain zehatz, eta horregatik benetako maitasunak ez du jartzen agerian berdintasuna, baizik beti karakterren kointzidentzia. Bi maitaleak mugitzen dira bakoitza bere karakterren berezitasunean, eta kontzeptu batean eta grinaren bidez suturiko irudimenaren indarraren ispiluan irudi batean elkartzen dituen idealera hurbilduz doaz biak batera.

26. Edota bere pertsonaren bidez edota bere obraren bidez du eragina gizakiak. Baina gizaki handiak bere pertsonaren marka ezartzen dio bere obrari, eta horrela bere existentzia bere bizitzaren denboraz gaindi argitzen du. Horregatik bana daitezke liburu eta artelan guztiak biziak eta hilak; haiek bakarrik hezi dezakete, hauek irakatsi bakarrik.

27. Beraz, bere ahalegin moralaren azken helburua aztertzen duelarik, gizakiak berari gizadi erabatekoaren kontzeptu onena eta gorena bermatzen dioten indibiduoak konbaratzen dituenean, haiengan guztiengan aurkitzen du zerbait, beren eragiteetan berdin izaki, beren bikaintsuenan berdintasuna eta kointzidentzia iragartzen duena.

28. Ikusten du guztian, bere karakterren desberdintasuna une berean gizadi orokorra altxatzen duela eta partikularitate berezia, orobat hura daukatenei, beren indibidualitatean hertsia go sendotzen diela, eta beraiengana hurbiltzen zaizkienei beraiengan argitzen diela; eta ezagutzen du horretan hori dela erdigune komuna, hortik izan daitekeelarik gizatasun osoa ezagutua, epaitua eta hezia. Hain zuzen ere gisa horretako erdigunean saiatzen da ipintzen.

29. Zerbait ezezagun hori bere eragin orokorretan ezagutu duenez gero, beraz, bere izaera berezian bilatu behar du; eta halakotzat daukana bilatu dituen ezaugarri orokorrekin konbaratu behar du. Baldin bide horretatik bilatzen badu zerbait inolako modu baldintzatuan (mekanikoan) sortua dena, halaber, bera azaltzen den leku guztietan gizatiaren ideia zabaldu eta indibiduoarena finkatzen duen inolako helburu baldintzatura (materialera) daramana, eta berak daukan perfekzionatzea muga guztiez haratago zabaltzeko gauza denez, orobat beste batzuegan hezitzaile eta emankor gertatzen bada eta berrirotasun horiek dauden lekuan beti eta hutsik egin gabe lagun egiten badie, ziur dago bilatzen zuena aurkitu duela eta horrela bere egitekoa osatu duela.

30. Ikerketaren segidarako ulergarriago gerta gaitezen, zerbait ezezagun horri oraingoz izen bat ezarriko diogu, eta gizadiaren espiritu deituko diogu —deitura bat, indibiduo estimagarrienak gizaki hoberen eta garaien bezala azalerazten dituena.

31. Adimenaren bidea. Bilatu behar da gizakiaren patua bere ahaleginaren azken helburu bezala eta bere juzguaren neurri garaien bezala. Gizakiaren patua, ordea, izaki aske eta berariaz eginkorrarena bezala, bere baitan soilik datza.

32. Gizakirik handiena da, beraz, gizadiaren kontzeptua indar altuenean eta zabalero handienez azaltzen duena; eta gizaki bat juzgatzea ez, da galdetzea: Zein eduki emateko asmoa dio gizadiaren formari? Zein kontzeptu egin beharko litzateke gizadiatz, baldin bera balitz kontzeptu hura ateratzeko legokeen lagin bakarra?

33. Gizadiaren kontzeptua ez da espirituaren indar bizia baino, hura biziartzten duena, harengandik mintzo dena, harengan eginkor eta eragile agertzen dena.

34. Gure aurrean daukagun egitekoaren objektua, beraz, gizadiaren espirituaren ikerketa da; eta jarraian datozen hiru liburuetan bata bestearen atzetik ondorengo galderei erantzun beharko diegu:

1 non oinarritzen da espiritu hau?

2 nola ezagun daiteke? eta

3 nola heziko da?

Bukaerako oharra

Ez da erraza esaldi bat bilatzea, modu aldi berean orokorrean eta, halere, berezian gizadiaren izatea, izate eta indar bezala, izendatuko duena. Egokia izatekotan, natura sentsibleari eta ez-sentsibleari zuzendua beharko luke aldi berean, eta gainera, erakutsi beharko luke hartan zer zen propio nagusi.

Bi ikuspegietan badirudi erabil zitezkeen hitz guztien artean espiritu dela egokiena; 1. Jatorriz zerbait sentsibletik, edari suspergarrrien indartzailetik, urezko zatia erauziz (ardoaren espiritua) datorrelako. 2. Berak, hertsiki hartuta, gaineratze bereizi batekin ere, sentsible ez dena soilik izendatzen ez duelako. Hobeto esaten da: *Arima* eta *gorputza*, *espiritua* eta *gorputza* baino; eta sarri oso, espiritu soila. 3. Ez sentsible horretarako hitz propioena hain zuzen ere, hari gorputzezko nahikoa ezartzen diogularik azal dadin, mamuren sinonimo baita. *Hildakoen arimak dabilta batera eta bestera espiritu gisan*. 4. Esanahi honekin erreallitate gehiago daukalako, zerbait sendoagoa eta indartsuagoa adierazten duelako bestetan gauza bera esan nahi duen mamuak baino. Hala sakonago dagoen nahasmendu bat adierazten du esaten denean: *espirituak ikusten ditu, mamuak ikusten ditu* orde. 5. Erabilera psikologikoan ez zaiolako atxikitzen mekaniko soila denari. Ez da esaten *mekanikari espirituz betea*; aldiz, bai *zentzu askokoa*; ezta *ahalegin espirituz betea* ere, *burutsua* baino. Gisa berean dira desberdin *spirituel* eta *ingenieux*. 6. Gauza baten karakter osoak, bere esentziak, ez duelako adierazten patu bat bakarra, eta horregatik indar azalpen bakar batetik sortzen denak ez duelako erabiliko, ez behintzat hori halaber adierazten den neurrian. Ez da sekula esaten *asmakizun espirituz betea*, baizik *burutsua*, baita asmatutakoa espirituz betea balitz ere. (Mugaketa honetan badago dirudienez apetzako den zerbait). 7. *Espirituz betea* eta *espirituz oparoa* indar

intelektual soilaren sakontasuna irudimen sentsiblearekin bat egiten duenean erabili ohi da beti. Esan ohi da beti baina zehaztasunik gabe *metafisikari, matematikari, logikari espirituz bete bat*. 8. Azkenik espirituak izate nagusia, propioa eta egiazkoa adierazten duelako, *letrenak ez bezala*.

Hizkuntza berri guztiek dituzte hauen pareko esaerak, eta guztietan berbera da metafora. Baina inork ez dio eman oraingo erabilera honetarako aldaera hain egokirik. Italicaraz *spirto* gehiago da mistikoa, filosofikoa baino; frantsesez jatorrizko destilaziotik hartu da bereziki finketa; ingelesez, edari indartsuaren biziarezlea eta suzkoa (*well spiritued*).

Alemaneraz bakarrik geratu da indarraren, benetako esentziaren kontzeptua nagusi. Jatorri-jatorrian, izan ere, *arnasa, haize* kontzeptutik datoz hitz hauek. Handik bakarrik, eta ez-sentsible den zer-baiten metafora bezala bakarrik, pasatu dira destilazioko prozedurara (gutxien materiala denaren ateratze bezala, hain zuzen ere). Halaber, esanahi psikologikoak batean gehiago eta bestean gutxiago hartu du beretzat bigarren metafora honetatik. Gehien dirudienez frantsesean. Alemaneraz jatorrizko hasierako esanahia nagusi gertatu da oso, eta bigarren metafora esamolde bakan batzuetan azaltzen da bakarrik: *gauza batetik espiritua atera*, e.a. Badirudi jatorrizko hasierako esanahia (*Gischt* analogiatzat harturik [Geist-espiritu; Gischt-aparra]) oso sendoa izan dela; eta sendotasun hori hobeto gorde da, erroa bera alemana (beraz, tonuz eta karakterrez gugandik hurbilagoa) delako, aldiz *spirto, esprit* eta *spirit* hitzak *spiritus* hitzetik datoz eta hau *pneuma*-tik, eta ez *spiritus* ez *pneuma* erabili zituzten antzinatean filosofoek.

Esamolde honen erabilera ez-sentsiblea antzinakoen artean kristautasunaren bidez sortu zen, eta hebraieratik dator (hau hurbilagoatik zehaztu behar da) eta bereziki *espiritu* hitzaren erabilera psikologiko modernoa arrotz zaie. Ez al zuten ezagutzen spirituzko edarien zuzentzea? Edo zergatik geratu zen metafora hau erabilerarik gabe?

Ordea ἀπειρη grekoa izugarri ona zatekeen guk hemen eskatzen duguna adierazteko, indar bete, egiazko eta propioa adierazten duenez eta barneko bezain ondo kanpoko garapena adierazteko erabil

zatekeenez. Espiritu baino hobea da, ez dagoelako, edozein metafora bezala, erabileraren mendean, eta kontzeptua naturatik soilik hartzen duelako eta ez gure ikuspegitik, zentzu aztertzailearen obra delako, ez irudimenarena. Baina horregatik, noski, dauka ñabardura bat gutxiago, eta idealitatea galtzen du, indar pragmatiko gehiago daukalako. *Virtus*, *vertu*, *virtù* eta gure bertuteak [Tugend] berez eremu berbera dute, baina ez dute hori gorde erabileran, grekoak izan direlako kontzeptuari bere izaera osoa gorde diotenak.

Grekoak *espiritua* esanahi psikologikoan ezagutu ez izanak, eta *bertuteak* beraien artean egiteko bat bete izanak, erakusten du haien neurritasun pragmatiko handia eta idealista ez txikiagoa; gure artean *espirituk* esanahi hain sendoa edukitzea eta horregatik hain zuzen ere gutxiago espirituala, eta guk bestalde ἀρετή hitzerako geure erro propioa edukitzea gure hizkuntzaren abantaila bat da, beste inorekin banatzen ez duena.

ESTETIKA

GOETHEREN *HERMANN UND DOROTHEA* OBRAZ

Sarrera

Ezerk ez du halako neurrian osotzen poesia baten balio absolutua, nola, bere gainerako abantaila propioen ondoan, bere motaren azalpen garbia orobat eta bere egilearen arrasto bizia berarekin dakarrenak baino. Izan ere, edozein delarik ere arteko obra bat distiratzeko moduan jartzen duten banakako edertasunen handia, edozein benetako jeinuk batzuetan segitzen dituen bideen arau gabezia, beti ziur da bera dela, bere indar osoan diharduenean, beti indibidualitate garbi eta erabakigarrian azaltzen dena eta hain zuzen ere, berriro forma garbi eta jakin batean adierazten dena. Horregatik, baldin arteko bestelako emaitzek miresmen partzial bat edo azaleko entusiasmo borborkari bat sortzen badute, horiek dira perfekzioaren halako maila daukatenak non irakurleak bere atsedean erabateko eta iraunkorra aurkitzen duen eta nondik berak berriro existentziak eman zien sortzeko jokaera har dezakeen. Bereziki, ordea, dira objektu eskergarria ebazpen estetikorako. Izan ere, berarekin batera jasotzen du gora haien ebazlea bera, eta berez kritika mota bat darama, adibide bakoitzean generoa, obran orobat artista deskribatzen duena.

Gisa honetako ebazpena merezi zuela iruditu zitzaidan *Goetheren Hermann und Dorothea* obrak. Izan ere, obra hau biziarazten duen espiritu propioenean igarri uste nuen sendotasun bereziki nabarmenean senitartetasun bikoitza, zeinetan hura alde batetik poeta eta artista natura soil orokorrarekin, loturik dagoen bestetik, bere egi-

learen berezitasun apartekoarekin. Genero poetikoa eta mota epikoa oso gutxitan azaltzen da hain erabateko nola osotasun honen konposizio maisutasunezkoan, irudi hauen egiazkotasun poetikoan, kontaktuzun honen segida jarraian; eta baldin Goetheren partikularitasunak bere ezaugarrietako bakoitzean bere beste obretatik indartsuago eta argitsuago distirutzen badu, ez dira beste batean honetan bezala errainu horiek guztiak subegi batean bildu.

Obra honen ikerketa kritikoari ekiteak esan nahi du, ebazpen estetiko batean beti egin behar den baino ulermolde oraindik propioago batean, irudimen poetikoaren esentzian sartzea; eta hala erakarri ninduen ni giza indar guztien artean misteriozkoen den honetara kontzeptuen bidez hurbiltzeko grinak, eta horrekin batera ez gutxiago obra honekiko maitasunak bultzatu ninduen idazti hau sortu zen esperimentziara ausartzeko.

Abiatzeko nik hartu nuen ikuspuntu honi leial irauten saiatu naiz azalpenean. Ahal bezain gutxi apartatu dut obraren behaketa idazlearen behaketatik, eta hori, nik ahal nuen neurrian, bizirik aurkezturiko irudimen poetiko indibidual baten pentsamendu bezala ebazti dut. Irudimen horren natura ikertzea zen, izan ere, nire azken helburu nagusia.

Begien aurretik hori utz ez dezan eskatzen diot nik irakurleari, baldin ikusiko balu ni inoiz edo behin nire objektutik apartatzen naizela, goraegi printzipio orokorretara altxatzen naizela edo urrunegi bestelako poesia motetara edo poeta naturetara hedatzen naizela. Biak ziren, nik hartu nuen bidean, ezinbesteko. Izan ere, erakusteko poesia honek poesiaren eta artearen natura orokorra beste edozeinek baino garbiago karakter bereziagatik bere egiten duela, nik derrigor, artearen esentzia bere lehen oinarrietan bilatuz, oinarrizko estetikako printzipio gorenetaraino itzuli behar nuen; eta hura, poeta bera bezala, haiei dagozkien pasarteak gainerako arte obren eta artisten artean seinaltatzeko, derrigor aipatu behar nituen genero berak haiekin hartzen dituen ondoko mota desberdinak.

Ez asmorik gabe hautatu nuen nik metodo hau, alegia: nire objektuan beti zerbait orokorragoa, poesia eta poetaren natura soila begien aurrean hartzea. Ebazpen filosofiko orok azken helburu bikoitz batera jo dezake: edota estimatzen saiatzen den obraren izaera objektibora gehiago, edota hura egiteko beharrezko zen espiritua kon-

tuan hartzera gehiago. Lehen kasuan gure egitearen legezkotasuna sustatzen du; bigarrenean gure izaeraren jokaera egokia eratzen du. Gizakiaren izaeran elkarren artean loturik daude indar azalpen mota bakoitzerako jarrerak, eta bakoitza askeago eta perfektuago garatzen da gainerako en heziketa orekatuaren bidez babestua bada. Edozein delarik ere horregatik aipatu nahi den objektua, hura gizakiarekin eta, gainera, bere antolaketa intelektual eta moralaren osotasunarekin lot daiteke. Filosofia partikular bakoitzean, natur ikerketako sistema zabal bakoitzean, eraikuntza politiko handi bakoitzean azter daiteke zer irabazi duen horren bitartez espirtu filosofiko, natur historiko politikoak bakarka eta bere harremanetan. Ikerketa horri orokorragoa korapila dakioke, alegia, zenbat hurbilago jarri den horren bidez giza espirtua bera bere ahaleginen azken helburutik, hain zuzen ere: munduak bere inguruan eta bere barneko niari eskaintzen dion gai kopuru osoa, bere sentsibilitatearen tresna guztiekin bere baitan hartzeko eta bere berezkotasunaren indar guztiekin eraldatzeko eta bereganatzeko eta era horretan bere nia naturarekin truke orokorrean, bortitzenean eta harmonikoen jartzeko. Biak behar dira egin, azken helburu praktikoa bat bilatzen den bezain laster, eta ezin da gutxienez hori alde batera utzi giza izaeraren baretik darion arteaz, eta partikularitasun handi baten markaz zigilaturik dagoen arteko obra batez hitz egitean.

Baldin ikuspuntu goragoko hau hautatzen bada, haren objektu bakarkakoa erdiko puntu orokor eta harengandik kanpo dagoen batera zuzentzen da eta lan egiten da eraikuntza zabal eta bikain bateko zati gutxiago edo gehiago hedatu batean. Erdiko puntu hori da hain zuzen: *gizakiaren prestakuntza* [«Bildung»]; eraikuntza hau: *giza espirtuaren izaeraren ezaugarria bere egoera posibleetan eta esperientziak erakusten dituen benetako desberdintasunetan*. Gizadiak orain arte egin dituen espirtuaren eta izaeraren abantailen zenbatekoan badaukagu jada handitasun ideal baina zehazgarri bat, zeinaren arabera bakoitza ebatz daitekeen: ikusten da helburu bat nora ahalegindu daitekeen; ezagutzen da bide bat noren bidez, hitzaren zentzurik gorenean, aurkitzaile izatea posible den, egintzaren bidez poeta, pentsalari edo ikerle bezala, baina batez ere gizaki egile bezala zenbateko horri zerbait berria gaineratzen zaio eta horrekin gizadiaren beraren mugak zabaldu egiten dira. Ideia bat irabazten da, entusiasmoaren bidez bere aldetik indarra ematen duena; legeak, izan ere,

pausuak gidatu egiten baititu, ez azkartzen, eta adorea gehiago abailtzen du, altxatu baino.

Ez dago gure gaitasunen inolako azalpen aske eta indartsurik gure jatorrizko natur asmoaren babes arretatsurik gabe; ez energiari indibidualitatearik gabe. Horregatik da hain beharrezko, orain aipaturikoa bezalako izaeraren ezaugarri batek giza espirituari aurretik erakuts diezaion bide anitz segitzeko posibilitatea, baina perfekzio orokorreko helburu sotiletik urrundu gabe, aldiz haren bila alde desberdinetatik joz. Giza ezagutza filosofiko enpiriko baten gainean bakarrik eraiki daiteke giza prestakuntza erdiesteko teoria filosofiko bat denborarekin izango den esperantza. Eta, halere, azken hau ez da bakarrik hartu behar oinarri orokor bezala haren erabilera bakoitzarako, heziketa eta legegintzarako (hauek ere beren printzipioetan dituzten erlazio unibertsaletik espero daitezke), baizik gida seguruago bezala norbakoitzaren hezkuntza propio askean, premia orokor eta bereziki gure garaian presako bat bezala. Zenbat eta handiagoa aurrean irekita dauzkan norabideen kopurua, zenbat eta aberatsagoa gure kulturak eskaintzen dion gaia, orduan eta baldituago sentitzen da bururik onena ere aniztasun horren azpian aukera burutsu bat egiteko eta are handik zenbait beren artean lotzeko besterik gabe. Baina lotura hori gabe kultura bera hondora doa. Izan ere, gizakiaren kultura bere izaera elikaren bidez emankor egiteko artea bada, bere organoak hain harmonikoki bateratu behar ditu eta kanpoko halako egoera hautatu behar du, non ahal beste gutzia beregana dezakeen, bereganatu gabe ez doanez inolako elikagairik ez izaerara eta ez gorputzera.

Gisa honetako gizakiaren izaera ezaugarria ezingo litzateke egiaz jakintza propio izatera altxatu, baldin orobat gehiago jarria balezko filosofikoki eta heziketa goragoko beterako garatzeko, gizakiak berak erdiets dezakeena, historikoki erakusteko baino orain arte berran erdietsi duena; baina ez luke gutxiago irabaziko esperientziaren teoria propio eta filosofikoki antolaturiko bezala gainerako ezagutza filosofikoen pilatik banatua izanda. Ez da hau, ordea, lekua eztabaidatzeko zenbateko neurrian horretarako eskubiderik leukakeen eta izen propio bat beharko ote lukeen, bere zati orokorrean psikologiatik eta antropologiatik funtsean bereziko ote litzatekeen. Aipatu egin behar nuela uste nuen, orri hauen ebazpenerako helburu urrunagoa zehatzatzen finkatzeko, hura lantzeko orduan begien aurretik gal ez nezan.

Helburu urrunago horrekiko begiradak, ordea, behartu egin nau, beldur naizenez, askori luzeegia eta neketsuegia irudituko zaien martxa bat hautatzera. Nire arrazoiketa, izan ere, nire objektuaren indibidualiterako beharbada orokorregia, bere argitasunerako filosofikoezia bihurtu da. Nire burua lausenga baneza estetikoa hein batean ase dudala-eta, ezin itxaron dezaket, haatik, poetari zuzenean bere egitekoan baliozko izan naizela. Nire ikuspuntutik derrigor altxatu behar nuen garaiera filosofikoa diharduen artistarentzat ez eroso ez emankor da; arau bereziagoak eta enpirikoagoak behar ditu. Baldin filosofoari estuegiak eta indibidualegiak bazaizkio, hutsa eta gabea azaltzen zaio, ordea, dagokion eduki eta prestutasun horretarako lege orokor bezala daukana. Hala daude biak elkarren artean derrigorrezko eta ezinbesteko antagonismo batean.

Baina artearen filosofia ez dago berariaz artistarentzat, ez gutxienez sorkuntzaren unerako. Filosofiaren beraren abantaila bat eta zoritxar bat da azken helburu zuzentzat beti gizakia bakarrik edukitzea, ez jarduera. Hura gabe artista izan daiteke artista, politikoa politiko, bertutetsua bertutetsu; baina gizakiak hura behar du harengandik jasotzen duena dastatzeko eta erabiltzeko, bere burua eta natura eza-gutzeko eta ezagutza hori emankor bihurtzeko; eta hauek areago ezin dute alboratu, beren buruarentzat ulergarri izan nahi badute eta beren arrazoiarekin beren jainuaren hegaldia edo beren zentzu praktikoaren sakontasuna eta zuzentasuna berdindu nahi badituzte. Gisa berberean dago estetika jarria arteko obraren bidez beren gustua eta gustu aske eta finduaren bidez beren izaera garatu nahi dutenentzat bakarrik; artistak erabil dezake bakarrik bere burua tenplatzeko, bere jainua denboraldi batez utzi badu hura berriro orientatzeko, bera dagoen eta joan nahi duen puntua zehazteko. Baina helburu horretara eraman dezakeen bideari dagokionez, ordea, ez hark, baizik bere esperientzia propioak eta arrotzak bakarrik eman diezaiokete aholku.

Egiaz zati bakan batzuk emateko egoeran egongo da hau, arau hautsiak, perfekziotik ez ezik balio orokorretik faltako zaienak. Halere, ez luke garrantzia gutxiago horiek bildu eta antolatzeak, eta artearen bidea arrakasta erabakigarriez ibiltzeko baimena bere talentuak ematen dionak arretaz marraztu beharko luke zer aurkitu duen bere baitan egiazaturik. Arteari ez ezik filosofiari ere zerbitzu funtsezko bat emango litzaioke horrela. Estetak, izan ere, aitorpen poeti-

ko horiek erabiltzen ditu psikologoak moralak erabiltzen dituen bezala, eta pozten da bestela haren obretatik bakarrik nekez igartzen duen artista izaera orain zuzen ikusiz ezagutzen duelako. Hau da *Dideroten* tesi estetikoek halako garrantzia ematen diotena, ohar eta esperientzia aberastasuna, *Pinturari buruzko saioak* eta *Poesia dramatikoari buruz* obrak hain emankor bihurtzen dituen artista eta teorikoentzat.

Lege orokorraren eta artelan indibidualaren arteko urruntasunak sarri eragotzi egiten du azken hau kasu bakoitza bezain perfektu azal dadin, bigarren honetan baitago irudikatua lehena. Oso erraz beraz, aurki lezake aukera irakurleak saio honen segidan esateko ebatzirik poesiaren izaera ez dudala nahikoa leialkiro eduki begien aurrean, eta nire oharkizunak ez ditudala justifikatu adibide erabat egokien bidez. Gaitzespenezko gisako epai bat esan aurretik, eskatu behar diot guztiaren espirituaren ezagutza sakona egin dezan eta ez dezan hori galdu begien aurretik pasarte bakoitzean. Nik ere guztizko inpresioan pentsatzen nuen beti, eta nik ez dut ezagutzen ebazpen estetikoan apartatzeko beste metodo bat, ez bada hau: era horretan, tasun bakoitza, une batez erabiltzeko apartaturik ere, beti osotasuna, harekin lotuta daudenez, aldaturik ikusten baita.

Hermann und Dorothea kabitzen den poesia mota finkatzeko, beharrezko gertatu zait epopeiari buruzko ohiko kontzeptutik urruntzen den genero propio bat zertzea. Hemen beldur naiz ez ote zaidan aurpegiatuko poesia bakar baterako premiari gabe genero berri bat sortu izana. Artearen teoria lantzen duena natur ikerlearen egoera berean aurkitzen da. Honentzat natura dena da harentzat arte jeinua. Baldin ziur badago ezen hau eta gainera bere indar bete eta garbian produzitu duela (izan ere, honi buruz berak epai aske eta propio bat esan behar du), ez du beste erremediorik ez bada haren fruituak zer iragartzen duen halakotzat hartzea baino, haiek besterik gabe deskribatzea, eta bere sistema, baldin bere sailkapenari kontra-jartzen bazaio, premiaren arabera hedatzea.

Teoria filosofikoak azpian jarritako adibide bakan batzuei jarraiki garatzeak eragozpen bat baino gehiago izan ohi ditu. Edota teoriaren orokortasunak galdu egiten du, edo bestela abiapuntutzat hartu den kasu bakar horretan bestela han aurkituko litzatekeena baino gehiago aurkitzen da. Sarrera honetan nik bilatzen dudana azken helburua ikertu dudana bezala, ez dut uste bi hizkizun horietatik inoren

beldurrik izan behar dudarik. Nik hautatzen nuen metodoari dagokionez, egiaz artearen filosofiaren esparru osoa hartu behar izan dut begien aurrean, baina ez dut apartatu beharrik izan ni jarrita nengoen puntutik. Nik pasatu behar nuen bidea irekitzen bazidan lehen begiradak, azkenak hura mugatzeko balio behar zidan. Hori eskatzen diot berariaz irakurleari ahaz ez dezan, bestelako sorkuntza motei eta sorkuntza naturei, adibidez *tragediari* edo *Ariostori* buruz hitz egingo dudanean. Izan ere, beti nire objektu propioari dagokionean aipatzen baditut ere, nire arrazoiketa, gogorapen hori gabe, erraz azal zitekeen oker eta partzial bezala pasarte horietan. Halere, pozik aitortuko dut ezen balio orokorra lukeen artearen filosofia baten oinarritzko printzipioetan sakonago sartzea kilikagarriegi iruditu zitzaidala nire lanaren bigarren mailako helburutzat har nezan, eta ezen nire ahaleginak funtsean gai honi buruzko nire ideien kopuru osoa, erlazio arrotz orotik libre den eta ahal besteko neurrian bere hartan erabatekoa den osotasun batean sistematikoki moldatzera jo duela gehiago.

Bestalde, ikerketa honen emaitzak ñabardura gutxiagoz eta laburtasun trinkoagoz aurkezturik ikusi nahi balitu arte epaile gustu handikoak, nire irakurleetakako beste edozeinek baino bizikiago betetzen dut agian nik eskakizun horren zuzentasuna, estiloari eta azalpenari bakarrik dagokionez inolaz. Irakurleagoaren zati handi batentzat, aldiz, uste dut nire arrazoiketa filosofikoetan argitasun bezala indar konbentzigarri gehiago banatu dudala arte lan amaituriko baten zati-ketari lotu diodanez; eta ezin aurre egin ahal izan diot bestela garrantzirik gabeko ez diren zenbait begiramen goragoko interesari opaltzeko tentazioari, hau oro har hain estimatua den maisulan bat bere edertasunak garatzen guztiz huts egin ez duen ahalegin bakoitza zalantzarik gabe banatzeko gai baita.

I.

Literatur obraren eragina oro har. Inpresio poetiko bat soilik uzten du espirituan

Deskribatzen duen objektuaren sotiltasun bakuna eta horren bidez sorturiko eraginaren handitasuna eta sakontasuna, bi atal horiek

dira Goetheren *Hermann und Dorothea* obran irakurlearen miresmena bortizkien eta zeharo berez erakartzen dutenak. Gehien kontra-jarririk dagoena, artistaren jeinuari bakarrik eta hau berau ere bere jokiera zorionsuenetan bakarrik korapilatzen duena aurkitzen dugu gure arimaren aurrez-aurre. Irudi batzuk, naturak eta presente biziak bakarrik ematen dituzten bezain egiazko eta indibidualak, eta orobat errealitateak sekula irudika ezin dituen bezain garbi eta idealak. Egintza sotil baten deskribapen soilean ezagutzen dugu munduaren eta gizadiaren irudi leial eta perfektua.

Literatur sortzaileak kontaktzen du familia burges aberats bateko seme batek erbesteratu batekin duen erlazioa; ez du besterik egiten ez bada egintza horren une bakoitza, gai horren atal bakoitza apartatzea eta zirkunstantzien segida garatzea baino, berez eta derrigor bata bestearen segidan datozen bezalaxe; ez darabil eskuartean ezer bere objektuaz aparte; egintzaren korapiloak lotzeko dituen eragozpen guztiak, berriro askatzeko dituen baliabide guztiak egintzatik eta parte hartzen duten pertsonen karakterretatik daude atereak; irakurlearen partehartzea erakartzeko duen guztia esparru horretan dago bakarrik, eta ez da nabarmentzen bere indibidualitate propioan, ez dabil alderrai gisan bere behaketa propioan edo bere sentimendu propioan. Eta zein ikuspegitara sentitzen den aldatua horren bidez irakurlea! Bizitza bere erlazio handien eta inportanteenetan eta gizakia bere existentziako momentu garrantzitsuenetan dago bere aurrean, eta argitasun biziz ulertzen du hori.

Bere bihotzarentzat inportanteena dena, bere gogoetatzea eta bere behatzea etengabe jardunean, ikusten du arrasto gutxi baino maisuetan deskribatua egia harrigarrian —adinen eta garaien aldaketa, eraberritze etengabea ohituretan eta pentsamoldean, giza kulturaren maila nagusiak eta batez ere etxeko bertute zibikoek eta familiako zorion xamurrak nazioen patuarekin eta aparteko gertakarien uholdearekin duten erlazioa. Arreta familia bakar baten gorabeherei bakarrik eskaintzen diela uste duenean, sentitzen du bere espiritua murgildurik gogoeta serio eta orokorretan, bere bihotza erruki tristeetara eramana, bere izaera osoa, aldiz, azkenik berriro jakituria xamur baina jator batek lasaitua. Izan ere, gure garaian guztiak alde guztietan kezkatu behar dituen galdera, alegia: «nola portatu behar du batek iritziak, ohi-turak, egoerak eta nazioak erauzirik gertatzen diren aldaketa oroko-

rrean?» aurkitzen du planteatua ez bakarrik irudi anitzetan, baizik halako gisan erantzuna non erantzunak irakatsiarekin batera orobat egintzarako indarra eta iraupenerako adorea ariman itsasten dion.

Bere garaiko eta bere aberriko harreman guztien erditik ikusten du bere burua mundu batera aldatua, eta hor bera, bestela giza garai sotilen eta jatorren oroitzapenez beterik, saiatzten da antzinakoen eskura sartzen. Izan ere, idazleak bere izatearen indibidualitate osoan hartzen duenean, natur forma sotil eta jatorrizkora eramaten du; eta berak errealtatean errealtate soilerako eta fantasiarentzat erabiltzeko ez gauza bihurtzen duen dena desegiten duen bitartean, baliatzen du azken arrastoraino bere indibidualitatea.

Hain poetikoki soil asmatu eta gauzatu du bere gaia.

II.

Eragin poetiko ororen atal nagusiak. Ebazpen horren egitasmoa orokorrean

Ez dago egiazko izaera poetikoaren froga seguruagorik sotilena eta gorena, erabat indibiduala eta guztiz ideala (bi hauek eragin poetiko ororen atal nagusi) deskribapen berean eta irudi berean lotzea baino.

Izan ere, fantasiaren banako irudien bidez espiritua egoera goi eta zabalera eramatea da idazlearen patu ederra, bere gaiaren mugatze unibertsalaren bidez mugarik ez duen eragin amaibako bat sortzeko eta puntu bakar batetik fenomeno mundu oso bat irekitzeko.

Egiaz erraza irudi lezake, bere eskutan horrela jarriko litzaiokeen egitekoa balitz bezala garai ez-poetiko baten eskakizun gehiegizkoa bakarrik, garai honek, kontzeptu filosofikoen bila alde guztietan saiatzten den bitartean, orobat alde guztietan ideiak bilatzen eta zentzuen eta irudimenaren joko soil eta erraza zapuzten dituelarik. Baina bere patu hurbil eta propioena zehatz aztertu behar da eta zalantzarik gabe aurkituko da ezen, hori guztiz asetzen saiatzten denean, orobat hura erdiesteko bidean dagoela, bere burua idealera jasotzeko eta osotasun jakin bat lortzeko.

Hori da guri agerian jartzea tokatzen zaiguna. Izan ere, ebatzekotan garen obrak benetan guk deskribatu dugun bezain zirrara poetiko jatorra uzten badu, ezerk ez digu zuzenduko poesigintzaren beraren esentziaren ikerketak bezain seguru bere izaera orokorraren deskribapenean; eta deskribapen honek osatzen du gure egitekoaren atal lehena eta nagusia.

Behin hori bukatuz gero, egiteko geratuko zaigu *idazlearen lana berari dagokion generoko arau bereziarekin erkatzea*.

Izan ere, ebazpen bikoitz hori bata bestearekin lotzen denean bakarrik ziur egon gaitzke ez idazlearen orijinaltasunari ez artearen teoriaren bidezko eskakizunari ez diogula irain egiten.

III.

Artearen kontzeptu sotilena.

Idazleak bere jabego bezala lantzen duen alorra, irudimenaren esparrua da; hau erabili eta hori indartsuki eta bakarrik egiten duen neurrian merezi du idazle dei dakion. Bestela naturak, begiratze sensualerako objektu bat baino ematen ez duena, bihurtu behar du fantasiarentzat gai. Egiazkoa irudi bihurtzea da arte ororen egiteko orokorra, gainerako bakoitza zuzenago edo zeharkiago hartara eraman daitekeelarik.

Honetan onez ateratzeko bide bat hautatu behar du bakarrik. Gure ariman errealitatearekiko gogorapen oro xahutu behar du eta fantasia bakarrik gorde behar du erne eta bizi. Bere objektuan edukari eta are formari berari dagokiona gutxi aldatu behar du; baldin natura bere irudian ezagutu ahal badaiteke, hura zorrotz eta leial imitatu behar du; ez zaio beste erremediorik geratzen ez bada berak eragin nahi duen subjektura zuzentzea. Utziko balu objektua bera, azken punturaino, naturan den bezala, ez luke horregatik zerbait erabat bestelako bihurtu gabe utziko; bestelako esfera batera aldatuko luke eta. Errealitatean xedapen batek beste guztiak zokoratzen ditu; objektuari, beraz, bere, izaeraren bidez ematen diona, horixe bera hartzen dio berriro bere existentzia bakarraren bidez; fantasiaren aurrean, ordea,

huts egiten du errealtatearen naturatik darion mugaketa horrek, arima, fantasiak irazekirik, errealtateaz gaindi altxatzen denez.

Arte ororen eragin orokorra eta sotilena ondoen egiaztatzen dute naturako objektu bizirik gabeak irudikatuz asetzen diren pinturak. Landare bat, fruitu bat naturan gure aurrean dagoen bezalaxe pintatua da, ez da ezer uzten, ez zaio ezer gaineratzen; zergatik egiten du, orduan, bestelako inpresioa benetako objektuak egiten duenaren parean? Zergatik da gisa horretako pieza bat artearen kontzeptu orokorri dagokionez, beste irudikapen oro bere arloan bezala, balio berekoa erabat bere generoan? Bakarrik ikuslearen fantasiara zuzenean eta garbi-garbi doalako eta maila bereko garbitasunez sortu delako artistaren fantasiatik.

Hona artekoan artea gehiago da deskribatua, definitua baino; bere esentzia gehiago enpirikoki argitua, filosofikoki garatua baino. Benetako definizio batek, apetazko azaldu nahi ez badu, kontzeptuzko dedukzio baten gainean oinarritu behar du. Gisa honetako definizio bat artearentzat espirituaren natura orokorretik etor daiteke.

Gure arimaren hiru egoera orokor bereizten ditugu guk, haietan bere indar guztiak neurri berean eginkor, baina bakoitzean bati, agintariari bezala, azpisailkaturik daudelarik. Guk dihardugu edota esperientziatzko ezagutza soilen biltze, antolatze eta erabiltzearekin edota esperientzia orotatik libre diren kontzeptuen bilatzearekin; edo bestela errealtate mugatu eta amaidunaren erdian bizi gara, baina mugarik eta mailarik gabea balitz bezala.

Azken egoera hori —erraz ulertzen da hori— irudimenari dagokioke bakarrik, tasun kontrajarriak lotzeko moduan dagoen gure gaitasunetako bakarra bera baita. Horretan gertatzen denak tasun bikoitz bat bateratu behar du bere bar ruan. Behar du, 1. irudimenaren sorkuntza soil izan; eta 2. beti errealtate jakin, kanpoko edo barnekoa eduki. Lehena gabe irudimena ez litzateke agintari; bestea gabe gure arimako gainerako indarrak ez lirateke eginkor une berean. Baina hemen aipatzen dugun errealtatea ezin daitekeenez egokitu existentzia batera errealtatean, arauzkotasunean bakarrik oinarritu daiteke.

Egoera honetatik, beraz, sortzen da artearen premia.

Horregatik da artea *irudimena legeei jarraiki emankor egiteko prestutasuna*; eta bere kontzeptu sotilen hau da orobat bere garaiena.

IV.

*Eraginaren garaiera, nora altxatzen den artea. Idealitatea.
Idealaren lehen kontzeptua, ez-egiazko bezala.*

Irudimena irudimenaren bidez piztea da artistaren sekretua. Gurea behartzeko, hark irudikatzen dion objektua bere barnetik sortzeko, beretik libre atera behar du. Baina artelan bakoitza, edozein delarik ere bere jatorrizko irudiari dion leialtasuna, sorkuntza erabat berri bezala artistarena denez, *objektuak* bere izaeraren eraldaketa bat jasaten du, eta beste garaiera batera altxatua izango da.

Fantasiaren erresuma dago errealitatearen erresumari erabat kontrajarria; eta neurri berean kontrajarria dago hartaz bi alor horietako batari edo besteari dagokion karakterra ere. Egiazkoaren kontzeptuarekin ezin banatuzko eran lotua dago agerpen bakoitza bakarka eta bere hartan dagoela, ez dago bakar bat ere oinarri edo segida bezala beste batekiko mendean. Izan ere, ez du egiten bakarrik, gisako mendetasun bat sekula egiaz ikusia ez izateak, beti dedukzioen bidez ikusia izateak, errealitatearen kontzeptua bilatzea alferrikako. Aurkezpena hortxe dago: hori aski da zalantza oro zokoratzeko; zertarako justifikatu behar du bere kausaren edo bere eraginaren bidez? Baina posiblearen esparrura pasa bezain laster, ez da ezer ez bada beste zerbaitekiko bere mendetasunaren bidez; eta barneko erlazio unibertsal baten baldintzapean baino pentsatua ez den oro hitzaren zentzurik hertsien eta sotilenean ideal da. Izan ere, neurri horretan egiazkotasunari, errealitateari zuzenean kontrajarria zaio.

Era horretan idealizatua izan behar du artearen eskuak irudimenaren esparru sotilera daramana.

Gizakiak edozein aldetara ere zuzentzen duela bere begirada, kontrako erlazio baten kontzeptua bilatzen du, barneko antolaketa baliozko egiteko. Alde guztietan halabeharra uxatzea, eragozteak, begiratzen eta pentsatzen dagoenaren esparruan agintzen duenik ez iruditzea da arrazoiaren ahalegina. Horren bidez bakarrik bermatzen du gainerako sorkari guztiek baino jatorri goragokoa izateagatik arrazoiz harrotzea, ideien lurraldekoa izatea.

Hortik natura osoa, leial eta guztiz behaturik, berarekin pasaraztea, hau da: bere esperientzien gaia munduaren inguruarekin ber-

dintzea; fenomeno banakako eta eten hauen pila izugarria batasun banagabe eta osotasun antolaturiko bihurtzea; eta hori horretarako eman zaizkion organo guztien bidez egitea da bere ahalegin intelektualaren azken helburua.

Baina begitatzte hau bere orokortasunean gure objektuari arrotz zaionez, hemen geratuko gara irudimenak eta artistak bereziki lan handi horretan hartzen duen partean. Hori gogoratuko dugu erakusteko artea ez dagoela gure xede propiorako soilik prestatzen garen zeregin mekaniko eta mendekoen artean, baizik garaien eta bikaine-netakoen artean, zeintzuen bidez guk hura zuzenean betetzen dugun.

V.

Idealaren kontzeptu bigarren eta goragokoa, errealitate oro gainditzen duen zerbait bezala

Idazleak bere objektua, zuzenean naturatik mailegaturik harturik ere, beti bere irudimenaren bitartez sortzen duelako, zehazturik geratuko da berak bere egiazko izaeraren gaindi edo hartaz kanpo emango dion irudia. Izan ere, bere oinarria halabeharretan baino ez duen ezaugarri oro ezabatzen dio, bakoitza jartzen du bestearekiko loturik eta osotasuna berarengandik bakarrik; eta horren bitartez harengan nagusi izango den batasuna ez da, halere, kontzeptuaren batasuna, baizik erabat formaren batasuna bakarrik. Izan ere, guztizko autodeterminazioaren eta erabateko formaltasunaren baldintza bikoitzaren pean bakarrik da irudimena gai berbera garatzeko. Lan hori onez gauzatzen badu, azkenik karakter forma garbiak eraikiko ditu, irudi soilak, natura garbi, eragin aldakor batzuen bidez desitxuraturiko naturarik beraiengan ez dakartenak; bakoitza dago bere berezitasunaren zigiluaz zigilaturik, eta berezitasun hori forman datza, hautemapen bidez baino ezin daiteke jaso, baina ezin adieraz daiteke kontzeptu batean.

Baina, halere, natura artearen bidez izango da edertua eta nobletua, orain erdiesten du idealaren kontzeptuak bere esanahi gorena, inolako errealitatek erdietsi eta inolako adierazpenek ahitu ezin dezakeena.

Hemen ere inolaz arretaz kontu hartu behar da artistak jokatzeko duen modua ez ahazteko, ezta ere karakter handi eta akatsik gabeak baino ezin dituela irudikatu dioen okerrean ez erortzeko. Edozein delarik ere beraiengan dakarten berezitasuna, baldin beraiengan erabat eta bakarrik azaltzen bada, baldin irudimenaren objektu soil bezala erabilia bada — hauxe da berari asetzeko dagokion eskakizuna. Baina horiek betetzeko, ez dauka zertan hazpegiak kanpoan utzi edo gaineratu beharrik; inolaz oso gutxitan oinarrituko da horretan bere eraginaren funtsezkoena. Baita naturarekiko esklaboen gisako mendedetasunean ere lor dezake hori bere zabalero osoan. Izan ere, ez baitago hazpegi bakan batzuen, aldakuntza batzuen esku, baizik bere obrari ematen dion kolorearen esku dago, distiraren esku, gure fantasiari zuzenean hitz egingo dion eta erabat egiazko eta naturaren eta gure espirituaren legeekin bat datorren, beraz idealki azaltzen duen batasun bat eta formaltasun bat hari ematearen esku bakarrik. Zeren bidez, ordea, berak gure irudimenaren forma naturaren formarekin sortzen duen, ezingo luke berak esan; eta hori deskribatu nahi denean hori lan mekaniko soil bihurtzeko arriskuan erortzen da beti.

Poetak natura goratu egiten duela dioen esaldia, beraz, zuhurtasunez erabili behar da. Izan ere, hertsiki hartzen bada ez baita egokia. Artistaren lana eta naturaren lana ez daude gehiago esparru berean eta hartaz ez dute onartzen neurri bera.

Ideala intelektualean eta moralean erabiltzeak oso erraz eramaten du beti horren azpian arrazoiaren bidez ulerturiko edo bihotzaren bidez sentituriko zerbait imajinatzerara. Baina kontzeptu hori orobat erabil daiteke objektu sentsual soiletarako, eta gorago emandako adibidea, artearen kasu sotilena, naturaren imitatze soila burura ekarri baino ez da behar horretaz konbentzitzeko.

Fruta eder margotu batean igartzen da ertzen muga, mamiaren xamurtasuna, azalaren biguntasun barban gisakoa, koloreen goritasun bat —hori nahi den neurrian ideal izanda ere— naturak erdietsi ezin lukeena. Baina ezin esan daiteke horregatik margoturiko fruta naturala baino ederragoa denik; natura ez da ederra berez, ez bada fantasiak hura irudikatzen duen neurrian. Ezin esan daiteke siluetak naturan gutxiago eginak daudela, koloreak ez hain biziak liratekeela; diferentzia da errealtateak zentzuei hitz egiten diela, arteak fantasia-

ri, hark silueta gogor eta ebakiak dituela, honek bai zehatzak baina beti mugarik gabekoak eskaintzen dituela.

Bi partikularitasun hauetan aurkitzen den kontraesan ukaezinezkoak berak erakusten du artearen eragin oro hartzailearen sentimenaren bidez sortzen dela. Izan ere, bestela garbi dago ezen siluetak finkatu eta orobat mugatu egiten duela, ezen lerro batek, zabaleroak zenbat luzatu behar duen zehazten duelarik, gainerako guztia orobat kanpoan uzten duela; baina fantasiak ez du mugatzen, amaibakora doa, eta artistaren jeinuak liluratzen duen bezain laster, bere amaibakotasuna aurrean jartzen dion formarekin uztartzen du, egia esan arrazoiari eta ikusketa sentsual soilari bai, baina berari ez dagokion kontraesan batekin kezkatu gabe.

Hortik dator gainera arteak gure baitara itzultzen gaituela, errealtateak gugandik ateratzen gaituen bitartean, gure grinak gustu, gure eginkortasuna egintzara esnatzen duelarik. Artearen lana nobleegia da gustuarentzat eta gizakiaren indar barnenekoak pizten ditu, bat-batean mugimenduan jartzeko; eta egintza handietarako entusiasmorik garaiena eta ederrena ematen du, baina bera gizakiari ematen zaionean hura munduari luzatzen dio. Bera errealitateko den bere esentziaren zatiari ez dio ezer esaten.

VI.

Ideala beti erdiesteko artista egiazko orok duen premia

Artearen esentziak fantasiaren legeak bilatu bezain laster, haren bidez bakarrik baita eraginkor, idealaren kontzeptura iristen da derrigor.

Artistaren portaera edozein neurritan delarik ere ulertezinezko, beti geratzen da han zerbait —eta hori da funtsezkoena— ez poetak berak ulertu ez kritikoak adierazi ezin duena; edozein modutan garbi dago inolaz beti artista ez bestetik abiatzen dela ez bada egiazko den zerbait irudi bihurtzetik; baina orobat berehala ikasten duela ezen hori komunikatze bizi moduko baten bidez baino ez dela posible, ezen orobat bere fantasiatik txinparta elektriko bat besteen fantasiara isur dezakeela eta hori ez zuzenean, baizik hura bere baitaz kanpoko objektu bati itsatsiz.

Hauxe da irekita daukan bide bakarra, eta hori nolabait nahi gabe, bere poeta lanbidea bete eta bere egitekoaren gauzatzea fantasiaren esku uzten duen bitartean soilik, natura errealitatearen mugetatik altxatzen du eta ideien lurraldera eramaten, bere indibiduoak ideal bihurtzen ditu.

VII.

Naturaren imitatzea

Idealaren kontzeptuak, errealitatearen gaindi jasotako zerbait bezala, naturaren imitatzearen legea dakar gogora, orain arte artistari jarraitzeko eskaintzen zitzaiona, are artearen definizio bezala ere ikusi izan dena. Egiaz bi kontzeptu nagusiak bere baitan laburbiltzen ditu: errealitatearen kontzeptua naturaren adierazpenean eta hura benetan ez den bezala aurkeztu behar denarena, imitatzean, honek ez duelarik onartzen bere ereduarekin guztizko berdintasuna. Baina zehaztasun gabezia bat dauka, artearen izatea ez (orain arte sarriegi egin den bezala) bere objektuaren izaeran, baizik fantasiaren sentimenean bilatuz bakarrik ekidin daitekeena.

Egia da zehaztasun gabezia hau kentzen bi eratara saiatu izan dela. Artistari gomendatu izan zaio natura ederra eta hori ederki bakarrik imita dezan. Ederraren kontzeptuak, ordea, era askotako oker ulertzea dakar, zabalero zehaztu ezinezkoa da guztiz eta beti maila berri eta garaiagoetarako aukera ematen du. Idealarena, aldiz, erabat zehaztua da. Izan ere, fantasiak bere berezkotasun soilean ernaltzen duen guztia eta hartaz fantasia batasuna daukan guztia ideala da. Hau orduan beti handitasun oso bat da, nahiz, inolako artistak ezin duenez espero hura osotoro erdiesterik, fantasiaren indarrak indibiduo bakoitzean hemen ere maila ugari —inolaz egintzan bakarrik, ez eskakizunean— baimentzen du.

Imitatzearen esamoldeak sortzen duen beste ekibokoa ekidin nahi izan da imitatzeak ez imitatze jasantzailea baizik naturaren aldaketa berezkoa izan behar duela esanez. Baina aldaketa horren mugek eta moduak ñabardura berri eta, zehatz hitz egiteko, ezinezkoak eskatzen zituzten.

Eztabaida hau konpontzeko modu bakarra bide subjektiboa da, guk hautatu eta artearen definizio batera ez gutxiago daramana. Izan ere, artistak natura (errealitatea eduki dezakeen ororen ulertzeko erabiltzen duguna) fantasiaren objektu bihurtzen duenez, artea naturaren irudikapena da irudimenaren bidez; eta definizio bat goian emanetik hain gutxi bereizten da, non gehiago haren adierazpen objektiboa den.

Irudikapen honek ederra izan beste modurik ez dauka; izan ere, irudimenaren lana baita. Naturaren aldaketa bat eduki behar du; izan ere, hura beste esfera batera eramaten baitu. Baina definizioak berak erabakiari heltzen dio, zein edertasun berari dagokion, zein aldaketa izan behar duen naturak; ez beste bat, noski, ez bada baliabide arrotz batera berez berarekin daraman aldaketa hura.

VIII.

*Artearen bigarren abantaila bere azken perfekzioan:
osotasuna. Bide bikoitza hura eskuratzeko*

Erakutsi dugu dagoeneko nola iristen den poeta idealtasunera; baina iritzia goragokoan areago zabaltzen zen: esaten genuen aldioro osotasuna erdiesten zuela; mundu baten esamoldeaz baliatzen ginen eta esamolde hori ez zen inolaz metafora bat.

Mundua, egiazko guztiaren ingurune itxi bezala, bi eratara beha daiteke: behin berak hartzen dituen objektuen arabera; ondoren gizakiak hura jasotzeko dauzkan organoen arabera. Izan ere, hartarako organoak dituen neurrian izan da kanpoko mundua beretzat.

Hartaz, poetak berak bilatzen duen osotasuna bi eratara erdiets dezake, edota haiek egiten dituzten objektuen ingurunera edota emozioen ingurunera pasatuz. Lehenbizikoa poeta deskribatzailearen bidea izan ohi da, azkena poeta lirikoarena, nahiz biek metodo hauek ere beren artean truka ditzaketen, ez baita auzia haiek uzten duten eragin zuzeneko, baizik azken eragina.

Ez zaio zail egingo bi bidetako edozeinetik helburura iristea. Giza izatearen egoera desberdin guztiak eta jada guk natura behatzen dugun abiapuntua hau delako, naturaren indar guztiak hain hertsiki

daudelarik elkarrekin erlazionatuak, elkarri eusten eta eramaten diote beren artean, ezen ez den inolaz posible bat bizirik irudikatzea orobat ingurune guztia harekin batera bere planoan jaso gabe. Poeta deskribatzailearentzat bizitza hain da aberatsa erlaziotan, eta hain erraz egingo zaio hura berriro gizakientzat era esanguratsu batean irudikatzea, non aski duen halabeharrez harturiko gaia hurbilagotik garatzea, jarritako irudiak gehiago indibidualizatzea espirtuarentzat garrantzizko egin ditzakeen egoeratan beti jotzeko eta berehala gero eta gehiago bere ikuspuntutik bere begiradari eskaintzen zaizkion objektuen kopuru guztia ahitzeko.

Bizitza osoa fantasiari aurkezteko edo gizaki osoa bere barnean dardararazteko eta bera uki zezakeen guztia batera hartzeko arte honetan ez die inork gaina hartu antzinakoei. Pindaroren ereserki bakoitzak, tragikoen koru handi bakoitzak, Horazioren oda bakoitzak pasatzen du, baina etengabeko aniztasun aldakorretan, ingurune bera. Beti da Jainkoen bikaintasuna, patuaren indarra, gizakiaren mendetasuna, baina baita ere animoaren handitasuna eta adorea gorentasuna, zeinaren bidez bera patuaren kontra sostengatzen den edo are haren gainean altxatzen saiatzen den, poetak deskribatzen duena. Eta zein bestelakoa, zein biziago, aberatsago, sentsualki argiago dagoen hau Homerorengan marraztua! Ez bakarrik bere poesia osoan, kantu bakoitzean, kasik pasarte bakoitzean dago bizitza osoa zabalik eta garbi gure aurrean, eta arimak bat-batean erraz eta seguru, gu garena eta nahi duguna, guk pairatzen eta dastatzen duguna, guk zuzen jokatzen edo huts egiten dugun erabakitzen du.

Hortik eragin baretzailea, espirtu garbi orok antzinakoak irakurtzean sentitzen duena; hortik paroxismo pasionatuena edo desesperazio hilgarriena aldioro atsedenera jaitsia edo kemenera jaso. Izan ere, baretasuna puzten duen indar hau ez da sekula falta gizakiak munduarekiko eta halabeharrekiko bere barneko indarra edo bere barneko oldarrak kanpoko oreka zapaltzeko arriskua dagoenean bertan geratzen bada, histasun zalantzia sortzen da, eta hain egokia da gauzen ilaran izendatu zaion lekua, non harmonia eta baretasuna berriro segituan itzultzen diren, fantasiak prestutasunaz kontuak egiten dituen lehen emoziozko une horietan aurkezten dizkion fenomenoengurune osatzearekin batera.

IX.

Osotasun hori aldioro da irudimen poetikoaren nagusigo erabatekoaren ondorio ezinbestekoa

Baina ez dago objektuaren hautaketa sarri halabeharrezko baten esku, ezta poetaren indibidualitatearen esku ere osotasun hori ziurtatzea eta kolpetik bere entzulearen emozio guztien nagusi izatea. Hori egin behar du beti eta erabat, esan nahi osoan poeta deitzea irabazi bezain laster, hau da: irudimena nagusi eta berezko egiten asmatu bezain laster.

Izan ere, ez bere egitasmoan hartzen dituen objektuen kopurua da hemen bereziki garrantzizko, ezta ere horiek gizadiaren interes gorenekiko daukaten hurbiltasuna; biak, edozein mailatan indartzen duela ere bere lanaren eragina, bere balio artistikorako indiferente dira; hemen eduki behar duen guztia da irakurlea erdiko puntu batean jartzea, nondik alde guztietara izpiak amaibakora ateratzen diren, eta nondik berak naturako forma handi eta sotil guztiak gainbegira ditzakeen, han baitaude egiazko objektuak bere halabeharrezko berezitasunetatik erazten zaienean.

Ez da hartaz inolaz auzia, berez ezinezko den guztia, edo artearen espezie zenbaitek kanpora utziko lukeen asko erakustea, baizik gu dena ikusteko egoeran jartzea. Bil dezala gure izate propioa puntu bakar batean eta erabaki, berak artista denez egin behar duen bezala, bere baitaz kanpoko objektu batean jartzea (objektibo izateko), eta zuzenean dago (edozein delarik ere objektu hori) mundu bat gure aurrean. Gure izate guztia, izan ere, dago orobat gugan eta bere puntu guztietan eginkor eta kreatzaile da; egoera horretan sortzen denak berari erantzun behar dio eta berriro batasuna eta osotasuna izan; baina bi kontzeptu horiek dira hain zuzen mundu baten adierazpenean elkarrekin lotzen ditugunak.

Hain zuzen lehenago idealaren erdiestean aurkitu dugun kasu bera daukagu hemen berriro. Poetak eraman gaitzala, bere lanbide lehen eta sotilaren arabera egin behar duen bezala, errealitatearen mugez kanpo, eta aurkituko gara zuzenean berez puntu bakoitza guztiaren zentro eta horrela hau mugabako eta amaibako den eskualdean. Erabateko osotasunak izan behar du ideal ororen karakter berezitzaila, haren kontrakoak errealitatearen karakter berezitzaila izan

behar duen bezala. Poetak, beraz, gudan errealitatearen ezagutzara zuzenduriko joera oro zapaltzera eta bestela harekin saiatzen diren gure espirituko indarrak irudimenaren azpian bakarrik jartzera iristen denean, erdietsi du bere helburua. Izan ere, orain azken hau da agintzen duena; orain dena elkarrekin lotzen du, berez den indar bat, bizitzako printzipio propio bat aurkitzen duen lekuan; eta positibo den oro beren artean erlazionaturik dagoenez eta berez bat denez, indibiduen bereizketa oro, ordea, mugatzearen bidez sortzen denez, hemendik derrigor ateratzen da berez ahalegin bat bere baitan itxiriko osotasun bila. Espiritua, hartaz, zeinaren gainean artistak gisa horretan eragin duen, prest dago beti, edozein delarik ere objektua nondik abiatu den, harekin zerikusirik duen ingurune guztia osatzeko eta beti zentzurik hertsienean agerpenezko mundu bat bat-batean laburbiltzeko.

Baina artistaren asmoa ez da sentiera gozatzea besterik, artista ez baita subjektuaz gaindi inora joaten, eta objektuak haiengan gizakia irudikatze baina ez baititu deskribatzen; eta hori erdietsi behar du aldioro, nahiz gairik sotilena, egunsenti bat, ilunabar eder bat edo naturako beste eszena edozein kantatu edo Iliada bat edo Mesiada bat sortu. Hain hertsiki dago lotua eskakizun hau bere poeta edo are artista ofizioarekin.

Horren osaketa bera ere, hertsiki ulerturik, egiazko artista naturaren lana da bakarrik. Izan ere, sinesteko joera dagoen bezala, poeta serioenak, handiak eta edukiz oparoak bakarrik osotasun hori ondoen erdiesten duela uste ordez, harengandik hurbilen dagoenak, artearen jeinuak arintasunik handiena eman dionak, irudimena xamurren eta xaloenen mugitzen dakienak, haren tonuerak erarik oparoenean handitzen dituenak, irrika amaibako batez lotura beti berrien bila hegaldi berriak betetzen dituenak. Honetan baitatza hark hari erasten dion oro-hartzailea, alegia, inon ez dela azaltzen zailegia leku batean erroak botatzeko, beti aurrera eta aurrera egiten duela eta, halere, berak markatu duen ingurune osoa beti menderatzen duela; bere atseginak tristuraz egiten duela muga, bere tristurak atseginaz; ez duela gehiago ikusten errealitatearen kolorea, baizik berak, liluramen misteriozko baten bidez, gainetik janzen dien distiraz ikusten dituela.

Ez da gehiago zail mundu bat mugitzea, baldin hartaz kanpo non oina segurtasunez jarri puntu bat aurkitu bada.

X.

Idealak aurkezpenean osotasunaren gainean duen eragina

Arima behin artistikoki erabakita badago, poetak sentiberatasun xamur hura, kilikagarritasun arin hura eman badio, bere nahiaren esku bakarrik dago zenbat objektu bakoitz hari erakutsi nahi dizkion, zenbat emozio bakoitz harengan eginkor egin nahi dituen. Bere espeziearen naturak finkatzen du hori, bere gaiaren hautaketak, azkenean bere indibidualitateak. Ez zaiola zail gertatuko gai bakoitzetik irudi aniztasun handi bat garatzea, gorago erakutsi da; baina bada oraindik gehiago. Bat bakarra poetikoki altxatzeko moduak fantasia prestatzen du horretarako, ez bakarrik batzuk, baizik, hain zuzen ere, honekin ingurune itxi bat eratzeko behar hainbat gehiago erantsi diezazkioke.

Irudimenak antzekoa antzekoaz lotu eta ez-antzekoen artean ere kide bateratzaileak tartekatzen dituelarik, aniztasuna sortzen du, ez osotasuna. Azken honetarako berak eta bere objektuak poetikoki zertuak eta prest egon behar dute, eta hauxe da kasua poetak figura idealak egiten dituenean.

Bietarako, idealerako eta osotasunerako irudimenaren alorrean jasotzen da, baina bakarrik errealitatearen existentzia mugatu eta etena, aginte egintza baten bidez bezala, altxatzen duenean. Biek egon behar dute, beraz, elkarrekin hertsiki loturik. Ideala, bestalde, osotasunaren posibilitatearen gainean oinarritzen da dirudienez; izan ere, idealaren bereizgarria da honek dena, baina dena gero, bere erara bakarrik bereganatzen duela. Eta berriro idealak osotasuna mugatzen du, osagai bakoitzaren pila beti kopuruan bateratzen denez, eta horiek, puntu batetik behaturik, arrazoiarentzat edo kontenplazioarentzat osotasun bat osatzen dute.

Ideal deitzen dugu ideia baten errepresentazioa indibiduo batean. Hartaz hari eskatzen diogu ezaugarri bat partzialtasunik gabe. Baina gisako bat ez dugu erdietsiko bestela ez bada, funtsean karakter jakin bat (horrek egon behar baitu figura ideal bakoitzaren oinarrian) dena, guk batera hartuz, baizik halabeharrez berarekin dakarren guztia handik apartatuz. Ideal guztiak, beraz, guztiz azaltzen dira egia diren bezala eta horrela bakarrik. Horrela askorengan begien aurrean jartzen da zuzenean beren ukitu komunaren puntua eta beren kontras-

te indibidualaren puntua. Baina ezin du geratu erraz zulo bat bete gabe. Biren artean kide bat falta denean, segituan igarri behar da.

Partikularitasunera jotzen ez duen antzekotasun honen bidez eta jasanezintasunera jotzen ez duen desberdintasun honen bidez, mundu osoa banatzen da begirada idealizatzailearen aurrean kopuru bakoitz pila zenbatezinezko batean. Indibiduoak taldetan biltzen dira, hauen arteko txikiak handiagotan, guztiak osotasun batean. Poetari ez doakio bestela. Hark ere ez du erakusten kopurua baino. Bere materia guztiak lotzen du halako mugimendua halako ahaleginarekin forma bila, non mozten denean alde guztietan kopuru organikotan elkarrengandik ihes egiten duten, elkartzen diren lekuan berriro masatan pilatzen diren.

Poetaren jeinuak talde anitz hauek garatzen dituen hari berean, haietantxe doa bere irakurlearen fantasia batetik bestera; eta idealki marrazturiko figura bat bakarra han egon bezain laster, berez beste batzuk eta beste gehiago oraindik deitu behar ditu, sentimen artistiko bakoitzerako nahikoa handi eta zabal izango den ingurune bat osatu arte.

Poetak eraikitzen dituen irudi guztiek dute lotura puntu komun bat, beren erlazioa giza naturarekin. Erdiko puntu honetatik besterik gabe denak mugi eta mendera ditzake. Asko, ordea, askoagatik kide dira beren artean, eta esfera oraindik askoz hertsiago itxia osatzen dute.

Baldin, ordea, irudimena halako gisan finkatua eta objektua halako gisan landua badira biak, non lehena inolako puntutan ezin daitekeen gelditu eta azkena bakar bati ez zaion itsatsi nahi, ez dago beste modurik, osotasun erabatekoarekin lasaitasuna eta barealdia etor daitezen ez bada ingurune guztiaren osaketarekin.

Nolatan da, adibidez, posible gaztearen adina bizitasunez deskribatzea fantasian orobat haurra, nondik datorren, gizona, nora jotzen duen indarrak, eta agurea, garretan dagoen bere suaren azken txinpartak itzaltzen direlarik, presente egon gabe? Nola margotu heroia, guda zelaian, hildakoen erdian, heriotza aldraka eta hondamendia sistematikoki agintzen duena, aldi berean, arimaren aurrera deitu gabe, pentsalari baretsua, bere horma bakartien artean, egintza praktikoro orotik urrun eta eguneko gertakariekiko arrotz, beharbada hurrengo mendeetan fruitu oparoak agintzen dituzten egiak bakarrik

aurkitu nahirik dabilena; edo nekazari narea, eguneko premiez bakarrik kezkatu, beti berriro abiatzen diren urtaroen aldaketara mugaturik, hurrengo uzta baino ez daukana buruan?

Egoera batek berez ekartzen ditu gainerakoak, haien bidez, izan ere, gizaki bakarrik edo gizadi osoak batera irauin baitezake; eta hauxe da artistikoki erabakitako irudimenak gizaki moralari ere ematen dion irabazi handia, ezen hark erakusten diola hein batean bere bizitzako aldi guztiak elkartzen, joandakoak segitzen eta hurrengoak hasten, baina horregatik oraingoa egiaz gutxiago izan gabe.

XI.

Poetak bere jatorrizko asmotik bere helburu goreneraino egiten duen bide osoaren ikuspegia

Ezin erdiets daiteke inolako giza ekintzan gorena ez bada bere espeziearen mugen barruan. Bera dena erabat baliozko eginez erdiesten du gizakiak berak eta bakoitzak bereziki bere azken xede orokor eta indibiduala. Ez bestela poetak. Irudimena nagusi eta emankor egitea da bere egitekoa, eta egiteko hori burutzen duen iristen da idealera eta erdiesten du osotasuna.

Gure ustez, gorago egiaztatu dugu hori; eta baldin guk egin dugun bideak luzea eta, gure hurrengo egitekoari dagokionez, arrotza bazirudien ere, hura hautatu genuen eta ez zergatirik gabe. Ez dago ezer lan mota bakoitzaren ebazpenean, eskakizuna begien aurrean eduki baino, arrazoiz espero baitaiteke harengandik eskakizuna bete dezan. Egiaz ez da ezohiko bereziki obra estetikoak laudorio zehaztu gabeez jasotzea, haiek bere motako beste batzuekin erkatzea eta haiei merezi ez dituzten bertuteak aitortzea. Ez hainbat gutxiago da beti ebazpen modu zuzen bakarra hura berak izan beharko zukeenarekin, estetikaren printzipioekin eta artearen idealarekin konbaratzea, ea kritikaren eskubidezko eta ezinbesteko eskakizunak ase bere egitekoa bete duen. Bere balio absolutua, ez erlatiboa, finkatu behar da. Bide honi itsu-itsuan leial jarraitzen bazaio, ederraren, bikainaren, gorenen adjektiboak berez bihurtuko lirateke burutsuki pentsatu, metodikoki antolatu, egiaz deskribatu, zuzen jaso, poetikoki aurkeztu; pozik

geratuko litzateke bat erabakiz soilik zein eskubidez daraman obrak poesia baten izena, eta are bera tartekotzat jotzen duen mota berezi batena.

Ez du edozein poesiak halako ebazpena jasaten; baina barkaezinezkoa litzateke beste bat, bertute hain handi eta beharrezko eta funtsezko dituen eta hain nabarmen alhaja arrotz eta mailegatu oro falta zaion batengan erabiltzea.

Orain artekoan artearen izaeraren garapenari dagokionez gehiago segitu dugu jokamolde arrazoitzailea eta oso gutxitan jo dugu esperientziara. Aurkezturiko ebazpenei dagokienez era sentsual batean konbentzi gaitetzen, aski izango dugu gogora ekartzea artelan perfektu batek gudan sortzen duen eragina: zein jarreratan jartzen gaituen Belvedereko Apolok edo Homeroren pasarte batek.

Giza sentimenduen hari guztiak orduan daude gudan jasoak; giza natura sentitzen dugu orobat bere ukipuntu guztietan; ez gara joango suabeago emozio batetik bestera; bortitza den zirrara oro ez da bestela ere hain apala eta hain irmoa; orobat, ordea, ondoren inguratzen gaituen mundua ispilatzen da gudan eta egoera berak segitzen du gudan. Izan ere, gure aurrean sumatzen dugun perfektzioa eta harmonia gugana datoz eta baretasunaren eta emozioaren bidez agertzen dira —hauek biak, beharbada, artelan handi bakoitzaren eragin orokorren bezala ikus daitezke: baretasuna, egoera horretan ezer molestagarriarik, ezer gozagaitzik gerta ezin daitekeelako; emozioaren bidez, bihotza beti, naturaren edo gizadiaren sakonera jakin bat begiratzen dugun bakoitzean, tristurarekin heltzen duelako. Biek batera egiaztatzen dute, gizadia eta patua, giza bihotz bat uki dezakeen guztia kolpetik hartzen duten bi objektu ikaragarri hauek ezin ikus daitezkeela bizikiago ezta bortizkiago ulertu ere une horietan baino. Gisako egoera zoragarri eta ulertezinezko batean, ordea, espiritua ezin jarria izan liteke beste modu batera, ezta gisako sakonera batean amildua ere beste era batera, ez bada bera, errealitate oroz gaindi, idealen mundu batera sorgindua ez bada, han natura bere osagaietan eta bere indarretan bakarrik berriro ezagutzen baitu, bestela beretzat arrotz den perfektzio eta mugabakotasun bat aurkituko du.

Beraz, ikusten bada poetak (eta harekin artista orok) egiten duen bidea, harritu egiten da bat ikusiz zein helburu sotiletik zenbateko garaiera ulertezinezkora igo den.

Egiazko objektua, nolabait esateko, jolasean fantasiaren objektu bihurtzea, hantxe hasi eta amaitzen da gizakiari bere azken xede bezala gomendatzen zaion egiteko handien eta zailena, bera eta inguruan daukan kanpoko mundua barne-barnetik korapilatzea alegia, hau hasteko objektu arrotz bezala bere baitan onartzea, ondoren ordea aske eta berez eraturiko bezala berriro ematea, bere erara eta hari atxikiriko organoekin gauzatzuz.

Izan ere, behaketak berari eskura jartzen dion gai osoa eratzen du forma ideal bezala irudimenarentzat, eta inguruko mundua ez zaio bestela agertzen ez bada forma ugariren osotasun orokorki indibidual, bizi, harmoniko, inolaz ez mugatu ezta ere mendeko, beretzat bakarrik asegarri bezala. Hala, gisa horretan igaroarazi du harengana bere natura propio barnekoena eta onena, eta izate bat norekin berak erabat sinpatiza dezakeen bihurtu du hura.

XII.

Poesigintzan estilo garai eta egiazkoa sasi-estilotik bereiztea

Ea poeta artearen gailurreraino iristen den, ea bere irakurleak berarekin garaiera horretaraino jasotzen dituen? Hori da, beraz, bere balio estetiko egiazkoaren benetako proba bakarra. Izan ere, helburu horretan egin behar dute bat elkarren artean eskubidez artista izena eraman nahi duten guztiek, edozein delarik ere, beraiek hautatu duten motak behartu dituelako, edo beren indibidualitatearen desberdintasunak deitu dielako, finkatu duten bidea. Perfekzio artistikoa han bakarrik bila daitekeela biziki sumatzen ez duen nazio bat, bere poetei bide hori zori handiz segitzea errazten ez dien hizkuntza, urrun daude oraindik poesian estilo handitik eta giza prestakuntzarako batez ere eta izaerarako haiekin loturik dauden ondorio mesedegarri guztiak falta zaizkie.

Egiaz, izan ere, estilo handi eta garai hortaz kanpo badago artean beste bat naturaren aldetik gutxiago garbia eta ohitura txarren-gatik hondatua dagoen gustua atsegingarriagotzat lausengatzen duena eta, ondorioz, egiazko bakar harekin nahasten dena. Bai, biak nolabait eskualde desberdinetan daudenez gero, kritika bera ere zalantzati ibil

daiteke bi artelanen artean; haietarik batak estilo gutxiago garaian lorzen duelarik, besteak aldiz, xendra hobe baina orobat malkarrago eta arrisksuagoan.

Arte guztien artean, ordea, ez dago beste bat bere edertasun propioa perla mailegatuena bidez itsuteko tentaziotik hurbilago dagoena poesia baino. Izan ere, aparte berak, beste edozein arte bezala, irudimena zeharo libre eta eginkor gorde ordez, erabaki ordez behar zera objektu jakin bat sortzera, hura irudi atsegin eta goxoekin soilik bete dezakeen bezala, kolore joko koloretsu baina insustantzialez inguratuz; oraindik beste galbide bat ere badu beldur izateko, hau berea bakarrik dena. Hizkuntzaren bidez, hau da jatorriz adimenarentzat bakarrik eraturik dagoen eta fantasiarako sarrera aurkitzeko egoitze bat behar duen bitarteko baten bidez eragiten duenez, erraz lerratzen da okerbideetik filosofiaren esparrura eta zuzenean espiritua eta bihotza interesatzen ditu, irudimenaren gainean soilik eragin ordez. Gainerako bere ahizpak baino gehiago prest, jada arterik ere ez den zerbaiten bitartez baliozko izateko, jarraitzaile ugariak ditu; alderantziz musikak, pinturak eta batez ere eskulturak, beharbada hemen eskaini den hurrenkera horretantxe gainera, artearen kontzeptua gero eta garbiago eta hertsiago horietan biltzen baita, gero eta bakanagoa den zentzu egiazko estetiko katea dezaketean bitartean.

Galbide hauetan zehar gainbehera dator poesigintza bere natura bereizi eta garaitik, irudi koloretsuen bidez saiatzen da gustatzen eta esakuntza distiratsu eta hunkigarrien bidez harritzen eta kitzikatzen, eta jeinuaren jaiotzatik talentuaren obra soilera amiltzen da. Egia da oraindik beti adosagoa eta maisu handien eskuetan (ezin ahaz daiteke hemen hori) are eragin handia egiteko gauza dela; orobat irudimena mugiarazi dezake eta espiritua eta bihotza menderatu; jeinuaren tximistaren bidez harridura eta zirrara piztu ditzake; baina beti falta da bere gar argitzaile eta berotzailea, beti barneko entusiasmo haren eta baretasun garai eta harmoniko haren gabezia, egiazko artearen presentzia huts emango da.

Izan ere, irudimenak, hemen ez aske eta bakarrik eragiten baitu, ezin gaitu aldatu errealtate ooren ingurunetik idealaren lurraldera, eta hori gabe, edozein delarik ere bestela erabili nahi den bitartekoa, ezin pentsatuzkoa da sekula eragin artistiko egiazkoa.

HISTORIAREN FILOSOFIA

ANTZINATEAREN ETA BEREZIKI GREZIA- RRAREN IKERKETA

1.

Antzinateko hondarren ikerketak —literatura eta artelanak— onura bikoitza dakar, bata materiala eta bestea formala. Bat materiala, landuko duten gaia beste jakintzei eskaintzen dietenez. Neurri horretan bera eta, orobat, jakintza humanistikoak haien laguntzako jakintzak dira eta onura haren garrantzia berez edozein delarik, beraiei arrotza zaie inolaz.

2.

Onura formala, bere aldetik, bikoitza izan daiteke. Batetik, antzinateko hondarrak bere hartan eta beraiek diren motako obra bezala begiratzen direlarik, eta beraiek bakarrik ikusten direlarik; eta bestetik, beraiek jatorria duten garaiko obra gisan begiratzen direlarik eta beraien egileak ikusten direlarik. Lehen onura estetikoa da; garrantzi handikoa da, baina ez bakarra. Hau sarri bakartzat hartzean datza antzinatearen iritzi oker ugariren iturburua.

3.

Beren egilearen ikuspegitik antzinateko hondarren begiratzetik dator antzinatearen beraren ezagutza edo antzinateko gizadiarena. Ikuspuntu hau da datozen esaldietan adierazia izango dena, hein bate-

an bere barneko garrantziagatik, hein batean gutxiagotan hartu ohi delako.

4.

Nazio baten ikerketak historiak berez eskaintzen dituen abantaila guztiak segurtatzen ditu noski, egintzen eta gertaeren adibideen bitartez gizakiaren ezagutza zabaldu, irizteko indarra zorrotzu, karakterra goratu eta hobetzen baitu; baina oraindik gehiago egiten du. Izan ere, ez baitu bakarrik segitzen bata bestearen segidan datozen gertaeren arrastoa, baizik areago saiatzen da ikertzen nazio baten jarrera eta egoera osoa, eta bidenabar haren biografia bat ematen du.

5.

Gisa honetako biografia batean azpimarragarria da bereziki, ezen, nazio baten egoera politiko, erlijioso eta etxeko osoa deskribatzen den bitartean, ikertuko dela haren karakterra alderdi guztiei dago-kienean, eta bere erlazio guztietan garatua, ez bakarrik karakter ezaugarri bakoitzak beren artean elkarrekiko dituen harremanak, baita beren erlazioak kanpoko zirkunstantzietatik ere, kausa edo ondorio bezala; eta gisako ikerketa baten ezaugarri karakteristiko honen abantailak bilatzen ditut nik hemen, sarri ukitu ohi diren zenbait alboratu iziz.

6.

Gizakien ezagutza beharrezkotzat hartu ohi da soilik gizakien artean ibiltzeko, eta gizakien ezagutza deitu ohi zaio baldin banakako gizaki pila bat begiratu eta horren bitartez trebetasun bat eskuratzen bada, kanpora dituzten portaeren bitartez barneko asmoak igartzeko, eta alderantziz beraiei artifizialki emandako motiboen bitartez jokatzera mugitzeko, eta zentzu politiko jakin batean egiazko izan daitezke biak. Filosofikoki, ordea, gizakien ezagutzak —gizakiaren ezagutza inolaz, egiazko indibiduo bako-

tzarena— ez du besterik esan nahi, ez bada giza indar intelektual, sentikor eta moral desberdinen ezagutza, elkarri eraginez erdiesten dituzten aldaketena, bere harreman zuzen edo ez-zuzen mota desberdinenena, kanpoko zirkunstantzien erlazioena, hauek giro jakin batean derrigor eragin behar dutenarena eta eragin ezin dutenarena; labur: barnetik eragindako aldaketen ezinbestekotasunaren legearena, eta kanpotik eragindakoarena. Ezagutza hau da, edo hobeto esanda: hori erdiesteko ahaleginak —hemen ahalegina baita bakarrik posible— eramaten du benetako giza ezagutzara, eta hori ezinbestekoa zaio gizaki bakoitzari, gizakienez eta gizakiarengandik erabat apartaturik bizi balitz ere, intentsitate eta zabalero maila desberdinetan, derrigor.

7.

Hasteko —errazenetik abiatzeko— gizaki egintzailea, ondoren ideiekin bakarrik dabilena kontrajarriko diot horri, eta azkenik bieie dastatzailea. Bizitza praktikoro, gizarte indiferenteeneko tratutik estatu handieneko aginteraino, zuzenean edo zeharka gizakia-ri dagokio; eta bere duintasun moralaz egiaz gogoratzen denak ez du ahantziko harreman guztietako inolako moraltasun ororen helburu gorena, gizakiaren nobletzea eta heziketa gero eta altuagoa, alegia. Horretarako ezinbesteko zaio ezagutza hori, dela helburu hura sustatzeko, dela, bere jarduerak hain heterogeneoa izanik —halakoak mota guztiz ohargarrikoak eman baitaitezke— non alderdi jakin batzuetatik hari mugak bidean ipini behar baitzaizkio, beti halere, muga horien ahalik minimoena gordetzeko. Horrela irakasten dio moralaren aldetik zeri ekin diezaiokeen, eta politikaren aldetik zeri ekin diezaiokeen arrakastaz eta era horretan gidatzen du bere arrazoia. Baina orobat bigarrenik, baita bere nahimenarena ere, berak bakarrik sortzen duenez gizakiaren benetako begirunea. Perfekzio falta guztiak indarren erlazio okerretara hurbil daitezke. Ezagutza horrek osotasuna erakusten duen bitartean, hauek orobat indargetuak izango dira, eta lehenago alde bakar batetik begiraturiko indibidua alde orotatik begiratze honen bidez, halaber, beste klase goragoko batera aldatua da.

8.

Ideiekin ari dena —nik hemen banaketa logikoaren zehaztasuna albora utz dezakedanez— da historialari, hitzaren zentzurik zabalenean, edo filosofo edo artista. Historialaria da nik ulermolde zehatzenean abstraitzen dudan neurrian —gizakiaren eta giza portaeren deskribatzailea—, beharbada ezagutza hura gutxien behar duena. Baldin bitartean giza antzekotasunaz gutxien hornitutako naturaren atalaren ikerleak ez baditu zenbatu nahi kanpoko azalpen soilak, baizik barneko eraikuntza bilatu nahi badu, ezin du hura guztiz huts eman. Izan ere, ez bakarrik organizazioari buruzko gure ideia guztiak jatorriz gizakiarenetik abiatzen dira, eta horregatik natura osoan zehar nagusi da analogia bat nola kanpoko irudiena hala barneko eraikuntzarena. Horregatik ezinezko da begirada sakon bat natura hilaren beraren organizazioaren izaeran gizakiaren ezagutza fisiologikorik gabe, eta azken hau bere aldetik ezinezko ezagutza psikologikorik gabe; eta era berean altxatzen da, alderantziz, azken honen ingurunearekin lehen begiratu haren zorrozatasuna, sarri maila oso txikian bada ere. Azkenik ohartarazi behar dut nik hemen natura osoaren erlazioarekiko begirada, eta bizirik gabearen zerikusia gizatiararekiko —natur ikerle handietan inork ahaztuko ez lukeena— guztiz baztertzen dudala, nire asmoa baita berez hain argi ez dagoe-na argi biziagoan jartzen saiatzea.

9.

Printzipio honekiko leial, filosofoen artean metafisiko abstraktuengan pausatzen naiz. Baldin, ordea, honek ere ezagutzaren ondare gutzia neurtu behar badu, baldin gainera azalpenen esparrutik benetako esentziaren esparrura ez badago beste biderik arrazoi praktikoaena baino, baldin askatasunak eta lege agintzaile orokor baten derrigortasunak printzipio garrantzizkoenen, transzentalenen frogara eramango balu, bestelako mailetan nahasturiko giza indarren oharketa anitzak arazo hau asko erraztu beharko luke, eta erarik seguruenean begien aurrean ipintzen orokor dena eta nahasketa guztietan berdin segitzen duena.

10.

Edertasuna da artistaren helburu bakarra. Edertasuna da kontzepturik gabeko objektu batean atsegin orokorra, ezinbestekoa, garbia. Atsegin bat konbentzimenduaren bidez atera ezin daitekeena eta halere erauzi izan behar duena, orokorra izan behar duena, eta objektuaren aldetik kontzeptuaren bidez kilikatzen ez dena, derrigor jasatzailearen arimako sentimendu guztira zuzendua izan behar du bere indibidualtasun handiengan, gustuari buruzko eritzien desberdintasun amaibakoak agerian jartzen duen bezala. Hori sortu nahi duenak, bere izaera finen eta desberdinenekin identifikatua izan behar du, eta nola egin daiteke hori ikerketa sakon eta eutsirik gabe? Gogoeta egiaz orokorki demonstratzaile baina orobat abstraktuen honen gainetik, artista bere aldetik gizaki praktikoaren sailekoa da, eta behar du harentzat ezinbesteko duen hau guztia, zuzenean gorenaren eta nobleenaren gainean eragiten duelarik. Beraz, ez soilik gizaki bezala moralki, baizik areago artista bezala arrakastaz eragiteko sakon ezagutu behar du berak eragin nahi duen objektua. Azkenik, bere auzia da adierazpena edota deskribapena. Lehena bere berari dagokio bakarrik eta zuzenean, azkena, deskribapena bestela ez baita ulertuko, sentsazioaren bitartez, eta horregatik dira beti hau eta jasaten duen gizakia bere ikerketa nagusi.

11.

Dastatzaileaz, azkenik, ez legoke ezer esateko, gustuaren setak ez duenez inolako araurik onartzen. Baina hemen arrazoiz ipintzen naiz ni ez, zinez, gizaki nobleenaren lekuan, gizaki soilarenean baizik bere unerik nobleenetan. Hauetan, izan ere, berez eta besteen bidez, norberaren sumatzearen bidez, maila guztietako harreman, adiskidetasun, maitasun bidez jasotzen direnak dira motarik garaieneko pozak. Zenbat eta garaia goak hauek izan, orduan eta azkarrago desegiten dira norberaren eta gainerakoen egiazko izatearen ulertze zorrotzik gabe. Baina hori ezinezko da gizakiaren beraren ikerketa sakonik gabe. Poz honetara hurbiltzen dira, ez arrazoirik gabe, naturaren eta arte obraren dastamen estetikoak bide ematen dienak. Hauek eragiten dute bereziki kanpoko irudien bidez bezala sinboloen bidez esnatzen diren senti-

menduen kilikatzearen bitartez. Zenbat eta gizakiaren ikerketak giza sentimendu posibleen ikuspegi bizi gehiago ekarri dituen, hainbat eta kanpoko irudi gehiago jaso ditzake arimak. Norberaren jardueratik sortzen den gustuaz jarduera horrekin berarekin lehenago aipatu dudanez (7-10), orain zentzuena falta zait bakarrik. Baina hauxe berau ere, fantasiak berari bere ugaritasun posiblearen eszenatoki oparoa indibiduo dastatzailearen desberdintasunaren arabera eskaintzen dion neurrian, eta orobat indibiduo asko batean elkartzen dituen neurrian, ugaldua, gehitua eta findua izango da. Azkenik, gutxitu egiten da gisa honetako ikuspegi baten bidez egiazko zoritxarraren dastamena bera. Sufritzea, bizioa bezala, egiaz partziala da izan berez. Osotasuna begien arrear daukanak ikusten du nola han altxatzen den, hemen behera egiten duenean.

12.

Orain artean nik gizakia arretaz energiak bakarka banaturik begiratu dut. Azalduko ez balitz, ordea, ezeinetan hemen aipatzen dudana ezagutzaren ezinbestekotasuna, frogatuko litzateke hori honela, alegia: ezinbestekoa dela ahalegin bakoitza osotasun baterako eta helburu nobleenaren, alegia, gizakiaren heziketa goren, proportziozkoenaren batasunean bateratzeko, hain zuzen ere. Izan ere, indarraren alderdi partikularren jardunak erraz dakar jardute horren etekinarekiko begirune gutxiago energia baino, eta handiegia sortuaren etekinarekiko, ergon batekiko baino, eta gizakiaren begiratze sarriegiak bere batasunaren edertasunean berriro zuzentzen du begirada distraita egiazko azken helburura.

13.

Hala dihardu ezagutzak, sortua denean, orobat material bezala; baina orobat onuragarri eta beharbada onuragarriago dihardu bere formak, hura lortzeko moduak. Gizaki baten karakterra eta oraindik gehiago alderdi asko dituen nazio bat bere batasunean ulertzeko, norberak jarri behar du mugimenduan bere indar bateratu guztiakin. Ulertzaileak modu jakin batean ulertu nahi duenaren antzeko egin behar du beti. Hortik dator, beraz, ariketa handiagoa indar guztiak

neurri berean tenkatzeko, gizakia bereziki hezten duen ariketa bat, alegia. Ikerketa honetan etengabe saiatzen denak formen aniztasun amaibako bat ulertzen du oraindik eta horrela kamusten dira bere nortasunaren ertzak, eta berarengandik, jasotakoekin bat eginez, etengabe datoz berriro berriak. Horregatik da onuragarria, hain zuzen ere, ezagutza hura, gainerako oro urri zatekeelako; ezin erdietsizko izaki etengabeko ikerketara bultzatzen duelako, eta horrela gizakia-
ren ikerketa sakonenaren bitartez zerbitzatua izango da gizatasun gorenena.

14.

Orain arte ikuskaturiko gizakiaren ikerketa, hain zuzen ere, nazio bakoitz baten karakterrean, berak utzitako monumentuetan, egiaz posible da nazio bakoitzari dagokionez neurri jakin batean, baina bikainago batean oraindik batean edo bestean hurrengo lau ikus-bideetan: 1., kontuan hartuz eskura dauden haren hondarrak bere espirituaren eta bere karakterrearen arrasto fidagarri diren ala ez. Jakintzaren edo artearen produktu bakoitzak badu bere perfekzio propio bat, bere naturak finkatua, eta orobat objektiboa eta ideala, baina perfekzio horretara hurbiltze azalekoenean bertan dagoeneko hura sortzen duen espirituaren indibidualitatea bera ere aditzera ematen da gehiago edo gutxiago, baina inolaz gehien perfekzio horren lorpena berariaz gutxien kontuan hartu denean. Horregatik daude ez gutxitan balio objektiboa eta espirituaren produktu baten indibidualitatea erlazio kontrajarrian. Nabarmenen dago desberdintasun hau espirituaren produktu propioetan, gutxiago arteetan eta hauen artean gehiago energikoetan (musika, dantza) plastikoetan baino (pintura, eskultura).

15.

2., kontuan hartuz nazio baten karakterrak duen zabaleroa eta batasuna —biak funtsean bat dira—. Ezaugarri handi eta eder bakoitzak eta haien begiratzeak badu bere onura zalantzarik gabea, baina honi ez dagokiona. Gizakiaren beraren ikerketak bere adibide bakoitzean karakterrearen alderdi desberdinetan oparotasuna eta bere loturaren batasuna osotasun batean eskatzen du.

16.

3., kontuan hartuz nazio bat aberats dela forma desberdinen aniztasunean. Auzia, beraz, berriro hemen ez da ea haren ikertzeak onura ekarri behar duen nazioa heziketan edo moralitasunaren maila aurreratu batean dagoen, baizik askoz gehiago kanpotik sentitzekoa, eta barrutik nahikoa mugikor den irudien aberastasun handi bat hartzeko.

17.

4., kontuan hartuz ea nazio baten karakterra, edozein egoeratan, desberdintasun indibidualak alde batera utzita, han egon daitekeen eta han egon behar duen gizakiaren karakterrarekiko hurbilen dagoen motakoa ote den. Gisa honetako desberdintasunak nazioen artean agerian jartzen ditu azaleko erkaketa batek; nazioak, halako heziketa lokala dutenak, non beren ikerketa giza espezie banako baten ikerketa gehiago den giza natura beraren ikerketa baino: nazioak, zeintzuetan giza natura hau beste alde batetik agertzen baita. Hemen aipatzen ari garen hau arrazoi bikoitz bategatik etor daiteke: batetik indibidualitate eskasiagatik, ezereztasunagatik, bestetik karakterren sotiltasunagatik. Azken hau da bakarrik onuragarria. Lurralde eta garai guztietako nazio guztien ikerketa eta erkaketaren bidez irabaziko luke gehien gizakiaren ikerketak. Baina ikerketa honen izugarritasunaz aparte, auzia gehiago da intentsitatearen maila nazio bat ikertuz, zabaleroarena baino, nazio pila bat ikertuz. Aholkatzeko da, beraz, bakar batean edo pare batean geratzea; hala ongi dago beste zenbait gehiago ordezkatuko dituzten batzuk hautatzea.

18.

Lau ikusbide horien ostean antzinako nazioak direla, zeinen ikerketa gizakiaren ezagutzaren eta prestakuntzaren [«Bildung»] onura hori hemen bakarrik oparoen ematen dutenak, ondoren datorena saiaturiko da argitzen. Antzinako deitzen ditut nik bakarrik greziarrak, eta hauen artean sarri bakarrik atenarrak. Horretarako arra-

zoiak, arrazoiketaren segidaren bidez berez aurkituko ez badira, geroago hitz batez aipatuko ditut. 1. ikusbidea. (14) Greziarren hon-darrek beraiekin dakartzate beren egileen indibidualitatearen arrastorik gehienak. Literarioak dira aipagarrienak. Honetan hizkuntzari dagokio azterketa. Hizkuntza batean hiztunen indibidualitatearen diferentziak ondoko hiru arrazoiengatik sortzen dira: 1. Hizkuntza arrotzetako hitzen eta esaeren eratorpenegatik. 2. Kontzeptu erabat orokor eta abstraktuak, lehendik dauden hitzak hartarako egoki ez direnean, edota zeharo sortu berrien bidez, edo bortizki eraldaturiko esaeren bidez izendatzeko premiagatik, orduan esaera berriaren diferentzia are handiagoa da, herri batek fantasia sentsible eta kreatzaile gutxiago duen neurrian kontzeptu abstraktua orain arteko bere ondaretik harturiko irudi sentsible baten bidez adierazteko. 3. Hizkuntzaren naturari buruz prentsatzearen bidez eta norberarenaren analogiaren bidez bereziki, orduan hizkuntzaren erabileraren bidez sarturiko eta hurbilago hizlariaren egoeraren indibidualitatearekin loturiko aldaketa asko azaltzen dira bereziki syntaxian eta gramatikari. Baina greziarrek ez zeukaten ezagutza orokor eta hertsirik beste inolako aurreko edo ondoko herri heziago batekin; horregatik beren hizkuntzan hitz arrotzen inolako arrasto nabarmenik ez da aurkitzen, flexioan eta eraiketan ez bada, eta hauek osotasunaren parean garrantzirik gabeko kopuruan. Gisa honetan huts egiten du lehen arrazoiak. Ez gutxiago bi azkenek ere; izan ere, hizkuntzaren garapen oso goiztiarraren parean oso berandu sortu zen filosofia zehatzago bat eta geroago oraindik hizkuntzaren filosofia, eta bigarren arrazoiari dagokionez bereziki, ez dago herririk, noski, fantasia aberatsagoa duenik esaera metaforikoen sorkuntzan, greziarrak duen bezala. Adibide banaka batzuk hitzen, flexioen eta osaketan garapenari dagokionez greziarren hizkuntzaren eta beren karakterren arteko kointzidentzia erakutsi lezakete.

19.

Espirituaren emaitza propioak dira historia, poesia (horretan sartzen dut hemen artea) eta filosofia. — Greziarra da gehienbat historia, eta hala ez denean, historialari greziar goiztiarrak gutxienez oso gutxi daude ohituak herri asko beren artean erkatzera, eta bertakoa eta

arrotza beren artean bereiztera, eta aberriko guztiaz kezkatuegiak daude, greziarrak oso sarri hori ikus zezan. Historia greziarrean bertan, ordea, zenbait zirkunstantzien bateraketa egiten da, eta horretan sartzen dut nik batez ere banakako pertsona batzuen eragin handiagoa herri arazoetan, egoera erlijiosoaren eta politikoaren arteko lotura, eta etxekoa erlijiosoarekin, eta oraindik historiaren beraren ingurune txikia, ñabardura handiagorako aukera ematen zuena, eta azkenik harri-garriaren eta garrantziaren ideia oso haurtiarrak, eta horregatik historia zaharrak karakter eta ohitura deskribaketa askoz gehiago dauzka, berriagoak baino.

20.

Baldin poesia eta historia bereizi behar badira, honek alde zuzenak aurretikotzat jotzen ditu posibilitateari eta ez-posibilitateari, egiantzekotasunari eta ez egiantzekotasunari buruzko ideia zehatzagoak, hitz batean: kritika. Hori greziarrek geroago erdietsi zuten, eta bereziki beren fabulak erlijioaz eta harrotasun nazionalaz lotzean, uste zitekeen baino geroago. Luzaz, beraz, ez zen bereiz poesia eta historia; eta egiaz beren artean gehiago banatu zirenean, artistari —arte ederretan aditu zaletuentzat bezala arteko obra batean ez artea bakarrik baizik bere burua eta bere ospea ikusi nahi zituen herriarentzat lane egiten zuenari— zilegi zitzaion herri horrengan inpresioa egin eta bere individualitateaz hurbiletik senitartetu zezakeenetik ez urruntzea. Nola ez ziren, bada, greziar izango mailarik gorenean artistaren bidez egindako fabulen egiazko aldaketak, eredu arrotzik ez zeukanez begien aurrean eta arteen egiazko teoria geroago sortu bazen? Gainera, poesiaren mota bikainenak —epikoa, tragikoa, lirikoa— greziarren artean ohiturretatik eta herri eraketetatik sortu ziren, oturuntzetan, festetan, oparietan; eta hala gorde zuten garairik berantiarrenetara arte jatorri historiko —ez propio estetiko— horren marka.

21.

Filosofiak ekarri beharko zukeen gutxienik filosofatzailearen berezitasunaren arrastorik. Baina [filosofia] praktikoak greziarren

artean beti maila oso garai batean greziarra bera agertzen zuen, eta espekulatiboak gauza bera egin zuen, luzaz gutxienez.

Kontrabegiraturua gaurko nazioei.— Beren hizkuntza (18.a) arrotzetatik eratortzearen bitartez, eta filosofia maila garai batean berreratua.— Aberriko beren historia bera (19.a) garai eta lurralde guztien ezagutzaren bitartez eta bestelako pilaturiko zergatiengatik ez hain indibidualki kontatua.— Beren poesia (20.a) kasik osorik mitologia arrotzetik hartua, eta teoria objektibo orokorren arabera antolatua.— Beren filosofia (21.a) abstraktua eta orokorra.

22.

2. ikusbidea. (15.a) Greziarra, guk haren lehen ezagutza osoa daukagun garaian, oraindik kulturaren maila oso apalean aurkitzen da. Egoera honetan, premiak eta haiek asetzeko baliabideak oso gutxi direnez, askoz arreta gehiago eskainiko zaio indar pertsonalen garapenari, gauzen prestakuntza eta erabilerari baino. Baliabide horien urritasunak premiazkoago egiten du oraindik garapen hori. Oraindik inolako aukerarik ez dagoenez alderdi bakoitzak bereziki erabiltzeko, gizakiak azken batean naturaren ibilbideari jarraitzen dionez, hala gertatzen da egintzaile edo jasatzaile den lekuan, bere izate osoan askoz gehiago dagoela bateratua jardueran, bera bereziki sentsualitatearen bidez estekatua izango dena baino, eta honek, hain zuzen, izate osoa indartsuen hartzen duena baino. Horregatik kultur maila apalago batean dauden nazioetan, proportzioz nortasunaren garapen gehiago dago beren osoan, goragoko mailako nazioetan baino.

23.

Greziarren artean, ordea, azaltzen da fenomeno bikoitz bat, txit miragarria eta bakarra beharbada historian. Nazio hasiberrien zabarkeriaren aztarna oso ugarik salatzen duten bezala, sentiberatasun guztiz handi bat zeukaten naturaren eta artearen edertasun orokiko, esku oso fin prestatua, eta gustu zuzen bat, ez kritikarena, bai ordea sentimenduarena, eta esku horren eta gustu horren kontrako

instantziak aurkitzen badira ere, ukatu ezinezkoa da gutxienez senti-beratasun eta xamurtasun hura; eta bestalde, kultura maila oso garai batera igoa zenean, erdietsi zuen, halere, zentzuaren eta gustuaren sotiltasun bat, bestela nazioen gaztetasunean baino azaltzen ez dena. Honen guztiaren zergatiaren garapena ez datorkio hona. Aski da fenomeno hori egona. Bere lehen zezelketan salatzen du greziarrak sentsazio fin eta zuzena duela; eta gizakiaren adin helduan ez du galtzen guztiz bere haur zentzu sotila. Hemen dago, nire ustetan, nazioaren ezaugarri propioaren zati handi bat.

24.

Greziarrena propio den edertasunerako (23.a) sentsibilitate berezia nazio gutxiago kultibatuetan indar pertsonalen eta bereziki gorputzekoen (22.) garapenarekiko arreta handiagoarekin eta klima greziarrean bereziki bortizkiro eragiten duen sentsualitatearekiko joerekin lotzen denez, gorputza indarrerako eta azkartasunerako hezitzeko arretak hainbat derrigorrezkoago sortu beharko luke, non kanpoko egoerak biak ezinbesteko egiten baitzituen, eta bien adierazpenak garapenaren kanpoaldean edertasunarekiko zentzu erraz mugikorrean begirunea eta maitasuna erdiesten baitute. Baina kultura oso gora igoa izaki eta aspaldi gorputzaren indarraren begirune bikaina kanporatu baitzuen, beste herri edozeinen parean beti gehiago hartu zuen gorputzaren indar, azkartasun eta edertasunaren heziketarako. Kontzeptu orokorrak eta abstraktuak hain urri eta edertasunarekiko sentsibilitatea maila hain garaian nagusi den lekuan, espirituzko abantaila soilak irudi honen azpian aurkeztu behar dira, eta arima greziar batean gorputzeko eta espirituko edertasunak hain xamurkiro oratzen dira elkarrekin, non gaur oraindik oratze haren emaitzek, adibidez maitasunari buruzko arrazoiketak Platonengan, benetako atsegin zoragarria ziurtatzen baitute. Baldin, ordea, joera hori maila horretan bakarkako eta indibiduala bazen, gertakari guztiz historiko bezala formulatu behar da gorputzeko eta espirituko prestakuntza Grezian oso handia eta bereziki edertasunaren ideiek zuzendua zela.

25.

Baldin inolaz giza perfekzioaren idurikapen bat aniztasuna eta batasuna sortzeko gauza bada, edertasunaren kontzeptutik eta sentsiblearen idurikapenetik datorrena izango da. Idurikatzeko mota honi jarraiki, ezin faltako zaio gizaki moralari ez karakterraren alderdi bakoitzaren harmoniarik, ezta pintura eder bati edo estatua eder bati bere atalen harmoniarik ere; eta greziarra bezala, formen edertasunaz elikatua, eta bera bezala edertasunerako eta bereziki sentsualerako hain gartsuki jarria dagoenak, desproporzio moralaren aurrean ere, fisikoaren aurrean bezain neurri sentsazio fina eduki behar du. Esandako guztiagatik, beraz, ezin uka daiteke greziarrak baduela joera handi bat gizakia aniztasun eta batasun posibleenetan hezteko.

Ohartarazi behar dut nik hemen —eta hain zuzen ere hemen, hemen sor daitekeelako erarik errazenean oharrak aurkitu behar duen ihardespena— ezen, hemen greziarren karakterrari buruz esan dena, egiaz ezin izan daitekeela egiazko hitzez-hitz nazio oso bati buruz bere banakako indibiduoetan. Ziur da, ordea, bazeudela deskribaturiko jokaera zuten bakarkako indibiduoak, ez bakarrik beste edozein lekutan baino sarriago, baizik areago jokaera honetako ñabardurak nazio osoan zabaldurik zeudela orobat, eta idazleek, bereziki poetek eta filosofoek —nazioaren zati nobleeneko espirituaren irudi, halaber— gisa horretako karakterretara jotzen dutela bereziki; eta ez da behar hemen gehiago, zertarako antzinatearen ikasketa gomendatu den, helburu hori erdiestea posible egiteko.

26.

Gizakiaren heziketarako arreta hau eta heziketa mota hau bultzatzen izan zuten zerikusirik grekoen kanpoko egoeran oinarritutako beste zirkunstantzia batzuek. Hauen artean sartzen ditut nik batez ere ondorengoak: 1.a. Esklabotza. Honek libreei lanen zati handi bat kendu zien, gorputzaren eta espirituaren ariketa espezialdua —gaitasun mekanikoak— eskatzen baitu horrek. Aukera zeukan, orduan, bere astia bere gorputza gimnasiaren bidez hezitzeko, bere espiritua arteen eta jakintzen bidez, bere karakterra bera estatuko konstituzio-

an, harremanetan eta pentsatze propioan hezteko. Gero bereganatu zuen libreak esklaboaren aurrean zuen abantailaren ideia, uste baitzuen ez ziola hori zor halabeharrari, baizik handitasun pertsonalaren bidez, eta —bere mailaren bidez oinarrituriko esklaboen mesprezua dela eta— eskubide osoz, eskatzen zuela; zati batean, aberriaren defentsan bezala, esklaboak berarekin partitzen ez zuen arriskuen eta nekeen bidez lortzen zuela hori. Hortik funtsean eratu zen liberaltasun bat, beste inolako herritan maila hain garaian aurkitzen ez dena, hau da: aztura noble, handi, egiaz libre baten duin den nagusigo hori ari-man, eta horren azalpen bizia dago prestakuntzaren eta gorputzaren mugimenduen graziaren txairotasunean.

27.

2. Gobernu egitura eta antolakuntza politikoa. Legearen arabeko egitura bakarra Grezian errepublikakoa zen, eta horretan har zezakeen parte gehiago edo gutxiago herritar bakoitzak. Zerbait aurrera atera nahi zuenak, indarra falta zitzaionez, konbentzimendua erabili behar zuen. Ezin baztertu zezakeen, beraz, gizakien ikerketa, haiekin bat etortzeko gaitasuna, karakterraren trebezia. Baina sarri oso fin hezia zegoen herriak gehiago eskatzen zuen oraindik. Ez zion amore ematen soilik arrazoen indarrari edo naturari; begiratzen zion orobat formari, mintzo ederrari, organoari, gorputzeko deduari. Ez zen, beraz, geratzen alderdirik apenas estatuko gizonak zigorrik jaso gabe zabarkeriaz utz zezakeenik. Administrazioak gainera eskatzen zuen ezagutza adar zabal ez bereziak eta, gainera, gisa honetako talentuak. Horren zati bakoitza bititza osoa bati bakarrik eskain diezaioketen moduan berezita. Greziarra gizaki handi egiten zuten gaitasun bereberek egiten zuten estatu gizon handi ere. Horrela segitu zuen aurrera, estatuko arazoetan esku hartzen duen bitartean, bere burua gorago eta alde askotatik heziz.

28.

3. Erlijioa. Guztiz sentsuala zen, arte guztiak bultzatzen zituen, eta estatuaren egiturearekin lotura zehatza eginez duintasun oso handi

eta ezinbestekotasun handienera jaso zuen. Horren bitartez ez bakarrik elikatzen zuen goian (24.a) aipatu dudan edertasun sentsazioa, baizik orokor bihurtu zuen, beti arteek laguntzen zuten zeremonietan herri osoak esku hartzen zuenez. Baina, lehenago agertzen saiatu naizen bezala (25.a), edertasun sentsazio honek gizakiaren heziketa zuzena eta proportziozkoa eskatzen zuenez, horretarako bitarteko guttiz bikaina izan zen.

29.

4. Harrotasun nazionala. Greziarrak bizitasun eta sentsibiltate maila handia zuenez, hori bereziki indartsu azaltzen zen ohorearen eta hil ondoko aintzaren sentimenduan, eta, estatuarekiko herritarraren lotura hertsia izaki, nazioaren ohorearen sentimenduan. Baina nazioaren balioa bere herritarren balioaren gainean oinarritzen zenez gero, eta honen mende zeudenez batez ere bere garaipenak gerratean eta bere loraldia bakean, bikoiztu egiten zuen harrotasun nazional honek balio pertsonalaren heziketarekiko ardura. Gainera, nazioaren ohoreari gaineratzen zitzaion herritar bakoitzaren irabazi edo talentu bakoitza. Nazioak, beraz, hartzen zuen bakoitza bere babesean, eta hortik zetorren arrazoi berri bat arteei eta jakintzei arreta eskaintzeko.

30.

5. Grezia estatu txiki askotan banatua. Estatu bat bakarrik eta beretzat bizi denean, bere indarren heziketak indar bakoitzak hartu behar duen bidea hartzen du. Bere baitan altxatzen da, eta behin neurri bat hartzen duenean, beste zerbaitetan endekatzen da. Bere endekatze horiek, ordea bere baitan bakarrik daude motibatuak, eta horrekin dago loturik, gehiago edo gutxiago noski, partzialtasuna. Grezian, ordea, kultura maila desberdinetan zeuden eta heziketa mota oso desberdinak zituzten nazio desberdinen elkarrekiko elkarrekin zekarren ezen nazio batetik bestera hainbat gauza eramaten zela, eta baldin, nazio zaharren antolakuntzan, arrotzak haiengan sarrera oso nekez aurkitzen bazuen ere, batetik bestera beti gehiago pasatzen zen bakoitza apartaturik bizi izan balitz baino. Baina hori

hainbat gehiago gertatu zen, denak greziarrak zirelako eta hartaz karakterren jatorrizko diseinuan elkarren artean berdin zirelako, eta horrela ohituren pasatzea batzuen eta besteen artean erraztua gertatu zen.— Halere, hau gertatu ez balitz ere, elkarren ondoan bizitze soilak eta elkarren arteko inbidiak ekarri zuten ezen ezin utz zitekeela alde batera abantaila bat, besteak horren bitartez gaina hartuko bazuen; eta inbidia horrek bakoitzaren indarrak mugimendu eginkorrean jartzen zituen gutxienez.

31.

3. ikusbidea (16.). Elkartzen ziren zergati askok sortzen zituzten egiaz antzinakoen artean karakter nazional oso erabakigarriak, eta hartaz, dibertsitate txikiagoa herritar bakoitzaren karakterrean eta heziketan; eta hala, hauen artean, alderdi honetatik, nolabaiteko aniztasun txikiagoa zegoen, berriagoetan baino. Baina, bestalde, jakintzaren aldetik gehiago hezita zeuden nazioek salbuespen nabarmena egiten zuten, eta gainera bi zirkunstantzia elkartu ziren, lehen-go aniztasun hura berriro eta beharbada gehiago bultzatzeko beste aldetik jasaten zuena baino. 1.a: greziarren fantasia hain zen sentsibla kanpotik, eta bere hartan hain mugikorra, non bera ez bakarrik zen sentikor maila handian eragin bakoitzarekiko, baizik areago bakoitzari eragin handi bat ematen zion bere prestakuntzaren gainean, haren bitartez gutxienez berari zegokionak itxura aldatu bat har zezan.

32.

2.a. Erljioak ez zeukan azken batean inolako nagusigorik federean eta jokabide politikoaren gainean, baizik zeremonietara mugatzen zen, eta hauek herritar orok politikaren aldetik ikusten zituen; eta era berean, moraltasunaren ideiek ez zuten espiritua inolaz lotzen, ez baitzegoen hau bertute eta grinetara mugatua, partzialki pisaturiko baliozkotasun edo katekotasun baten neurriaren arabera, aldiz asko gehiago edertasunaren eta liberaltasunaren ideien arabera zegoen finkatua.

33.

4. ikusbidea (17). Karakter greziarra bereziki markatzen duen ezaugarri bat da, gorago (23) azpimarratu den bezala, sentimenduaren eta fantasiaren heziketaren aparteko maila bat kulturaren garai oso goiztiar batean hain zuzen ere, eta arintasun eta naitotasun haurtiarren gordetzea garai nahikoa berantiarrean. Horregatik azaltzen da karakter greziarrean gehienetan gizadiaren jatorrizko karakter bera, baina beti posible izan den bezain fintasun maila garaian aldatua; eta bereziki gizakia da idazle greziarrek aurkezten dutena, ezaugarri guztiz xamur, handi eta —ikuspuntu jakin batzuetatik begiratzuz gero gutxienez— beti ederretan eratua. Gisa horretako karakter baten ikerketak egoera eta garai guztietan onuragarri izan behar du oro har prestakuntzarako, horrek orobat giza karakterraren beraren oinarriak finkatzen baititu. Bereziki, ordea, behar du zirkunstantzia zenbait bateratzen direlarik gizakietara baino gauzetara arreta zuzentzen den garai batean, eta gehiago giza aldretara indibiduoetara baino, eta gehiago kanpoko balio eta erabilgarritasunera, barneko edertasun eta gustura baino, eta kultura garai eta anitza lehenengo sotiltasunetik oso urrutira eraman den garaian, hau guztia kasik kontrako zen nazioetara begiratzea onuragarri da.

34.

Greziarren bigarren ezaugarri bereziki karakteristikoa da edertasun sentimenaren eta dastamenaren heziketa garaia, eta bereziki, gustu horren zabalitze orokorra nazio guztian zehar; eta horren adibideak pilaka zenba daitezke. Baina inolako heziketa mota ez da denbora eta munduko lurralde guztietan hain ezinbesteko nola den hau, gizakiaren izate guztia, edozein modutan delarik ere eratua, halaber, batean bateratzen duena, eta hari egiazko distira eta egiazko noblezia banatzen diona; eta hain zuzen, ez dago beste bat eta gure artean hain ezinbesteko nola den hauxe, gure artean, izan ere, gertatzen baita hainbesteko joera pila bat, gustu eta edertasun sentimendu orotik kasik urrundurik dagoena.

35.

Hala da greziarren karakterraren jokaera, goian aipaturiko ikusbide guztien arabera, guztiz mesedegarri gizaki soilaren beraren ikerketa harengan, adibide bakar batean bezala, egiteko. Baina ikerketa hori haiengan bereziki da posible ondoko bi zirkunstantziengandik: 1. Mundu greziarreko monumentu pila jakingarri bat gorde da, bereziki literaturakoa, eta horiek dira gaurko helburuak kontuan hartuz inportanteenak. 2. Nazio baten ikerketak eskatzen du, eta bereziki haren monumentuetatik, bizi zirela ikusi gabe, hori onez aterako bada, bai bere hartan karakter nazional irmo bat, bai ezaugarri moztuak, ikertzailearenarekin kontrastatzen dutenak. Baina gizakien prestakuntza pilatan indibiduen prestakuntzaren aurretik doa beti, eta horregatik eta horri gaineratzen zaizkion beste zergatiengatik daukate nazio hasiberri guztiek karakter nazional oso irmoa eta moztua. Greziarren ordea elkartu egiten ziren hau sustatzeko beraiei propio zitzaizkien beste zirkunstantzia batzuk.

36.

Onartzen bada egiaz hemen argitan jarri den azken helbururako ezer baino lehen nazio bat behar dela, orduan berehala erabakitzen da ea erraz beste bat sar zitekeen greziarraren lekuan. Hain zuzen ere horretarako hemen aurkeztu diren arrazoi guztiak beharko lirатеke eta egiaz —eta hori azpimarratzekoa da— bateginik balio beharko lukete, edo huts egiten dutenen orde z beste batzuk, haiek bezain inportanteak, jarri beharko lirатеke. Horien arteko indartsuenak ordea oinarritzen ziren zuzenean eta zeharka honetan, alegia: greziarrak, guretzat behintzat, nazio hasiberria direla (18-23, 33, 35). Baldintza hau ere ezinbestean beharrezkoa eta derrigorrezkoa izango da. Ezin erabaki daiteke alde z aurretik, munduko lurralde oraindik aurkitu gabe batean azalduko ote den gisa honetako nazio bat, berezitasun hauekin batera gainerako ezaugarriak, edo antzekoak edo goragokoak lituzkeena, edo txinatarren eta indiarren ezagutza zehatzagoak gisa horretako nazio bezala agertuko ote dituen. Baina zirkunstantzia batek egiaztatzen du, ez erromatarra ez beste nazio berri bat haren lekuan sar daitekeela, alegia: hauek guz-

tiek zuzenean edo zeharka greziarretatik hartzen dute arnasa; eta greziarrak bezain antzinako diren nazioei dagokienez, monumentu gutxiegi daukagu. Nire ustez, greziarrak bereizi izango dira ikuspuntu honetatik; baina hau inolaz ez da beraien abantaila propioa, aldiz gehiago da haien eta gure egoera erlatiboaren halabehar huts bat.

37.

Baldin, nik hemen bezala, greziarren ikerketa asmozat hartzen bada, horrek berez arau orokor eta bereziak eskatzen ditu, noski. Orokorrenak eta inportanteenak ondorengoak izan litezke: 1.a: gisa horretako ikerketa baten balioa ezin erdiets daiteke gizon ikasienek eta bururik onenek programaturiko greziarren deskribapen baten bidez. Izan ere, batetik hori beti, baldin erabat leial izango bada, ezin izan daiteke behar bezain indibiduala, eta erabat indibiduala izan behar badu, leialtasunaren aldetik gabeziak erakutsiko ditu; eta bigarren gisa horretako ikerketa baten onurarik handiena ez dago greziarra zen bezalako gisa horretako karakter batean begiratzean, aldiz bai haren bilatzean bertan. Izan ere, bila dabilena bera markaturik gertuko da antzeko gisa batean; espirtu greziarra pasatzen da berarengana; eta berearekin nahasten den moduaren bitartez, irudi ederrak sortzen ditu. Ez da, beraz, besterik geratzen ez bada norberaren ikerketa, helburu hori etengabe kontuan hartuz hartua.

38.

2.a: Greziarren ikerketa ordena sistematiko, azken helburura zuzenduriko baten arabera egin behar da. Izan ere, baldin idazle guztiak helburu honetarako garrantzizkoak badira, zuzentasunez oparoeni heltzen zaie lehenbizi, eta hauetan ordena tinko bat hautatzen da; hemen, ordea, zaila da erabakitzen: izan ere, baldin gaiak ikusi nahi badira, begiratu beharko litzateke ez idazleen espezieia baizik gaiarena, eta garaia segitu nahi bada, zail da erabakitzen ea idazlearen bizi-tzaren aroari edo hark erabili dituen gaiei edo biei hein batean batera begiratu behar zaien.

39.

3.a: Luzaz pausatu, ez da luzaz pausatu behar bakarrik greziar-
rrak ederren eta hezien ziren garaietan, baizik baita alderantziz ere
bereziki lehenen eta hasierakoenetan. Hauetan aurkitzen baitira egiaz-
ko karakter greziararren muinak: eta errazago eta jakingarriago da
ondorenean ikustea nola aldatzen doan eta azkenik endekatzen den.
Gorago aipaturiko arrazoi asko (22, 23, 33) guztiz bereziki lehen garai
horiei egokitzen zaizkie.

40.

Ikerketa honetarako baliabideak eta bereziki hemen garaturiko
asmotan dira batez ere ondorengoak: 1.a: iturburuak kritikaren eta
ulermoldearen bidez zuzenean lantzea. Honek lehen lekua merezi du.

41.

2.a: Greziarren egoeraren deskribapena, antzinate greziarrek
hitzaren zentzurik zabalenean, horrek ematen baitio hemen aurkeztu-
riko azken helburuari zabalerorik handiena. Laguntza lan hau beha-
rrezkoa da bai iturburu bakoitza ulertzeko, bai ikuspegi orokorrerako,
eta ikerketa osora bertara sartzeko. Idazle bakoitzak objektu bat baka-
rra erabiltzen du, eta ez dago bakarra bere ikuskizun osoan ulertzeko
moduan, egoeraz behar bezala jakinaren gainean egon gabe.

42.

3.a: Itzulpenak. Itzultako idazleari dagokionez onura hirukoi-
tza izan dezakete hauek. 1.a: bere jatorrizkoa irakurtzeko egoeran ez
daudenek hura ezagun dezatela. 2.a: jatorrizkoa irakurtzen dutenetan
haren ulerkeran laguntzea. 3.a: jatorrizkoa irakurtzeko asmoa dute-
nek, oraingoz hura ezagutaraztea, bere estiloan, bere espirituan estrei-
natzea. Baldin hemen harturiko ikuspuntutik onura desberdin hauen
garrantzia zehazten bada, lehena da txikiena eta baliorik gutxienekoa;
2.a garrantzitsuagoa, baina beti txikia, honetarako itzulpenak baliabi-

derik txarrenak direnez; 3.a, ordea, da garrantzitsuena itzulpenak jatorrizkoa irakur dezan kilika dezakeelako eta irakurlearengan berarengan era garaia batean indartzen duelako, ez pasarte bakoitza ulertzen duenez baizik irakurlearen espirtua idazlearen espirtuaz berdintzen duelako, azkena oraindik argiago azaltzen da, hura bi hizkuntza ezberdinen bitarteko bikoitzean ikusten bada. Azken onura honen erdiesteak jatorrizkoaren estimatzera eraman behar du, eta hala da itzulpen baten onurarik handiena itzulpena bera desegitea. Itzulpen baten eskakizun nagusiak aldatu egiten dira helburu hirukoitz honen arabera. Lehenari dagokionez, antzinako idazle itzulia irakurle modernoari egokitu behar zaio, eta horregatik leialtasunetik nahita apartatzea eskatzen da; bigarrenari dagokionez, hitzen eta hizkien leialtasuna; hirugarrenari dagokionez, espirtuaren leialtasuna, nik hala esan badezaket, eta jantzia dagoen janzkiarena, horretan beraz bereziki auzia delarik prosalariengan esateko moldearen imitazioa eta poetengan erritmoaren eta bertsoaren egiturarena.

43.

Goragokoan azalduko onura bere handitasun osoan sortzeko, antzinatearen ikerketak eskatzen du erudizio handiena, zabalena eta zehatzena, eta hori oso gutxirengan aurkitzen da. Edozein modutan, onura beti han dago, maila txikiagoan bada ere, ikasketa horren bidez sakontasuna ahalegin txikiagoaz bilatzen denean; eta azkenik, ikasketak hau beti arrotz izango zaien guztiek ere parte izango dute horretan. Izan ere, gizarte oso kultibatua batean loturik, zentzurik hertsienean bakoitzaren ezagutza guztien ondare dei daiteke.

GUTUNAK

1.

Burg Werner, 1793ko azaroa azaroaren 19a

Azken postarekin nire gutun bat esperoko zenuen, adiskide min horrek, baina ez da guztiz nirea izan errua, baldin zure esperantzak huts egin badizu. Zuri idazteko traba egin zidan bisitaldi harri-garriaren egun berean, emaztea hasi zitzaidan hagineko minez, eta hantura egin zitzaion buruko alde batetik, eta ondoez hau, une batzuetan oso mingarria bihurtu zelarik eta gaixoa oheratzera behartu, behin bortitzago behin arinago, orain arte luzatu da. Oraintxe bertan oraindik ez zaio pasatu; edozein modutan biziki egin du hobera. Hori eta eguraldi izugarri txar honek nire gogaldian izan duen eraginak eragotzi dit ordu gozoak eskaini ohi zaizkien eginkizunetan ari nendin. Ezinezko egiten zait gaur gutun etenari luma berriro ezartzea, eta beste ezer ezin dizut esan zure kontsolagarri, ez bada ez duzula ezer galdu zati harekin.

Poz benetako eta ezin deskribatuzkoa eman dit zure gutunak. Jardutea ideietan eta bereziki urrunean atsegin apartekoa izan ohi da, eta beharbada zuri, hain zuzen, denbora gehiago eskatuko dizu, egin-tza handiagoetarako kenduz. Nire aldetik ez da izango eta, zuk ez duzu izan behar ni gutun-trukean zuhur izango naizen beldurrik.

Arrazoi osoa duzu, sorkuntza berri batek altxatu behar du bilduriko materialen kaosetik, eta gure aro honetako jeinu onak nahiko ahal du bere itxura artearen eskutik har dezan. Era askotan bildurikoa

antolatzea eta erabiltzea da gure garaiaren premia handia, gizakiak egiten ikasi duen ekintza mota ugarietako bakoitzari hark duen benetako balioa finkatzea, eta batez ere gizakiak, inguratzen duten objektuekiko duen erlazioa osotoro eta zehatz seinalatzea. Izan ere, edozeini harrigarri iruditu behar zaio ezen, ilustrazio hain handia filosofia-ren ikuspegitik, historiaren ezagutzan hedapen hain handia, gustuaren heziketa hain fina azkenik, artearen ataletako zenbaitetan hain hil eta antzu geratzen dela, eta hain gutxi pasatzen dela pentsatzeko erara eta apenas ezer portatzeko erara, eta ondasun horiei jaramonik egin gabe, gure mendea gero eta gehiago nabarmenduko dela gizonek dakiten eta eragiten dutenagatik, beren baitan izan direnagatik baino. Hein batean nahikoa aztertu ez delako, hein batean gizakiaren nortasun garapenak huts egin duelako bakarrik iruditzen zait argi daitekeela gertakari hori, eta alde horretatik uste dut nik bilatu behar zaiola okerrari sendabidea. Pentsatzearen alor emankorrena eta azken batean erakargarriena da, hasteko, gizakia enpirikoki eta filosofikoki bere indar profitagarrien eta eragileen zabalero guztian begiratzea; aztertzea zerk merezi duen (indarren zein maila? zein erlaziotan?) gizadiaren ideal izenda dakion eta indarren zein ariketak hurbiltzen duen ideal horretara; gero, horrela, gizakiak historikoki aro eta nazio desberdinetan beren artean konbaratzea eta mundu mailako gertakarien arteko lotura begi kritikoz segitzea, agian horretan beti bere baitara itzultzen diren zirkuluetan gizakia igartzeko, edo bat amaibako helburura (izan ere, zein filofsok edo zein histori ikerlarik erabaki du hau sekula, egiazkotasun maila jakin batekin?) eramaten duen betiko patua (inolaz ere, zerizana habitatzen eta borroka kontrajarrien bidez batasunaren bila dabil-tzan gauzen indar propioak bakarrik) gidatzen duten legeak. Bestalde, gure garaia, beste inor ez bezala, dago prestatua alor hau lantzeko. Guk badaukagu filosofia sendo bat, zehaztasun kritikoz printzipio egiaztatu zorrotzetan oinarritua (nork uka diezazkioke irizpide horiek Kanten filosofiari), eta beste aldetik horrekin lotzen da gizakiei buruzko esperientzia oparoena, zati batean hilda erudizio geografiko, historiko eta filosofikoan, zati batean bizirik gizakien loturak dituen erlazio mila eratan aldatuetan gure garaian. Hala eta guztiz ere, alor hau guztia, plan sistematiko bati jarraiki, ez dago batere landua, eta neurri batean oraindik apenas dago ukitua. Gizakiaren giza nortasunaren prestakuntzaren [«Bildung»] teoriari datorkionez, heziketaren eta legegintzaren teoria bat dago gehienez ere, baina arrastorik ez erli-

jioari buruz (mereziko luke aztertzea zer sor daitekeen eta zer sortu beharko lukeen erlijioaren bidez), batere ez (eta hori litzateke guztietan garrantzizkoena) bizitzaren eta tratuaren bidezko giza nortasun prestakuntzari buruz, azkenik okerrena dena eta are daukaguna bera zalantzan jartzen duena, batere ez heziketak eta legegintzak ere erabilerara bakan batzuk eskaintzen dituzten printzipio orokorreari buruz. Azkenik, ez da falta noski titulua, baina bai gizakiaren historia filosofiko baten inguruko espiritua. Uste dut ezen, baldin huts horiek aitortuko balira, baldin horiek (teorikoki) aldenduko balira ere, ez litzatekeela besterik gabe garaile aterako eraberritze moralak; baina beti ere, zubi handi bat eraikiko litzateke gure jakintzen entziklopedian, eta baldin orobat hobekuntza praktikoak halabeharrendaren edo sentimenduen bidez bere bideari jarraituko balio ere, ezin litzateke inolaz hartan berariak lan egin teoria trinko baten gainean oinarritu gabe. Niri behintzat gisa horretako teoriarik ezak nire baitan, nik eraginkortasun praktikoa banu, zahar den oro ezin ukituzko santu bihurtuko lidake. Historiaren ikasketa da ezagutzaren emaitza horretara hurbiltzeko erarik errazena, eta horregatik hautatu dut grekoena bereziki.

Ipuspuntu hau zuri ere garrantzizko iruditzen zaizun neurrian, ikasketa hauen aurrean bidezko da itxaropen onbera bat izatea, baina ez gehiago. Gertakarietatik filosofia ateratzeko artea amaibako zailtasunen azpian jarria dago, ni maila altuan naizen bezalako buru eszeptikoa etsipenera eraman dezaketzen zailtasunen azpian, alegia. Grekoen ikasketa hain zuzen, zergatik hautatu dudan, utz iezadazu zenbait arrazoi gainera diezazkizudan. Nire eta baita zure ere konbentzimenduen arabera, gustuaren heziketa falta zaio zalantzarik gabe gure mende honi, edo hobeto esanda, gustu hezi baten eragina indar arrazoitzailen eta ekintzaileen gainean. Zein naziok, ordea, hark ez bada, gainditu zuen ikasketa bortitza?, nori eman zion sen estetikoaren nagusitasun honek aztura hain miresgarria? Egiaz ez dut uste batasun hori berriro sortzen ahalegindu beharko litzatekeenik. Gu beste maila batean gaude, zalantzarik gabe garaiago batean, gorago eraman gaitzakeen batean, behintzat. Dirudienek aldakeran aurkitzen baikara. Izaeraren batasun hain beharrezkoak izan ere, nire ustez duintasun goragoko eta behegoko maila asko ditu. Gisa honetan banatuko nituzke klaseak.

- 1) Batasuna sentsualitate gorpuztiarraren nagusitasunaren bidez.— Batasuna barbarotasunaren bidez — herrialde barbaro guztietan.

2) Indar estetikoaren batasuna —grekoengan. — Honekin uztartzen da buru espekulatiboetan arrazoimenaren bidezko batasuna — Platonengan. 3) Batasun eskasia ulermenaren heziketa handiaren bidez. 4) Batasun garaiena, eskasia horretatik datorrena. Ulermenaren heziketak arrazoimen praktikoaren heziketa dakar. Perfekzioa eskatzen du horrek, lege formalaren eduki modura. Perfekzioak eskatzen du indarren batasuna, baina ez bakar baten nagusitasunaren bidezko batasuna, norbakoitzaren agintaritzako parte berdinen bidezkoa baizik. Hori lortzeko, arrazoimen praktikoa itzultzen da giza indar guztien epailearengana, gogoetarengana alegia. Horrela dator gogoetaren batasuna, erdietsi gabea bezala, ahaleginetan bilatu behar duguna bezala. —Honaino gaurkoz. Nire jakintza alor kutunean erori naiz. Maiteen ditudan ideien inguru guztia adierazi dizut. Zuk ere gogoko badituzu, atsegin handiak espero behar ditut.—

Goraintziak nire izenean Geßler kondeari, eta galdetu berari ea Aulebendik idatzi nion gutuna jaso duen.

Emaztea eta biok zure eta zuretarren esanetara gauzkazu. Ondo bizi. Zure

Humboldt.

2.

HUMBOLDTEK SCHILLERRI

(Tegel, 1795ko uztailaren erdi aldera)

Sentitzen dut, adiskide bihotzekoa, Centaur gaur arte bidali ezin izana. Baina ezinezko gertatu zait hemen nagoen egun eta erdi honetan hura irakurtzea, eta irakurri gabe zuri uztera erabakitzea. Zure «gutunek» izugarritzko poz handia ekarri didate. Aurreko bi aleetan, iruditzen zait, gai hain zail batean erraztasun hain handiz darion espirituaren halako betetasunik ez da igartzen. Izan ere, 19. gutuneko dedukzio propioa inguratzen duen zailtasun ez txikiagatik ere, ezin du ukatu erraztasun hori aurreko gutuneko edukia behar bezala ezagutzen duen inork. Alde guztietan nabari da zure gaia maisuki menderatzen duzula, ikuspuntu desberdinetatik ikusi duzula eta hura azaltzeko egokiena hautatu duzula. Harrigarriro lortu duzu erarik argiengan adieraztea arazo nagusi zena, alegia, nola edertasunak bi egoera desberdin horiek *erabat* kontrajartzen dituen eta *barnetik* lotzen. Aurretiko guztiak hau aldeztatik prestatzen bazuen ere, batek sentitzen du bere burua zure «gutuneko» zati horietan bat-batean gora aldatua, handik begiztatzen baita giza espirituaren eskualde guztia erraztasun harrigarri batez, eta miresten, egiazko begiramen gorenez. Ez da ez pentsatzekoa ezen, bere gai propioa osotoro ahitzeaz gaindi, giza pentsatze eta sentitze ororen uztarketari buruz argi hain bizia zabaltzen duen teoria batek, bere alorraz aparte ere, iraultza bat ekar ezin lezakeenik; eta azken ale honek irakurlea honetara erakar lezakeen asko dakarrenez, ni jakin-minez nago zer-nolako zirrara eragingo duen. Gisa honetakoa da, adibidez, portaera noble eta bikain baten arteko bereizkuntza egiteko jartzen duzun oharra: Kanten moralarekin espirituz guztiz bat badator ere, hango hitzen kontra dihoala dirudi. Beste arrazoi bat ere bada zergatik egin didan zirrara handia pasarte horrek, eta orobat zuk ulermenaren ugaltzeari eta portaeraren hobetzeari dagokienez edertasunari eman diozun lekua, alegia, nik ere, lehenagoko elkarriketetatik gogoan izango duzun bezala, edertasuna modu beretsuan izate *uztartzaile* bezala pentsatzen nuen, baina uztartzen duen bakarrak ezin zuen behar bezain garbi banatu. Eta zuk bereizketa hori, uztarketa horrekin batera, zuri bakarrik arrakastaz ateratzen zaizun perfekzio batean egin duzunari eskerrak, gauzak

argiago geratu zaizkik niri; eta esan beharko banu zurekiko harremanen bidez zertan irabazi dudan nire pentsamenduan, esango nuke erabateko kontrajarpen garbia egin ondoren ez bada inolako loturarik ez egiteko joeran irabazi dudala.

Egiaz nekeak hartu ditut zure «gutunaren» ale hori arreta kritiko bikoiztuz irakurtzeko, baina ez dut topo egin nik zehatzago edo garbiago nahiko nukeen inolako pasarteekin, ohar bakar bat salbuetsirik, alegia, zuk askatasun bikoitza bereizten duzun lekua. Aitortuko dizut ilun gertatu zaidala *giza* askatasuna berez norbakoitzaren ahal-tasun natural bezala defini daitekeela adieraztea. Izan ere, azkena (ulermen bakoitzaren propioa) gizaki *sentsualean* lehena gabe ezinezkoa bada ere, hura posible egitearen berezitasunak ez du ahitzen kontzeptu hau, —zuk esaten duzun bezala—, kausa ere izan baitaiteke arrazoimenaren legeen azpian materialki jokatzeko.

Gizaki sentsualak kultura (bat-batean alderdi berri hain harri-garri batetik, duintasuna zoriontasunarekin elkartuz bezala deskribatzen baituzu) alderantz egiten duen aurrerapena deskribatzen duzun pasartea izugarri ederra eta aberatsa da oharkizun psikologiko garrantzizkoetan. Guztiz egiazko da, eta laburpen honetan eta ondorioztapen filosofiko honetan gutxienez berri da gizaki sentsualean duen lehen azalpenean ulermenaren eraginari buruz esaten duzuna. Biziki gustatuko zitzaidakeen sarriago esperientziara jo izan bazenu eta adibide gehiago ekarri izan bazenu, baina horrek guztiaren pila asko gehituko zizun.

Eta aurkezpenari dagokionez, hitz bat esatearren, uste dut ez duzula egundo hain ondo lortu egiaz oso zaila dena arin eta garbi bihurtzea. Arretaz ikusi dut berez oso ilunak diren ondorioztapenetara zenbateko artez zuzentzen zaren, eta 18. eta 19. gutunetako hasieretako bi azalpen sotilek, haietara jotzen baitute azken emaitzek ahots batez, oso inpresio ona egiten dute. Ez dakit nik ale honek ez ote dituen gainditzen estiloaren azkartasunean eta nolabaiteko jario bizian, haiek ibilera neurritsuagoa baitute. Maisutasun bikainez esandakoagatik bezala bereziki atsegin izan ditut zenbait pasarte, adibidez mailarik garaienetan arteek duten ahaidetasun hurbilagoari buruzkoak, gogartearren eta haren eraginaren deskripzioa eta sentsazioari buruzkoak...

3.

HUMBOLDTEK SCHILLERRI

Berlin, 1796ko otsailaren 13a

Berriki, adiskide bihotzekoa, aipatzen nuen nik, oker ez bana-
go, nire azken gutunean, egun hauetan eskuartean izan ditudan jar-
duera intelektual guztien sailkapen bat, eta harrez gero jaso ez duda-
nez beste objektu egokiago bat adieraziko zidan zure gutunik, zilegi
bekit honetan luzarago gera nadin.

Nire neskatilaren irakaskuntzari buruz pentsatzeak —horretara-
rako jada garaia berehala etorriko baita— eraman nau hura gidatu
behar duten ez bakarrik antolaketa baizik baita ikasleari irakatsi behar
zaizkion objektuak ere aztertzeraz. Ohiko metodoan, halabeharrenean
esku utzi ohi da hau kasik guztiz; irakurri eta idaztetik abiatu ohi da,
ondoren datoz hizkuntzak, bide batez historia, orain natur zientziak,
eta filosofiazko tinda batez amaitzen da. Bidean tratatzen da gutxi-
asko estetika. Halere, baldin inolako helburu jakin eta baldintzapeko-
rik gabe espirituaren prestakuntza [«Bildung»] orokorra ikuspuntutzat
hartzen bada, izan behar du alor jakin bat, derrigor bete behar dena,
egin behar dira zirikadak, hezia deitu den orok ahaz ezin ditzakeenak,
ideia multzo bat, begiratu batean ezinbestean hartu behar duena, eta
egitate sorta bat derrigor ezagutu behar duena egitate hauek ideia
haien azpian ipintzeko. Esfera hau orobat bere barruan hartzen duen
aniztasunagatik alderdi askotatik konkistatu eta mendean hartu behar
da, eta buruen indibidualtasunaren arabera hautatu behar dira alderdi
hauek, norbanako askoren ekintza intelektuala emaitza orokor bakar
batera eraman nahi bada. Pentsamendu hauen arrastoari segitzea
garrantzirik handieneko gauza iruditu zitzaidan espirituaren presta-
kuntzarako eta analisirako, nire esperientzia propioak bereziki iraka-
tsi zidan bezala. Izan ere, berariazko eginkizunik gabe nagoenez
geroztik, sarri sentitu dut alor honetan argitasuna lortzeko premia. Ez
zenuke pentsatu ere egingo. Norberaren sorkuntzarako neurri horretara-
ko indarra duenak objektu bakoitzerako joera eta norabide erabat jaki-
nak ditu, aski du horiek zuzentzea; eta ezeri beldur izan behar badio
partzialtasunari izan behar dio, ez ordea lausotasunari edo forma
gabeziari. Erabat bestela dihoakio bere indarra kanpoko aldera objek-

tuetara zuzentzeko joera eta gaitasun gutxi izaki, aldiz gehiago objektuak beti bere aldera barruko aldera gogoetatzeko joera eta gaitasuna duenari. Hau, baldin jolas batera eraman ohi duten halabeharrezko atxikimenduetatik erabat libratzen asmatzen badu, berez orokortasun jakin batera erakarria izango da, inolako objekturik arrotz izango ez zaiolarik ezta, ordea, bereziki hurbil duelarik ere. Honek bi muturren erdian zabuka ibili behar du; edota erabat jiterik gabea eta beraz geldoa, edota, ez barneko grina batek, baizik hautaketa halabeharrezko edo kasketazkoak (era berean desesperatua, nagikeriari ihes egiteko besterik gabe), alde bakarreko izateko. Horri gaineratzen bazaio ezen, harengan, orain nigan bezala, barruan benetan daraman sena izatez oso orokorra eta gauza asko hartzen duenera zuzendua dagoela, inork ez du sentituko berak baino gehiago printzipio tinkoen premia, printzipio objektiboak bere joera subjektiboaren adostasun osoz jarraitzeko egina baitago beste inor baino gehiago. Eta egiaz nigan espermentatu dut etengabe hori, urte erdi ez da oraindik nik metodo akats izugarriak igarri eta zuzendu ditudala nire ekimen intelektualetan, eta nik hartu beharreko bidea gero eta gehiago zehaztu dudala, gaur oraindik bide tamalez zabalegi batean estropezuka banabil ere.

Ezagutzaren (ulermolde *zabalenean*) multzo osoaren helburua hauxe da, alegia: bere ariketarako eta bere indarren areagotzeko objektuak espirituari ematea. Niri ez datorkit behintzat burura jakite, ulertze eta nortasunaren prestatze orean bestelako helbururik. Ezagutza egina dago, izan ere, espirituaren gainean eragina izateko, berak egina baita, eta biek batak bestearengan eragiten duela egon behar dute. Biziago eta mesedegarrirako izango da hau, ezagutza espirituarekin homogeen den neurrian, eta hau bere forman bakarrik izan daitekeenez, ezagutzaren garrantziak eta duintasunak bere formaren gainean bakarrik hartuko du oinarri. Arreta erakarriko du materiak baldin bakarrik bera gabe forma ezin pentsatuzkoa balitz eta azken honen ziurtasuna bezala eraginkortasuna ondo landutako materia pilarekin gora egiten badu. Batasuna bere indar guztien eraginkortasun bizian da espirituaren berezitasun funtsezkoena. Beraz, ezagutzaren pila harekin homogeenoa baldin bada, orobat derrigor eduki behar ditu osotasuna, lotura eta batasuna. Hau da orokorra, eta horren araberu buru jantzi guztiek beren artean erabat berdin izan behar dute, eta horren gainean haien bateratzearen posibilitatea oinarritzen da.

Edozein gizakiren jakiteak eta gaitasunek osotasun bat egin behar dutela baino gehiago adierazten da honekin, ez dutela multzo bat funtsean egin behar, baizik *formaren aldetik* osotasun horren berdina dena, horrek eratzen baitu ezagutza oro. Ezagutzaren objektu orok, izan ere, osotasunarekiko nolabaiteko erlazioa izan behar du eta horrekin batera giza espiritu berarekiko. Erlazio hauek guztiak gutxienez ezagutu beharko lituzke pertsona jantzi batek, erlazio horietan dauden objektu horien jabe askoagatik izan behar ez badu ere. Lehenbizikoa eta garrantzizkoena, beraz, zeharo orokorra den alorra, osotasuna, esfera eraikitzea da, bigarrena ikuspegi nagusiak, nondik osotasuna begiratu, tinkotzea. Beti helburuak hau izan behar baitu, alegia: ezagutzaren alor *osoa* begiztatzea, baina ikuspegi jakin *batetik*. Horren bidez bakarrik ekidingo dira partzialtasuna eta karakter gabezia. Biak hemen lot ditzadan, utz iezadazu osotasuna, ez bere hartan bere batasunean, baizik bere atal inportanteenen arabera konta diezazudan.

Ezagutza oro dagokie edo benetako objektuei edota ideiei, baldintzatuari edo baldintzagabeari. Horren arabera, bi adar egiten ditut, haietariko bakoitzak bietako batekin bakarrik eta bereziki diharduela: 1. jakintza *teknikoak* eta arteak, esperientziako benetako objektuak xede jakin eta *baldintzatu* baterako lantzen dituztenak. 2. jakintza *espekulatiboak*, esperientzia oroz kanpo dauden kontzeptuak erabiltzen dituztenak —matematika, filosofia espekulatiboa.

Baldintzatu, ordea, baldintzagabekoaren arauari, ideal bati jarraiki, erabili behar da. Ideal hau da edota intuizioaren, fantasiaren ideia bat, edota ezagutzarena, arrazoiarena. Honi jarraiki, bi diziplina datoz: 3. jakintza *estetikoak*, arteak, 4. jakintza *teleologikoak*, benetako objektuak arrazoiaren, perfektuaren arabera erabiltzen dituztenak. Hemen sartzen dut nik gizakiaren prestakuntza intelektual eta moral guztia, zentzurik zabalenean, eta, ondorioz, orain arte filosofia praktikokoaren alorra osatu izan duen guztia.

Lau diziplina hauek daude, zeintzuen arabera bereizi daitezkeen espirituaren prestakuntza laukoitz bat eta aztura intelektual laukoitz bat, nire ustez, ez bakarrik erabat apartaturik beren artean, baizik gizakiaren espiritua okupa lezakeen guztia ahitzen dute erabat. Bereizketa hau giza espirituaren indar bakoitzari dagokio: teknikoak uclermenari, espekulatiboa arrazoi hutsari, estetika arrazoiarekiko sen-

tsualitatearen erlazioari fantasiaren bidez, teleologikoak arrazoi praktikuari. Estetikan bezala teleologikoan ere zentzuaren eta sentimenduaren objektuak arrazoiaren ideia batera zuzenduak izango dira, baina harengan formaren arabera eta fantasiaren bidez, honengan materiaren arabera eta ulermenaren bidez.

Gizaki bakoitza, beraz, ikuspegi laukoitz honetan hezi beharko litzateke, baina nor bakoitzaren prestakuntza *bat* hobetsiz abiatu beharko litzateke, eta berak erabaki beharko luke *zenbateko neurrian* gainerakoak ere bere egin beharko lituzkeen. Hemen kontsideratu beharko litzateke bereziki lau prestakuntza mota hauek zein erlazio desberdinak dituzten beren artean. Teknikoak inondik ere beti teleologikoaren azpian egon beharko luke, eta horregatik estetika ere kontuan hartu beharko luke. Hau oso ondo azaltzen da, esaterako, politikan. Honek, honoko arazoaren irtenbide bezala: nola finkatzen ditu giza aldra batek modurik onenean elkarrenganako beren eginbehar eta eskubideak, hiritarren segurtasunaren azken helburua erdiesteko? Besterik gabe, helburu hau baldintzatua denez, teknikoa da. Baina hemen gizakiei dagokienez eta politika, halaber, nortasun prestakuntza bezala ere ikusi behar denez, badu beraz orobat zati teleologiko bat, edo honetan adierazten diren lege orokor batzuk beretzat ere baliozko aitortu behar ditu, eta gisa beretsuan gutxi gorabehera dihoa gainerako arte tekniko bakoitzarekin ere. Aldiz, gainerako beste hiru atalak erabat independente dira, eta hartaz artistak bezala filosofo espekulatiboak arrazoi osoz ukatu egiten ditu kontsiderazio moral omen direnak.

Sailkapen honetan niri bereziki garrantzizkoen iruditzen zait horrekin alor teleologikoan egia pila bat elkartzen direla, haientzat orain arte gutxienez lekurik ez baitzegoen eta, gainera, oso gutxitan edo ez erabat garatzen baitziren printzipio batetik. Karakterraren garrantziaz dagokion guztiak hemen du bere lekua, eta gainerako beste hiru ataletan edozer egon daitekeelarik ere, hemen berriro aztertu behar da giza karakterrarekiko duen erlazioa. Hemen, areago, ideal moralak jaso eta erakutsi behar da zein era desberdinetan errealtatean adieraz daitezkeen, nondik sortzen diren ideal eta, halere, indibidual dei daitezkeen karakter haiek.

Hemendik aurrera ideal estetikoaren eta moralaren batasunari buruz era zehatzago batean hitz egingo dut. Izan ere, aitortu egiten

dizut bien artean (Jainkoak eta Jainkoa) zuk ipintzen duzun bereizkuntza, nik ezin onar dezakedala. Nik gisa honetan pentsatzen dut auzia:

Ideal egiazko gorena, baina bere baldintzengatik bakarrik pentsatu, inolaz ere ebidente egin ezin daitekeena, izango litzateke moralerako indar guztien eraginkortasun gorena edo, hobeto esanda, guztizkoa beren harmonia guztizkoan. Orobat, estetikarako materia forman erabat amiltzea edo, hobeto esanda, bien arteko guztizko nahastea.

Hau egiaz lortzea benaz da ezinezko, oreka perfektua indar gorenaz lotzea guretzat ezinezko delako. Azken hau baldin badago, edertasunean bezala moraltasunean, beti alde baterako izan behar dugu guk, partikularitasun bat hautatu behar dugu, berberaren bidez amaibakoraino gero eta txikitzenago den bitartean, orokortasunera gero eta gehiago hurbiltzen dena. Azken perfekzio progresiborako gaitasuna duten karakterretan, erraz uler daiteke hau. Baina arte lanean ere gertatzen da. Arte lanak, izan ere, berez denaren bitartez, gisa horretako aurrerabidea azaldu behar du, eta ikuslearen fantasia behartu behar du era berean, bere baitan, aldez aurretik bide hori egin dezan. Era horretan lortzen dira aniztasunaren, indibidualtasunaren ideal, halaber perfekzio orokorraren ideal dei daitezkeen formak. Egiaz, ordea, indibiduen egiazkotasun halabeharrezko eta mugatuari begira bakarrik, ez ordea ideiaen izaera beharrezkoari begira —dei daitezke ideal.

Bietan, berriz, estetikaren eta moralean, lehen ideal hark *bat* izan behar du bakarrik; eta bietan azken hauek asko izan daitezke, nahiz eta beren mota nagusietako baten arabera kopuru definigarri batengatik izan. Espirituaren kultura kontuan hartuz, adibidez, nire iritzirako, sailkapen horren arabera lau ideal nagusi etor daitezke.

«Moral» hitzak, ordea, merezi du hemen azterketa bereizi bat. Esaera honen azpian ulertu ohi da *ongiaren* (Kanten zentzuan) idealari dagokiona; eta hala, badirudi gizakiaren *nahimenari* dagokiola, eta ez haren gainerako gaitasunei. Baldin nahimen ona balitz gizaki batengan *erabat* agintzen duena, hori litzateke egintza, pentsamendu, sentimendu guztien neurria, eta orduan gizaki *osoan* perfekzio gorenaren ideiaen gauzatzea eramango luke. Edozer delarik ere, ordea, ideal moralaren azpian beti ulertzen da ideia *erabat espekulatibo* baten gauzatzea, eta era horretan ideal moralak *bat* baino ezin du izan.

Idea espekulatibo soila errealitate mugatu baten gainean erabiltzetik propio datozen ideal horiek bestela deitu beharko lirateke, alegia praktikoa edo teleologikoa. Estetikan, aldiz, hant beti ere ideala *ikus*i nahi baita, badirudi ideal bezala pentsatzen dela ez absolutua, egiaz ikus ezin daitekeena, baizik bakarrik ikuslearen fantasiak hurbilagozten duena. Baldin irudika banitza, adibidez, zenbait aurpegi, edertasunaren ideal absolutua erabat adierazita leukaketenak, hauek ere, nire ustetan, erabat bi triangelu berdin bezala matematikoki doitu litezke.

Horrela behintzat argi diezaiokeet nire buruari zergatik izan daitezkeen Jainko asko eta Jainko *bat* bakarra. Azkena, idea espekulatibo soilaren, pentsagarri soilaren gauzatzea da. Lehenbizikoak dira ideala, fantasiak hura ikusteko dituen itxura desberdinetan. Itxura hauek grekoengandik ezagutzen ditugu beren alderdi estetikoetik bakarrik. Soilik uste dut ideala antzeko eran irudika daitekeela alderdi moralari dagokionez ere. Orduan lortuko genituzke, izan ere, mugatasuna desegin gabe azken gabeko idea praktikoki gauzatzeko forma moralak.

Zure idilioak, niri iruditzen zaidanez, gisa horretako Jainkoak irudikatu behar ditu, edo hobeto: forma soilik estetikoak, poesia naira eraikitzen zituenak, sentimentalaren lehentasunaren bidez orobat moralki ere osatzen direnak.

Honaino gaurkoz, adiskide maitea. Luzetxo beharbada zure pazientziarako. Edozein modutan, badakit zein handia duzun, eta nahi nuke inolaz zure arretea eskainiko bazenie inoiz edo behin pentsamendu hauei. Erantzunari dagokionez, egoki ez badatorkizu, inolako kezkarik ez izateko eskatzen dizut. Nahikoa poz ematen dit zuri zerbait aurkeztu ahal izanak.

Berriki ahaztu egin zait, maite, Körnerrek Jenan egindako ikus-taldiari buruz erantzutea. Ni ere hara joango naizenik, ezin agindu diezazuket behar bezala. Li baino lehenago seguru joango naizela Jenara. Baina Burg-Örneretik joan nahi nuke. Hemendik, berriro hona itzuli beharko bainuke, handiegia egiten zait bidea, eta maiatzean ezin egon naiteke oraindik Burg-Örnerren. Udagatik kezkatzen nago egiaz. Beldur naiz, izan ere, Lik bainu bat beharko duela, eta edozein delarik ere, bainu oro niri, hari bezala, izugarri egiten zait. Horrela bada, askeena ere halaberharretik zintzilik dago beti.

Gure etxea Körnerren esanetara dago bihotzez. Ez dut ikusten zertan egin diezaioketen kalte haurrek, eta Lolok badu arraitasunik, edozein oker sortuko balitz ere, hura urruntzeko. Gure oheei dagokionez, atseginez erabili ahal izango dituzu. 14 eguneko egonaldi batean ere Hellfeldek ez du inolako enbarazurik ekarriko; baina komeniko da horregatik idatz diezaiodan, eta zuri eskatzen dizut zenbait aste aurretik jakinaraz diezadazula.

Ongi izan, nire adiskide bihotzekoa. Liri dagokionez, lehen bezala gaude. Biok agurtzen zaituzte bihotzez. Mila bider, adieu!

Zure Humboldttek.

4.

Jena, 1796ko otsailaren 23a

Aspaldi irrikatzen nengoen, adiskide maiteena, hemendik azkenean gutun zehatz bat zuri idazteko, eta posta egun guztietan, ordea, orain negozio gutunak etorri zaizkit, haietarik benetan asko eta luzaz nire amaren heriotzagatik izan direlarik. Garai honetan estudiaztzeko gogo gero eta gutxiago izaki, gero eta gehiago etorri zaizkit iraganeko oroitzapenak, nire buruaren gaineko eta nire asmoekiko ohar-ketak eta zirriborro berriak, eta zuk zeurez ondotxo dakizu ezer ez duela adiskideekin solasean egoteko gogo hain biziki esnatzen barneko sentimenduetan luzatzeak eta norberarekiko arreta horrek baino.

Eginkizun horiez aparte, nire emaztearen osasunarekiko kezak ere nire ohiko egitekoak erabat beste alde batzuetara aldatu dizkit. Egia esateko, zorionez ez dago arrazoi txikienik ere egiazko arriskurik izan dadin, alde batetik itxurak egiaztatzen eta bestetik medikuak behin eta berriro errepikatzen duenez; baina osasun gutxia beti da oso luzea, eta pozik eskaintzen diot nire denboraren zatirik handiena hura pozteari. Nik neuk ere, hemen egon naizen bitartean, oker txikiak izan ditut etengabe.

Gauzak horrela, ezin espero dezakezu aurrerapen handirik hasi ditudan lanetan, adiskide maitea, eta egiaz oso gutxi egin ere egin dut. Halere agian ez da izan nire asmo serioenetarako ondorio egokiago eta erabakigarriagoko beste garai bat egungo hau baino. Inoiz baino etengabe kiago saiatu naiz horretan pentsatzen, eta zure adierazpenaren xedeetan aritu naiz, eta lan handiago orok ziurrenik eskatzen du barneko izaeraren jarrera eta prestakuntza berariazko bat bezala kanpoko adelakuntza hura osatzeko. Barneko prestakuntza horretatik dator, nire irudirako, lortzearen segurtasuna, horren bidez sentitzen baita bat lanaren erdian ustekabe harrapatuturik eta indarturik.

Ezin uka dezaket ez lotsa txikiz begiratzen diodala nire buruari eta azken igaro dudan urteari. Edozein aldetatik begiratzen diodala ere, ez dut ezer erdietsi, eta miresten dut sarri zinez egiazko emozioz zenbateko arraitasunez nire adiskideetako batzuek, eta bereziki zuk, jasan nauten. Badakit ez zaidala falta izan jaierarik eta neurri

batean ezta egitekorik ere, ez behintzat amaibako pazientziarik, baina horretatik gero eta gehiago ikusten dut nola horren orde... metodoa falta izan zaidan. Zenbat eta gehiago nire buruaz pentsatu, orduan eta gehiago ikusten dut akats hori nigan erro-erroan dagoela, eta hori zabaltzenago egiten den fenomeno honen kasu bakar bat baino ez da hau, izan ere, orain arte idatzi dudak apurrak ez baitu hartu irakurtzea errazago egiten duen forma, edo ez du horretara gonbidatzen. Horregatik da nigan bereziki egia nik derrigorr nigan bezala nire objektuan lan egin behar dudala, nire akats horietara joan ez nadin.

Bereziki eragozpen gisan nire egiteko produktiboan eragina izan du nire objektuen hautatze nolabait zoritxarreko batek. Hori, nire ustez, hobeto atera zait orain. Nire burua ondo ezagutzen badut, ez naiz ahalegindu behar erudizio hain handia, zehatza eta kritikoa eskatzen duten gaietan, nola diren antzinateari buruzko ikerketa historikoak, baldin puntu bakoitzean sakonago joan nahi bada, ezta kontzeptuen adartzean oinarritzen direnetan. Haietarako ez daukat nik, mekaniko den oro alde batera utzita, espirituaren jarrera kritikoa (ez dut ezagutzen beste hitz egokiagorik honetarako), gertakari batetik ez gehiegi ezta gutxi ere ateratzen duena. Horrekin duela gutxi beste behin konbentzitu naiz zure *Prolegg.* berriro irakurtzean, horrek, beste inork baino gehiago, erakusten baitu berezitasun hori maila harrigarri batean. Bestalde, lan analitikoan neke handiak hartuta ere ez dudala nik lortuko beste batek askoz txikiagoaz lortzen duena. Baldin zerbaitetarako gehienek dutena baino nolabaiteko gaitasun gehiago badut nik, bestela berezirik ikusi ohi diren gauzak lotzeko daukat, alderdi askoren elkarketa baterako eta azalpen pila batean batasuna bilatzeko.

Nire kanpoko egoerak, gainera, mundutik besteek baino gehiago ikusteko aukera ematen didanez, biak elkarturik ni bihurtzen naiz karakter indibidualen ezagutzarako trebe, eta alor hau lantzen dutenek baino prestakuntza zientifiko eta sistematiko hobea dudanez, behar bada haiei baino hobeto aterako zait ezagutza hauek teoria batean bilbatzeko ahalegina. Hauxe da, beraz, nik niretzat finkatzen dudak alorra: giza karakterren ezagutza eta azterketa bere molde desberdinetan. Alor honetatik bi lan hautatu ditut, biak banatu gabe erabiltzen ditudanak, biak ere loturik daudelako.

1. Bata ezagutzen duzu zuk, gure garaiaren ezaugarria da, eta horren sarrera da jendaurrean erabiltzeko oraingoz zehaztu dudan bakarra.

2. Bestea oraingoz estudioa baino ez da, baina bere hartan, nire irudiko, askoz garrantzitsuagoa da. Gisa honetan deitzen dut: konbaraziozko antropologia bat eta giza eta indibiduo mota desberdinen antolakuntza espiritualaren berezitasuna bata besteari kontrajartzea pentsatzen dut, konbaraziozko anatomian gizakiaren eta aberearen fisikoa konbaratu ohi den bezala. Horretan, oraingoz ikusten dudanez, helburu bikoitz baten erdiestea hartu behar da begien aurrean. Lehenbizi belaunaldien, nazioen, e.a. karakter desberdinen kontzeptu guztiz enpirikoki zuzenago eta zehatzago bat izateko; bigarren, filosofikoki aztertzeko ea gizakia zenbatean desberdin irudika daitekeen, baina forma batek besteak baino balio gutxiago izan gabe. Izan ere, horren arabera bereziki saiaturko nintzateke ez okerragatik baizik nagusitasunagatik bereizten diren berezitasunak bilatzen. Gisa honetako berezitasun bat baita funtsezkoa, eta gutxienez horrelako batek merezi du iker dadin. Azken ikuspegi honetatik gizaki bakar benetan orijinal bat adierazgarria izan daiteke, bera gabe ezezagun geratuko litzatekeen giza izatearen alderdi bat erakusten duen heinean.

Alor hau zabalegia da, batek pentsa ere pentsatzeko berak bakarrik landu dezakeela. Baina ezinbesteko iruditzen zait horren ideia eraikitzea, printzipioak oinarritzea eta diziplina nagusiak antolatzeta. Gero horietan jartzea neke gutxirekin gerta liteke, arretaz eta saiatur bakarrik. Egitasmo horretarako prestakuntza da, beraz, orain denbora hartzen didana. Egitasmo hori betetzen bada, eduki behar ditu ideia orokorrak karakter desberdintasun posiblei buruz inolaz, genero karakterari buruz oro har, eta haietako bakoitzaren propioari buruz, adibidez, espeziearen, adinaren, temperamentuaren, nazioen eta garaien propioari buruz. Materia horietako bakoitzari buruz galdera pila dago piztu gabe oraindik, eta horiei buruz badituzte ideia zenbait buruan.

Era horretan bide berri bat, handik aurrera egitea zail izango ez dena, egingarritzat jotzen dut; eta gaur, hain zuzen, beharrezko da.

Giza espirituaren aurrerapenak bere segidan begiztatzen badira, ez da ezer azaltzen inportanteago, antzinako eta garai modernoko karakterren kontrastea baino. Azken batean nire ustearen arabera,

ezinezko da bietako bat nolabait zuzen ikustea, bestea ere ezagutu gabe. Mundu modernoaren juzgu okerra uste baino sarriago aurkitzen da, antzinakoa ezagutzen ez delako. Hori bereziki atzerritarrek egiten dute guk baino gehiago. Alderantzizkoa, pentsatzen dut, da Voß zintzoa sarri ez bakarrik partzial egiten duena, baizik areago antzinatea bera berari okerreko argitan jartzen diona. Ezin du bestela izan. Indar berdinen garapen desberdinen bi egoera dira indibidualtasun antzinatea eta modernoa; derrigor, beraz, oker ibili behar bat bakarra zerbait perfektu eta bere hartan itxi bezala ikusten denean. Espirituak ere, objektu bat ikusten duenean, haren gainetik egon behar du, berak hein batean gorago eta zabalago landua egon behar du. Horregatik da aditu modernoa beti modernoaren epaile ez hain ona, eta gauza bera gertatzen da antzinateaz ere.

Nire garai bateko ekimen literarioetan ez dut ikusten grekoak baino funtsezkoago eta beharrezkoagorik nire gaurko asmoak gauzatzeko, eta egiaz hauek jarraituko ditut beti eta zentzuz. Azken aldian, nire ustez, mundu grekoari buruzko pentsamendu ez interesik gabeko zenbaitetara iritsi naiz, eta benetan garbi eta borobil ipintzea lortuko banu, zilegi bekik, adiskiderik onena, zuri jakinaraztea.

Berriro hemen nagoenez geroztik, Euripidesek eduki gaitu etengabe ni eta nire emaztea okupaturik, salbu hasiera batean Pindaro, guztiz amaitu gabe baikeneukan, bukatu genuela. Azken zatia ari gara orain irakurtzen. Euripidesen zati handienez, Barnesen edizioko 2. liburukiko zatian bereziki, zer egin izugarri dagoela iruditzen zait. Hain nabarmen ereinak daude okerrak, non sarri nekerik gabe finka daitekeen irakurtzeko modu zuzena, eta aurkitzen den laguntza kritikoa egiaz oso txikia da. Heath eta Tyrwhitten ideia on batzuk eta Musgraveren beste batzuk aparte, Reiskeren *ausardia*z konforme geratu beharko.

Zer esango duzu, nire bihotzekoena, berriro ere Pindaroren beste oda bat (*Pyth.* IX) itzuli dudalarik. Baina oraingoan beste era batera saiatu naiz, ez dut *metrum* bera gorde, baizik metrikoki soinu egiten duten *Cola* batzuk banatu ditut —labur, zuk bromatan esan zenuen bezala, tipografoak egokitzen zaionean kapritxozko zatitan zehar prosa poetiko batean egin dezakeen moduan. Behin behintzat saiatu nahi nuen horretan. Doitu egin nahi ditut pixkat oraindik, eta ondoren zuri eta beste batzuei erakutsi. Oniritzia jasoko balu, irudi-

tzen zait nik oso erraz, urte baten buruan, Pindaro osoa itzul nezake-ela. *Metro* lotu batean ordea, segur naiz ez dudala oda bakar bat ere taxutuko.

Zure Tacitus itzultzen dizut orain. Atsegin handiz irakurri dut. Baina ikusi dut nola ezinezko den testuaren *recensio* bakar batean eza-
gutzea, batek lehendik idazlea ondo ezagutzen ez badu. Tacitusek
berak nire arreta guztia irentsi du, zure oharrak laguntza gisan erabili
ditut. Guztiz zorrotzak eta harrigarriro egokiak iruditu zaizkit.
Atseginez sumatu dut zuk beti ematen diezun forma ederra, ez gehie-
gi eta jakituntzat ematen duzun irakurlearentzat ere zinez gutxiegi ez
daukana, eta halaber beti argitzearen eta orobat zuzentzearen meto-
doa, adibidearen bitartez, argitan jartzen duena. Baina gordinegi nago
ni Tacitusi dagokionean, zure oharrei buruz zerbait esan ahal dezadan.
Zein egoki, ordea, zu zaren, honek erakutsi dit, alegia: *Ed. Bip.*-ean 2.
liburua irakurtzen ari nintzela, zure lanak bidea ireki zidan moduari
esker, askoz hobeto ibili nintzela, sarri ez aurrera ez atzera gelditu
banintzen ere. Gutun oso luzea izan da hau eta nitaz baino ez. Barka
nire kalaka hau zukanako adiskidetasunaren eta zukanako konfiantza-
ren izenean. Nire emazteak, goraintziak zuri eta etxeko guztiei. Zure

H.

5.

Goetheri, 1798ko apirilaren hasierakoa

Zure *Amyntas* ezin sinesteko moduan da ederra. Hemen ere bereziki ongi atera zaizu sentimendu finen eta ederrenak, zeintzuekin gure garaiak bakarrik sinpatiza zezakeen, arropa hain zinez antzina-koetan janztea. Gutxienez ni elegia horren hasierak Teokritoren Ziklopeengana narama beti; eta zein xamurra aurkitzen den guztia, zein poetiko eta indartsu esana! Ez ditut maitatu behar landareak e.a. pasarteak eragin zoragarria eragiten du. Ezinezko litzateke, indartsuago eta egiazkoago adieraztea izaki bat beste batekin itsasten duen eta bazka arrotz hau, bizitza arrotz hau bere egiten duen sentimen sakona. Hain laburra baina orobat hain ondo prestatua, oso ondo erabilia dago, eta bertsoak beharbada inoiz baino hobeto atera zaizkizu.

Bertsoei dagokienez, berriro ere zure Hermannera itzuli behar dut. Ez dakit zuk Brinkmannekin prosodiaz hitz egin ote duzun; bera inolaz oso trebea eta aritua da horretan, eta nik talentu poetiko askorik aitortzen ez badiot ere, ez dauka meritu txikia bertsogintzaren garbitasunean eta arintasunean. Zure Hermann ezin sinesteko moduan aztertu du, eta bere liburuan bertso batzuk zehar marratuak ikusi nizekionez, eskatu nion poema berriro dena errepara zezan, bera molestatzen zuten txikieria prosodikoak apunta zitzaiz eta saia zedin aztertzen nola konpon zitekeen aldaketa arin batzuen bidez beharbada. Horixe egin nahi dut nik izan ere, eta zuk baimentzen baduzu, aurki bidaliko dizugu gure narraskeria gramatikala. Esaten baitzenidan hitzez hitz nik ale lerrotartekatu bat gorde nahi ote nuen, hala pentsatu dut ez zaizula hori gogoz kontrako izango. Edozein modutan aparteko aukera hartuko duzu gure jakinkeriaz barre egiteko, Schillerrek nire kontura hainbatetan egin duen bezala. Egiaz gisa horretako begirale prosodiko lanetarako jaioa bezala da Brinkmann. Ez bakarrik daki arazo honetaz, baizik zehaztasun handia dauka, eta nekez ihes egiten dio akats batek; eta bere jarduerak egiten du bestelako bihurketak errazago datozkiola burura. Azken bi nolakotasun hauek niri behintzat falta zaizkit.

Nire Agamenon errukarria tamalez eszena batean Vienan eta bertso gutxi batzuetan hemen aurreratu da. Udako egun ederretan

animo hobez egongo naizela espero dut. Baina Paris bera ere ez dago egina animo poetikoak (itzultzaile gizajo batek halakorik aipa badezake) ekartzeko.

Nire beste lanari dagokionez, ez dizut ezer esango harik eta zure begien aurrean izan arte.

Baina garrantzizkoena, berariaz hemengo egonaldiaren fruitutzat har dezakedana, buruan gora eta behera dabilkit, eta beharbada hantxe geratuko da betiko. Hau da, karakter nazional frantsesaren ikerketa, eta hura alemana konbaratzea. Izan ere, zalantzatan nabil oraindik, bietatik zein, denboraldi batean horrekin segitzen badut, egingo zaidan hain bizi eta argi, non azalpen bat besteentzat ere posible izango den. Guk biok hainbeste gauza jakingarri hitz egin dugu gure artean ze, nire ustez, ez baitzikizut aipatu ere egin nire bi asmo handiak, alegia gure mendearen deskripzio bat eta jakintza berri baten, hau da, konbarazio bidezko antropologia baten sorrera. Baina edozer delarik ere, zuri ez zizun ihes egingo ni alde guztietan, batez ere gizaki bana-koaren ezagutzan, abiatzen naizela; eta egiaz erabat egia izan dadin, nahikoa enpirikoa den batetik abiatzen naiz, eta nahikoa filosofiko une bakoitzerako baino gehiagorako baliozko izan dadin. Nik ezingo nukeen nire bidaia bestelako inolako ideiarekin lotu, eta horrek nolabaiteko halabeharrezko sorrera izango balu ere, nik saiatu beharko nuke hura horretarako eta ahal bezain sistematikoki erabiltzen.

Karakter nazional frantsesak, ikuspegi horretatik, ez dit zeregin gutxi ematen, eta lehen begiratuan hain erraza eta ulergarria badirudi ere, zailtasun zenbait azaltzen dira inguruan. Ezin sinetsizkoa da, batez ere, zer esan nahi duen naturako objektu bat bakarra aztertzeak. Baldin norbaitek so-egile onak bakarrik daukan begia baleuka, segituan igartzen da nola guztia guztiarekin loturik dagoen, nola puntu bakoitzean natura osoa dagoen. Nor egongo da horretaz konbentzi- tuago zu baino. Hortxe usten dut dagoela arrazoia zergatik zu zure ahalegin natur historikoetan oraindik ez zauden pozik zeure buruarekin, itxuraz hain gutxi eragozpenik gabe. Baina objektu moraletan zailtasun handia gehiago dago bere izate propioa bere egitura halabeharrezkoetatik denboran, bere berezitasun benetakoa bere aurrerakun- tza posibleetatik bereiztean, ildoak nondik ez apartatu zehaztean, baina haiei inolaz gizakiak ezin ezagutu ditzakeelako ezagutzen ez duen mugarik nondik ezin irten jarri gabe. Karakter nazional bati

buruzko nire kontzeptuaz pozik egon aurretik, zerbait aurkitu behar dut, ohiko eraginkortasunarekin bezala okerreko endekatzearekin eta energia lortuenekin bat datorrena, zerbait komuna, giza egituraren eta jardueraren atal bakoitz guztietan bere berari berdin bezala aitortzen dena; zerbait azkenik karakter indibidualako mota ororekin bat datorrena, baina bakoitza halako gisan aldatzen duena, non horrela guztiek antzekotasun orokor bat hartzen duten.

Ezinezko da, ikerketa erabat amaitu aurretik ere, ikuspegi zerbait ez edukitzea, ezinezko bidenabar ukitu soilaren bidez zerbait ez finkatzea, eta hala, nik ere baditut gisako zenbait ideia karakter frantziarrari buruz. Bitxi egiten zait ezen, han gehiago agintzen duela ulermenak espirituak baino, norberarengandik kanpora bizitzara zuzenduak gehiago, norberarengana itzuli eta artifizialki zehazturiko fantasiak baino, oldarrak eta berotasunak gehiago, sentimenduak baino. Areago oraindik, iruditzen zait haren berezitasun oso inportantea dela, ez izatea inolaz ere patetikoa, eta patetikotasun gabezia hau kontrajarritako joera baten bidez, temperamentuaren mugikortasun eta arintasun beti bortitz baten bidez sortua dela. Bera benetako karakter temperamentu den neurrian bereizten da alemanetik, alemanak halako karakter hain orokorra, edo nahi baduzu, halako karakter gabezia bat dauka, non aleman eta ez-aleman berdin balio baitu karakter nazionalaren sailkapen orokor baterako. Unibertsalki ez-patetiko bezala ingelesari kontrajarrria dago, ingeles batek izan ere, egiaz, txikikeria balio-gabejoena ere pathos batez egiten baitu.

Ez dago kalkulaterik zein gora altxa daitekeen bat askatasun honen bidez, pathos orotik libre. Horren bitartez gozatzen du, hasieran itxuraz zoragarria dirudien adibide bat erabiltzen uzten badidazu, komediak tragediaren aurrean duen lehentasun guztiaz. Kontua da patetikoa ezin nahas daitekeenean ongi aurrera egiten duela, aldiz miragarria dela nola kontrajarrria orain, ondo tratatua denean noski, ondo ateratzen den, zein patetikoa den patetikoa hala izateko inolako joerarik ez duen baten ahotan. Horri kontu egiten diodanez geroztik, horren adibide zenbait azaldu zaizkit are liburuetan ere. Baina beste aldetik, nekez uler daiteke nola libra daitekeen karakter hau errealitateari kateatzen eta ideal orokiko ihesa eragozten dioten lokarrietatik, nola bereziki garaituko dituen hizkuntza hain mugatuak kontrajartzen dizkion eragozpenak.

Ikusten duzu zenbat daukadan egiteko ideia gutxi hauek garatu eta zuritu nahi baditut, nola gisako berezitasunaren antzeko edo ez-antzeko den ororekin konbaratuz bakarrik, argia, nazio honek behi-nola egin, pentsatu eta idatzi duenaren ezagutza zehatzaren bidez bakarrik, beharrezko egiaztapen historikoa lor daitekeen.

Horregatik nire aurrean tarraka daramadan Sisyforen harri moduko zerbait bezala ikusten dut hau, eta horretan nahikoa zorionsu sentituko naiz ez badit sarriegi eta maltzurkiegi ihes egiten.

Baina orokorkeria hauek baino gusturago, adiskide bihotzekoa, entzungo zenuen beharbada Parisko eta hemengo egoeraren berri. Baina lausengagarri gertatzen zitzaidan zuri ez zitzaizula irudituko interesik gabeko jakitea zertan ari naizen ni orain, eta gauza interes-garririk gertatzen ez denez gero, egiaz zaila da Parisi buruz orokorrean hitz egitea.

Politikari dagokionez, badakizu ni ez naizela horretaz ardura-zen. Beraz, literatura eta artea da nik ezagutzen dudana gauza bakarra. Hiria eta bidaiariak bere bokazioaren arabera ikusten duena sarriegi izan da deskribatua azken aldian, eta niri nazka ematen dit hartaz pentsatze hutsak ere.

Literaturari dagokionez, naturaren historia eta fisika interesa dakizuke bakarrik hemen; diziplina hauetan egin dituzun ahaleginek uzta eta benetan oparoa aurki dezakete hemen. Gehiena, nire usterako, Jardin des plantes-en izango zenuke: bere kokapen ederrari esker, eraikuntzaren inguruagatik, han gordetzen diren bildumen aberastasunagatik eta han bizi diren adituen jakituria eta, gainera, daiteke arraitasunagatik European bakarria da. Egiaz ezin eska daiteke Schönbrunn-en bezalako negutegi hain ederrik ezta erakusketaren zainketa hain arretatsurik, horretarako baliabiderik ere ez baitaukate hemen. Baina museoa ezin deskribatzeko moduan da oparoa. Bururatu zait zuri interesatuko litzaizukeela beharbada eskeleto bakan batzuei buruzko ohar batzuk edukitzea. Hala balitz, jakinarazi iezadazu mesedez. Nik bezala zuk ezagutzen eta gurean den Dr. Fischerrek oso erraz aseko gure zure guraria. Eraikuntza honetan dagoen gizon arraitsuena eta egin-korrena Cuvier da, alemanera ere oso ondo dakiena, bestalde. Abere odol-hotzen fisiologiari buruz lan oso jakingarriak egin ditu eta anatomia comparata zehaztu bat argitaratu nahi du. Diziplina hori irakasten du, eta ikastetxe honek bikaina izan behar du. Duela egun batzuk bi

elefante iritsi dira Holandatik, eta hasieran egun batzuetan Inbalidoetan eduki dituzte, han harrapatu zituzten aberriaren aldeleei erakusteko. Toulondik lehoi eta orkatz batzuk espero dira, oker ez banago.

Zure ikerketa optikoetarako balioko zenbait gauza aurkituko zenituzke beharbada Charlesen izugarrizko tresnan. Gizona bera ez da hain baliozkoa, esperimantatzaile soil bat da, baina bere tresneria aretoa erraz izango da Europako oparoena.

Zure jakin-min mineralogiakoak asekuntza oparoa aurkituko luke Dolomieuren kabinetean. Zuri goraintziak emateko eskatu zidan. Atseginik handienaz oroitzen da oraindik biok Erroman egin zenuten egonaldiaz. Berari galdetu nion ea non aurki nitzakeen zuk nahi dituzun puskak, eta berak bat-batzuk bidaliko omen dizkit, zuk oroigarri gisan gorde ditzazun. Gizon benetan jatorra da, asko estimatzen dudana.

Kimikan Fourcroy, Bertollet eta bereziki Vauquelin ari dira lanean. Azken honek aurkikuntza berri batzuk egin ditu, dagoeneko zalantzarik gabe egunkari alemaniarretan zabaldu direnak. Fourcroy gehiago da sistematiko, baina maila oso altuan, asmatzaile baino. Bere azalpena izugarri ederra da. Orain argitaratu du bere *Théorie de la chimie*, 6-8 liburukitan azalduko dena, baina obra handi baten lehen atala baino ez dena: *Système des connaissances chimiques au commencement du 19me siècle*.

Literatura ederrak ez du interes handirik zuretzat. Zinez jeinuaren garra falta da hemen. Produkzio gehienak ahulak dira, eta kritika zorrotz batek arrazoiz eska lezakeenetik oso urruti daude guztiak. Poesia moten teoriari buruz ez daukate ideiarik ere, eta poeta gazte bakar bat izan ezik, ez dut inor aurkitu horren beharrik sumatzen zuenik.

Literatura alemaniarrari dagokionez, asko jakin uste dute hemen. Oso ondo ezagutu eta maitatzen dutela uste dute gainera. Chenierek zure Werther tragedia bihurtu du, argitaratu gabe badauka ere. Baina aski da zerbait entzutea, jakiteko zenbateraino doazen ezagutza eta maitasun horiek. Nire aldetik erabaki dut nire bitartez ez dela hemen ezagutaraziko lerro aleman bakar bat ere (ezta erudizio soilerako ere). Frantziarrak urrutiegi daude oraindik gugandik, gu berezi izaten hasten garen lekuan uler gaitzaten, hain urruti non hizkuntzen desberdintasuna kontrako traba txiki bezala azaltzen den.

Zure Hermannen erreseina *Magasin encyclopédique*-n irakurriko zenuen. Schweighäuser gaztearena da.

Gogoz esango nizkizuke gauza asko artelan italiarrei buruz. Baina ez da hori, tamalez, nik hobekien ezagutzen dudana gaia. Orain arte Lombardiak galdu duena baino ez dago hemen, hau da, pintura gehienbat. Hauek guztiak eta oraindik espero direnak jarriko diren lekua Louvreko Galeria da, izugarri luzea (1.440 oin bai, nire ustez) eta Louvre Palais des Tuileriesekin lotzen duena. Areto bakarra da, goian bobeda duena, leihoak alde batera dituela. Hara jotzen dute beste salek, nahikoa handiak hauek ere. Hemen gaudenez geroztik, atzerritarrek eta artistek bakarrik dute egunero sarrera eraikuntzara. Hasieran galeria handian baino ez zen lan egiten. Obra zenbait zeuden dagoeneko eskegita, beste batzuk hormetan zehar zeuden, eta beti jardunean baitzebiltzan etengabe aldatzen zen dekorazioa eta gauza berriak ikusten ziren beti. Lombardiarrak (Bologna barne), holandarrrak eta hemengoak, Versailleskoak eta Galerie du Luxembourgekoak ziren hauek. Bonaparte iritsi zenean, gorputz legegileak festa bat eskaini nahi izan zion eta galeria hauxe hautatu zuen horretarako, barruti horretan baitago. Garrasika hasi ziren artistak, baina alferrik izan zen. Galeria osoa hustu zuten, eta egun horren ondoren itxita geratu zen guztientzat, duela sei aste inguru arte. Denboraldi horretan pinturen zati bat zegoen eskegita galeriara jotzen duten aretoetan, baina behin behingoz soilik, eta ikusleen jakin-mina baretzeko baino ez. Areto hau paregabe ederra da eta argia goitik bakarrik hartzen duenez, pintura horiek ezin ikusi ahal izango dira galerian argi hain onaz. Bizi diren artisten lanak erakusteko izendatua dago areto hori, eta aste gutxi barru orain dauden pinturak kendu egingo dituzte eta bizi diren pintoreenak jarriko. Galerian bertan egiaz etengabe lan egiten da, baina inolaz dirua falta delarik, ez beharko litzatekeen zorrotasunarekin. Bi zatitan zatituko da, bata italiarretarako eta bestea herbeheretarretarako, frantziarretarako eta eskola alemaniarretik dauden gutxietarako. Galeriarra jotzen duen bigarren aretoan maisu ospetsuen eskumarrakien zati bat dago eskegita. Horietarik pila handia dagoenez, oker ez banago, hiru hilabetez behin aldatu egiten dituzte. Hemen gaudenetik Rafaelen paper pintatuak egon dira agerian.

Zer eta zenbat dagoen, bereziki artelan italiarretik, ezin da esan zehatz, ez baitira denak batera erakutsi, eta egon ere ez baitago age-

rian ezagutzera eman den haien katalogorik ere. Baina nolabait ikus dezazun zenbat daukaten hemen, orain erakusten diren marrazki eta pinturen katalogo biak bidaltzen dizkizut. Ondare osoaren zati txikiena baino ez bada ere, zalantzarik gabe da ederrena. Apolo eta harekin batera datorren guztia neguan Arlesen egon da, zuk jakingo duzunez. Nik institutu nazionalean irakurtzen entzun nuen arduradunaren gutun batek dioenez, arretarik handiena eduki da horretan. Orain, ordea, bidean izan behar du, eta bi hilabete barru espero da hemen. Jainkoak murru hauek agurtu bezain laster, idatziko dizut nik.

Objektu honi buruzko galdera garrantzitsuena da: ea orain arte hona iritsi diren irudiek, garraioaren, trataeraren eta eraberritzearen bidez zerbait galdu duten ala ez? Baina erantzun osoa emateko, lehenago zehatz ezagututa eduki behar dira. Kasu honetan dauden pertsona batzuek baietz esaten dute egiaz. Irudimenak eta alderdikeriako espirituak zenbat eragiten duten bereiztea zein zail den ikusteko, besterik gabe. Berezko harrokeria ere izan ohi da, gainera, beti esatea gauza bat ez dela gehiago lehen izan zena, lehendik ezaguna zelako. Santa Zezilia, hemen garbitu aurretik, guztiz zikina zegoen, eta orain nolabaiteko kolore gorria hartu du. Baina ezin uka daiteke kalterik izan ez denik. Baina nik uste dut ez dela izan askok esan nahi duten adinakoa, ezta urrik eman ere.

Oraingo artistenik, gutxi ikusi dugu oraindik. Daviden etxean ere oraindik izan gabeak gara, harrera oso zaila baitu, eta gaixo zegoen gainera. Zuk edo Mayerrek, biok ere hemen izan gabeak zaretenez, hemengo irudi bakoitzari buruz, adibidez, Rafaeli edo Rubensi buruz gehiago jakin nahi bazenute, nire emazteak atseginez idatziko dizue. Esan, besterik gabe, zure hurrengo gutunean.

Zalantzarik ez dago, hemen dagoen guztia, behar bezala jarriko denean, galeria hau bakarria izango dela munduan; eta ezin uka daiteke arte objektu hain ugariaren pilaketa hain izugarri batek baduela irudimenarentzat zerbait solemnerik. Honek baketzen nau nolabait Italiak pairatzen duen galerarekin.

Natur gauzetatik eta eskuizkribuetatik pila nahikoa handia espero da handik hurrengo garraiokoan.

Hemen pozik handiena emango lizukeena zera da: miragarriro ziur mugitzen dela Ni-ren eta ez-ni-ren artean, mozorro beldurgarri

horiek munduan izan ere, izango ez balira bezala. Fichte-ren dorre zaharra Jenako arraolean lamien gaztelu baten antzera azaltzen zait sarri. Baina apustu zu hemen izango bazina, haren irrika izango zenukeela. Hala gertatzen zait behintzat niri.

Saiatuko naiz zuretzako liburuak inguratzen.

Gutun hau, harriak eta katalogoak Berlingo Viewegi emango dizkiot, hemen baita.

6.

Humboldtek Schillerri

(Paris, 1800eko irailaren hasieran)

Azken hamalau egunotan zurekin okupaturik egon naiz etengabe, nire adiskide maitea, zure «*Wallenstein*» irakurri baitut, eta gustu hau azken iritsi zaienen artean banago, nire ustez, neu izango naiz atsegin hori luzaroen eta atergabeen eduki dutenen artean.

Sarri hitz egin dugu biok elkarrekin sorkuntza horri buruz, oraindik marraztu baino ez zenuenean. Zure sorkuntza gaitasuna frogatu nahi zenuen harri bezala ikusten zenuen zuk. Harriduraz eta, halaber, kezkaz ikusten nuen nik zenbat jartzen zenuen zuk ahalegin horretan. Mila bider etorri zait gogora irakurtzen ari nintzela «*Zaldunaren kantaren*» azkena: «Eta ez arriskatu zuek zuen bizitza, ez zaizue sarituko zuen bizitza». Gorenarengatik egin duzu borroka eta gutxienez, poetikotasunari dagokionean —inork gutxik ukatuko dizu hori—, gorena erdietsi duzu.

Halako pilak inork ez ditu oraindik mugimenduan jarri; hain zabal zen gaia ez du inork hautatu; ekintza bat, baliabideak eta ondorioak, arbola izugarri baten sustraien eta adarren antzo, hainbeste zabaldu eta irudi hain anitzetan banaturik dauzkana, inork ez du aurkeztu. Wallensteinin familia atriden etxe bihurtu duzu, eta han patua etxeko da, bizilagunak urrunduak dira, begiralea, ordea, pozik eta luzaz hiri erraustuan pausatzen da. Oraindik ez ninduen beste artelan batek halako mundu berri eta hartaz koherente batera bidali, ez dago beste irudi bat orain arte ni hala hunkitu eta pertsegitu nauena.

Sarri arreguratzen zinen nirekin gaia hain elkorra zelako; baina beharbada ezin uka daitekeen lehortasun horrek berak behartu zaitu egin baino gehiago hura gainditzera. Zu, oso garbi ikusten da hori, urtetan zehar kateatu zara gai horretan eta gero mundura ekarri duzu. Egiaz, arte espirituaren egitea ez baino agintzea igar daiteke nabarmen zure obran; baina miresmen bikoitzez harritzen da bat ikustean, orain azaltzen denean eta berberari utzia dagoenean, zenbateko neurrian den natura.

Zure obran bere berezitasuna bilatzen saiatu naiz lehenbizi, zurekiko harremanik gabe hain luzaz egon naizelarik, ni zuregana

biziroen eramango ninduenaren bila. Eragin tragikoaren handitasunean aurkitu dut beste guztien aurretik. Gizakiak patuaz duen guduan zuzenean sartu dituzu borrokan dauden indarrak, gizakiaren askatasuna eta mendetasuna, eta espirituak eta bihotzak onartu eta gura duten gisan amaitu duzu guda. Horregatik segitzen duzu trageriaren gailur arriskuzkoan eta inon ez hurbiltzen dramara —oker bat, nondik, zorrotz aztertuz gero, oso poeta gutxi salbatzen baita. Zure gertakariak ez dira dramaren bezala egintza berezitu batzuen ondorio, karakter horren derrigorrezko jarraitzaile baizik; bere karakter nagusiak ez daude dramarenak bezala grina, lehentasun eta gabezia jakin batzuen bidez bereziak, zuk gauzetan behin betiko eta haren bidez bere patuan egiten duzun kolpean baizik, alegia: gauzen aniztasun oso bat berarengan kendu, beste bat berarengandik urrundu duelako, hark— trageriarako derrigorrezko karakter handitasunaren kontzeptu egiazko bakarra —nahimenaren halako indarra eta bizitasuna duelako, non bere baitatik behin betirako alde aurretik norabidea finkatzen duen, hori zatika inguruko gorabeheretatik jaso ordez.

Baina bada oraindik beste berezitasun bat zure «*Wallenstein*»-en, alegia berez hondamendiak berarekin dakarren sentimenduak, ez duela bakarrik begiradaren objektuarekiko argitasun ezin sinetsizkoa orobat hartzen, baizik zuzenean berak hedatzen duela. Ez da samina, ez hunkidura, izu gorria baizik; eta izuaren muina da, alegia, argitasun deuseztatzailean azaltzen den objektuaren beldurgarritasunak, etengabe bere indarra harekin berdintzen duen inpresioa bere baitan zapaltzen duela. Hau da emozioarentzat irudimenarentzat bikainena dena, eta tentsioaren maila gorenean oraindik poetiko jarrai dezakeen sentimendu bakarra, hunkidura sakona erraz samin koldar bilakatzen baita, eta hau apatia. Zuk gizadi eta patuari buruzko begiradari ematen diozun argitasun handiaren bidez eragin tragikoaren zirkulua errazago gauzatzen duzu eta ematen diozu arimari indar handiagoa, lehenago hain bortizki apartatzen ikusiriko askatasuna eta patua berriro elkarrekin lotzen.

Badirudi zure bide hori arriskutsuena dela poetarentzat. Oso erraz urruntzen da gizakiarengandik, hau bera baino askoz gorago jasotzen denean, eta zalantzarik gabe bada beste trageria mota bat, nik elegiakoa deituko nukeena gizadiaren mendetasun zortearen sentimendu mingarriarekin eta indar ezezagun baten nahimenean amore

emanez bukatzen dena. Antzinakoek ez zuten beste motarik ezagutzen, eta Goethek bere lan ederrentsuetako batean asmatu du edertasun berria ematen. Bere «*Egmont*» izan daiteke horren adierazpen liluragarriena. Berariaz esaten dut *liluragarria*, obra hori sentimenduen musika bat bezala iruditu zaidalako beti. Ez baitu heltzen bizitzaren seriotasun urratuan bakarrik, baizik areago zabuka ibiltzen da amets behin maitagarritan, hurrengo malenkoniatsu eta urragarrietan, beti ordea, xamurretan.

Zure bidean salbatu zaituena da —ez baitut uste inolaz arazoiz salatu zaitzaketenik beharrezko berotasun poetiko gabeziaren bat izateagatik—, zure gaia atal guztietan arretaz landu izanak. Zuk inguratu egiten duzu, eho, esango nuke nik, zure ikusleak bizitzarekin, kanpotik badirudi dena lotuta dagoela, gorabeheren ohiko lokerrari jarraiki; barrutik egiazko iturriak azaltzen dira, bizitzaren eragin indartsuenak; hauek beren artean oso estu kateatzen dira, ekintza aurrera doan neurrian, edozein aldetara begiratzen dela ere osotasun mugituaren handitasun segidakoarekin, atalen uztarketa zorrotzarekin, sentimendu sutuen iraupenarekin, barneko norabideen garaitasun idealarekin —alde guztietan aurkitzen da bat lasaiturik iraganari dagokionez eta berriro bizturik etortzekoei dagokienez. Zure gaiaren garapen benaz poetiko hau akatsik gabea da zeharo, eta zuk bete izana, eta arazoa hori dela eta hori bakarrik, berezitasun hori, nire ustez, zure antzeari zor diozu. Irakurle orori ageriko gertatu behar zaio, noski, zure lan hau garapen honen bidez gainerako onenen aldean bere abantailarako bereizten dela. Edozer delarik ere, nik ez dut beste batean halako inpresiorik izan, alegia, gaiaren garapen poetikoa— erabilera bakoitzerako bakarrik kontuan hartu ordez — obraren gaindi asko hedatzen dela; mundu hau behin eginez gero, badirudi zure esku dagoela harengandik zer eta zenbat erakutsi nahi duzun, non hasi, non buka nahi duzun. Ezin esan daiteke, ordea, zenbateko gain-irabazia —nik izenda nahi nukeen bezala— obraren eraginaren gainean egiten duen. Izan ere, zuk egintza bakoitza zorrotz baino aurkeztu ez duzunez, niri batere inportantziarik gabeko iruditu zaizkidan pasarteak, non nik usteko nuen zuk irudiaren osotasunerako pentsatu dituzun ñabardurak ikuskizunean kanpora utz zentzakeela, orain iruditzen zaizkit nahita egindako mugimendua, berez antolaturiko biritza.

Derrigor ezinbesteko zen, berez sentimenduari hain gutxi ematen zion gai bat, lotura organiko zorrotz eta biziaren bitartez salbatzea: baina jeinuari zegokion derrigortasun hori halako moduan merezimendu bihurtzea, non aurrerantzean gai horrek berak gehiago tragiko dirudien.

«*Wallenstein*»en hondamendian garbi ikusi dut, egintza poetiko batean arrazoiz alde batera sekula utzi behar ez den zohardiaren oinarria beste ezer ez dela, ez bada sentimendu oldartu bakoitza indar osoz bere azkeneraino eramatea. Ez dago zure obraren amaiera bezain gauza urragarririk. Halere, arima sentitzen da azkenean harmonia osoan eta patuaz eta gizadiak baketurik. Maxek eta Theklak beren bizi-tza eskaini dioten sentimenduari segitu diote, haientzat bezala guretzat ere balio digun gauza bakarra da bere heriotzaren bidez ziurtaturik eta babesturik geratu dela. Wallensteinek ezin zuen geldi egon ezta atzera egin ere. Indarren ahalegin hain bortitz batek aurrera egin behar zuen, pot egin arte. Haren atzean garaile gisan gelditzen denak gugan gaitzespena, are mespretxua aurki dezake, baina ideia eder eta onuragarriak ere loturik daude horrekin. Wallenstein hain zen agerpen beldurgarria, hain bortitza, non lasaitasun baketsuaren itxaropena haren erorketarekin sartzen den. Zure sorkuntza guztiko ideia emankorrena, eta ikara sortzen duen hondo bezala balio dizuna, gudarostearen nagusitasuna, ez bakarrik probintzia honi edo besteari, baizik bizitza burges baketsu guztiari amaibako gerra iragartzen diona, bere sortzailearekin desagertzen da. Gainezka egin duen emari indartsu bat bere uharkara itzultzen da, uzta berriro berdetu daiteke, herriak berriro poztu.

Izan ere, hain handia da hau, non giza existentzia osoaren laburpena zure obran hain argi eta labur laburbil baitaiteke. Gizakiaren barneko handitasun garbia, ideia bati eman eta hura utzi baino amiltzea nahiago duena, alde batetik; bestetik, animoaren jarrera lurrari hurbilagotik lotua eta mugatuagoa, erraz bareturiko gurariak elikatuz, lasaitasuna, poztasuna eta kanpoko zoriona bilatzen dituena, eta zuk oso egokiro aldratan bakarrik eta ez zuzenean, baizik haren desegintza mehatxatzen duen gerrako indarraren kontrastean eta Oktavioren hitzaldi zuhurretan eta bere semearen deskribaketa pasionatuan aurkeztu duzuna. Jarrera mugatuago honek ez du kontraesaten handitasun hura. Max eta Thekla munduan zoriontsu izan daitezkeen bezala lurra huts eman dezakete. Ez beraz Wallenstein; bere espi-

tuak, izan ere, ez du hartzen norabide bat guztiz gizatiarra izango dena. Ez da asetzen inoren jabegoko ez diren ondasunekin, eta ez ditu partitu nahi, batenak izaki besteak huts emango dituenak. Bera jartzen da (berak «Piccolominis»ean esaten duen bezala) Zeusen haur dirdai-tsuen artean eta da (Maxi ukatzen ez dion bezala) lurrarena. Zer, non eta nola gertatu edozein delarik ere, esferak nahasten dituenak ezin du segitu mugarik gabeko biderik, baizik lehenago edo geroago behera egin behar du.

Zenbaiti entzun nion hemen esaten ikuskizunean «*Wallenstein*»en hirugarren ekitaldiko azkenak geratzen diren beste biei interresa kentzen diela. Ezin pentsa dezaket, ordea, iritzi hau nolabait orokorra izan zitekeenik. Izan ere, hain iritzi eskasa dut ikusleari oro har dagokionean eta hain ohiko baita gizakiak, hasieran berezitat harturik gero ohikoen artera eraitsiak diren sentimenez liluratuak ikustea, eta egiaz gizatiar da hari bat indartsu jotzean ez dela bakera etortzen tonua isildu den arte.

Wallenstein naturako indar baten pareko da, eta hala behar du izan hutsik egin gabe heroi tragiko batek gutxi edo gehiago. Orobat giza taldera gai zikin, arrotz batek etorri behar du, hartzidura gerta dadin eta gardena eta akatsik gabea, ikuslearengan eragina izan behar duena, garbi aparta dadin. Baina Wallensteinek hori dauka hain maila handian, non oker den oro berarengan eta zoritxar oro berarengandik kanpo, bere karakterragatik beragatik bakarrik, eta karakter honetan esfera nahasketa harengatik soilik, ezin aldatua aldakorrean bilatzea sortzen da. Ez dauka karakter pasionatu orok berarekin dakarren argitasuna, eta patua ez da azaltzen indar itsu gisan. Are berak ere, eta horrek eragin harrigarria dakar, urrats bakoitzean garbi ikusten du begien aurrean zer egiten duen, eta ezagutzen du bere okerra eta bere arriskua. Baina bere burua, eta berriro bere handitasunaren inpresio ozarrak engainaturik, gero eta gehiago nahasten du. Horrela zure obra grekoengandik oso hurbilera ekarri duzu, indar betearen ondoan han aurkitzen den neurritasun eder eta zuhurraren bidez inolaz, eta heldutasun betearen bidez, itxuraz karakter modernoan izan arren, ez da inondik ere leialtasun gabea antzinakoarekiko.

Entzun dut larderiartzen Wallensteinin duda-muda zalantziatarria; baina niri kalkulatu ki zuzen iruditu zait. Zuzengabeziaren aurreko bere izu noblearen eta gorabeheren eta unearen mende uste ez duen

indarraren sentimenduaren ondorio da une berean beti. Wallensteinek esku hartu behar duen lekuan azkar esku har dezakeela, horretan ezin du zalantzarik egin inork; erabaki sorta oso baten aurrean erabaki behar duenean duda egiten duela, berezkoa da afektiboa ez den ezta pasioz beterikoa ere ez den karakter batean, dena bere esku daukan ahalegin sakon bakar bat ezagutu eta animo jarrera gogartetsua daukan gizon batengan. Kritika, beraz, datza kritikariak, Illo eta Terzky bezala, berak bilatzen duen handitasunaren ideiarik ere ez duelako zinez. Ez du iraultza arruntik nahi, ez usurpazio arruntik ere, ez du egiten —eta horixe da bere zoritxarra— inolako irudikeriarik, garbiegi ikusten du zer den garbi eta noble eta zer egunoroko. Handiena eta apartekoena errealitatean azaldu nahi du eta horretarako errege koroari botatzen dio esku; baina eskua luzatzen duenean, sentitzen du hura ez dela bere aztarna agertuko duen gaia. Horregatik ez dauka gurari jakinik, ez erabaki garbirik. Zoritxarra iragartzen duten izarrek ez dute urruntzen bere portera une erabakigarritik, aldiz, zeruan aitzakia bilatzen du bere erraietako duda-muda zalantzatietarako. Sumatzen du, berak nahi duena, naturaren indarrez gaindi dagoela, eta bultzatzen duen larritasunean arte kimeriko baten ezkutuki ezin ulertuzkoek ematen diote itxurazko lasaitasuna. Halere, pasarte pare batean bereziki, iruditu zait izar irakurkeria horretarako joera ez ote zenuen zuhurrago erabili behar.

Theklaren izaeraren deskripzioa zeharo egokia iruditu zait. Horrela erabat natura eta natura soilik ez zait ez zugar ez beste inon azaldu. Maitasunaren indar bete eta garbia da bular horretan agintzen duena eta berari askatasun hori, indar hori eta zuhurtasun hori ematen diona. Zure trataeraren berarizkoa datza, ez dut esango alferrikakoa, bai ordea karakter marraztu baino gehiago egiten zuen oro zorrotzatasunez aldentzean. Urritasuna soilik, azaleko hoztasuna azalpenetan ikus daiteke sakonean eta sakonean eragiten. Thekla emakume batek izan behar duen adinean da emakumezko; amorante eta alaba baino ez da; bera da, hori guztia izan aurretik, eta gainera bera berbera eta bere barrua eta bere patua baino ez du ezagutzen. «Ezin alden du diezazuket», dio berak, eta sentimenduaren seriotasunak ematen duen segurtasunaz segitzen dio bere bideari eta uzten du ama.

Goetheren Iphigenia eta zure Thekla bezala, ez du idazle ez antzinako ez gaurko batek hirugarren izaera bat erakusten. Theklak

hartzen duen lekuak dakar serioago eta solemneago azaltzea. Natura handiago eta sakonago agertzen da berarengan, gutxiago mintzo delako eta heroien pareko grina batek bereganatua daukalako.

Bere aitak berari dion errespetuak argi eder bat itzultzen dio berari. Maisutasunezkoa iruditzen zait zuk ukitu bakar hori hutsik uztea, alegia, gure begien aurrean bereetan lotu izana.

Gizaki aldra oso bat, eta gainera karakter bakar bat bezala, obra batean sartzeara, zuk Pappenheimdar horiekin egin duzun bezala, berria da ezin ukatuzko moduan, baina orobat eraginkortasunik handienezkoa. Hau da gudarostearen aldra basatian nabarmentzen den handitasun gizatar bakarra, Maxen erabakiari pisu erabakigarri ematen dio, bere irteeraren presioa eta izugarritasuna areagotzen ditu eta gizaki hauek beren buruzagiarenganako duten leialtasuna oso ondo lotzen da maitasunaren leialtasunarekin Theklarengan. Auzi zuzenak pilaren bidez irabazi egiten du ez bakarrik kopuruz, baita ere noblezasunaren bidez duintasunez, hau salbatzeko erabiltzen den era maltzurra dela eta galtzeko zorian baitzegoen. Maxen eta Theklaren espiritu jarrerak, erabaki beldurgarriak, alegia, nahiago dutela beren bizia galtzea beren sentimenduen eskubidea baino, galtzen du itxura kimerikoa, zeinetan ideal oro erraz desegiten den, aldra hezigabe eta zabar batek hautaketa librez sentimen berak eta patu bera konpartitzen duelarik. Pappenheimdar hauek dira —ezin banatuzko eta lokarri nobleenaren bidez eta zuzentasun eta leialtasunarekiko zentzu berberaren bidez lotuak— anabasa handienez, izu-laborri izugarrienez begiradak heltzen duen eta animoak berriro bere bakea erdiesteko gauza bakarra. Ez dago herri aldra bati ekintza tragiko batean parte duinagoa eman dion beste idazle bat.

Baina zure hiru obrak mota berri batekoak dira —agerpen bat bakarra gizaki bakar batean begien aurrean jar dezadan—, zuk zure begirada multzo handi osoetan zehar pasatu behar izan zenuelako. Wallenstein azaldu zen erabat neurtzaile bat bezala bakarrik, baldin ez badira gudaroste osoaren bidez, soldadu arruntetatik jeneralarengaino, berak eduki zitzakeen konfiantzaren arrazoiak ikusten, hura bere nahiaren arabera eramateko.

Baldin zuk dukesa, azaltzen den egokiera gutxietan halako eragin bikaina egiten duena, gehiago ez baduzu erakusten, oso egoki iruditzen zait. Bere patuak, bere karakter horrekin, azken batean, inola-

ko ordainik gabe, ikusleen animoa mingarriro urratuko zukeen, baldin ekintzan parte gehiago eman izan bazenio.

Buttleren karakterra poetikoki erabat justifikatua dago. Gizaki zabar bat da, baina ohi ez bezalako indarra eta ohorearen kontzeptu-rako ohi ez bezalako sentiberatasuna daukana, hartan benetako kontzeptuak eta aurreiritziak nahasten dituena, eta gainera, sutsuki sakon eta ezkutuan. Kaiserrak bere ohore sentimendua mespretxatu duela eta bengaizoz hura uzten du; berak ikusten du Wallensteinek gaizki erabili duela, eta bere bengaizo gogoak helburua aldatzen du. Halere, ezin uka dezaket Buttler hau «*Wallenstein*» obran behaztoparri gertatzen zaidala. Planoaren zatiak, zeinaren gainean oinarritzen den hondamendia, inolaz ere ez bereziki —izan ere, Wallenstein beti dago heriotzara sagaratu, eta zuk zenbait bide hauta zenitzakeen— baina zuk heldu diozun moduagatik, ez nau asetzen. Buttler egiaz nor trebe bat da norbait erremediorik gabe heriotzara eramateko. Baina Wallensteinengandik haren *aurka* jartzera egiten duen aldaketa nire ustez azkarregia da, eta gero bere portaera bikoitzean lortzen duen arrakasta errazegia. Egiaz aldaketa arrazoizkoa da, eta nahikoa gainera, baina egilearen nahikeria susmo guztiak kentzen ez dituena, eta nik nahi ez dudanez klase honetako zergati guztien gainean makila haustea, zure obra hauek bestela hortik libre daude. Hemen Wallensteinek Buttlerrekiko egiten duen leialtasun eza ez du batek gogoko, baina orobat arrotz zaio Wallensteini eta Buttler ziurtatzeko bide bakarra maniobra hau zela pentsatzea ez zait iruditzen egoki.

Akats hau oinarririk gabea balitz ere, nik edozein modutan nahiago nukeen baldin Buttler azken bi ekitaldietan antzokian gutxiago azaldu izan balitz. Berea bezalako karakter bat —Erinien gogortasun gupida gabea, baina haien barneko zuzentasunik gabe, azaleko eskubidearen itxurarekin ordea— batek pentsa lezakeen ikuspegirik beldurgarriena da, eta nik gisako irudi bat trageriatik aldendu nahi ez badut ere, ikusleei aurreztu egin nahi nieke luzeegi ikus dezaten. Hiltzaileen eszena ere nik kanpora utziko nukeen edo asko laburtu.

Aldiz, Gordonek inpresio bikaina egiten du. Bere biguntasunak ematen die azken eszena hauei hunkidura xamurrago bat, eta bere neurritasun apalak prestatzen digu gero eta gehiago Wallensteinek bezala beldurgarri gora egiten duen indarrak derrigor eta arrazoiz eze-rezean amaitu behar duela.

Zure idazle jeinuaren berezitasunari dagokionez (horretaz sarri hitz egin dugu biok), uste dut «*Wallenstein*»en bitartez nahikoa argitasun atera dudala. Batez ere nagusitasun tragiko bat aitortu zaizu zuri beti, zure lan guztietan sentimenduen gainean indar poetikoa eta pentsamenduaren handitasun bikaina onartu zaizkizu egiaz, orobat xamurtasuna eta biguntasuna ukatu zaizkizu, eta naifaren adierazpena ere ondo atera zaizu. Baldin okerren bat aurpegiratzen bazitzaizun, aurpegiratzen zitzaizun izugarritzat gehiago hartzen zintuztelako handitzat baino, ezberdintasunak, goiak eta beheak, bata bestearen ondoan oso hurbil sumatzen zitzaizkizulako, azkenik, zure irudi poetikoen zalantzarik gabe eragina izaten zutela ere, ordea —are eragin horri buruz harriturik— ez zelako *beti* han benetako natura antzematen. Orain iruditzen zait garbi ikusten dudala larderia horiek neurri handienez datozela, zu zeu oraindik guztiz garbi garatu gabe zeundenez, ikusle ez gaitzetsigarriak hori garbi ikusi ezin zuelako.

Hau baita, nire ustez, zure azken lanen eta zaharragoen arteko berezitasuna, alegia, karakter bera haietan gutxiago landua —eta hain zuzen horrexegatik bortitzago eta freskoago—; hauetan, berriz, kasik zeharo osatua azaltzen dela.

Zertan, beraz, egiten dute bat larderiak eta laudorioak zuegan? Subjektibitateak objektibitatearen gainean duen pisu gehiagoa da horren arrazoia; gaitzetsiz, ordea, ulertu nahi litzateke naturazko egitasun gabezia bezala edo, zure partikulartasuna zehaztuz, ez ohiko prozesu bat bezala, haren bitartez zuk hura, lehen eskutik jaso ez duzunez, zeurez, nolabait esateko, berriro eraikitzen duzularik.

Norberaren barneko joeraren indarrak kanpoko inpresioarenak baino ahalmen handiagoa daukala zure gainean, zalantzarik gabeko da niretzat. Beharbada ez dute ideiek beste inorengan zuregan besteko eragin zehatz eta erabakigarriarik; gizaki gutxi dira maila horretan zuzen, oso gutxi benaz halako ulermen handian onbera, eta bakanenatan fida daiteke haien leialtasun ezin hautsizkoan, beren ideietan leku bat egin denean. Barka zure karakterrari egindako begiratu hau, adiskide maite, baina zure obrek zuregana eraman naute zuk egin dituzun irudi handienetara beste.

Edozer delarik ere oker handia egin da zu pentsalaritzat gehi-
go definitzen bazaituzte edota —nora jo ote du iritziak bidea galdu-

ta?— zugan oinarri poetiko eta filosofikoen bateratasun bat ikusi uste bada, batak bestea deskreditatzen duenean. Zure karakterrak norabide erabat zehaztua dauka, eta hori sekula beste bat gerta zitekeen bezain poetiko soil da.

Zu egiaz (nire iritzian) markatzen zaituen nagusitasuna irudimenean bertan datza, zure irrika progresiboaren indarraren nagusitasuna da sortutako gaia garatzeko atsegin iraunkorraren gainean. Zure sua pizten da etengabe berriro zure marraskatze propioaren bidez. Objektuak edo sentsazioak adierazi nahi dituzunean, ez dira jartzen zugan bata bestearen ondoan berez bezala eta elkarren arteko garapenaren bidez. Indar nabarmen batek ekartzen ditu hona, jartzen ditu elkarren ondoan edo iturburu ezezagun batetik bezala jario dute. Ez baita inon ikusten nondik datorren indar hori, ez dauka argituko duen jatorri arrazoirik, ezta igar daitekeen xederik ere —eta horretan datza, hain zuzen ere, poetikotasuna zugan.

Gugan guztia ondorio baino ez izan arren eta gizaki oro bere ekite ezin zatitua une jakin batean baino ez izan arren, irudimenak halere, azalpen iheskorak espazioari dagokionez ere bata bestearen ondoan tolestatzen ditu, eta horrela posible egiten du une bereko gainikuste bat bezala erakuste ilaun bat. Horregatik badaude beren baitan sortzen den berria mugimendu bortitzez harrapatzen dutenak, eta beste batzuk, luzakorrak, hura hedatzen doan guztitasuna gehiago begiratzen dutenak.

Zure irudimenean denboraren aurrera egite azkarrak aurre hartzen dio sorturiko gaiaren erreakzioari. Une oro azaltzen da objektu bat, hartantxe dago iragana, iragan bezala erabat dagoena, oratua, eta hura zapaltzen duen iluntasunean aurkitzen da etortzekoa estalita. Urrats bakoitza da indar garapen berri bat, objektuak nora eramaten duenaren arabera, patetikoki azaltzen dena, sorkuntza samingarri bezala edo hain bikain, non handik ezkutatzen den patetikotasun oro, gehiegizkoaren gainezkatze aske bezala. Horregatik eragiten dute zure emaitzek indar handiagoa; horregatik ez daukate une bakoitzean berriro berritzen den orekarik, baina oro har, baldin azken puntuan ilara osoa berriro pizten bada, dela proportzio ederra, dela harmonia osoa; horregatik azaltzen da bakoitza ez hain berezko eta halabeharrezko, baina osotasuna ez dagokio inolako asmori. Kate begi bakoitza tira egiten dion pisuaren arabera zuzen-zuzen dago, baina pisua

ezin ikus daiteke lehen atala zintzilikaturik daukan begia bezala. Gu arduratzen gaituen irudi segida giza natura mugitutik dator, mugimendu horren desleitzearen bila doa, baina hori, sekula iristen ez delarik, amaibakotasunean galtzen da —ez dugu gehiago sentitzen.

Sorkuntza poetiko orok garaiera maila jakin batean zirkulu oso bat eratzen du bere inguruan. Antzinakoen sorkuntzak eta orobat Goetheren jatorrizkoak behin eta berriro egiten dute hori; erdiko puntutik hedatu egiten dira, objektuak urrunean dauka bere eragina, urrunak bere gainean berriro. Geziaren antzo segitzen dute norabide bat zuzen-zuzen, eta zirkulua irakurlearen inguruan ixten da, hau bat-batean norabide horretan gelditu eta gelditze horren bidez bera berriro itzulia denean. Hala da, noski, «*Wallenstein*»en. Wallenstein erori aurretik, *berak* gu eramaten gaitu; behin erori denean, bueltatzen da begirada atzera eta alde batera, hantxe daude garbi gizadiaren bide ugariak, nora bere barneko ahaleginak eramaten duen, nora bere kanpoko zorionak hots egiten duen. Gauza bera gertatzen da zure fruituen lirikotasunean ere, «atsekabearen eszeptizismoan» eta «etsipenean».

Poetikoki mugitzen den arimari har daitekeen gorena azaltzen zaio derrigor, eta hemen azaltzen da ikuspegiaren eta buruen desberdintasun berri bat. Zugan hemen indar barnekoak, zeuregandik soilik datorren indarrak erabakitzen du; hau oldartu egiten da eta argi bihurtzen. Horregatik beti dago argitasuna zugan, ez ordenatik datorren bare eta lasaia, baizik bortitz bat, zalaparta nahasgarri omen baten ondoan eta gainean, eta bere marraskatzearen indarretik altxatzen dena. Horregatik, hain zuzen, da zugan azkena, ez gaia, ez bizitza inmediatea, baizik han, ulertuta edo ulertu gabe, obratzen duen pentsamendua, espiritua.

Sorkuntza poetikoak helburutzat daukan azkena beti da, bera bezala, disolba ezinezko, argitu ezinezko zerbait; kontua da non egiten diren korapiloak, edota hurbilago, azalpenean bertan, edo geroago haren zentzu enigmatikoan. Azken honek espirituaren indar garaiagoa eskatzen du, noski. Izan ere, azalpen bat pentsamenduetan, bere esanahian desegiten denean, segituan dena dago garbi eta ulergarri, eta pentsamendua sakonean segitu behar da, inolako argik argitzen ez duen iluntasuna jotzeko, giza izateari aldeztu aurretik ipinitako eginbeharra baino ez baita, hura aztertzeko bere buruaren gainetik jauzi eginez.

Horretara iristen zara zu ere, poeta egiazko oro bezala; puntu horretan zuk badakizu lotura bat egiten irudimenaren eta ulermenaren artean, eta horren bidez badirudi, ez zentzuen gaitasuna baizik pentsamenduaren indarra fantasiaren bidez berari ezezagun zaion bide baten bidez berez bakarrik beretzat ezin erdietsizko helburu batera eramana dela. Zuk amaibakotasuna adierazten duzu, esentziatzat amaibakotasuna bilatzea duen indarra esnatzen duzularik, eta txokatu egiten gaituzu, zuk poeta bezala hain zuzen egiten duzularik (fantasiaren bidez bakarrik) zugan neurri gabeko ondasun bat suposatzen duena eta gugan aparteko mugimendu bat ateratzen.

Ahalegin hori, iluntasunari berari argiaren distira ateratzekoa, zurea baino ez den genero liriko didaktikoari eskertu behar diozu. Batzuetan pieza hauetan aurpegiratu zaizu, gai filosofiko astunegia hautatu duzula. Baina edota ez dago inolako sorkuntza arte didaktikorik batere, edo bestela irudimenak eta ez ulerpide argumentatzaileak aurrera egin dezakeen lekuan bakarrik dauka balioa.

Nahikoa ulertzeko moduan mintzatu izan banaiz, ikusiko zenuen, adiskide mina, ez zaitudala genero *bakar* batera mugatu, ezta estilo *bakar* batera ere. Zalantzarik gabe uste dut noski, genero dramatikoa dela zuk errazen eta garbien adierazteko erabiliko duzuna; bakarrik epikoa aterako litzaizuke bertatik ondo, haren zentzuen argitasuna eta ikustera deitzen duen baretasuna zure irudimenean ikusi uste dudan urratsetik apartatzen baita. Iritsiko zinateke, beste bide batzuetatik inolaz, ondorio berberetara, eta irakurlearen jarreratik, muga berberen barruan maila desberdintasun handienak izateko gai baita, bestelako xehetasunak emango zenituzke. Baina orduan zure karakterrak bestelako berezitasun asko irudikatzeko bide emango lizuke. Beste batzuek baino natur muga gutxiago ditu, eta askatasun handiagoa eskaintzen dizu.

Beste idazleei dagokienez —ezin eragotzi baitaiteke konbarazioak egitea— Goethe eta Shakespeare baino ezin ditut zurekin konbaratu. Gainerako guztiak oso urrun daude zuegandik, zure pareko sorkuntza indarra izan dezaten. Antzinakoak ez ditut aipatzen hemen.

Goetherekin, beste bi idazleek ez bezala, sorkuntza artearen ingurune guztia daukazu berdina estiloari dagokionez. Bere irudime-

naren pausakera erabat bestelakoa da zurearen aldean. Bizitzaren azalpenak bestela eraman ohi ditu, beste era batera jartzen ditu gure bihotzean, beste era batera jasotzen du kontenplazio espiritualera. Berak sortzen duen lekuan bertan, badirudi jaso egiten duela, gehiago dirudi dagoela bere inguruan begira eta ikusten duena adierazten duela soilik, bere barruan lantzen eta aurrera segitzen baino. Ezin eduki dezake zuk baino objektibitate gehiago, ezin baitzaizu ezer aurpegiratu alor horretan, ezta egia gehiago, ezta bizitza gehiago ere. Baina beste modu batera dauka, eta bere sortze-modua beharbada hurbilago dago gizakiarengandik oro har.

Gizadi sentitzaile, sufritzaile edo dastatzaile soilaren muge barruan geratzen da bera, gure niaren atal horretara jotzen du hain zuzen ere, eta horregatik bereziki ez dauka egia eta berotasun altuagorik, bai ordea bestelakorik. Badaki joaten mugatasun horretatik segituan gorenaraino, baina ez dauka mugimenduaren bat-batekotasun bera, ezta azalpenen oldartze bera, eta dardararazten du hain sakon, baina ez bortiztasun gutxiagoz. Eragin handiagoa dauka hark gizakiengan kanpotik, zuk barnetik; era bietan iristen da xedera, baina zugar barneko indar propioa larriago sentitzen da. Zuk eragin bortiztagoa daukazu gizakiaren atal automatikoan, zuk aurre ezin egiteko moduan zehazten baituzu; hark eraginaren ezinbestekotasuna ez hain ikusteko moduko jartzen du gutxienez, berak ikusten eta sentitzen duena zehazten baitu hasteko eta zuzenean.

Zail da Goetheren obren artean subjektuaren asmoari dagokionez «*Wallenstein*»en antzeko zerbait aurkitzea. Götz von Berlichingen-en enpresak, alegia, kaiserraren indarrari guztientzat baliozko diren asmoengatik kontra egiteko enpresak, eskaintzen du antzekotasunik Wallensteinekin eta asko gehiago oraindik bere emaztearen karakterrak dukesarenarekin. Karakter hauek hain luzaz, hain hurbil, hain egoera desberdinetan erakustea, Goethek egin duen bezala, nire ustez zure Wallenstein edo zure Max Goetheri bezain ezinezko gertatuko litzaizuke zuri. Theklagan ukitzen zarete zuek gehien. Baina ez dakit nik ea Goetheri posible litzaiokeen, beste ezer baino gehiago bere natura garai eta garbiak berez jaurtikitzen duenaren bidez azaltzea, horren bidez eman baitio hari handitasunik gehiena eta sakonkiro durduzaten duen egia. Positiboagoa azalduko balitz, hunkitu hunkitzen duena baino gutxiago durduzatuko zukeen. Baina hori-

xe da, hain zuzen ere Goethek beti egiten duena. Bere karakter txikiak ere oso nabarmen jartzen ditu; ez ditu azaltzen bizitzan bakarrik, baizik (hala esango nuke) bizitza ere azaltzen du haiengan. Hala «*Götz*»en, hala Klaratxo «*Egmont*»en, hala, Gretchen «*Fausto*»n, eta Iphigenia bera. Horregatik daukate bere pertsonaiek zureek baino xamurtasun eta biziberotasun gehiago, baina ordainetan zureek handitasun inponenteagoa dute, hain zuzen ere islaren zehaztasun agerikoagoaren bidez indar garaiagoa, animoa orobat ondorio osatuaren araberago eraginerako finkatzeko.

Shakespearek, ni erabat oker ez banabil, zuk daukazun irudimenaren norabide berbera eduki du; bera, ordea, zuk igaro duzun puntu batean gelditu da, eta horri esker baditu abantailak zure aldean, baina baita eragozpenak ere. Bizitzaren deskribaketa hunkigarrian berdindu ezinezkotzat jotzen dut nik bera. Pertsonaia zuzen-zuzen hartzen du, hartantxe geratzen da geldi eta gu hartantxe eusten gaitu irmo; berak badauka beraz beldurgarri oro, ilun eta desesperaziozko oro, gizakiak patuarekin duen borrokak berarekin dakarrena, inolako begiraturik botatzen ez zaiona, baina badauka orobat zuzeneko errealitatearen sentsualtasun guztia, handitasun guztia, egia guztia. Shakespearerentzat antzinakoentzat bezala bada beste zerbait berriena ere borroka ezberdin bihurtzen duena. Garaiaren urruntasun honetan bere obrak baino gehiago ikusten dugu harengan —bera ikusten dugu; Shakespearearena bezalako espiritu bat bere mendeko lokarriekin eta iluntasunarekin borrokan ikusteak, animoa dardarka jartzen du besterik gabe. Argitasun garaiak ezin zilegi dezake gizadiari eta patuari buruzko gainbegiratu soila, falta zaion arte osotasuna alde batera utzita.

«*Wallenstein*»en egiazki gai apenas poetikoa baina oso zabala landu ondoren, pozik ikusiko zintuzket zu gizakiaren puntu bakar bat, grina bakar bat jokoan legokeen obra batean. Gisa horretako piezak —hala da, adibidez, «*Othello*»— bularra bortizkiago aztertu behar du, eta benetan jakingarri litzateke zinez ikustea zein irtenbide emango liokeen zure gisako lanketa batek espirituari. Zure «*Maria Stuart*» ikusteko irrikitan nago. Subjektuari jarraiki ikusiz, hunkigarrira eta elegiara gehiago jo beharra legoke.

Berezitasun harrigarri bat eskaintzen du oraindik, uste dut, zuk hizkuntza erabiltzeko daukazun moduak, zuk harekiko duzun erlaziorak. Arte plastikoekiko kidetasun gutxiago duzunez, hertsiago geratzen

zara idazketa arteari berariaz dagokionean. Zuk bereziki irakurlearen kontenplazio gaitasuna hizkuntzaren laguntzaz bakarrik deskribaturiko objektu batean luzatzen duzunez, gehiago pausatzen zara hizkuntzak, gizakiarengandik datorrenez eta guztiarekin berarengan loturik dagoenez, bere pentsatzean eta sentitzean, eta orobat, bere irudikatzean batez ere duen eragin sentuarean. Hori erabiltzen duzu zuk ez hainbeste bitarteko bezala, objektu bat (haren esku jartzen baituzu zure eraginaren garaipena) erakusteko, baizik askoz gehiago giza espirituaren emaitza bezala, haren bitartez gizatiarki arrotz zaiona bere egiten duelarik eta hura xedearen arabera erabiliz bera ikuspegi eta sentimenen sorta bat bere barnetik garatzeko markatua gera daitekeelarik.

Hizkuntzak gure espirituzko ekintza guztia subjektiboki (gure jokabidearen arabera) aurkezten du nabarmen, baina une berean sortzen ditu objektuak, gure pentsatzearen objektu diren heinean. Haren osagaiek, izan ere, egiten dituzte zatiak gure irudikapenean, hori gabe ilara nahasgarri bihurtuko bailitzateke. Haiek dira objektu bakoitzaren esfera desberdinak zehazteko dauzkagun zeinu sentuak; haien bidez guk (gai espazial baten irudikapen oker guztiei ihes egiteko) gure pentsatzearen zati jakin batzuk batasun bihurtzen ditugu, gero bestelako uztarketetarako eta egitekotarako erabil ditzagun. Hizkuntza da, beraz, erabat hala ez bada ere, sentualki bederen bitartekoa, eta hizkuntzaren bidez eratzen ditu gizakiak bere burua eta mundua, edo, hobeto esanda, hizkuntzaren bidez hartzen du kontzientzia kontzientzia ezen berak mundu bat berarengandik apartatzen duela.

Gure pentsatzeko moduaren gainean badu oraindik hizkuntzak beste eragin garrantzizko bat. Hura hizkuntza jakin bat izatera eta hau edo bestea izatera daraman prestakuntzaren analogiak lotzen du haren atal bakoitza hertsiki-hertsiki gainerako guztiekin, eta oso handia dela pentsatzen badugu edo hartzen badugu oso zorrotz gure zentzua harekiko, atal horrek eragiten du gudan era berean osotasun bezala. Hizkuntzak ez du bere eragina, beraz, pintura batek bezala bata bestearen ondoan dauden zatien bateratzearen bidez, baizik une berean eta are bereziki musika batek bezala: han joandako eta etortzeko tonuek oraingoan eragiten dute, hura indartu eta erabiltzen dutelarik. Hauxe da, hain zuzen ere, espirituzko gure ekimenaren kasua ere. Joana joana dago, orain arteko ariketa guztien bidez indar-

tu eta ekimen honetarako une honetan finkaturiko indarra da orain diharduena. Guk, ordea, gure hizkuntza bera, eta astiro-astiro eta gure pentsamendurako eta gure pentsamenduaren bidez neke handiz garatu dugunez gero (auzi bat, non denok aurkitzen garen, hitzak soinu huts baino gehiago baitira, ulertze egiazko bakoitza esamolde-en markatze berri bat baita), hizkuntzak etengabe itzultzen digu atzera gure espirituaren lana, eta egiaz ahalegin soil neurri bateraino lortu baina beti erdi beteetan, eta hauek lan berrietarako jarrera eta zuzendaritza ziurtatzen digute.

Baina hizkuntzaren benetako indar deitu nahi nukeena da oldarra, eta indarra handitzeko, etengabe —nahi duzun bezala deitu zuk—mundu gehiago berarekin lotzeko edo bere baitatik garatzeko duen gaitasuna. Bitartean bere eraginaren ondorioa era horretan helbururako bidean bakarrik adierazten da, ez han bertan. Arazoa ez da gehiago edo gutxiago, ezta edukiaren aberastasuna, baizik indarraren sendotasuna. Gure amaikortasun guztiak beraz ukitzen du ezen gu ezin ezagut gaitzkeela gure bitartez eta gugan ez bada beste baten kontrajartze batean, banatze etengabeko batean datzala: gure izatea indar bakoitzean, mundua objektu bakoitzean, gizadia gizaki bakoitzean, existentziaren denbora iragankorretan. Amaikortasun hori egiaz eten ezin daitekeenez, ideian egin behar du, era jainkotiarrean gerta ezin daitezkeenez, gizatiarrean izan behar du. Gizakiaren izatea, ordea, da beste batengan bere burua ezagutu beharra; hortik sortzen da bere premia eta bere maitasuna. Horretatik soberatan gertzen den gauza bakarra da, une jakin batean eta modu jakin batean ateratako sendotasuna eta barneko indarraren norabide oro hain hermitsiki une batean elkartzea non, hasteko ezeinek ezin duenez azaldu, berak era amaibakoan eta amaibako objektu batekin nahasturik obratzen baitu, baina beti bat harrapatzen du, gertatzen delarik bera era beteagoan, objektu handiago batean eta harekin ukipen barnekoagotan. Baina hara iristeko, hizkuntza da baliabide sentsual eta —gizatasun barneenetik datorrelarik eta harengan bakarrik posible delarik— gizatiar bakarra, eta xede horretarako erabili behar da eta baliozko egin.

Baina gizakiaren xedea horrela finkatzen dela eta hura ez bere ekimenean ez gizadi osoan, ezta existentzia oso baten iraupean bilatzen dela, niri ezinbesteko iruditzen zait. Azken hau egiten

duenak, berak arduratu nahi duen horretan, gutxi gorabehera helburu arrotzetarako tresna bezala ikusten du. Sentitu eta ekiten duen izate batek atsegirik handiena bere egite propioan eta une zatikatu gabe batean, presentean baino ezin dezake aurkitu. Etorkizunak premia dakar gogora, eta iraganaren oroimena malenkoniatsua edo hotza da.

Auzi honetan, hizkuntzak nortasun prestakuntzaren helburu garaiago honetara gidatzeko, heltzen dio zuzenean (eta egiaz berak bakarrik arte guztien artean) poesiari, honek egiaz bere azken helburua erabat asetzen badu. Orduan, izan ere, finkatzen du honek hizkuntz gaitasuna (hau da, barneko pentsamendu eta sentimenak eta kanpoko gauzak, gizakiaren obra eta orobat munduaren adierazpen den bitarteko sentsual baten bidez, elkarren artean ernaltzeko edo, hobeto esanda, bera argitzeko gaitasuna, bietatik baitu izan), gaitasun honek finkatzen du hura eginkor eta irudimenaren indarraren legeen arabera eginkor izan dadin. Berak artistikoki jarduteko gizakia behar duenez, orobat behar du ez bakarrik bere gizatasun osoaz (arte orok egiten baitu hori), baizik areago hain zuzen ere gizakia bere buruaren aurrean argitu eta, argitasun horren mende baitago heziketa guztia, bera hezi daitekeen era bakarrean jarduteko.

Poesia beste era batera erabiltzen duenak, eta tamalez hala gertatzen da sarriegitxo, horrek hizkuntzaren bidezko pintura eta musika bihurtzen du edo irudien bidezko arrazoiketa, eta artearen ingurune handiago bat erosten du sendotasunean galera nabarmena eginez, ordea. Egiazko puntu horretaraino iristeko beharrezko da, artista izateaz aparte, arrazoi gehiagoz gizaki ere izatea, eta indar bortitz berriak konjuratu eta mugitu behar direnez gero, beharrezko da artista botere gehiago hori irudimenaren mendean jartzeko. Baina puntu hartan arazoa baita gizakia bere *osoan* ulertzen eta garatzen dela, orduan helburutik hurbilago dago baldin poesia obrari eduki sentimental eta filosofiko gehiago ematen bazaio, edo hobeto esanda: baldin gizakiaren indarrak guztiak batera lekutik altxa daitezkeen puntutik mugitzen badira. Horregatik arte guztien artean poesiak gutxienez aurrerapenak egin ditu. Izan ere, antzinakoek hizkuntzaren edertasun sentsual gehiago badute, gure hizkuntzak —gizadiak eragozpenak kendu dituelako batik bat— heziketa intelektual finagoa dauka (...)

13.

F.G. Welcherri 1823ko irailean

(...) Badirudi edukiz ez direla garrantzia handikoak ez sakontasun handikoak, baina hain dira espirituz beterik eratuak eta hain polito idatziak, ze irakurle orori interes handia erantsiko baitiote. Pentsa dezaket Bhagavad Gitari buruzko nire entusiasmoa, zuk arrazoiz deitzen duzun bezala, arrotz gerta dakizukeela. Badira egiaz pasarte batzuk itzulpenean bertan txokatu egiten dutenak eta altxatu eta sakon azaldu beharra dutenak. Orobat, bi gudaroste etsaien aurrean filosofoatzeko eszena, eta kanta askoren bitartean armak bakean uztea, mailarik garaienean harrigarri, baina benetan bikain. Azkenik bikaintasun hau areagotu egingo da gudari eta heroiak senitarteko hain hurbilen odola isurtzeari ezezkoa ematen dionean, eta gizaki bihurtu den jainkoak ahulezia hori eraso eta hari erakusten dionean bizi den orok heriotzatik bizitza berrira doan ibilbide handi hori egin behar duela. Halere, hau guztia begien aurrean oso ona izanda ere, itzulpena baino irakurtzen ez duenaren aurrean Schlegeli idatzi niona zurizetik oso urruti dago. Berezi-berezia, inolako itzulpenek imita ezin dezakeena, tonuan dago, pentsamenduak hitz bakoitzean estutzeko eta apartatzeko eran, pentsamenduen eta irudien segidan, metaforen moduan, eta hizkuntzari banaezinezko moduan itsatsirik dagoelako ezin azter eta ezin eman, baina horregatik hain zuzen ere uka ezin daitekeen ulertezinezkoan. Ez dut sekula aukerarik izan orain arte historiaren aldetik poesia indiar hauen antzinatasuna aztertzeke, eta horregatik ez dakit Homeroz harantzago asko joan ote daitezkeen. Baina horretan asko nahikoa erlatiboa dela iruditzen zait. Izan ere, gugandik hurbilago dagoena eta horregatik berriago ere badena, bera sortu den isolamenduarengatik gizadiaren jatorrizko egoeratik hurbilago egon daiteke, berez askoz zaharrago dena baino. Baina ikararik gabeko konbentzimendua daukat poesia indiar hauek antzinateko kolorea daukatela, horren parean Homero hein batean gazte azaltzen delarik. Honi gaineratzen zaio antzinate hau, hain zuzen ere sakontasun filosofiko eta teosofiakoan, baina irudi gazte itxurako eta kilikagarriekin lotuta, adierazten dena. Nire ustez, aurreiritzirik gabe esan daiteke berez jatorrizko hizkuntzan bakarrik entzuten dela nazio bat bere indibidualtasunetan hitz egiten, pentsamenduaren materialtasuna bakarrik etorri ohi da

itzulpenean, eta onenak ere forman gordetzen duen apurra egiazko antzekotasunaren eraginean ahuldua gertatzen da, eta materialtasunak berak forma berrian sufritzen du aldaketaren poderioz. Hauxe, hain zuzen ere, nazioa batera entzutea alegia, daukat nik hizkuntzen ikasketaren balio eta lilura handien eta agian bakartzat, alde batera utzirik horren bidez ikuspegiak edo berriak lortzeko helburua, eta gero eta zaharragoa nazio bat, behar baino hertsikiago dago gisako harremantant hizkuntzarekin, horren ikasketa egiaz erakargarri egiteko. Egiazko ezagutze eta jakite orok azkenean jo behar du gizakiak unibertsoa barrendutzeko eta bere burua harekin batera eraldatzeko bere ahalmenen arabera benetan dena lortzera. Izatearen indarra eta entusiasmoa ez dira, ordea, egiaz indartuak eta situak soilik ezagutu eta uler daitekeen zerbaiten bitartez, baizik inoiz gizakia izan dena ikustearen bitartez bakarrik, eta bera izan daitekeenaren barrundatzearen bitartez. Horregatik da, bitarteko helburu guztiak ahazten badira eta azkenera eta funtsezkoenera jotzen bada, egiazko zabaltze eta ezagutzea izatearen egiazko zabaltze, eta hau bide historikoetan izandako existentzia begiratzuz bakarrik da posible. Jatorrizko hizkuntza garrantziko baten ikasketak bakarrik begiratze hori nolabaiteko osotasunean berma dezakeen neurrian, deitzen dut nik hartan egindako esperientzia handiago bat, Bhagavad Gitaren irakurketa adibidez, bizitzako momentu hain garrantzizkoa non norberaren burua zoriondu daitekeen, hau oraindik, joan aurretik, erdietsi delako. Beti ariman ezkutuko antsia bat elikatzen den neurrian, giza espiritua eta giza izaera handi azaldu diren modu desberdinak norberak ikusi eta betetzeko, antsia horren zati bat asetua geratzen da eta irteterako lasaitze bat erdiesten da. Baldin uste badut nola pentsa litekeen bizitzarekiko higuinik eta nirekiko asetasun arrotzik gabe, era noble eta duin batez ibilbidea halako gisan bete dela hemen, non ez den aurrez ikusten hara beste zerbait erraz etor zitekeela, hori gertatzen da ez egintza sorta baten, ezta ere norabide pila baten bukatze baten bidez, ezta jakintzaren ingurune baten ahitzearen bidez (izan ere, egitea eta jakitea ez baitira xehetasun sail etengabe, amaibakotasunera eramaten gaituztenak), bai ordea, beste era batez, alegia: norberaren baitan antzematen den gaitasun bakoitzak bere baitan objektu bat aurkitu duelako, egiteko berri bakoitzaren errepikapen baino ez litzatekeen lekura joan delako. Beraz, espirituaren edo animoaren gaitasun bat era horretan bereganatzeko eta mugitzeko moduan dagoenak bakarrik izan dezake gizakiarentzat era-

bateko garrantzia, bizitza eta heriotza begien aurrean izateko modu-koa, alegia; gainerako guztia halabeharrezkoaren eta funtsik gabekoaren alorrean geratzen da eta, heriotzaren pentsamendu serioak hartu bezala, ondoan garra pizten zaionean ikatzak bere distira galtzen duen gisan indiferentziaraino zurbildua izango da. Barkatu behar didazu, adiskide bihotzekoa, honetan guztian hain luzaz jardun badut. Nik bakarrik ez nuke zure susmo txarraren pean erori nahi, alegia, halabeharrezko gertakarien ondorioz gutxi batzuk jatorrizko hizkuntzan irakur daitezkeen idazkiak horregatik balio gehiegizkotan edukitzea, eta gaur zabala ez den ezagutzari beti balio handiegia ematea; horregatik zabalago argitu beharko nizuke nola nik nire iritzian adierazpen bat hartu nuen, benetan sentazio uneko eta indibidual batetik atera zena, baina nigan horregatik ez delarik gutxiago egiatzko eta iraunkor. Schwenckek Hermesen egindako errezentsio batean (saiatuko naiz irakurtzen) ikusten dut Vossen Aristofanesena edo, hobeto esanda, Aristofanes berari buruzko artikulu bat. Zurean aipatzen ez didazunez, ez dut uste errezentsio hori Schwenck berarengandik datorrenik. Oso ondo zegoen eta beharrezko ere bazen Vossi noizbait esatea egiaz eta zinez nahita gaizki itzuli duela, baina nik nahiago nukeen adibide gehiagorekin egin izan balitz. Komikoaren izaera berez eta Aristofanesengan zein den, horri buruz gauza on asko esana dago, baina gaiaren muina, ordea, niri iruditzen zaidanez, ez da atrapatu.

14.

Ch. Diederri, 1824ko uztailaren 9a

Antzerkiari dagokionez, iruditzen zait zuk ere batere ez duzula bisitatzen edota oso gutxi behintzat. Niri dagokidanez gauza bera gertatzen zait, batez ere argi askoren distirak nire begiei min egiten dietenetik eta nire belarria nahikoa ona ez denetik oso ondo eta garbi hitz egiten ez duten aktoreei osoki ulertzeko. Oraintxe ari da hemen tropa bat, eta distira ororen eta argi itsugarrien aurrean guztiz seguru egon ezinik noski, eta baita ere aulkiak oso hurbil daudelako garrasika aritzeko arriskua ere badagoenez, ezin erabaki ahal izan dut nola jokatzeko duten ikustera joatea. Ikuskizun on batean asko galtzen da, baldin, norberak hala nahita edo egoerak beharturik, uko egin behar bazaio. Aktoreak nola-halakoak izanda ere, antzerki on bat pertsona zenbaiten bidez eta bakoitza bere kasa bezala azaltzen dela eskaintzeak (hori baita azken batean garrantzizkoa) badu norberak bakarka irakurtzen duen beste askoz hobe batek baino erakargarritasun eta bizitasun gehiago. Bestalde, lilura bereziago bat badauka jende andana handien gorabeheratik ihes egiteak. Gazte nintzela, gero gizon egiteko urteetan biziro pentsatu nuen nik horretan eta alde zaurretik gozamenen dastatu ere bai, urteetan aitzakia egoki bat bilatuko nuela jendarteari beti eta beti gehiago uko egiteko, eta orain, egoera hori benetan erdietsi dudanean, iruditzen zait, garai haietan sentitzen nuena, zinez egiaztatu dudala. Adina beti erakargarritzat jo izan nuen eta bizitzako lehen urteak baino askoz erakargarriagoa, eta orain, horretara iritsi naizenean, nire itzaropena gainezkatu aurkitzen dut kasik. Horregatik litekeena da ni benaz arimaz hein batean zaharrago izatea gorputzez eta urtez baino. 57 urte ditut orain, eta gorputza gehiegi nekatu gabe eta gehienetan osasuntsu eta beti erabat neurritsu eta osasuna hondatzen duen grinarik gabe bizi denak ezin du igarri gorputzaren beheratze nabarmenik. Espirituaren bakea bakarrik, arimari desatseginkiro tenkatzen eta kilikatzen duen ororen askatasuna, bakoitzak barneko sentimen eta jardueraren bitartez eman ezin daitekeen guztiarekiko askatasuna kasik, gauza horiek guztiak zailagoak dira erdiesten gaztaroan, eta eskura daude sarri bakarrik —eta hori askoz okerragoa da— hoztasunagatik eta sortasunagatik sortzen direnean. Halere, barneko bizitza zoriontsua ematen eta segurtatzen dutenak

dira bikainak. Horregatik ez da guztiz zuzena uste izatea edo esatea adinak gainerakoekiko, egoera eta halabeharrekiko mendekoago egiten duela. Gorputzaren aldetik eta kanpotik egiaz hala da, ez ordea pentsatu ohi den beste, gizaki onbera eta bere burua menderatzen ohi-turikoengan gutxienez, askoz gehiago apaltzen baitira grinak eta norberak sorturiko premiak indarrak baino, haiei asebetetasuna ekartze-ko. Bestalde horri esker hain zuzen ere askoz gehiago irabazten du funtsezkoago den eta zoriontasuna askoz gehiago sustatzen duen askatasunak.

15.

Friedrich Gentzi, 1828ko martxoaren leian

(...) Zuk «urtekariet» buruz esaten duzunaz guztiz nator bat. Badaude gauza zenbait irakurtzeko modukoak, Varnhagenenak bezala, zenbait funtsean zientifikoak Boppirenak bezala, baina osotasunari ezin diot gusturik hartu. Hegel buru oso sakon eta apartekoa da noski, baina nik ez dut pentsatzen gisa horretako bere filosofiak egiaz erroak egingo dituenik. Ni behintzat, orain arte ahaleginak egin arren, ez naiz adiskidetu inolaz horrekin. Bere solasaren iluntasunak kalte egingo dio beharbada. Ez da ernagarria eta, Kantena eta Fichterena bezala, erraldoia, eta bikaina hilobiko ilundura bezala, baizik ez-gauzatasun nabarmenagatik erne da. Badirudi hizkuntza ez dela sartu egilearengan. Izan ere, gauza guztiz arruntez diharduenean ere, ez da batere erraz eta noble. Fantasia urritasuna izan daiteke beharbada. Halere, ez dut ezer esan nahi filosofiari buruz. Jendea iruditzen zait Hegelen aurrean bi motatan banatzen dela; balditzagabeki aldeko direnak, eta giltzarri zakar bati bezala zuhurkiro ingurutik bira egiten diotenak. Ez da, bestalde, bere eragina bere ideien esku utzi nahi duten filosofoetakoa, eskola egiten du, eta nahita egiten du gainera. «Urtekariak» ere hortik etorri dira. Ni ere interes handiz sartu naiz elkartean, horrela ez direla hartu behar adierazteko. Hegelekin, edozein modutan ondo konpontzen naiz, eta itxuraz oso harreman onak ditut berarekin. Barnetik bere gaitasun eta buruarekiko errespetu handia diot, goian kritikaturiko eskasiak ahaztu gabe ordea (...)

16.

F.G.Welcherri

Tegel, 1830eko urtarrilaren 29a (diktatua)

Eskertu nahi dizkizut biziki, adiskide bihotzekoena, urriaren 10ean eta urtarrilaren 4ean egin dizkidazun gutunak, biak ere zure konfiantzaren eta zure adiskidetasunaren aztarna berri gisan ezin esan ahala gustuko izan baitzaizkit.

Joandako udaberriaz geroztik erabat hona erretiratu naiz, eta nik zuzentzen dudan museoaren eraikuntzaren arazoak eskatzen didanetan bakarrik joaten naiz hirira. Nire bi alaba zaharrenak eta nire suhia, von Hedemann koronela, azaroaz geroztik Berlinen daude, baina inoiz edo behin bisitatzeko naute. Bizitza bakarti hau dut gogokoen, eta Gasteingo bainuak hartu ondoren osasun onaz gozatzen dudanez, ezin arregura naiteke alderdi horiek guztiak direla-eta. Aurki poz handi bat emateko aukera izango dizut, nire emaztearen marrazki oso lortu bat bidaliz. Litografiatua izango da orain, Wach profesoreak litografiatua alegia. Honek era benetan harrigarri batean erdietsi du hildakoaren soinkera guztiz itsatsirik buruan gordetzea, eta era horretan errepikatu ahal izan du. Zuk ere ikusiko duzu bera bizi zela egindako irudietan bat ere ez dela honen erdira iristen. Marrazkia kobreak zulaaraziko dut, litografiatzea higankorragoa baita. Hilobia udazkenean amaiturik geratu da hemen. Granitozko pilare bat da, hamabi oinekora, oso eder politua, oinarri eta marmol zurizko kapitela joniar bat ditu. Pilarearen oinarri baten gainean dago, eta honetan idazkun bat dator, eta hau lau mailatan. Oinarria eta mailak marmol arrezkoak dira. Pilarearen gainean itxaropenaren estatua jarriko da estilo eginarrean, nire emazteak aspaldi Thorwaldseni eskatua, eta orain bidean datorrena. Nik estatua eguraldiaren mende utziko ote dudala kopia bat egineraziko dudana, erabaki gabe daukat oraindik. Hilobiko mailen aurrean, lurrean dago gorpua, etxea ikusten den aldean; hesitura atzeko erdian harrizko zirkulu erdi bat da, une berean aulki bat osatzen duenari, eta aurrean lau ertzeko burdinsare batek ixten du. Alde batetik haritz handi batek eta pinu ilun batzuek itzala ematen dioten leku batean dago monumentua, baina bestela soroetara eta aintzirara ikuspegia libre dauka. Etxetik urrutiera nahikoa handia da,

baina hilobi baten isiltasunak eskatzen duen modukoa. Zu aurtan edo datorren urtean hona etorri eta bisitatuko nauzun ustea daukat. Museoak ere merezi du bisita; uda amaitzean bukatuta egongo da, eta altxor handiak dauzka, batzuk orain arte ezezagunak, beste batzuk erosiak.

Zuk bidali didazunaz, adiskide bihotzekoena, ezin esan diezazuket ezer, ez bada bihotzaren hondotik eskerrak ematen dizkizudala. Tamalez, ari naiz ikasten ez dela gehiegi aurreratzen, denbora asko edukita ere. Baina arazo pribatu pila bat daukat traba egiten didana. Astiroago lan egiten dut orain, eta hizkuntzari buruzko lan guztiek badute gauza desatsegin bat, alegia, ezin ekidin daitekeela alde batera hiztegi eta gramatikako xehetasun handi batean sartzea. Une honetan, ordea, aurrera eraman ahal badezaket, nire asmoa den bezala, orain arte hizkuntzari buruz bildu ditudan ideia guztiak bat-batean argitu eta garbiago garatuko dituen lan batean ari naiz; ideia horien bidez nik adorea hartzen dut hizkuntz ikasketaren ezagutza zati handi batean aurrera eramango dudala. Aspaldi honetan hizkuntza malaysiarretan dihardut, badut horretarako baliabiderik, zati bat lehenago ez zegoe-na, beste bat erabili gabea, eta uste dut benaz hizkuntza horretan eta alde batetik txinatarrarekin, eta bestetik sanskritoarekin duen erlazio-an aurkitu dudala puntu bat nondik hartu hizkuntz trataeraren berezitasun nagusiak bai gramatikari dagokionez baita hitzen sorrerari dagokionez ere. Nire lanak, hasteko, hizkuntza malaysiarrak ukituko ditu lehenbizi, baina asmoa da hizkuntz printzipioa hegoasiar guztietara zabaltzea. Badut nik inolaz abantaila bat, lan gehiago egin dudala niretzat, idatzi baino, gramatikak dituzten hizkuntzen egiturak ezagutzeko. Izan ere, egiazko egiturari buruzko iritzi bat egiteko materialak dituztenetara mugatzen bainaiz ni. Hitzak bakarrik ezagutzen diren hizkuntzekin, apenas duen zereginik hizkuntzen ikerketak.

Barka hain luzaz idatzi badut. Baina benetako premia nuen zuri, nirekiko eta nireenganako halako partehartze adiskidetsu bat izan duzun horri, nire eta nire egoeraren berri emateko. Barka nik neuk idatzi ez izana. Niri errazago egiten zait, eta zuk asko irabaziko duzu irakurtzeko orduan.

Ongi izan.

(Humboldt bere eskuz) Barne-barneko adiskidetasunez, zure Humboldt.

17.

Goetheri, 1832ko urtarrilaren 6a

Zuk, nire adiskide miragarria, nireak bezalako lerro ezdeusei erantzun hain eder eta zehaztatua eskaintzeko izan duzun onberatasunak barne-barnean hunkitu nau, eta urteberrirako desiorik onenekin batera, nire eskerrik beroenak luzatu nahi dizkizut horregatik. Izugarri poztu nau zure gutunean irakurtzean osasuntsu zaudela, pozik ideietan murgildurik eta indartsu sorkuntza ederren eta lortuen orotarako. Ni ere ondo nago eta inoiz baino gertuago lanerako. Horretan asko zor diot inolaz Iparreko Itsasoari (ahizpa baltiarri begirune gutxi baitiot nik). Bien bitartean, aukera orain arte izan dena baino gehiago lehengo nire lan eta ikerketa guztiak batean biltzen diren puntura iritsi naitzela iruditzen zait. Mezu bezala ikusten dut nik hau etorkizunaren iraupenean gehiegi ez fidatzeko, baizik orainaz baliatzeko, nik sentitzen dudana, oraindik garatu gabe eta hein batean egiaztatu gabe daukadana, landurik eta une berean bukatu atera dezadan eta nire ostean utzi. Biak elkartzen baitira nire ustean. Ideietan osotoro menderatzen da norberarengandik kanpora landurik besteengana pasaraz daitekeena, eta beste mundukoa nahi bezain iluna izan badaiteke ere, nik ezin jo dezaket berdintzat hara igarotzearen aurrean bizitza luzean ideietan ahaleginduaren argitasun egiazkora iristea ala ez iristea? Indibidualtasuna ezin gal daiteke hain urrun, eta munduan bi norabide daudenez gero, aurpegia eta gibela bezala ehun historikoa eratzen dutenak, beti hausten den norbanakoen bizitza eta haren garapena, eta haren laguntzaren bitartez patuarekin loturik sortuaren katea, hala niri ez dit balio indibiduala puntu nagusitzat ikusteak, munduaren joana hein batean haren beharrezko ondorio delarik. Argitasuna nire aurrean geratzen zait honenbestez, nik uste ez badut ere, asko ez dudala huts egin, etengabeko lanerako zergati derrigorrezkoena eta zorioneko sentitzen naiz hori nire baitan norabide irmoan mugitzen delako.

Faustori buruzko zure gutuneko pasarte biziki interesatu zait. Kopiatu bidaltzen dizut, zuk seguru batere ez duzulako gorde, eta gauza inportanteegia da etorkizunean berriro hartara ez etortzeko. Saiatu zaitz berriro, ea (hori pasarte horretan ilun geratu zaidanez) zure oroitzapenetik erretira dezakezun, ea zuri produkzio modu hori

kontzientzia betez beti zurekin izan duzun, edo ea zuk hori garai jakin batean zuregana etorri bezala ikusten duzun? Nahi nuke nik lehenda-bizikoa sinetsi, graduari dagokionez desberdintasunak izan daitezkeen arren. Aristotelesen adierazpena gutxienez, hura erabat extremotzat ikus badaiteke ere, ez zaizu egokitzen inolaz ere zuri eta ezta ere zure obrei, ez Werteri ez Götzi ere. Zure sorkuntza askoz gehiago dator zure natura eta mundu ikuspegi osotik. Hau zugan poetiko izan daitekeela, eta zure sorkuntza naturaren eta munduaren loturaren bidez baldintzatua egon daitekeela, hortxe dago zure indibidualtasuna. Horregatik, zure sorkuntza gisa honetan izenda nahi nuke, alegia: neurri batean gai indartsutik oso astiro garatzen dela eta zuk zure bizitzako inolako arotan ezin alboratu zenezakeela hura ahalik ulergarri egitea. Izan ere, zuk ahalegin hori zure sorkuntzara bertara zuzentzen ez bazenuen ere, halere, hori zure naturaren bidez behartu behar zenuen, osagai sakonago eta izugarriago zuzendu, zure sorkuntzaren oinarrian zugan aurkitzen baitzen. Ikusten duzu, nire adiskide maiteena, ni hemen erabat sorkuntza indarraren izateaz mintzo naizela, ez ordea haren mende dagoen sorkuntza obren formaz. Horri buruzko kontzientzia garbiena etor zitekeen inolaz, eta etorri da zalantzarik gabe geroago, nahiz eta hau beste era batera ere gerta zitekeen. Izan ere, zurekin eta Schillerrekin batera bizi nintzen garai zoriontsu hartan beti iruditzen zitzaidan zu ez zinela bera baino pittin bat ere (esamolde hau onartzen badidazu) natura filosofatzaile eta gogoetatzaile txikiago. Bera, ordea, une berean zen gehiago dialektiko bat, zurean baitago dialektikaren bidez ezer bukatutzat ez ematea. Baldin, beraz, zugan iritzi, errakizun, printzipio, teoria azkar egituratu eta hitz bihurtzen bazen, ahalegin horretan bertan zu sentitzen zinen geldiarazia, zuk inolaz beste zerbaitekin eta zailago erdiestekoa, erdiestekora hurbilketa betikoan izatea baino ez gutxiago, eskatzen baitzenuen.

Hemen esaten dudana, Italiako zure bidaiaren adierazpena Gasteinen egin nuenean jada begien aurrean neukan. Ausardia irudituko zaio norbaiti baldin gizon aparteko bat eta beneraziozko eta maitasunezko sentimen guztiak harentzat direlarik, jendaurrean hein batean lauzkitu behar denean. Horregatik zuzentasunez muga neurritsuan geratu nintzen, bestela nik orduan jada pozik azalduko nuen nola datozen zure sorkuntzaren indarra, handitasuna eta berotasun pasiotsua nik puntuan altxatze astiroa deitzen nuenetik. Barkatu beharko dida-

zu, adiskide maiteena, berez argitu eta banatu ezin daitekeena argitzen eta banatzen beharbada urrutiegi joan banaiz. Baina gizakiaren edo, halakorik balego, hura baino goragoko sorkarien izaera espirituala nire ustez da arima bakarra munduan, bakoitza beretzat osotasun bat edo amaibako baten bat bakarrik nahi izanez gero, hortik atereaz eta hara itzuliz eta horretan ezin eutsi lekiokete beti berriro hara itzultzeko, zurea bezalako bati buruz pentsatzeko tentazioari.

Zure lanek Faustoren segidan daukatenaz nik sarri eta atseginik handienaz irakurri dut noski, baita saiatu ere hori nire barnean osotasun bat bezala irudikatzen. Baina horretan zulo asko geratzen dira, eta okerreko mukurutan kateatzen da. Horrek berak jada areagotzen du zuregandiko korapiloak askaturik ikusteko gogoa, eta zigilatzearen zure zigorra benetan haste beldurgarri bat da. Ez dakit jakin ere ea zuk dirudienez daukazu helbururako egokia den hartan lanean segitzeko tentazioan gehiago ez erortzeko. Gisa honetan zigilaturiko eskuizkribu bat edozein unetan berriro baliorik gabe utz daitekeen testamentu baten pareko da, alderantziz ez dago beste emaitza bat inprimatzeak bezala egilea bere produktotik urrundu eta apartatzen duenik. Izan ere, zuzen ulertzen badizut zuk ez duzula ikusi nahi Fausto osorik inprimaturik, arren eskatzen dizut zinez asmo hori alde batera uzteko. Ez iezaiozu zure buruari eragotzi atsegin hori, zeren hala baita dagoeneko hain sakon sentitua den sorkuntza bat ipintzea eta orain zentzu goragoko batean hartua izan behar du, ez iezaietu eragotzi zure ondoren bizirik geratzeko pentsamendua jasan ezin dutenei oso-osorik eza gutzeko poza.

Zure gutunean historikotasunari buruzko pasarteak biziki kezkatu nau, baina nire hau luzeegi atera zait dagoeneko, gutunaren luzetasun gehiegiak kalte egiten dio haien sarritasunari eta nik bihotzez desiratzen dut, isiltasun hain luzearen ondoren, aurrerantzean elkarren berri sarriago izan dezagun. Bete ezazu, adiskide beneragarriena, eskari hau, eta ongi bizi egiaz. Begirunerik maitatienaz.

Zure

Humboldt.

Tegel, 1832ko urtarrilaren 6a

Iturri oharrak idazki bakoitzarentzat

I. Gizakiaren prestakuntzaz

1. Gizakiaren prestakuntzari buruzko teoria. Zatia

1903an lehen aldiz Wilhelm von Humboldten *idazki guztien* lehen liburukian argitaratu zuen Leitzmann-en ustez, zati hau 1793an idatzia da. Horretarako arrazoiak dira ortografian ikusten diren aldakuntzak eta Humboldtek 1793ko urriaren 27an eta azaroaren 19an Körner-i idatzi zizkion bi gutunak. Lan berriagoek idazteko unea finkatzen dute Humboldtek eta Fichtek 1794ko maiatzean elkarrekin topo egin aurretik. Onartzekoa da, 1794ko udan edo udazkenean sortua dela. Izenburua Leitzmannek eman zion.

2. Jacobiren «Woldemarren» errezentsioa

1794ko irailean argitara zen estreinako aldiz in «Jenaer Allgemeine Literaturzeitung» Jacobiren nobelaren errezentsio hau.

3. Gizonezko eta emakumezko formari buruz

Schillerren «Die Horen» aldizkarian 1795ean anonimoki publikatu zen estreina, «*Sexu desberdintasunaz...*» artikulua (ik. beherago III. 2) hedapen eta jarraipen gisa.

II. Politikaz eta estatuaz

1. Estatuko konstituzioari buruzko ideiak, konstituzio frantses berriak aukera emanik.

Lan hau 1792an azaldu zen lehenbizikoz, izenik gabe, Berlingo hilerokoan. Humboldtek Friedrich Gentz-i egindako gutun baten kopia da, estilo aldetik zerbait ukitua; Gentzek hasieran Frantziako Iraultzari ongietorria eman zion, baina berehala zinez gaitzetsi zuen.

III. Antropologia konbaratzailea

1. Antropologia konbaratzaile baterako egitasmoa

Zati handiago hau Leitzmannek argitaratu zuen Wilhelm von Humboldten *idazki guztien* lehen liburukian 1903an, eta 1795eko abuztu/iraileko data jarri zion. Baina Humboldtek Friedrich August Wolf-i 1796ko abenduan eta 1797ko hondarretan egindako gutunetatik ateratzen da sorkuntza garai bezala 1797ko hasiera.

2. *Sexu desberdintasunaz eta natura organikoaren gainean duen eraginaz*

Humboldtek idazki hau 1794an egin zuen eta 1795ean argitaratu Schillerren «*Die Horen*» aldizkarian.

3. *Gizadiaren espirituaz*

Zati honen titulua Leitzmannena da; Wilhelm von Humboldten *idazki guztien* bigarren liburukian argitaratu zuen. Dirudienez, obra handiago baterako zirriborroa da; eta seguruenara geroago idatzitako azken oharraz aparte 1797ko abenduaren 26an, Parisen egina da.

IV. Estetika

1. *Goetheren Hermann eta Doroteari buruz*

Idazki hau Parisen sortu zuen 1797ko azken / 1798ko hasieratan. 1798ko apirilean bidali zien Humboldtek Schillerrri eta Goetheri. Schillerren kritikak aukera ematen dio Humboldti sarrera sakon lantzeko. 1799an argitaratu zen lehen aldiz. Hemen dakargun zatian, sarrera eta estetika orokor baterako oinarria jartzen duten lehen hamabi kapituluak datoz. Obraren harrera jendartean errezelozkoa eta gaitzespenezkoa.

V. Idazki historikoak

Antzinatearen eta bereziki Greziarraren ikasketari buruz

Lan honek 1793ko urtarrilaren erdialdekoa izan behar du. 1896an argitaratu zen lehen aldiz in «*Sechs ungedruckte Aufsätze über das klassische Altertum von Wilhelm von Humboldt, herausgegeben von Albert Leitzmann*», 3-33 orr. (1896).

VI. Gutun hautatuak

1. Körnerri, 1793ko azaroaren 19koa. Iturburu: F. Jonas (argitaratzailea): *Ansichten über Aesthetik und Literatur Von Wilhelm von*

Humboldt. Seine Briefe an Christian Gottfried Körner. Berlin, 1880.
8. orritik 13.era (laburtua)

2. Schillerri, 1795eko uztailearen erdialdekoa. Iturburua: Siegfried Seidel (argitaratzailea): *Der Briefwechsel zwischen Schiller und Wilhelm von Humboldt. 1. tomoa*, 1962. 65. orritik 67.era (laburtua)

3. Schillerri 1796ko otsailaren 15ekoa. Iturburua: *Siegfried Seidel* a.l. 2. tomoa, 28. orritik 35.era (laburtua).

4. F. A. Wolfi, 1796ko irailaren 23koa. Iturburua: Philip Matson (argitaratzailea): *Briefe an Friedrich August Wolf.* Berlin, 1990. 168. orritik 1771.era (laburtua).

5. Goetheri, 1798ko apirilaren hasierakoa. Iturburua: Ludwig Geiger (argitaratzailea): *Goethes Briefwechsel mit Wilhelm und Alexander von Humboldt.* Berlin, 1909, 49. orritik 56.era (laburtua).

6. Schillerri, 1798ko irailaren hasierakoa. Iturburua: *Siegfried Seidel* a.l. 2. tomoa, 189. orritik 212.era.

7. F. G. Welcherri 1823ko irailaren 29koa. Iturburua: R. Heym (argitaratzailea): *Wilhelm von Humboldts Briefe an F.G. Welcher.* Berlin 1859, 108. orritik 111.era.

8. Ch. Diederri 1824ko uztailearen 9koa. Iturburua: Albert Leitzmann: *Wilhelm von Humboldts Briefe an eine Freundin.* L. tomoa. Leipzig 1909, 140. orritik 143.era (laburtua).

9. Friedrich Gentzi 1828ko martxoaren 1.ekoa. Iturburua: Rudolf Freese, a.l. 723. orritik 724.era (laburtua).

10. F. G. Welcherri 1830eko urtarrilaren 29koa. Rudolf Heym, a.l., 151. orritik 152.era (laburtua).

11. Goetheri 1832ko urtarrilaren 6koa. Ludwig Geiger, a.l., 281. orritik 285.era.

Aurkibidea

HITZAURREA.....	7
KRONOLOGIA.....	33
BIOGRAFIA.....	39
OHARRA	41
I. GIZAKIAREN PRESTAKUNTZAZ.....	47
1. <i>Gizakiaren prestakuntzari buruzko teoria. Zatia</i>	47
2. <i>Jacobiren «Woldemarren» errezentsioa</i>	53
3. <i>Gizonezko eta emakumezko formari buruz</i>	75
II. POLITIKAZ ETA ESTATUAZ	107
1. <i>Estatuko konstituzioari buruzko ideiak, konstituzio frantses berriak aukera emanik</i>	107
III. ANTROPOLOGIA KONBARATZAILEA.....	115
1. <i>Antropologia konbaratzaile baterako egitasmoa</i>	115
2. <i>Sexu desberdintasunaz eta natura organikoaren gainean duen eraginaz</i>	147
3. <i>Gizadiaren espirituaz</i>	169
IV. ESTETIKA	181
1. <i>Goetheren Hermann eta Doroteari buruz</i>	181

V. IDAZKI HISTORIKOAK	207
1. <i>Antzinatearen eta bereziki Greziarraren ikasketari buruz...</i>	207
VI. GUTUN HAUTATUAK	229
OHARRAK.....	287

